


Anoetako herri-sinesmenak historian zehar

Juantxo Agirre-Mauleon

Mikel Errazkin Agirrezabala

María José Hernández

Ana Isabel Rodríguez





ARANZADI zientzia elkartea . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences

Babeslea:



Laguntzaileak:



Anoetako herri-sinesmenak historian zehar

SAN JOAN ELIZA, ANOETAKO KULTUR ONDAREA

Juantxo Agirre-Mauleon

ERLIJIO-BIZITZA ANOETAN ARO MODERNOAN

María José Hernández, Ana Isabel Rodríguez

HERRI-SINESMENAK ANOETAKO GIZARTE TRADIZIONALEAN

Mikel Errazkin Agirrezabala



Anoeta 2008

Gomendatutako katalogo fitxa / Ficha catalográfica recomendada

ANOETAKO

Anoetako herri-sinesmenak historian zehar / Juanxo Agirre-Mauleon ... [et al.]. – Tolosa: Lizardi Kultur Elkartea, 2008.

392 orr. : ir.kol. + 1 map. tolest. – (Tolosaldea historia bilduma, ISSN 1579-6299 ; 13) D.L. SS-1649-2008. – ISBN 978-84-935707-1-2

Liburuak hiru zati ditu: San Joan eliza, Anoetako kultur ondarea / Juanxo Agirre-Mauleon ; Erlizio-bizitza Anoetan Aro Modernoa / María José Hernández, Ana Isabel Rodríguez ; Herri-sinesmenak Anoetako gizarte tradizionalean / Mikel Errazkin
I. Errazkin Agirrezabala, Mikel II. Hernández, María José III. Rodríguez, Ana Isabel
1.Anoeta – Historia 2. Anoeta – Herri erliziozkotasuna 3. Arte – Historia – Anoeta 4. Kultur-antropología

C.D.U. 946.015.4 Anoeta
39:23/28(460.154 Anoeta)
726.54(460.154 Anoeta)

○



Argazkiak: Bestelako aipamenik ez badago argazkien egilea Aranzadi Zientzia Elkartea da.



Tolosaldea Historia Bilduma 13

Zuzendaria: Juanxo Agirre-Mauleon

Maketazioa: TAMTAM S.L.

Inprimatzen du: Gráficas Lizarra

BIHUR enpresak euskaratua 3. zatia ezik.

Liburuko 3. zatiaren euskara egokitzapen eta berrikusketa lanak Anoetako Udaleko Euskara batzordeko Ainitze Etxanizek eta Idoia Olanok burutu dituzte.

Dokumentazio lanak: María José Hernández, Juan Carlos Mora, Ana Isabel Rodríguez, David Zapirain

Planimetria lanak: Miren García Dalmau

ISSN: 1579-6299

ISBN: 978-84-935707-1-2

Lege gordailua: SS-1649-2008



Eskerrak:

Anoetako herritarak
Anoetako San Joan Parroquia
Anoetako Udal
Anoetako Kultura batzordekideak
Anoetako Euskara tzordekideak
Gipuzkoako Artxibo Orokorra
Donostiarri Elizbarrutiko
Artxibo Historiko
Gipuzkoako Foru Aldundiko
Lurralde Informazioa
Iruñeko Elizbarrutiko Agiritegia
Jone Miren Hernández
Fermín Leizaola
Santiago Piquero
Oscar Oliva
Karlis
Manuel Odriozola
San Telmo Museoa



Zuzendu gutunak helbide honetara:
Diríjase toda la correspondencia a:

ARANZADI zientzia elkartea

Zorroagagaina 11

20014 Donostia - San Sebastián

Tel.: 943466142 Fax: 943455811

e-mail: idazkaritza@aranzadi-zientziak.org

www.aranzadi-zientziak.org



Pozgarria da Udalarentzat Anoetari buruzko liburu berri bat argitaratzea, kasu honetan Anoetako Elizari buruzkoa.

Euskal Herrian beti agertu da bizitza politiko-ekonomiko eta erlijiosoaren arteko lotura estua, ekonomiaren muina izan den baserria eta Eliza fisikoki lotzen zituen bideak ere beti egon dira eta horretaz gainera, baserri bakoitzak bazuen bere zati propioa elizaren barruan, "jarlekua" deiturikoa, hor ehortzi ohi ziren etxe horretan zendutakoak eta elizan ospatzen ziren errito erlijioso guzietan etxeoandareari zegokion leku horren zaintza, kandekal jarri eta piztu hildako eta bizirik direnen harreman modura etab.

Gizakiak betidanik izan du bi behar asetzeko premia, batzuk ekonomiari lotua eta bereziki elikatzearekin lotu litekeena eta bestea izpirituala, heriotzaren aurrean hartu beharreko jarrera, jaiotzaren ospakizuna ezkontzak....errito guzti horiek gordetzen jakin du gizarte tradizionalak eta gorde den altxor horren bilduma litzateke liburu hau.

Herri antolamenduan beraz, bi ezaugarri hauek bistakoak ziren eta beste zenbait lan egiten ziren modu bertsuan, auzolanean alegia, egiten zen elizaren eraikuntza bera ere, bere bizitza izpiritualerako komunitateak behar zuen esparru fisikoaren eraikuntza hori ere komunitatearen ardura baitzen.

XX. mendearen erditik aurrera, industrializazioa tarteko teknologia Jainkotu delako, gauzak asko aldatu dira eta tradizioak leku egin behar izan dio gizakiak berak sortu dituen premi berriei baina, oraindik ere askorentzat bizitza izpiritual horrek garantzi handia du eta jakin du Elizak alderdi horri eusten.

Liburu honek beraz, nondik gatozen erakusten digu, non gauden ere badakigu eta hemendik aurrera ere gure ibilbidea izpirituala eta ekonomika egiten asmatuko dugulakoan nago, gerta bedi liburu hau etorkizunean izan daitezkeenen abiapuntua

Periko Peñagarikano Labaka
ANOETAKO ALKATEA

A handwritten signature in black ink, appearing to read "Periko Peñagarikano".

SAN JOAN ELIZA,
Anoetako kultur ondarea

Juantxo Agirre-Mauleon

AURKIBIDEA

1. SAN JOAN, ELIZA ETA KOMUNITATEA	14
1.1. Elizaren papera Anoetaren jatorrian	14
1.2. Errenazimentuko tenpluaren eraikuntza	16
1.3. Teilatua, etengabeko mantentzea	20
1.4. Leihoa edo barneko argiztatzea	22
1.5. Sakristia	24
1.6. Kanpandorrea	26
1.7. Eliz atariak, gunerik publikoenak	27
1.8. Denbora neurtzeko beharra, erlojua eraikitzea	29
1.9. Koroaren eraikuntza	30
1.10. Erretaulak. Anoeta Errenazimentuko korronte artistikoetara zabalik	31
1.11. Hiru aldare XVII. mendean	32
1.12. Erretaula barrokoen eraikuntza	33
1.13. Aldare nagusia	37
2. ERANSKIN DOKUMENTALAK: TRANSKRIPZIOAK	41
2.1. San Joan elizaren kaperak eta kanpandorrea eraikitzeko Pedro Ateaga harginarekin Anoetako udalbatzak egindako hitzarmena	42
2.2. Elizaren eraikuntzaren lanak “Cuentas de Fábrica” izeneko liburuaren eskuz idatzita daude. Argazkian XVI. mendeko bi pagina azaltzen dira eta ondoan idatzitakoaren transkripzioa	47

1. San Joan, eliza eta komunitatea



San Joan elizaren aldare nagusia.

1. SAN JOAN, ELIZA ETA KOMUNITATEA

Anoetako eliza balio artistikoa duen udalerriko eraikinik handiena da, eta Gipuzkoako herri elizetan gehien erabilitako eredu arkitektonikoan kokatu behar dugu. Eliza horiek harrizkoak dira, eta haientako gehienak XVI. mendean berreraiki eta berriztuaak izan ziren. Haren eraikuntzan, gainera, Anoetako herritarren desirak eta oparoaldiak ikusten ditugu, zeharka bada ere, baina ezagut ditzagun zehatz-mehatz eraikin honen historia eta bilakaera.

Anoetako elizak erdiko nabea du, kanpandorrean, sakristia eta iparraldeko eta mendebaldeko fatxadei atxikitako ataria. Erdiko nabeak hiru bobeda atal ditu, altuera berean, haietako bi terteletetakoak dira, eta erdiko bobeda gurutzeria bakunekoa. Bobeda hauetako nerbioak hareharri landuan eginak daude, eta nabearen aldeetatik atxikitako zutabeetatik abiatzen dira. Bobeden zama kanpoaldeko kontrahormek eusten dute, eta haien kokapena bat dator barruko zutabeenkin. Kanpoko fatxadek kalitate oneko kareharri landuzkoak dira eta barrualdea entokatua eta luzitua dago.

1.1 Elizaren papera Anoetaren jatorrian

Eliza da eraikin nagusia Anoetakoa bezalako baserri giroko komunitate batentzat. Bertan biltzen ziren herritarra eta bertan garatzen zituzten beren sinesmen erlijiosoak, fede kristaua, hain zuzen. Ez dugu ahaztu behar sinesmen hauek oso garrantzitsuak zirela, pertsonen bizi-ziklo guztia antolatzen zituzten-eta, hala nola jaiotza, ezkon-hitzak eta heriotza. Herritarren unibertsorik intimo eta bitalenari eragiten zion. Eraikinaren barnealdea diseinatuta zegoen erritual liturgikoak egiteko, baina, horrez gain, kanposantuaren funtzioak betetzen zituen.

Era berean, Elizak herriak zituen beste hainbat betebeharretarako ere erabiltzen zen, bestekar beste Udalaren bilerak egiteko. XVI.

mendean ez zegoen oraindik udaletxerik, eta kontzejua eliz ataria biltzen zen, 1571n adierazten den bezala: "...delante de las puertas de la iglesia parroquial de Señor Joan de la dicha tierra lugar acostumbrado para se juntar el concejo / vecinos de la dicha tierra en su concejo e ayuntamiento..."¹. Azken batean, eliza Anoetako komunitatea biltzeko eta hari nortasuna emateko elementu garrantzitsua zen, eta horren lekuko dugu herritarrek tenplu berria eraikitzeko egin zuten ahalegin ekonomiko eta sozial handia.

Esandakoarekin bat dator udalerriari lehen erreferentzia idatzian –1450eko, hain zuzen– ematen zitzaison izena: "...collación de Sant Joan de Anueta..."². Erdi Aroko dokumentu hauetan aipatzen den eliza oraingoa baino askoz ere txikiagoa izango zen, eta gaur egun ezagutzen dugun eraikinak hartzen duen espazioaren zati batean kokatzen zen. Dena den, zenbaiten ustez, elizaren aurreneko kokapena San Joan Goikoaren muinoa izan liteke, baina ez dago inolako lekukotasunik hori frogatzen duenik³.

Anoetako bezalaxe, Tolosaldeko eliza gehienak jatorrizko kokapenean berreraiki eta zabaldu zituzten. Kokapen aldaketa salbuespena litzateke; izan ere, teknikoki korapilatsuagoa eta ekonomikoki garestiagoa izateaz gain, ez zen ireNSTEKO erraza garai hartako gizartearentzat, arbasoak elizaren beraren barnean lurperatuta zituzten eta. Gutxi dakigu Erdi Aroko prozesu hauetaz; ondoren, XVI. mendean, San Bartolome parrokiaren adibidea dugu, Etxezarretak Ilbarra eraman zutena. Geroago, XVIII. mendean, San Martin parroquia Buruntzatik Andoainera ekarri zuten⁴. Hauexek dira, gaur arte ditugun lekukotasunen arabera, gure eskualdean kokapena aldatu duten elizen bi adibide bakarrak. Beraz, esku artean ditugun datuak aintzat hartuta, Erdi Aroko San Joan eliza gaur egungoaren toki berean zegoela esan behar dugu.




San Joan elizaren oinplanta
XVI. mendeko marrazki batean.

¹ A. D. P., C/81, 30 (13 aur.-19 aur.)

² A.M.T. S.C.N.5, S1, L1, Ex.P.3.


³ Garai bateko basiliza gaur egungo San Joan baseria bihurtu zuten, baina harengandik ez da geratu baserriaren kanpoaldean dagoen hilari bat baino (ZZEE Anoetako Baserriak, 2005, 306-308 or.).

⁴ Ilbarra Etxezarretako San Bartolomeren eraikuntza aztarna batzuk gaur egungo Etxezarreta baseria eraikita dagoen orubearen lur azpian egon daitezke. Izan ere, garai batean baserri honen inguruan egindako zenbait lanetan giza hezurren aztarna ugari aurkitu ziren. Aranzadiko arkeologo talde batek Buruntzako San Martin parroquia zaharra induskatu zuen, eta gaur egun bertan daude erakusgai aurkitutako aztarnak.



- Eliza / Iglesia
- Kanpandorrea / Campanario
- Sakristia / Sacristía
- 1. Ataria / 1º Pórtico (Orriñeta/Catqueta)
- 2. Ataria / 2º Pórtico

ANOETAKO SAN JUAN BAUTISTA ELIZA
IGLESIA DE SAN JUAN BAUTISTA DE ANOETA



- Eliza / Iglesia
- Kanpandorrea / Campanario
- Sakristia / Sacristía
- 1. Ataria / 1º Pórtico (Orriñeta/Catqueta)
- 2. Ataria / 2º Pórtico

1.2 Errenazimentuko tenpluaren eraikuntza

XVI. mendean parroquia gaur egungo toki berean dago, eta mendearen bigarren erdira arte ez dugu elizaren obrei buruzko zuzeneko dokumentaziorik. Badakigu 1552an kanpai berria egin zutela eta 1558an errenazimentuko bi erretaula enkargatu zituztela. Bi erretaula horiek ordaindu ahal izateko, Anoetako komunitateak ahalegin nabarmena egin behar izan zuen, eta horrek guztiak adierazten digu eliza berritzen ari zirela. Nolanahi ere, berriztatze lan hauek Tolosaldeko beste hainbat parrokiatan ere egin ziren XVI. mendean zehar, hala nola Amasan, Hernialden, Iruran, Ibarra eta Tolosan.

1571ko ekainaren 1ean, Anoeta hiribilduak Pedro Ateaga hargin maisuarekin sinatu zuen kontratu bat zortzi urteko epean kaperak burutzeko. "Kapera" terminoa ez dugu soilik ulertu behar elizako erdiko nabetik bereizitako eraikin independente bat bezala, elizaren nabean bertan dauden beste zenbait aldarek ere hartzen dute izen hori, kapera gisa erabiltzen baitira. Hartara, nabearen bobeda baten azpian kapera bat baino gehiago egon daitezke, eta, horregatik, dokumentu horren testuinguruan ulertzen dugu egin beharrekoa zela elizako bobedak estaltzea eta hormak mendebaldetik ixtea. Geroko beste zenbait dokumentutan ere adiera bera erabiltzen da: "kapera nagusia" aldare nagusia da, eta, horrez gain, beste zenbait deitura ere azaltzen dira, hala nola "elizako gurutzaduren azpian dagoen kapera"⁵ eta kanpandorrean, ordu rako hasita baitzegoen. Kontzejua elizaren aurrean bildu zen, eta Miguel Arrutarte erretoreaz eta Martin Aztina eskribauaz gain, beste herritar hauek ere bertaratu ziren: Joanes Arozetaea, Julian Aginaga, Domingo Goikoetxea, Miguel Luebana, Pedro Idiakaiz, Domingo Etxeberria, Joanes Argindeggi, Martolo Mendigibel, Martin Erausi, Domingo Agirre eta Joanes Sarobe. Bileraren gaia ez zen nolanahikoa, Anoetak zituen ondasun ekonomikoen zati handi bat elizaren obretan gastatu behar ziren eta⁶.

Anoetako komunitateak obraren gastuei aurre egin zien, batez ere, elizaren primiziak erabilita, alegia, eliztarrek elizari eman behar

zizkioten nekazaritza edo abeltzaintzako lehenengo uztak edo irabaziak. Herritarrek maisuaren lana ez ezik, harriaren garraioa ere ordaindu behar zuten, horrexegatik, berariaz adierazten zuten harriak, ahal zela, Anoetako harrobietakoa izan behar zuela, edo, asko jota, Tolosa, Hernialde, Ibarra, Irura edo Amasakoa; hau da, zenbat eta hurbilagotik orduan eta gastu gutxiago. Gainera, kontzejuak doan eskaientzen zituen harrobiak eta kare morteroa lortzeko harria egosiko zen karobietarako egurra. Halaber, oso garrantzitsua zen herri mendien erabilera, eta hargin maisuak adierazi behar izaten zuen zenbat haritz beharko zituen. Azkenik, hiribilduak kompromisoa hartzen zuen materialak garraiatzeko bideak erabiltzeko moduan jartzeko.

1571ko kontratuak dio hormek kareharrizkoak ("piedra lapiz caliza") izan behar dutela, pareta zaharren lodiera berekoak. Kanpoaldea harlanduzkoa izango da eta barnealdea harri luzituzkoa, elizaren aurreko aldea margotuta zegoen bezalaxe. Bobedak hareharriz itxiko ziren, aurreko aldean bezala, eta dobeletarako beste harri bat erabiliko zen: "...piedra que en bascuencue llaman tosca....". Euskarazko "troska" hori⁷ oso erraz lantzen da eta oso arina da, horregatik zen egokiena nerbioen arteko bobedetako tarteak betetzeko. Era berean, kontratu honetan jasotzen zen kanpandorrera elizaren gainerako hormen altueraraino jasotzea, leihor bat egitea eta elizaren ate nagusia moldura errromatarra eta guzti apaintzea⁸.

Zentzu honetan, adieraz dezakegu XVI. mendearren erdialdean gaur egungo tenpluaren eraikuntzaren lehen fasea burututa zegoela, alegia, elizaren aurreko aldea, bobeda eta guzti; horrez gain, 1558rako bi erretaula berri enkargatuta zeuden. Aipatzeko da halako lanek denbora dezente irauten zutela eta elizak zatika eraiki ohi zirela; gehienetan, Anoetako kasuan bezala, aurreko aldetik hasi eta atzeko aldean bukatzen zen. Askotan, obretan jarraitzeko baliabide ekonomikorik ezak haien denbora luzez geratzea ekartzen zuen.


Aurreko aldearen obra XVI. mendean kokatu behar dugu; haren hormek eta kontrahormek argi erakusten dute nabe bakarra eta

⁵ 1698-1670. DEAH,1238/003-00. 63 aur.-atz, 1238/002-00 163 atz.-164 aur.

⁶ A.D.P., C/81, 30 13 aur.-19 aur.

⁷ Karelari oso porotsoa, lantzeko erraza; zenbait iturbururen urek daramaten kareak denboran zehar pilatuta osatzen dira.

⁸ Alegia, erdi puntuko arkua; jada ez da eraikitzten arku zorrota edo gotikoa, errromatarren erara baizik, hau da, "erdi punta".



Eliz eraikinaren atal nagusiak. 1. fasea (XVI. mendearren erdialdea), 2. eta 3. faseak (1571-1649)



- Elizaren 1. fasea (XVI. mendearren erdialdea)
- Elizaren 2. fasea (1.571-1.649)
- Elizaren 3. fasea (1.571-1.649)

Planoak: Miren Garcia Dalmau. Arkeologia Saila. Aranzadi Z.E



San Joan elizaren ikuspegia orokorra

(Kafis)



Planoak: Miren Garcia Dalmau. Arkeologia Saila. Aranzadi Z.E.

[Light Gray Box]	Elizaren 1. fasea (XVI. mendearen erdialdea)
[Blue Box]	Elizaren 2. fasea (1.571-1.649)
[Light Green Box]	Elizaren 3. fasea (1.571-1.649)
[Pink Box]	Kanpandorrea (1.599-1.614)
[Dark Green Box]	Sakristiaren luzapena (1.686)
[Red Box]	Ataria (1.726)
[Dark Blue Box]	Bigarren ataria (XIX. mendearen 2. erdia)
[Dark Green Box]	Dotrinetaren obra (XX. mendearen bukaera)
[Dark Teal Box]	Kanpaindorrearen teilatua (XX. mendearen bukaera)

Eraikinaren fase nagusienak

garaia eraiki nahi zutela, Erdi Aroko eliza zatikatuaren kontzeptutik ihes egin nahi zuen espazio trinko eta homogeneo bat. Arkitektura horren bidez, kontzeptu bat islatu nahi zuten: baserrien jabeak ziren nekazari guztia berdinak ziren jainkoaren aurrean, eta denek zuten kontzejuko kide izateko eskubidea; alegia, oso urrutti garai bateko tenplu hierarkizatu hartatik, non aberatsek eta nobleek kapera propioak zituzten eta haientzako besterik ez ziren espazioak mugatzen zituzten, aldare eta hilobi pribatuen bidez estatusa nabarmenkeriaz erakutsiz. Badira aurreko arkitekturaren zenbait zantzu, esate baterako, elizaren aurreko aldean dagoen ojiba arkua, estetika gotikoak XVI. mendea ondo sartuta egon arte Gipuzkoako arkitekturan iraun izanaren ondorio gisa.

Lehen fase honen ondoren bigarrena etorri zen, oso nabarmena dena erdiko nabeko kanpoko hormetan ikusten den zartadura edo hausturarengatik. Nabarmendu beharra dago erronka handia zela Anoetako kontzejuarentzat, elizaren patroia zen aldetik, tenplua eraikitzeko baliabide ekonomikoak izatea, eraikinaren jabea eta mantentzearen arduraduna izatea ere bazkarrena, beste zenbait eskubideren artean. Dirurik ez zutenean obrak atzeratu egiten ziren, maiz harrobiak aldatzen zituzten edota hargin maisu berriak kontratatzeten zituzten, eta hori guztia nabaritzen da hormetako lanketa eta harri mota ezberdinatan.

Bigarren fasea Pedro Ateaga hargin maisuaren lana izan zen 1576ra arte, urte horretan ordezkatu baitzuten, itsua zenez, ezin baitzituen obrak behar bezala zuzendu. Urte horretatik aurrera gordetzen dira parrokiaren artxibategiko kontu liburuak, eta haiei esker ezagutzen ditugu zehatzago elizaren eraikuntzaren bilakaera.

Dezente falta zen oraindik eraikina bukatzeko Pedro Ateagak lana utzi zuenean; hain zuzen ere, oraindik ez zegoen egina mendebaldeko itxitura, eta oraindik ez dago erabakita portada edo ate nagusiaren diseinua ere, eta, horretarako, Anoetako ordezkaritza bat Leaburura joan zen, herri hartako parrokiaren atea edo sarrearen arkua bertatik bertara ezagutzeko asmoz. Hargin maisuak lana utzi izanak arazo larria ekarri zien Anoetako herritarrei, ezin-

bestekoa baitzuten eliza elizkizunetarako eta kristau bizitzarekin jarraitzeko. Hala, bi faktorek baldintzatzen dute obren bilakaera: elizkizunetarako beharrak eta gastuei aurre egiteko ahalmen ekonomikoak, eta horiei zor zaie, beraz, lanen aurreratze aldakorra. Lehenbizi aldarearen ingurua edo elizaren aurreko aldea bukatu zen, teilitua, bobedak eta guzti, eta obrak atzeratu baziren ere, elizaren zatirik garrantzitsuena erabiltzeko moduan zegoen jada. Testuinguru honetan kokatu behar ditugu, elizaren obra bukatuta ez dagoen arren, teiliberritze lanei eta estalkien konponketei dokumentuetan egiten zaizkien etengabeko erreferentziak. Esate baterako, 1576an lau langilek elizako teilkak berritu zituzten, 1577an Maria Kalzadari 200 besakada ohol eta iltze ordaindu zizkioten, haien gainean teilkak jartzeko, 1603an teiliturako zura erosi zuten, etab.; alegia, aipamen asko eta asko daude.

San Joan Parroquia ez dute oraindik bukatu XVI. mendearren azken laurdenean eta XVII. mendeko lehen hamarkadetan. Berrogeita hamar urte baino gehiagoko aldi honetan ordainketa agindu ugari egin ziren elizako eraikuntzarako harrien inguruan. Amasako hargin maisua den Domingo Legarbarrenak ordezkatu zuen Pedro Ateaga bigarren fase honetan, eta lan horretan aritu zen 1580tik harik eta 1610ean bere seme Juanes haren ordez jarri arte⁹. Lekukotasun idatzi asko ditugu Legarbarrenaren obren gainean 1580an lanari ekin zionetik, gehienak lanen ordainketen ingurukoak.

Dena den, ez zen istilurik falta izan, Anoetako bi bizilagun, Domingo Arrutarte eta Domingo Arozetxea, hain zuzen, garai hartan alkatea izan zen Domingo Iturgaizagari obra ematearen kontra agertu baitziren: "...que el dicho rector y manobrero sin dar parte a la dicha tierra ni a los vecinos patronos della queria dar la obra de la dicha iglesia para que fiziese y acavasse a Domingo Yturgaiçaga vezino de la dicha tierra alcalde pedaneo en ella este presente año a examen de oficiales sin ser el dicho Domingo maestro cantero ni aver entendido fasta agora de partes que ellos se cupan en ningunas obras de iglesias ni templos y aquello hera en gran perjuicio de la dicha tierra y su iglesia y no lo podian ni devian fazer sin que primero hubiese consentimiento de la dicha

⁹ Dokumentazioan hiru era hauetan agertzen da: "Domingo de Marrubiça y de Legarbarrena "Domingo de Legarbarrena", "Domingo Legarra" eta "Domingo de Legargoyena".

tierra y de los vecinos della por ser como ellos patronos merelegos de la dicha yglessia y que para hazerse la dicha obra como ellos pretenden primero hera necessario ponella en almoneda publica como se costumbra en todas las demas villas y lugares desta provincia de Guipuzcoa y al que por menos cantidad la quisiere hazer a tal se le aya de rrematar quanti mas que queriendo tomar la dicha obra maese Juan Sarove vecino de la tierra de Alquiça maestro cantero y persona que antes a fabricado y obrado yglesias de mucha mas obra que la dela dicha tierra e qual quiere dexar del esamen que fizieren de la dicha obra los maestros sesenta duca-dos a la dicha yglesia a su fabrica y esto no se devia dexar de admittir...¹⁰. Ikusten dugunez, Anoetako zenbait herritar mokoka ibili ziren obra handi honen lizitazioaren moduarengatik, ez baitzeuden ados alkateak obra bereganatu nahi izatearekin.

Ajidanez, auziak ez zuen jarraipenik izan, geroago Domingo Legarbarrenak eraikuntzaren ardura duela egiaztatzen dugu eta. 1603an kontrataua sinatu zuen, izan ere, "...el avia tomado de azer y labrar la obra de canteria de la iglesia parrocial del señor san joan de la tierra anoeta...". Esan bezala, obra luzatu egin zen, Domingo hil eta haren semea jarraitu zitzaien; dena den, elizako agintarien pazientzia agortzen ari zen pixkanaka, horregatik 1625 ea 1626ko artzain bisiteten lehenbailehen bukatzea eskatu zuten: "... se le requiriessie al maesse Juan de Marrubiça y Legarra cantero que acabase la obra de dicha yglesia y que en caso que no lo hiciesse se buscase otro maestro de satisfacion que la acabase haciendose tasacion de la obra que tiene echa para ver si la cantidad que tenia recibida por quenta della era mas de lo que se debia y por quanto nos ha constado que el dicho requerimiento no se le ha hecho juridico ni el suso dicho acaba la dicha obra mandamos a don Miguel de Idiaquez vecino de la villa que dentro de nuebe dias primero siguiente por ante escribano público y real le agan requerimiento...". Horiek horrela, Miguel Idiakez erretoreak Francisco Landa Tolosako hargina izendatu zuen obrak egiazatzeko, eta Juanes Legarbarrenak, berriz, Amasako Juan Martinez Ojandola. Obren azken tasazioa 22.410 errealekoa da, baina beharrezkoa zen oraindik elizako hormak

barrualdetik lutztea, eta ezin zen hori egin nabea itxi arte, eta obra hori parrokiaren kontura egin behar zen. Urte horretatik aurrera, Juanes Legarbarrenak obrak bertan behera utzi zituen, eta hemendik 1648ra arte hainbat ordainketa aginduren berri dugu.

Tenpluaren eraikunza ia amaituta dago, eta falta ziren hargintza lanak Miguel Landa maisuak bukatuko zituen 1627 eta 1631 artean; azken urte horretan, hain zuzen, aldareko oihalak garbitu eta atondu eta korua eraikitzeo obrak hasi ziren. 1649an, berriz, nabearen erdiko korridorea txukundu eta bi bataiarri, harrizkoak –“aspazonada y bruñida”, lekukotasun idatziaren arabera– erosi zitzuten elizako bi sarreretan jartzeko. Obra handia bukatu egin da azkenik, eta une honetatik aurrera barnealdea egokitzea eta mantentze lanak aurrera eramatea izango dira eginkizun nagusiak.

1.3 Teilitua, etengabeko mantentzea

Behin eta berriz azaltzen zaizkigu dokumentuetan teilituaren mantentze lanen gastuak: konponketa txikiak, teila berriak, teilituko zirrikituak estaltzeko karea, etab. 1647an, esaterako, bi mila teila berri jarri zitzuten, eta horretarako hamalau lagun aritu ziren lanean. Anoetan ez zegoen teileriarik, eta teilkak eta adreiluak Arzabaltzako (Tolosa), Akezkoako (Zizurkil) eta Altzoko teilerietan erosi eta leku haietatik gairriatu behar izaten zitzuten.

Elizako teilitua bobedetatik bereizita dago. Hau da, elementu arkitetoniko horietako bakoitzak independentea da, eta bien artean tartea dago, konponketak egiteko lekua izan dadin. 1777an bobedetako hutsunera iristeko ate bat egin zuten¹¹. Gutxiago agertzen dira bobedetako mantentze lanei buruzko aipamenak teilituetakoak baino, eta, oro har, igeltserotzako obra txikiak izaten diren arren, 1728an egindako mutua handiagoko lan baten berri dugu: bobedak euskarri zitzuten teilituko frontal batzuk altxatu zitzuten, eta horretarako “txinela” batzuk eta zurezko pieza berriak sartzu zitzuten. Amasako Ignacio Iriarte arotz maisuak egin zuen obra, eta Jose Landa peritura izan zen lana gainbegiratzearen arduraduna¹².


¹⁰ GAO, PT sorta 90; orriak 97a. - 98a.

¹¹ 1603. DEAH, 1238/003-00 224b atz.


¹² DEAH, 1241/006-00 s.f.

Euri erauntsiek kalteek egiten zituzten estribu eta kontrahormetan; hala, 1648an, haien koponptzea agindu zuten, "para evitar el daño que hacia el agua calándoles y desvirtuando al mortero"¹³. Beranduago, 1659an eta 1670ean, estribuen eta erlaitzaren obrak¹⁴ lehenbailehen amaitu behar zutela adierazi zuten berriz ere. Izan ere, estribuen gaineko hormak aztertuta, konturatzent

gara goiko aldean harri mota eta aparailua desberdinak zirela, eta datu hori bat dator dokumentazioan zentzu honetan behin eta berriz topatzen ditugun aipamenekin. Hartara, esan dezakegu erlaitza eta aurreko aldeko estribuetako goiko aldea eta elizaren bigarren zatia XVII. mendearen bigarren erdian bukatu zutela.



Planoak: Miren García Dalmau. Arkeología Saria. Aranzadi Z.E.




(Kalis)

- Eliza / Iglesia
- Kanpandorreoa / Campanario
- Sakristia / Sacristía
- 1. Ataria / 1º Pórtico (Doctrina/Catequesis)
- 2. Ataria / 2º Pórtico

¹³ DEAH,1238/002-00 128 atz.

¹⁴ DEAH,1238/002-00 148 aur. eta 163 atz.-164 aur.



Elizaren teilitua eta bobedak 1867. urteko marrazki batean. DEAH, CO24

(Oscar Olma)

1.4 Leihoa edo barneko argiztatzea

XIX. mendearren bukaerara arte ez zegoen argi elektrikorik, eta, ondorioz, parroquia hau bezalako espazio handi bat argiztatzeko, kontuan hartuta oso trinkoa zela eta oso lehio gutxi zituela, kandelen eta krisei-luen argi urriaz gain, kanpoaldera ematen zuten lehioetako argi naturala erabiltzen zen.

Erdiko nabeak hiru lehio ditu: handiena aurreko aldean dago, eta zuze-nean argiztatzen du aldare nagusia eta presbiterioa. Lehio hau hare-harriz egindako arku zorrotza da, eta eraikuntzaren lehen fasean egina dago, alegia, 1571 baino lehenagokoa da. Oraindik ikus daitezke arkiboltak eta kolomatzoak, higatukeak badaude ere; hala ere, traizeria gerokoa da, XIX. mendearren edo XX.aren hasierakoa segur aski¹⁵.

Bigarren lehioa nabearen beste aldean dago, hegoaldera ematen du, eta tenpluaren eraikuntzaren bigarren faseari dagokio, Domingo Legarbarrena eta bere semeak egin zutenari. 1580 eta 1610 artean eraiki zen, seguruenik. Lehio hau ere hareharrizkoa da, baina arkua peraltatua eta molduratua da.

1649an leihoa bat eta beirate bat egin zen sakristiaren gainean, aldare nagusiari argia emateko. Leihoa egiteko, sakristiaren teilitua jaitsi egin zen, baina itxi egin zuten berriz ere¹⁶. Oraindik sumatzen da hegoaldeko fatxadan obra honek harlanduzko horman utzitako arrastoa.

Sarrera nagusiaren gaineko bao abozinatu handia, koruan-ren gainean dagoena, 1726an egin zen, Miguel Saizarren diseinu baten arabera. Hutsunea beirate batekin eta burdinazko hesi batekin estali zuten. Diseinuaren marrazkia edo aztarnak gorde dira, eta ondoko irudian ikusten ditugu. Haren bidez dezente hobetu zen koruaren eta nabe nagusiaren argiztapena.




(Carlis)

Iparraldeko sarrera.


¹⁵ Traizeriaren eta lehioaren arteko loturaren etenak eta erabilitako material eta konserbazio egoera desberdinak eraman gaituzte ondorio horretara. Beste era batera ikusten ditu gauzak M. Arrazola historialari entzutetsuak, haren uezetrazeria aurreko tenplu gotiko batena baita. ARRAZOLA ECHEVERRIA, M. ASUNCION. Renacimiento en Guipúzcoa. I. Liburukia. Arquitectura. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia , 1984. 231. or.

¹⁶ DEAH,1238/002-00 129 aur.



1728ko proiektuan Miguel Saizarren lehioaren marrazkia
DEAH 1241/001-00

(Oscar Oliva)



Koruaren gainean gaur egun dagoen lehioa, hain zuzen ere 1728an egindakoa.

(Karlis)



Aldare gainean dagoen XVI. mendeko lehioa.

(Karlis)



Erdiko nabearren lehioa.

(Karlis)

1.5 Sakristia

Sakristian liturgietarako prestaketak egiten dira, eta bertan apai-zak mezetarako jantzi eta kulturako apaingarriak eta gauzak gor-detzen dira. Eskualdeko eliza gehienetako sakristiak elizaren aurreko aldeko kanpoaldean atxikitako gela bat izaten dira, eta aldare nagusirako sarrera zuzena izan ohi dute. San Joan parro-kia ere molde horretako da: aurreko aldea eraiki eta gero, albo-ko fatxadari sakristia bat atxiki zitzzion; isurkin bateko teilatua du, tertzeletetako bobeda batekin.

Obra hau errenazimentuko tenpluaren eraikuntzaren lehen fase-an egin zen, eta 1580an teilkak berritu ziren. Denborarekin, parrokiaren beharretarako nahikoa ez zela konturatua eta XVII. mendean zehar albo batekin zabaldu zen, sakristiatik korura zuzenean igarotzea ahalbidetuz. 1670eko artzain bisitaren agin-dued baimena eman zuten sakristia eliz parrokiari atxikitzeko; horretarako, ate bat ireki zuten horma nagusian, haren maila berean, eta horretatik, korridore bat abiatzen zen koruraino. Horrenbestez, apaizak askoz erosoago ibiliko ziren elizaren barruan¹⁷. 1686an burutu zituzten sakristiaren zabaltze lanak¹⁸.

Zabaltze lan hauez gain, beste hainbat obra txiki egin ziren; esate baterako, 1609an zorua, teilitua, oholak eta zurajea berritu zituzten; 1610 eta 1614 bitartean sakristia luzitu zuten igeltsu eta karea-z; apaingarriak gordetzeko kutxak erosi zituzten; Juan Agirre har-gin maisuak sakristiako bobeda konpondu eta leihoa bat eta horma bat eraiki zituen; 1649an ispilu bat erosi zuten; Antonio Lizarragak 1780an sakristiaren barnealdea zuritu zuen, etab.

Beraz, gaur egungo sakristia goian aipatutako obra horien guz-tien emaitza da. Hormen kanpoaldea kareharrizkoa da, parro-kiaren gainerako guztia bezala. Barrualdetik, lehen zatian, tertze-letetako bobeda bat ikusten dugu, hareharrizko nerbiroduna, nabe-koaren antzekoa. Bigarren zatian, ertz bobedak ditugu, XVII. mendeko zabaltze lanei zor zaizkienak. Kanpoko fatxadetako harri ilaretan ere garai desberdinaren arteko aldea sumatzen dugu;

lehen harlanduaren eskantzuek lehenbiziko sakristiaren muga erakusten digute.

Barrualdea karez zurituta dago guztiz; nabarmenzekoak dira apaingarriak gordetzeko tiraderadun armairua, segur aski 1614an aipatzen dena, eta marmol beltzezko azpil bat, paretari atxikita. Bestalde, San Isidroren, San Joseren, Paduako San Antonioren, Jesusen Bihotzaren eta Sortzez Garbiaren irudi erlijiosoak ez dira balio handikoak, eta XIX. mendeko bukaerako eta XX. mendeko hasierako irudigileen tailerretakoak dira. Horrez gain, sakristiaren erdian, Kristo Gurutziltzatuaren irudi bat duen aldare bat dago, XIX. mendearen bukaeran edo XX.aren hasieran egina.


Sakristiatik barrena, pulpitura eta korura igaro daiteke zuzenean, XIX. mendeko balaustreak dituen bi eskailera atal igo ondoren.




Sakristia.

¹⁷ DEAH, 1238/003-02, 163 atz.164 aur.


¹⁸ DEAH, 1238/003-03, 32 aur.-34 aur.



Sakristiaren barruko ikuspegia orokorra.



XVII. mendeko sakristiaren bobeda.



XVI. mendeko sakristiaren bobeda

1.6 Kanpandorrea

Esan bezala, 1571ko kontratuaren adierazten da Pedro Ateaga hariginak kanpandorrearen altzatuh behar duela elizako gainerako hormen altueraraino. Une horretatik aurrera, eta 1598raino, kanpandorrearen gastuen inguruko hainbat aipamen agertzen dira dokumentuetan: sarraila berri bat jartzea, gurutzea zuzentzea, dunba konpontzea, konponketak oro har, etab.

1577 eta 1578 urteen artean zehatz-mehatz jarrai dezakegu dorrearen oinaldean egiten ari zen kanpai berri baten fabrikazio prozesua¹⁹. Lehenbizi, pertsona bat behar zen metala urtzeko adreiluzko labe bat egiteko, eta horretarako Villabonako Joanoto Iñiguez kontratatu zuten. Labe horretan kobre zaharrezko 13 kintal urtu ziren eta “platin” kobrezko kintal bat; urtutako metala labarearen ondoko zulo batean sartutako kanpaiaren forma zuen molde batera erori zen. Moldea egiteko, oholak, gantza, argazaria eta simaurra behar izan zuten. Ondoko eskema grafikoan ikusten dugu prozesu osoa.

1598an, berriz, kanpaiak lurrera jaitsi eta dorrea eraitsi zuten. Kanpandorrearen egoera ez zen oso ona izango, inondik ere, 1595an habetu behar izan zuten eta. Hori dela eta, pentsa dezakegu kanpandorrea ez zuela Pedro Ateagak eraiki, kontratuaren dokumentuan agertzen den bezala²⁰. Horrez gain, zentzu berean esan daiteke elizako nabe nagusia ez zegoela oraindik bukatuta, eta kanpandorrea hari atxiki zitzaiola.

Gaur egungo kanpandorrea 1599 eta 1614 urteen artean eraiki zen, eta tarte horretan, hainbat konponketen ordainketen aipamenak aurkitu ditugu, eta halaber teilarako erabilitako zurajearena eta azkenik kanpaiak jasotzearena.

Kanpandorrea kareharri landuzkoa da, eta nabearren ipar-men-debaldera atxikita dago, kontrahorma bat estaliz. XX metro koa-

droko azalera du, oin karratukoa, eta XX metroko altuera. Dorrearen barrualdean zurezko eskailera bat dago, eta azken plataforman kanpaiak topatzetan ditugu; dokumentazioaren arabera, hiru izan ziren: bi handi eta txiki bat. Dorrearen hiru aldetan erdi puntuko arku bana dago, hegoaldean izan ezik, non 1783an irekitako leihoa txiki dinteldu bat dagoen, segur aski 1783an eraikia²¹. Elizako nabearren barnealdean dagoen ate dinteldu batetik sartzen da, eta bertatik abiatzen da harrizko hormetan bermatutako zurezko eskailera bat. Eskailerak dauden zatian, ertz alakatuak dituzten zenbait bao abozinatu irekitzen dira altuera desberdinatan²². Teilateku gailurrean burdinazko gurutze bat zegoen. Gaur egungo estalkia porlanezkoa da, lau isurkikoa, XX. mendearren bigarren erdian eraikia²³.



Kanpandorrea

¹⁹ DEAH,1238/002-00 s.f.

²⁰ DEAH,1238/002-00 s.f.

²¹ DEAH,1238/003.00 235 atz.

²² Bao tipologia hau eskualdeko eliz parrokiak gehienetako kanpandorrean aurkitzen dugu, hala nola Amasa, Alkizan, Leaburun, Sorabillan, etab.

²³ Gaur egungo estalkia oso funtzionala den arren, haren diseinua eta materiala eraikin osoaren mailaren oso azpitik dago.

1.7 Eliz atariak, gunerik publikoenak

Elizaren nabea inguratzen duen arkupea isurialde atlantikoko landa eremuetaiko elizen oso arkitektura elementu berezia da; zurezko estalki handiak izan ohi dituzte, teilaz estalita. San Joan parrokiak ere askotariko jardueratarako erabili diren arkipeak ditu; lehen aipatu bezala, kontzenjuaren biltoki zen, antzina.

Anoetari buruzko txostenetan, *çimiterio* (1598), *cimiterio* (1631), *cementerio* (1649), *zimenterio* (1682), *zimentterio* (1701), eta *cimenterio* (1767) izenak hartu ditu; izan ere, lur emateak egiten zituzten antzina, elizarekin mugan zeuden leku horietan. Hilerrria elizaren fatxaden ondoan zegoen, harik eta XV. mendean gorpuak eliz barruan lurperatzen hasi ziren arte. Hori dela eta, eutsi egin zitzaion toponimoari, XVI. mendean elizaren kanpoan lur ematerik egiten ez bazen ere.

1598. urtetik aurrera, arkueei buruzko aipamenak ditugu, eta Erdi Aroan oso ugariak dira Anoetako parrokiako “zimenterioak” konpontzeko eta horietan teila berriak jartzeko lanei buruzko aipamenak. Txostenetan bi arkupe bereizten dira; batzuetan, “atari aurreko zimenterioa” aipatzen dute, 1689tik²⁴ aurrera harriztutu beharrekoa, bai eta elizako bigarren “zimentteriorako”²⁵ egin behar izan zituzten teilatu eta eserleku berriak ere; harrizko oinak omen zituzten azken horiek. “Zimenterio nagusiaren” egoera kaskarrari buruzko 1713ko aipamen bat ere badago, eta Maria Munita Goikoetxeako hori konpontzeko emandako dohainari buruzkoa ere bai²⁶; 1729an, elizaren alboko hormari erantsitakoari deitzen zitzaion hilerra zaharra²⁷.

Elizaren ate nagusiaren inguruan arkupe bat omen zegoen, eta sakristiaraino iristen omen zen; elizaren hegoaldeko horman

estalkiari eusten zion zurezko egituraren harrizko oinarriak ikusten dira oraindik ere. 1726ko Artzain bisitari esker, arkupe berria egin zuten elizako ate nagusiaren aurrean. 1728ko maiatzaren 16an, Juan Miguel Lizarraga Ateaga apaiza, Juan Antonio Arrutarte alkatea eta Juan Antonio Goieneta morroia bildu ziren, eta arkupe berria egiteko baldintzak hitzartu zituzten. Hiru isuriko estalkia, hiru oineko zabalerako hormak, uharrizko lurra, hormetara atxikitako harrizko bankuak, eta obra-tokian leundutako egurrak eduki behar zituen, zorionez kontserbatu egin den plano baten arabera; jarraian emango dugu horren berri.

Eraikin berria egiteko, lur zati txiki bat eroi behar izan zitzaien Juan Bautista Munitari, bai eta 4.265 teila ere Zizurkilgo Akezkoa teilerian, eta 83 libra berun Tolosako Santa Klara komentuko teilatu-hodirako. Anoetako herritar Martin Arano Etxeberriak hartu zuen hargintza eta zurgintza lanen ardura²⁸. 1844. urtean jarri zituzten arkupeko lauzak, eta Jose Maria Azpiroz maisuak egin zuen projektua; azken lan hori kobrezko 1.724 erreal kostatu zen.

Elizako ate nagusiaren aurreko arkupea 1726koa da, itxuraldatu eta hondatu samar badago ere, XX. mendearen amaieran egindako berritze-lan batzuen ondorioz. Azken lan horiekin, estalkia igo eta hormigoizko beste oin bat eraiki zuten barruan, kristau ikasbiderako; horregatik, itxuraldatuta eta balioa galdu-ta daude fatxada eta atari nagusia.

Beste arkupe zutabeduna, elizaren albokoa, estilo neoklasikoko da, XIX. mendearen erditik aurrerakoa. Zutabeetako grabatuen kalitatea azpimarratu behar da; esan behar da, gainera, horien itxura eta harlandua inguruko eraikinekin lotzen dituztela, Tolosako Euskal Herria plazarekin eta Tolosako San Blas ermitako elizpearekin²⁹, besteak beste.

²⁴ DEAH,1238/003-00 40 atz.



²⁵ DEAH,1238/003-00 78 aur.

²⁶ DEAH,1238/003-00 40 atz.


²⁷ DEAH,1238/003-00 186 aur.

²⁸ DEAH,1238/003-00 175 aur. 176 aur.

²⁹ DEAH,1241/001-00 s. f. Anoeta.



Elizaren arkuea edo zimiterioa. Argazkian XX. mendeko berrikuntza egin gabe eta ondoan eraikuntzaren jatorrizko planoak 1844-150 DEAH 1241/023-00.



1.8 Denbora neurtzeko beharra, erlojua eraikitzea

Anoetako parrokiako erlojua Gipuzkoako zaharrena da; 1781ean eraiki zuen Pedro Jose Muñoa Zumek, Tolosako erlojugile maisuak. Erlojua ezartzeko arrazoiak ezin hobeto azalduta agertzen dira garai hartako agirietan; osorik eta hitzen hitz dituzue jarraian; izan ere, Anoetak ez zuen "... *relox que sirva para el gobierno de aquel pueblo no solo en la celebracion de los dibinos oficios y su asistencia sino que otros repetidos fines tan urgentes que insinua la notoriedad, siendo en dicha villa la necesidad mas estrecha por razon de componerse de varios caserios distantes cuyos habitadores llegan tarde a las funciones de Yglesia fiados en los relojes comarcanos que no siempre corren iguales con el de la sala del rector de que hasta aqui se valen siguiendose tambien que por igual motivo empiezan el acarreo de remos y otros materiales antes de la media noche del dia festivo causando bastante nota y tambien desconsuelo en el buen orden de subministrar a los enfermos las medicinas en sus dolencias y estimulados mis partes del justo deseo de ocurrir a tan graves incombenientes espirituales y temporales bajo la aprobacion de vuestra merced apetecen se fabrique y coloque un nuevo relox en el campanario de dicha iglesia...*"³⁰.

Maisu erlojugileak honako hau ezartza hitzartu zuen elizako nagusiak "...*relox seguro y permanente con cuerda de ocho dias por este mas venjoso que de las veinte y quatro horas de cuerda... trabajando este con cuerda de ocho dias se atajaran varios incombenientes el uno haviendo con cuerda de veinte y quattro horas ha de estar sujeto una persona todos los dias para efecto de cuidar y dar la cuerda y por este medio siempre tendria mas aberias y poca permanencia, y el otro entrando muchas veces personas que no saben manejar suelen tener mucha alteracion en las horas por no poder arrelar el tiempo necesario en levantar las pesas ya por el viento y por queria que al cerrar y abrir la puerta del sitio podria introducir el viento y ya al cuidador de dicho relox se le deveria pagar mas cantidad por la ocupacion que tendria todos los dias pero trabajando con ocho dias de cuerda se asegura el menor dispendio que en su cuidado se ha de tener ede tal forma que se aorra por esta via la mitad del salario anual del cuidador y se ase-*

gura tambien mejor la permanencia y conservacion de dicho reloj..."³¹. Ikusten den bezala, aintzat hartu zituzten erabilgarritasuna eta erabilerraztasuna, erlojuaren ezaugarriak aukeratzeko orduan.

Erlojua eta horren makina ezartzeko, eraikin berri bat egin zuten kanpandorreko dorreak eta elizaren alboko hormaren arteko angeluan; begi-bistakoa da ondoren egindako lana dela, kareharrizko harlanduz egindako hormei erantsitakoa. Erlojuaren makinaren deskripzioa oso zehatza da, "... *ha de tener buen armazón sus ruedas ha de ser diez, las primeras han de llevar veinte y dos onzas de diametro y su grosor ha de ser doce lineas que en estas ha de llevar dos contruerdas de fierro con sus muelles y aldabillas para mantener la pesa. Las segundas ruedas han de llevar de diametro doce onzas y de grueso la catalina ha de llebar seis onzas de diametro y quattro libras de grueso, el armazón en sus ahujeros o mobimientos de los ejes ha de llebar unas piezas de bronce remachas a las barras para que ande con mas suabilidad. El referido relox llebara su pendula Real y excepto las dos contrarruedas todas las demas han de ser de bronce y de esta suerte sera permanente y seguro y tendra de coste con cuerda de ocho dias quatrocientos ducados de a onces reales de vellon cada uno...*"³².

Erlojuak 1782ko ekainaren 24rako egon behar zuen amaituta, San Joan egunerako. Erlojuaren mantentze-lanen lehen arduraduna Lucas Antonio Urkola izan zen, eta 1782tik 1799ra arte bete zuen lan hori; gaur egun, XXI. mendearren hasieran, Manuel Odriozola da horren arduraduna. 225 urte ditu ia erlojuak, eta funtzionatu egiten du oraindik; teknologia berriei eta satelite bidez gidatutako erlojuei esker, baina, litekeena da denbora gehiegiz ez jarraitzea eskuz funtzionatzen.



Erlojua

³⁰ DEAH,1241/010-01.Anoeta.

³¹ DEAH,1241/010-01.Anoeta.

³² DEAH,1241/010-01.Anoeta.

1.9 Koroaren eraikuntza

Elizaren estalkia amaitu ondoren, kora eraikitzen hasi ziren 1631n; Tolosako Domingo Irazabal igeltseroari enkargatu zioten lana. 1634an ezarri zuten balaustrada, eta ia amaituta geratu ziren lanak. Hortik aurrera, konponketa txikiei eta mantentzlanei buruzko aipamenak bakarrik agertzen dira agirietan, 1644an Bartolome Luzuriagari banku bizkarraldedun bat erosizana, edo 1649an lurrean adreiliuak jarri izana³³, adibidez. Garai hartakoa da koroko balaustrada zoragarria, eta horren zurezko baranda torneatu eta landua.

Apaizak korora errazago irits zitezen, elizako nabek igarota fededunei enbarazurik egin gabe, sakristiaren barrutik egin zuten 1670ean sarrera; horretarako, eskailera bat eraiki zuten sakristian, eta ate bat zabaldu zuten nabearen alboko horman³⁴.

Azken berritze-lan handia 1850ean egin zuten, beste koro bat eraiki baitzuten, bai eta ornamento liturgikoak gordetzeako armairu bat ere, horren azpian. Hauxe izan zen azken lan hori egiteko arrazoia: jende asko biltzen zen egunetan eliza txiki geratzen omen zen, eta, horregatik, gizonei korora sartzen uzten omen zieten; han, nahasi egiten ziren kantariak eta sekularrak, eta parrokiakoek ez omen zuten hori gogoko³⁵



Koruaren ikuspegia orokor bat.



Koruaren XIX. mendeko balaustrea.



Koruaren 1634 urtean egindako balaustrea.

³³ DEAH,1238/002-00 97 atz.-10 atz.

³⁴ DEAH,1238/002-00 163 atz.-164 atz.

³⁵ DEAH,1241/026 s.f.).

1.10 Erretaulak. Anoeta Errenazimentuko korronte artistikoetara zabalik

Erretaulei buruzko lehen aipamena 1558koa da, bi erretaulengatik Pierres Picart eskultore ezagunak Martin Kakategi apaizarengandik 108 dukat jaso zituenekoa³⁶. Eskultore hori lehen errenazimentuko eskultore ospetsuenetako bat izan zen, eta berari zor dizkiogu hainbat lan handi; adibidez, Oñatiako Unibertsitateko atea edo hainbat hilobi-monumentu, Rodrigo Mercado Zuazolarena, bestek beste. Anoeta nazioarteko arte korronteei eta Italiatik ailegatutako antzinaroko ereduei zabalik zegoela erakusten digu horrek.

Idiakeztarren leinua ere ez dugu ahaztu behar; begi-bistakoa da Anoetarekin izandako harremana, Idiakaitz baserrikoak baitziren.

Alonso Idiakezen eta horren emaztearen eskultura etzanak, Donostiako San Telmo museokoak, Leonitarrek eta Pierres Picartek eginak omen dira; artista horrek Anoetarrekin izandako harremanaren beste arrasto bat izan daiteke hori. Tamalez, ez dugu erretaula horiei buruzko informazio gehiagorik, eta ez dakin 1793 desmuntatutako erretaulak artista ezagun horrek egindakoekin zerikusirik zuen edo ez.



(Aranzadi Z.E.)

Alonso Idakez eta bere emaztearen Errenazimenduan egindako hilobiak. Donostiako San Telmo Museoan. Idiakez hau Anoetako Idiakaitz baserrian sortutako leiunkoak dira.

³⁶ GAO;PT;sorta 9; orriak 156a.-157a.

1.11 Hiru aldare XVII. mendean

Erretauli buruzko XVII. mendeko aipamenak eskasak dira, konponketa txikien ingurukoak batik bat; horietako batzuk aipatuko ditugu jarraian: 1664an, erretaula baten eta irudi batzuen existentzia aipatzen da³⁷; 1682an zazpi kintal kare erabili zituzten aldare nagusiko oinazpikorako³⁸; 1683an hiru aldareetako³⁹ hiru aldare-harriak doitu zituzten, eta 1685ean bastidore batzuk jarri zituzten aldareetako frontalak ezartzeko⁴⁰.

Aldare nagusiaren izena ez da inon aipatzen, baina segur aski San Joan Bataiatzailea zen; 1726an, San Sebastianen aldarerako aldare-harria behar zela aipatzen da, bai eta leku handiagoa ere prebisterioa; horrenbestez, lekuz aldatu zituzten alboetako aldareak. Horma nagu-

siko ebanjelioaren ondoan jarri zuten Arrosarioko Andre Mariaren aldarea, eta San Sebastianena, berriz, epistolaren ondoan⁴¹. Gaur egun ere hortxe jarraitzen dute.

Arrosarioko Andre Mariaren irudia erretaula barrokoa baino lehenagokoa da; litekeena da izen bereko kofradia sortu zenean, 1632an, erosi izana⁴². Izan ere, 1644an bazen jada, 16 oihal-makil erosi baitzitzuten Arrosarioko Andre Mariaren irudia estaltzeko, eta erreala bat eman zioten oihal hori belztera Aiara eraman zuen emakumeari⁴³. Arrosarioko Andre Mariaren irudia estilo erromanistakoa da, eta, segur aski, XVII. mendearen hasierakoa; ez da horri buruzko beste dokumentaziorik aurkitu. Berrizte-lan egokia eginda, hobeto aztertu ahal izango litzateke horren polikromia.



(Karlis)

Elizako aldareen ikuspegia orokorra.

³⁷ DEAH,1238/002-00 116 atz. Anoeta.

³⁸ DEAH,1238/003-00 14 atz. Anoeta.

³⁹ DEAH,1238/003-00 16 atz. Anoeta.

⁴⁰ 1685. DEAH,1238/003-00 16 atz. Anoeta.

⁴¹ DEAH,1238/03-00 175 aur.-176 aur. Anoeta.

⁴² DEAH,1240/002-00 s.f.; 1 aur.-154 atz.

⁴³ DEAH,1238/002-00 116 atz. Anoeta.

1.12 Erretaula barrokoen eraikuntza

Gaur egun, bigarren mailako bi erretaula daude aldare nagusien bi alboetan; Arrosarioko Andre Mariari eskainia da bata, eta San Sebastiani, berriz, bestea; Migel Irazustak diseinatu zituen biak. Erretaulak Juan Asencio Zeberio Lizargarate tolosarrak egin zituen, eta haren bat dator "... a un modelo de los colaterales que ejecuto en su vida dicho Yrazusta en la parroquial de la villa de Alquia, valiéndose solo de el modelo de Arquitectura, y el hornato de las trazas o traza que assi hizo dicho Yrazusta para la parroquial de esta villa ". Izen ere, 12 urte lehenago hil zen Miguel Irazusta.

Miguel Irazusta XVIII. mendeko eskultore barroko ospetsuene-tako bat izan zen; Maria Isabel Astiazaranek sakon aztertu ditu haren biografia eta ibilbide artistikoa artista horri buruzko lan monografiko batean⁴⁴. Irazusta 1655ean jaio zen, Alkizan, eta bertako aldare nagusia eta albokoak, Arrosarioko Ama Birjinari eta San Joan Bataiatzaileari eskainiak, egin zituen. Horiei buruzkoak dira Anoetako parrokiako nagusiak, 1755ean San Joan parrokiako alboetako bi erretaulak enkargatu zizkionekoak. Hurbiltasun geografikoagatik ez ezik, familiagatik ere bazuen harremana Anoetarekin, haren arreba Katalina Juan Saroberekin ezkondu baitzen; bi alaba izan zituzten, Magdalena eta Maria, eta lehenak zaindu zuen Miguel Irazusta horren azken urteetan.

Honako baldintza hauek jarri zizkieten anoetarrek aldareak egiteko arduradun Juan Asencio Zeberiori:

- Elizako nagusiek, Anoetako herritarrek, obra-tokian ezarri behar zizkieten enborrak eta egurra Zeberiori. Burdineria mai-suak ezarriko zuen.
- Zurezko materiala, "berde" eta gordin, obra-tokian eman behar zioten. Intxaurrondo⁴⁵ eta gaztainondoa erabili zituz-

ten; Alkizako Felix Gabirondori gaztainondo ukondo ordaindu zizkioten.

- Erretaulak 1757ko San Migel egunerako egon behar zuten bere tokian. Ez zegon beste eperik.
- Kobrezko 10.000 erreal baino gutxiago balio behar zuen, eta hauxe egin behar zuen erretaula bakoitzerako "dos angelotes a saver en el de nuestra señora graciosamente".

1766an amaituta zegoen lana, eta Domingo Muxika eskultore maisu getariarrak aztertu zuen; aldareak kobrezko 11.562 erreal balio izan zuten, eta Arrosarioko Andre Mariaren kofradia eta Parrokiako patronatuak ordaindu zituzten⁴⁶. Lanak egi-ten ari zirela, auzia izan Anoetako elizako nagusiek eta Zeberio eskultoreak, kostua zela eta; horren ondorioz, Francisco Iberok eta Domingo Torrek lana peritatu zuten, eta, ondorioztatu zutenez, Irazustaren trazaduraren arabera egina zegoen, aingeruak izan ezik; horiek txikiagak eta ez-proporciona-lak omen ziren, horien oinarri ziren kiribildurak aintzat hartuta. Hasiera batean, salomonikoak izan behar zuten zutabeek, Alkizakoen antzera; Anoetakoak ildokatuak dira, ordea, eta nitxoak, berriz, burudunak⁴⁷.

Aldareak estilo barrokokoak dira, eta arkitektura-elementu kur-batu eta zuzenak dira nagusi; bolumen konbinazioak argi-kon-trasteak eragiten ditu. Atentzia ematen du arrokaia eta landare edergarri kopuru txikiak; M. Isabel Astiazarainek dioen bezala, ureztaketak eta beranak ordezkatuko zituen agian. Aldare horietako mahaiak geroagokoak dira; lehen aldiz 1793an berri-tu zituzten, aldare nagusiarekin batera, baina gaur egungo mahaiak 1866ko berritze-lanen ondorengoa dira.

Arrosarioko Andre Maria izena eta horren gainean San Antonen estatua bat dago. Beste aldarean San Sebastianen iru-dia dago eta, horren gainean, San Migelen beste bat, oso des-proportionatua.

⁴⁴ ASTIAZARAIN, M. ISABEL. Gipuzkoako Erretablistika. II. Miguel de Irazusta. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997.

⁴⁵ ASTIAZARAIN, M. ISABEL. Gipuzkoako Erretablistika. II. Miguel de Irazusta. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997. 206. or.


⁴⁶ 1791.DEAH,1238/003-00 246 aur.-atz.Anoeta.

⁴⁷ ASTIAZARAIN, M. ISABEL. Gipuzkoako Erretablistika. II. Miguel de Irazusta. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997. 208. or.



(Karts)

Errosarioko Andre Mariaren aldarea. Migel Irazusta artistak 1755. urtean barroko estiloan egindakoa.



(Karts)

San Sebastianen aldarea. Migel Irazusta artistak 1755. urtean barroko estiloan egindakoa.



(Kalis)

Errosarioko Andre Mariaren irudia. 1632-1644. urte tartean erositakoa.



(Kalis)

San Sebastian irudia.

1.13 Aldare nagusia

Erdiko nabearen aurreko aldare nagusia San Joan Bataiatzaileari eskainia da, XVIII. mendearen amaierakoa. Manuel Martin de Karrera eta Jose Antonio Arzadun arkitekto maisuek diseinatu zuten, eta Manuel Jose Larrondobunok egin.

Erretaula honi buruzko lehen datuak 1791koak dira; Jose Antonio Arzadunek 300 erreal kobrautu zituen garai hartan diseinua egiteagatik⁴⁸, eta Manuel Jose Larrondobunok 157, bere lanagatik. Garai hartan, aldarea eraikitzen ar iziren, eta 1793ko maiatzaren 27an, Martin Antonio Ezeiza alkatea, Martin Jose Mendizabal eta Juan Bautista Munita zinegotziak, Francisco Ignacio Etxeberria apaiza eta lehen aipatutako Jose Antonio Arzadun arkitekto maisua bildu ziren, Larrondobunok egindako lanari oniritzia emateko⁴⁹.

Hauexek izan ziren hari enkargatutako lanak: erretaula zaharra kentzea eta koroan jartzea, harmaila zaharreko jasodura egitea, presbiterioan zoladura ezartzea, zolata eta harmaila berriak egitea lehengo harri batzuk erabilita, erretaula eta horren zokaloa Lorazuko harrobiko harriekin egitea (Loatzo izango zen segur aski, Irurako Uzturre mendikoa, marmol? harrobiak baitaude bertan)⁵⁰, San Joanan eskultura eta nitxo nagusiko gainerako grabatuak, goiko aldeko Apokalipsi liburuaren eta Jainkoaren bildotsaren (Agnus Dei) eskulturak, bi aingeruak, alboetako erretauletarako bi aldare-mahaiaik, leihoko nagusiko beirategia eta beste zenbait lantxo. Lan horietako batzuk Villabonan egin zituzten, bi aingeruak bestea, eta enborrak herri horretaraino eraman izanaren aztarnak daude.

1801eko apirilaren 8an amaitu zituzten kontuen tasatzea, eta Larrondobuno maisuak egindako lanak kobrezko 20.370 erreal balio izan zituen⁵¹. Tabernakulua, aldareko mahaia, harmailak, kustodia jartzeko nitxoa eta beste zenbait lan txiki ere sartzen ziren kontu horretan. Manuel Martin Karrera arkitektoak ikuskatu

zituen lanak, eta Tomas Sorekieta apaizak, Juan Antonio Ezeiza alkateak eta parrokiako morroi Martin Antonio Ezeizak oniritzia eman zieten. 1819ko urriaren 11n, Asteasuko notarioaren aurrera agertu zen Juan Larrondobuno, Manuel Jose zenaren semea, eta bere aitarekin Anoetako erretaularen eraikuntzari zegokion guztia kobrautu izana adierazi zuen.

Anoetako erretaularen eraikuntza dela-eta, Jose Antonio Arzadunek eta Manuel Martin Karrerak horren diseinuan parte hartu izanaren arrastoak daude; diseinua kobrazeaz gain, lana behar bezala egin zela berretsi zuen lehenak 1793an. Itxuraz, diseinuak hainbat aldaketa izan zituen: lau zutabeen gaineko lau pitxarren ordez bi aingeru jarri zituzten, eta kozkor biribileko estatua bate gin beharrean, landutako medallo bat jarri zuten erdian. Manuel Martin Karrera egin eta pentsu zituen aldaketa horiek, baina ez da harritzeko bi arkitekto horiek parte hartu izana, 1784an beste hainbat lanetan ere aritu baitziren, Tolosatik igarotzen zen errege-bidean, bestea beste.

Manuel Martin Karrera Beasainen jaio zen, 1742an, eta Tolosan hil, 1804an; Martinen semea zen, Euskal Herriko arkitekto barroko onenetakoarena; bere aitaren bideari jarraitu zion, eta Madrilgo San Fernandoko Arte Ederren Akademian ikasi zuen; ondoren, garai hartako arkitekto garrantzitsuenetako bat izan zen. Anoetarekin izan zuen harremana ez zen laneko bere Iurrede-eremuan zegoelako bakarrik izan, bere anaia Jose Antonio San Joan parrokiako apaiza izan baitzen. Harreman hori zuela-eta, ez da harritzeko 1781ean Manuel Martinek 22.229 errealeko aurrekontua egin izana eliza handitzeko, txiki geratu baitzen hori elizar kopurua handitu izanagatik⁵². Familia horri buruzko lan handia egin du M. Isabel Astiazarain ikertzaileak, eta horri esker egin dugu aipamen txiki hau⁵³.

Aldarea amaituta eta mihiztatuta zegoen, baina margotu egin behar zen; lan hori Juan Bautista Bengoetxeari enkargatu zioten,

⁴⁸ DEAH,1238/003-00. 255 aur.

⁴⁹ DEAH,1241/0012-00. s.f.

⁵⁰ DEAH,1241/012-00. s.f. Anoeta.

⁵¹ DEAH,1241/012-00. s.f. Anoeta.

⁵² DEAH,1241/012-00. s.f. Anoeta.


⁵³ DEAH,1241/012-00. s.f. Anoeta.

1816an. Hori margotzeko irizpideak oso zehaztuta daude kontratuaren baldintzetan: edergarriak urre kolorekoak, elementu arkitektonikoak hainbat koloretan, jaspea imitatuz eta zainekin, San Joanen irudia errealsizmoz polikromatua eta marmol leundua balitz bezala, tabernakulua marmol kolorekoa eta zain mehekin, aingeruak erregosiak eta polikromatuak, eta abar⁵⁴. Aldarea margotzea 14.000 erreal inguru kostako zela pentsatu zuten. Garai hartan modan zegoen aldareak harri nobleak imitatuz margotzea; horren adibide ditugu Silvestre

Perezek Tolosako Santa Maria parrokiarako diseinaturiko aldareak. Neoklasizismoa zegoen modan, eta gutxietsi egiten zuen horrek azaleretako urearen harrokeria, Arrosariko Andre mariaren eta San Sebastianen aldareetakoa bezalakoa.

Erretaula nagusiaren azken emaitzak ez zituen anoetarrak asebeta antza,edo aldatu egingo zen estetika, hirurogei urte geroago goitik behera berritu baitzuten erretaula. 1867ko irailaren 9an, erretaula eta presbiterioa berritzeko eta edertzeko aurrekontua eskatu zioten Jose Maria Mujikari; kobrezko 27.771 errealekoia izan zen hori. Berritze proiektua zehatz-mehatz adierazita dago eta, zorionez, orri hauetan erakutsitako aldarearen planoa ere badugu; aldare nagusiaren gaur egungo irudia berritze-lan horien ondorio da, zalantzak gabe⁵⁵.

Lehenik eta behin erretaula berritu zuten: zutabeen fustean ildaskak egin zituzten, moldura berriekin edertu zituzten ertzak, frisoan eratzunak jarri zituzten, eta bigarren zatiaren pilastra eta errematean, berriz, landareen irudiak. Aldareko mahai eta tabernakulua orduan egin zituzten; proiektuan, zehatz-mehatz ageri dira zutabe ildaskatuetako, kupulako eta sagrarioaren kampoko aldeko eskulturak. Aldarearen goiko zatian kalizak eta ostiak gor-



Gaztelua aldare nagusiaren xehatasun batean.

(Karts) detzen zituzten, eta erakustegian kustodia, erlikia edo irudi erlijioso garrantzitsuren bat jartzen zuten. Azkenik, erretaula osoa txartatuta balego bezala pintatuko zen, eta tabernakulua eta sagrarioa, zutabeak eta apaingarriak, berriz, urre kolorez. Azpimarragarria da edertzeko elementu gisa palmetak eta akróterak erabili izana, XIX. mendearren erditik aurrerako joera neohistorizistetara hurbiltzen baikituzte.

Eliz buruari nolabaiteko uniformetasuna ematea izan zen azken berri-


kuntza horien ekarpenea; urre kolorea da nagusi hiru aldareetan, zutabeak korintoarrak dira, eta fustea ildaskatuak; aldareetako mahaietako frontalak eta basamentuak antzekoak dira. Hala ere, aldareko taulamenduaren eta zutabeen ordena erraldoia gehiegizkoa da, aldeetako aldareen eta elizako nabareen barruko espazioarekin alderatuta.

Amaitzeko, ikonografiari edo erdiko irudiari buruzko datu batzuk emango ditugu: San Joan Bataiatzailearena da irudia, Anoetako patroiarena; ardi-larruz jantzita dago, eta ebanjelizazio jarrera du. Haren atzean basamortuaren paisaia agertzen da, bai eta Jordan ibaiaren ertza, onbidera itzulitakoak bataiatzen zituen lekuia. Goiko aldean, bildotsaren irudia dago berriz ere, Apokalipsiaren liburu irekiki baten gainean eta “ecce agnus dei” (hona hemen Jaunaren bildotsa) leloa duen gurutzearekin. San Joan izan da elizaren izen nagusia, eta, hortaz, Anoetako; horregatik, hori izan da azken urte hauetan udalaren ezkutuko irudi nagusia.

Kristau fedea izan da Anoetako herritarren motor nagusietako bat azken 500 urtean, eta horren lekuoa da bertako San Joan eliza; beraz, gaur egungo anoetarren sinesmenetik haratago, zaindu eta balioztatu beharreko ondarea da.

⁵⁴ DEAH,1241/018-01.s.f.Anoeta) (GAO; PT; sorta 2781; orriak 197 a. - 204 g.).

⁵⁵ DEAH,1241/027-00.s.f).



Aldarea nagusiaren proiektuaren planoak. 1867an Jose Maria Mujika egindakoak.

(Karlis)



Aldarea Nagusiaren ikuspegi osoa

2. Eranskin dokumentalak: Transkripzioak



Anoetako planoa (XVI. mendea). Archivo Histórico Provincial de Zaragoza. Casa Ducal de Híjar. Fondo Idiaquez.

**2.1. SAN JOAN ELIZAREN KAPERAK ETA KANPANDORREA
ERAKITZEKO PEDRO ATEAGA HARGINAREKIN ANOETAKO
UDALBATZAK EGINDAKO HITZARMENA**

Iruñeko Elizbarrutiko Agiritegia, C/81, 30. znbk., 13 a. – 19a.

Anoeta, 1571ko ekainaren 5.

Yn dey nomine Amen/ conocida cosa sea los que esta publica escriptura de contra/to y obligacion vieren como en la tierra y Universidad de/ Anoeta delante las puertas de la yglesia parroquial de señor San Jo/an de la dicha tierra lugar acostumbrado para se juntar el concejo/ y vecinos de la dicha tierra en su concejo e ayuntamiento a/ cinco dias del mes de junio año del nacimiento de nuestro señor/ y salvador Iesu Xristo de mill y quinientos y setenta y un/ años ante mi Martín de Aztina escribano de su majestad y del nume/ro de la dicha villa y en presencia de los testigos de yuso escritos/ parescieron presentes de la una parte el muy reverendo se/ñor don Miguel de Arrutarte rretor de la yglesia parro/quial de la dicha tierra de Anoeta e Joanes de Arozechea de / Ançjeta manobrero de la dicha yglesia y Julian de Aguinaga / alcalde de la dicha tierra e Domingo de Goicoechea jurado della/ e Miguel de Luebana e Pedro de Ydiacaiz e Domingo de Le/garra de Echeverría y Joanes de Arqindegui e Martolo de / Mendiguibel e Martin de Eraussia e Domingo de Aguirre y/ Joanes de Sarobe vecinos de la dicha tierra de Anoeta en/ voz y en nombre de la yglesia y concejo de la dicha tierra e como mayor e mas sana parte del dicho concejo que dixie/ron ser por si e por los demas vecinos de sus hermanos ausen/tes e de la otra maese Pedro de Ateaga y de Muzturia/ vezino de la tierra de Amasa e dixieron que por quanto/ las capillas y campanario de [la] yglesia de la dicha tierra tenian / acordado y determinando de azer e acabar con perfeccion / e de la manera que estan enpeçadas las capillas de la / cavecera de la dicha yglesia a esamen juntamente con la/ torre del dicho campanario e para la hazer e acabar tenian acordado y determinado e tomado medio e conçerto / con el dicho maestro Pedro de Ateaga e Muzturia para que/ el acavase las dichas capillas e campanario por la orden y manera e condiciones siguientes (SIGNOS)//

Primeramente que el dicho maestro sea obligado de dar / acabadas la dichas capillas e torre de campanario en / perfeccion debaxo las condiciones que de yuso se declara/ran dentro de ocho años primeros siguientes los / quales comiencen a correr de y dia de la fecha desta /

carta en adelante y conforme a una traça e debuxo / que el dicho maestro tiene dada y señalada en un perga/mino de cuero que a mi el dicho escribano originalmente / entregaron para la goardase asta que fuese la volun/tad del dicho rretor y vecinos (SIGNO)/

Yten que las paredes del dicho campanario el dicho maestro / aga de buenos y suficientes materiales de cal y arena/ y de piedra lapiz caliz de parte de fuera de silla/ria bien e suficientemente labrada con pico e que la / dicha pared por parte de dentro aga de buena y sufi/ciente mamposteria e que la dicha pared se aga en grosor / conforme a la otra pared vieja sin aynadir ninguna/

Yten que despues que hoviere acabado de azer en per/feicion la torre del dicho campanario e capillas el dicho maes/tro sea obligado a luzir e pincelar por dentro segun / e de la manera y de la color questa lizada e pinzelada / la cavecera e capillas de la dicha yglesia (SIGNO)

Yten que el dicho maestro sea obligado como se obliga / de cerrar las dichas capillas con piedra arenisca de la misma / con que la capilla de la dicha cavecera esta cerrada e que el / dobelaje que le cierre la siga e cierre con piedra que en bas/cuence llaman tosca (SIGNO)

Yten que conforme a lo questa señalado e debuxado en la/ dicha traça el dicho maestro aga una ventana desgarrada / llana azia la parte del mediodia e que ansi mesmo sea/ obligado de azer un puerta a la parte del çierçop que sera / la puerta principal de la dicha yglesia con su moldura / romana conforme a la traça e modo que al presente (SIGNO)// hussa la qual dicha puerta y su moldura sea al parecer / orden del dicho maestro con que no se de mucha costa (SIGNO)

Yten que el dicho maestro haga un postigo segün y dela ma/nera y en el lugar que en la dicha traça tiene señalado e/ que ansi mesmo aga la dicha torre del dicho campanario confor/me a la dicha traça con que la aya de azer en la parte y lu/gar donde el dicho rretor y vezinos del dicho concejo le seña/laren e que la dicha torre aya de alçar asta el nivel de las/ otras paredes de la dicha yglesia (SIGNO)

Yten que los materiales de piedra lapiz caliza y arenisca/ e tosca para azer las dichas paredes e capillas e torre del dicho / campanario el

dicho maestro sea obligado a sacar en termino / y territorio del dicho lugar de Anoeta pudiendo allar / aparejo suficiente e sino se allare la aga traer y / trayra del territorio de la villa de Tolosa o de los lugares/ de Hernialde Ybarra e Yrura e Amasa donde demas cerca allare/ y no pueda traer ni trayra de otras partes/ mas lexanas (SIGNO)

Yten que el dicho concejo e su yglesia ayan de dar y den al dicho / maestro frances los pastos donde puedan paçer y andar sus / ganados e ansi siendo los caminos e canteras de donde a de sacar / los dichos materiales e acarrear aquellos e ansi mesmo / le ayan de dar el sitio y lugar para poner aquellos en el / lugar donde el dicho maestro escogiere (SIGNO)

Yten en lo que toca si se allare alguna cantera en alguna/ heredad de particulares o se hiziere algun otro daño por / causa del carro o en otra manera tocante a los dichos mate/riales que estan don sea examinado por sendas personas / justas por el dicho maestro y el dueño de la tal heredad / que resçiviere el daño y aquello que las tales personas/ examinaren el dicho maestro sea obligado de pagar el da (SIGNO)//nificado a cuenta del dicho concejo de Anoeta y su yglesia/

Yten que el dicho concejo de Anoeta le da al dicho maestro mon/tes frances para todas aquellas cosas que tubiere / necesidad para acabar la dicha obra como para azer e carre/ar sus materiales en los terminos concejiles en las / partes y lugares donde el dicho concejo y sus cargo/avientes le señalaren e menos daño se hiziere e que el todo/ maderamiento despues que le fuere señalado el dicho maes/tron sea obligado a cortar en los dichos montes y azer el a/carreto dellos asas partes y lugares donde tubiere necessi/dad a su propia costa e que por el coste de los dichos montes / el dicho maestro no pague al dicho concejo cosa alguna mas / de quanto despues e que la dicha obra se acavare que de / el tal maderamiento que alcaze para la fabrica de la dicha yglesia (SIGNO)

Yten que el dicho concejo de Anoeta le de al dicho maestro / en los dichos terminos concejiles lugar para azer caleros / y leyna para cozer aquellas francamente gratis en las/ partes e lugares convenientes e que si para el dicho hefeto tu/biere necesidad de algunos robles los aya de pedir al dicho/ concejo y que los lugares donde le dieren señalados los corte / y acarree de su costa (SIGNO)/

Yten pusieron por condicion que si el dicho maestre Pedro de / Ateaga no diere acabada en perfección la dicha obra de las dichas / capillas e torre del campanario conforme a la traça / luzida e pinzelada según que en los capitulos suso esta declarado / dentro de los dichos ocho años pague de pena duzientos/ ducados de oro aplicados para la obra de la dicha yglesia e / que por ellos pueda ser executado como si fuese obligacion / guarentía trayente aparejada ejecucion y demas y / alliente dello en caso que para el dicho termino no acabase / dicha obra o antes de venir el dicho plaço el dicho maes/tron muriere desando de acabar la dicha obra el dicho concejo (SIGNO)// e yglesia e los cargo avientes della a quiebra e daño del/ dicho maestro e de los fiadores que hubiere de dar y de sus bie/nes pongan un maestro cantero que entienda la arte qua/ellos escogieren con los oficiales para semjante obra/ necesarios y sin alçar mano de la dicha obra acavando / agan acabar en perfección la dicha obra buscando dineros / a censso o en otra manera a quiebra y daño del dicho maestro y sus fiadores de manera que se acave lo mas ayria / que se pueda conforme a la dicha traça e condiciones el / por tal quiebra daño puedan ser ejecutados sin remision alguna (SIGNO)/

Yten que luego que las dichas capillas y torres del/ campanario se acaben en perfección y de la manera/ y conforme a la traça que esta declarado el dicho maestro/ ponga de su parte su maesso y examinador y el dicho rretor/ e concejo por parte de la dicha yglesia el suo que entiendan / y lo que los dichos dos maeses en conformidad examinen/ y en discordia dellos un tercero puesto por anbas / partes conformandose el uno dellos con el tercero se le pa/ gue al dicho maestro o a sus herederos o a quien por el de/viere de a ver menos cincuenta ducados que el dicho maese / dexa de aquello que se hesaminare y haze gracia y su/elta a la dicha yglesia y lo resto se le pague a los tercios / y forma e manera siguiente (SIGNO)/

Primeramente que la premiça desde presente año per/teneçiente a la dicha yglesia se hesamine por sendas per/sonas puestas por el dicho maestro y por parte de la / dicha yglesia y sobre aquellos esos examinaren le / ayan de dar y pagar al dicho maestro para el dia de San/ Miguel primero que viene quarenta ducados de oro / y por el consegiunte se le ayan de dar al dicho maestro desde el dicho dia / de San Miguel en un año otros quarenta ducados de ser (SIGNO)// por San Miguel del año de mill es quinientos y setenta y dos/

Yten que cobrados los dos tercios y sus dispuestos / en adelante principando por el dia de San Joan que viene / del año de quinientos e setenta y tres el dicho rretor concejo/ y vecinos de Anoeta conforme a la costumbre que se tiene/ pongan en almoneda y remate la premiça de la dicha / yglesia e sobre aquello que la dicha premiça montare me/nos tres ducados de oro que el tal arrendador a de pagar en la mano al manobrero que fuere para cum/plir con ellos algunas cosas necesarias a la dicha yglesia/ le ayan de cumplir y pagar al dicho maeso quarenta ducados/ de oro y por la misma manera se le den y pa/guen al dicho maestro donde el dicho dia de san Joan/ del año de setenta y tres en delante en cada un año ca/da quarenta ducados de oro sobre la dicha premiça ben/diendose aquella como esta dicho por el dia de San Joan / de cada año (SIGNO)/

Yten que esta declarado de suso al dicho maestro / se le den y paguen por el dia de San Joan de cada un año prin/cipiendo por el dicho dia de San Joan del año de quinien/tos y setenta y tres e dende en adelante los dichos quaren/ta ducados sobre aquello que la dicha premiça montare/ asta tanto que la dicha yglesia cobre ciento e quarenta/ ducados que tiene de recibir el aver en el con/cejo de la dicha tierra sesenta ducados y los ochenta/ ducados en vecinos particulares de la dicha / tierra e aquellos se consuman hechando la cuenta en / quanto se arrienda la dicha premiça menos los dichos / tres ducados en cada un año y sobre ella asta el cumplimiento de los dichos quarenta ducados que es lo que se paga / en quando en la dicha manera llegare la cuenta a ver se pagado / e consumido los dichos ciento e quarenta ducados / que tiene de rrescibir en el dicho concejo y vecinos (SIGNO)// cumplidos e acabados que sean quellos por la orden ya dicha/ el dicho maeso se aya de contentar y se contente con lo que la dicha / premiça montare en cad aun año o menos los dichos tres ducados / asta el entero pago de todo aquello que la dicha obra montare/ y se examinare menos los ya dichos cincuenta ducados / que aze de gracia a la dicha yglesia de aquello en que la dicha obra se esaminare (SIGNO)/

Yten que aquel en quien se rematere la dicha pre/misia en cada un año se aya de obligar a los tercios en que se a/costumbra de paga a favor del dicho maestro para / que el lo bore como bien visto le fuere menos como dicho es / los dichos tres ducados e qu todavía la dicha yglesia e con/cejo queden e sean obligados al saneamiento de la dicha premi-

cia / si del obligados o obligados no se pusiesen cobrar y enseguinte / el dicho maestro sea e quede obligado de tomar y acetar / los tres pabos que el dicho concejo e yglesia le diere entregandole / al dicho maesso toos los rescividos para la cobrança de los tales/ reditos necessarios a costa de la dicha yglesia con que el dicho concejo e yglesia sean obligados a la hevición y saneamiento / de los tales traspasos e del pagar las notas que en la cobrança de los dichos reditos hiziere siendo bien gastados y moderados (SIGNO)/

Otro si por quanto para azer el dicho edificio de capille e torre / del campanario se a de derribar cierta pared la qual sean / a quede obligados a derribar e limpiar asta el pavi/miento del suelo el dicho concejo y vecinos a costa de la / dicha yglesia y el despojo que hoviere dello que alise de/rribare el dicho maestro sea obligado de tomar en el precio y valor que dos oficiales canteros puestos por anbas / partes dixieren y su montamiento sea obligado a des/contar de lo que deviere de aver despues de acavada y esami/nada la dicha obra (SIGNO)/

Yten que al tiempo que la dicha obra estuviere en estado (SIGNO)// que se hubiere de cubrir e techar el dicho maeso dexara de cobrar / los primeros frutos de la dicha premiça del salario para ayu/dar a la yglesia a que con mas facilidad cubra con que no sea visto / que al dicho maesso se le aya de descontar por ello cosa al/guna e que desde el dicho año en adelante cobre la dicha premiça / como esta dicho (SIGNO)/

Por tanto en cumplimiento del dicho conçerto y asiento e capi/tulados suso dichos mediante licencia que para ello tenian / del ordinario de Pamplona anbas las dichas partes/ por lo que les toca e ataña en lo contenido dixieron los dichos / rretor y vecinos en nombre de la dicha yglesia que obli/gaban e obligaron los propios y rentas e aver dela dicha / yglesia e concejo de la dicha tierra de Anoeta muebles / e rrayzes espirituales e temporales avidos y por / aver de goardas e cumplir y pagar e observar de su / parte todo lo contenido en los dicho capitulos segün / en ellos y en cada uno dellos se contiene sin que fal/te cosa alguna al dicho maestre Pedro de Ateaga e Muzturia/ e su vez cumpliendo el dicho maese Pedro de su parte lo que / por los dichos capitulos es obligado e le yncunbe y por el / consequiente el dicho maestre Pedro que que al toca/ y estando en los dichos capitulos contenido

dixo que se le /obligava e se obligo por su persona e bienes muebles / y rrayzes presentes y futuros que dara y acavara / en dicha obra de la dicha capilla y torre del canpa/nario según e como y en forma y manera y dentro / del termino en el dicho capitulado contenido e decla/ rado cumpliendo la dicha yglesia e concejo de su parte / lo que de suso en el dicho capitulado va declarado / e que si el no acavare la dicha obra para el dicho tiempo de los / dichos ocho años que la dicha yglesia concejo y vecinos / de Anoeta la puedan azer acavar a su costa quiebra e / daño del dicho maese Pedro e de sus fiadores que yuso hiran declarados poniendo para ello maestros y oficiales (SIGNO)// conveniente para la dicha obra a daño perdida y/ quiebra del dicho maestre Pedro e sus fiadores según que / suso en el dicho capitulado se contiene asta que del / todo se acabe la dicha obra conforme a la dicha traça y capi/tulos de suso e que la tal perdida quiebra e daño que / da cobrar la dicha yglesia e concejo de Anoeta del dicho / maestre Pedro y de lo que al ha de aver de la dicha yglesia / e concejo por razon de la dicha obra e si aquello no vas/tado de los propios bienes del dicho maestro y de sus/ fiadores sin pleito ni question ni escusa alguna y a ma/or abundamiento para lo asi cumplir juntamente/ consigo dixo que dava y dio por sus fiadores y princi/pales cumplidores y pagadores a Domingo de / Arançalde e Domingo de Esolaga de Eleyçalde e a / Domingo de Larraynaga de Echeverria vecinos de la / dicha tierra de Amassa e Joanes de Mendiçabal vezino de la tierra de Çicurquil juridicion dicha villa / de Tolossa que estaban presentes y que lo quisieron/ ser e de fecho el dicho maestre Pedro de Ateaga e Mus/turia como principal e los dichos Domingo de Arançalde/ e Domingo de Esolaga de Eleyçalde e Domingo de La/raynaga de Echeverria e Joanes de Mendiçabal como / sus fiadores cumplidores y pagadores todos cinco juntos / y cada uno o cualquier dellos ynsolidum renun/ciando la ley de duobus ress de vendi y la autentica / presente hoehita con la epistola del dicho Adriano en / una con todas las otras leyes de la mancomunidad con sus/ circunstancias dixieron que se obligavan e obligaron aziendo/ del fecho del dicho maestre Pedro suyo propio por sus/ personas y vienes muebles e rrayzes presente / y futuros dellos y de cada uno dellos que el dicho maestre/ Pedro y ellos por el y en su lugar aran y cumpliran lo / que de suso va declarado y en el dicho capitulado se contiene/ (SIGNO)// que el dicho maestre Pedro aya de cumplir sin que fuese / cosa alguna cumpliendo la dicha yglesia e concejo y vecino / de Anoeta con lo que de su parte e obligado por el dicho capi/tulado e

que si el dicho maestre Pedro no acavare la dicha/ obra por el dicho tiempo que la dicha yglesia concejo y ve/zinos de Anoeta la pueda hazer acavar a su costa quiebra / e daño del dicho maestre Pedro de Ateaga poniendo para / ello los oficiales para acavar la dicha obra necesarios / que trabajen ordinariamente la dicha obra a daño perdido / e asta del dicho maestre Pedro asta que del todo se a/cabe la dicha obra conforme a la dicha traça e capitulado de/ suso e que la tal perdida quiebra y daño pueda / cobrar la dicha yglesia concejo y vecinos de Anoeta / del dicho maestre Pedro e de lo que a de aver de la dicha/ yglesia e concejo por razón de la dicha obra e si a/quello no bastare de los bienes propios del dicho/ maestre Pedro y de sus fiadores e cada uno dellos/ ynsolidum sin pleyto ni question ni escusa alguna/ e anbas las dichas partes se obligaron a cumplir el/ uno al otro y el otoro al otro de lo en el dicho capitulado es/presado y contenido so pena del doble del balor de a dicha/ obra de la dicha capilla y torre del campanario y/ de los daños intereses e costas y menoscabos que/ a causa dello se reconorescieren a la una o a la otra parte / la qual dicha pena pusieron por pena y postura bale/dera convencional racto sen permanente pacto / y la pena pagada o no siempre fuesen obligados / a goardar e cumplir y pagar lo contenido y delcarados / dicho capitulado sin faltar cosa alguna la una parte / a la otra y la otra a la otra lo que de su parte e obli/gado e para que asi se hiziesen cumplir y pagado / e observan las dichas obligacionesde suso fechas / dixieron que davan e dieron poder cumplido es a saber/ el dicho don Miguel de Arrutarte retos a la justicias / (SIGNO)// eclesiasticas e los dichos vecinos de la dicha tierra de / Anoeta a las justicias e seglares de todas las ciudades villas / e lugares de los reynos e señorios de su majestad ante quien / esta carta pareciere y fuere pedido su ejecucion y/ cumplimiento a cuia jurisdicion y juzgado / se sometían y se sometieron renunciando su propio / furo jurisdicion e domicilio y previlegio principal e a la ley si conuerid de juridicione onnium / judicum para que por via executiba y por / todo rigor de derecha concautura de sus personas / ejecucion venta y remate de sus bienes les contien/gan e apremien en el tener e goardar e cun/plir y pagar bien ansi y a tan cumplidamente / e como si sobre todo ello hubiesen contenido en juicio / ante juez competente y por el oydas las partes e / fecho processo devido hoviese sido asi sentenciado/ por sentencia difinitiba e aquella fuese por las dichas / partes consentida loada y aprobada y palada en/ cossa juzgada para firmeza de los qual dixieron / que renunciaban y renunciaron todas el qualesqui/er exeb-

çiones asi de dicho e ingano como otras / qualquier de que se podrian ayudar e aprove/char para yr o benir o pasar contra lo suso dicho/ y toda lesion henrome y enormisima e qualquier / beneficio de restitucion con todas las leyes fue/los derechos canonico cebiles y municipales que / en contrario de los suso dicho sean cosa e puedan y espe/cialmente le ley e derecho que dize que general re/nunciacion de leyes que home agan no vala e otorga/ron contrato fuerte e firme con todas las clausulas / e firmezas para su validacion necesarias / Aunque aqui no fuesen expresadas y el dicho rre/tor dio poder cumplido e qual el avia y tenia e mejoramiento/ (SIGNO) cumplidamente lo podia y devia dar y otorgar con libre / e general administracion a Sancho de Verrovi y Martin de Be/rio procuradores de la curia episcopal de Pamplona e a los/ procuradores de otras curias eclesiasticas ynsolidum / para que en su nombre parezcan ante las tales jus/ticias e presente esta dicha escriptura y pidan que en lo que / del toca le apremien al cumplimiento esta dicha escriptura / por todo rigor de derecho y por sentencia de excomun/nion agravatoria e reagrabatoria estaba la / invocacion e auxilio del braço seglar e juro a dios/ en forma in berbos sacerdotes de tener por buena y firme / esta dicha escritura de contrato e de no y ni venir ni pasar / contra ella so pena

de perjuro ynfame y de caer en caso / de menos valer en testimonio de los qual ansi dixie/ron que los otorgavan e otorgaron ante el dicho Martin de Aztina / escribano siendo alleo presentes por testigos para ello / llamados y rogados Francisco de Alviztur vezino / de la dicha villa de Tolossa e maese Martin de Catalandegui vezino de Alquiça e Martin de Arrillaga e de camino ve/zino del lugar de Anoeta e los dichos retor e maese/ Pedro otorgantes firmaron de sus nombres y por / que los demas otorgantes dixieron que escrevir no savian/ por ellos a su ruego firmaron los dicho Francisco de / Alviztur e yo el dicho escribano doy fe que conozco a los / dichos otorgantes y testigos Miguel de Arrutarte Pedro de Ateaga por testigo Francisco de Alviztur otorgose en presencia de mi Martin de Aztina e yo el dicho Martin de Aztina escribano publico de su majestad e del numero de la villa de Tolossa/ a uno con las dichas partes e testigos/ presentes fui al sobre dicho contrato y es/critura de obligacion el qual de pedimiento / y requerimiento del rettor de Hanoeta e de Domingo/ (SIGNO)// de Yturgayçaga vezino de la tierra de Hanoeta / fize hacer y escrevir de su registro oreginal que / en mi poder queda segun quenta mi pase e por /ende en fe y testimonio de verdad hize mi signo/ (Rubricado) Escribano Martín de Aztina//

2.1. ELIZAREN ERAIKUNTZAREN LANAK “CUENTAS DE FÁBRICA” IZENEKO LIBURUETAN ESKUZ IDATZITA DAUDE.

ARGAZKIAN XVI. MENDEKO BI PAGINA AZALTZEN DIRA ETA ONDOAN IDATZITAKOAREN TRANSKRIPZIOA

De manera que suma y monta/ el descargo que da el dicho Domingo de/ Arrutarte en la manera que dicho es/ veinte y nueve ducados/

De manera que segun esto haze de abançe/el dicho Domingo de Arrutarte a la dicha yglesia/ por a ver puesto y gastado mas que rrecebido/ y cobrado de quatro ducados y nueve reales y/ treynta y dos maravedis/

Cargo año 1589/

Primeramente se haze cargo al dicho Domingo de/ Arrutarte mayordomo de la dicha iglesia el año passado/ de quinientos y ochenta y nueve de treynta y seys ducados que/ obo de resçebir y cobrar de Joan Ruyz de Echenagu/sia vecino de la tierra de Asteasu por tantos en que se le rre/mataron los frutos de la primicia de la dicha yglesia/ el dicho año de quinientos y ochenta y nueve como paresçe por/ este libro/

Yten mas se le haze cargo de treze reales que rresçeuio/ y obro de limosna en el bacin de la dicha yglesia este año/

Yten mas se le haze cargo de siete tarjas que/ rresçebio y cobro este año por el abrir de las/ sepulturas de la dicha yglesia/

De manera que suma y monta lo/ que asi se haze cargo el dicho Domingo de/ Arrutarte como dicho es treynta y/ siete ducados y tres reales y veinte maravedis//



DEAH, 1238/002-00: Cuentas de fábrica, 1576-1674, ff.28v.-29r.

Descargo/

Primeramente se echan de resçebir y pasar/ en quenta treynta y dos ducados que el bachiller Echaniz/ de la dicha yglesia dio y pago a maestre Domingo de Le/garbarrena cantero a quenta de lo que dio de a vez/ por el edificio de la obra de la dicha iglesia y de la/ premicia della el dicho año de ochenta y nueve/ como paresçe por su carta de pago/

Yten mas se le han de rresçeuir y pasar en quenta/ tres ducados que dio y pago este año a la monja de la dicha/ yglesia para el azeyte de la lanpada del santi/simo sacramento conforme a la costumbre della/

Yten mas se le han de resçevir y pasar en quenta/ quinze reales que pusso y gasto

en la çera para el / çirio pasqual y otros candelones que se hicieron/ para la dicha iglesia en este año/

Yten mas se le han de resçeuir y pasar en quen/ta dos reales que pago por la visita ordinaria de este año/

De manera que suma y monta el descargo del dicho/ Domingo de Arrutarte de este año en la manera que dicha/ es treynta y seys ducados y seys reales los cuales des/contados de los treynta y siete ducados y tres reales y veinte maravedis/ del dicho su cargo se haze de alcance al dicho Domingo de/ Arrutarte en siete reales y veinte maravedis con que quenta /heriada no balga//

ERLIJIO-BIZITZA ANOETAN

Aro Modernoan

María José Hernández, Ana Isabel Rodríguez

AURKIBIDEA

SARRERA	54
1. SAN JOAN BATAIATZAILEA PARROKIA	54
2. ERMITAK	60
2.1. San Joan Goikoa ermita	60
2.2. San Andres ermita	61
3. KOFRADIAK	64
3.1. Arrosarioko Kofradia	65
3.2. Erniobeako Andre Mariaren Jaiotzaren Kofradia	68
4. FUNDAZIOAK	76
4.1. Urteurrenenak, oroimenak eta kapilautzak	76
4.2. Ongintzazko ekintzak	79
5. BIBLIOGRAFIA	84
6. ERANSKIN DOKUMENTALAK: TRANSKRIPZIOAK	88
6.1. Miguel Ateaga hil ondoren Anoetako parrokia-elizan hutsik geratu zen erretore karguari buruzko auziaren epaia	88
6.2. Artzain-bisiten mandatuak	88
6.3. Arrosarioko Kofradiako konstituzioak	91
6.4. Arrosarioko Kofradiako kideen zerrenda	93
6.5. Anoetako parrokia-elizako erretore Miguel Ateagaren testamentua	97

Laburduren zerrenda:

AHN: Artxibo Historiko Nazionala

IEA: Iruñeko Elizbarrutiko Agiritegia

DEAH: Donostiako Elizbarrutiko Agiritegi Historikoa

1. San Joan Bataiatzailea parrokia





SARRERA

Erlificio-bizitza Anoetan, Aro Modernoan, parrokiari lotuta egon zen XVI. mendetik XIX. mendera arte. Garai hartako hiru kultuzko zen-troen barne-funtzionamenduan oinarritu gara: San Joan Bataiatzailea parroquia eta San Joan Goikoa eta San Andres baselizak. Aldi horretan erlificioak herrian izan zuen eragina ulertzeko, kofradia eta fundazioak aztertu ditugu. Kofradien eta fundazioen bidez, Anoetako biztanleen eta haien parrokiaren artean sortzen ziren gizarte-harremanak ikus daitezke.

Egun parrokiaren inguruan gizartea bizi duen egoera ulertu nahi badugu, parrokiak barreiatutako landa-gizartea elkartzen zuen garaietara jo behar dugu. Eliza gune nagusia zen; biztanleak biltzeko gune garrantzitsua.

Elizaren eta herrietako parrokien biltzeako gaitasun hori oso errrotuta dago oraindik ere, eta horren isla dugu herri-erlrijotasuna.

San Joan Bataiatzailea parroquia erakunde bat (Eliza) ez ezik, harremanak sustatzeko eta talde baten, komunitate batean barruan sartzeko aukera ematen zuen soziabilitate-gunea zen.

1. SAN JOAN BATAIAZTAILEA PARROKIA

Anoetako erlificio-bizitzak San Joan Bataiatzailea parroquia zuen ardatz. Parroquia hori Iruñeko Elizarrutiarena eta Gipuzkoako Artzapezbarruti Nagusiarena zen.

Ez dakigu noiz fundatu zen, baina haren inguruan, baselizak eta otoi egiteko lekuak, esaterako San Joan Goikoa eta San Andres baselizak sortu ziren.

Anoetako San Joan Bataiatzailea parrokian erretore berria izendatze-ko 1674an Iruñeko eliza-agintarien aurrean izandako auzi batean,

1568. urteko¹ agiri bat topatu dugu. Agiri horri esker, XVI. mendean Anoetak zuen parroquia-bizitzaren antolaketa ezagutu ahal izan dugu. Artzain-bisita² bat da; bertan parrokiaren ondasunen inventarioa egin eta haren antolaketa deskribatzen da. Parrokiak erretore bat eta bi benefiziodun zituen³. Herriak erretorea hautatzen zuen eta erretoreak berak eta herriak benefiziodunak. Bi ermita zeuden Anoetan: San Joan Goikoa ("San Juan de Arriua") eta San Andres.

Anoetako parroquia hastapenetatik zegoen eliza katolikoaren agin-duen arabera antolatuta, Elizaren osotasuna osatzen zuen erakunde txiki bakoitzaren gobernu ona bermatze aldera. Herrietako parrokien erlificio-bizitza erregulatzea zen elizbarruti bakoitzeko agintarien helburuetako bat⁴. Parrokiak antolatzeko, Apezpikuen eta haien ordezkarien mandatuak eta plan benefizialak erabiltzen zituzten.

Plan Benefizialak Gotzaingoak parroquia bakoitzari ematen zizkion arau erregulatzaileak baino ez ziren. Arau horietan, kultua eta parroquia-jarduerak bete behar zituzten pertsonak eta haien jaso behar zituzten errentak adierazten ziren.

Anoetan, ez dugu plan benefizialik topatu, baina hura egiteko adina informazio bildu dugu. Izan ere, anoetarrei esker, parroquia-elizak 1771. urtean zuen barne-antolamenduaren nondik norakoak ezagutu ditugu.

1771ko ekainaren 12an, Iruñeko gotzain Juan Lorenzo Irigoien Dutarik zenbait parroquia-elizaren justifikazioa eskatu zuen, tartean Anoetakoarena. Parroquia bakoitzari bere egoerari buruzko informazioa eskatu zioten: errenten kopurua eta ezaugarriak, eta balio eta kargak "de cada una y las justas causas ocurrientes para su union, supresión y dismembración"⁵.

1771ko abuztuaren 14an, mandatu hori Anoetan plazaratu eta txostenak eman zitzaketen lekuoa deitu ziren⁶. Informazio bera eman zuten lau lekuo, denak Anoetakoak, azaldu ziren: Juan Bautista

¹ IEA, C/901, 14. zk., 299a.-299g.

² Bere elizbarrutiko elizak ikuskatzeko gotzainak egiten dituen bisita

³ Erretorea Miguel Arrutarte zen eta benefiziodunak Gaspar Ibarra eta Julian Lujuriaga "el viejo"

⁴ PRADA SANTAMARIA, Antonio: *Aspectos de la historia eclesiástica de Zumarraga. Los templos de Santa María*. Zumarraga: Parroquia de Santa María de la Asunción L.G., 1999

⁵ IEA, C/2758, 14. zk., 1a.-2a.

"En el lugar de Apoeta a cinco dias del mes de julio de mil y quinientos y sesenta y ocho años el muy magnifico y muy reverendo señor pastor don Lope de Alguila visitador general de todo el obispado de Pamplona por el muy ilustre y reverendísimo señor don Diego Ramírez Sedeño de Fuentelal obispo de Pamplona del Consejo de su majestad este haciendo ydo personalmente a la iglesia parroquial del dicho lugar visitó el santissimo sacramento pila y ornata y lo santos óleos y todo lo demás que combino visitar y abriendo las cuentas en la forma siguiente:
 Primamente una cruz de plata buena. Yen ay en la dicha iglesia, cuatro calizos con sus patenas.
 Yen ay una copia de plata del santissimo sacramento. Yen ay dos casullas de terciopelo la una colorada y la otra verde. Yen otras tres casullas negras una nueva y dos viejas de cada dia. Yen dos dalmáticas negras. Yen tres mijales del obispado y un oficiero y un breviario y un manual nuevo. Yen dos campanas grandes. Yen dos lamparas de cestano. Yen unos fueros de oficias a medias con hermoso. Yen ay tres antealtares de cuero pintados y otros tres de lienzo y otros de sarga pintado y otros dos de lienzo negros para la cuaresma con su aderezo. Yen seis sahanas para servicio de los altares que son como manteles. Yen otro lienzo de doce varas para el dia del jueves santo el monumento. Yen otro paño de carmesi colorado para el dia del corpo di christi. Yen mas cuatro paños para antealtares y otros de lienzo con sus cinturas y rosa de seda labrada y tres velos para cubrir el caliz quando se lleva al santissimo sacramento a los enfermos y otros dos velos razonables. Yen un lienzo para la cruz. Yen ocho camisas con sus amitos. Yen ay tres aras y quinze corporales. Yen un aceital para agua bendita, cuatro ampollas. Yen tiene la dicha iglesia una casa de abadia con su fuerla y lagar en la qual vive el rector que la fizgo la dicha iglesia..."

San Joan bataiatzailea parrokiaren ondasunen inventarioa (1568).

Irazusta Tapia, Juan Antonio Barrenetxea⁷, Miguel Antonio Maioz⁸ eta Miguel Antonio Munita Goikoetxea⁹.

Erreferentzia gisa hartu dugu Juan Bautista Irazusta Tapia auzotar kontzejantea¹⁰. Bildutako informazioa biztanleak behar bezala zaintzeko beharrezkoak diren lagunei eta eliztarrei buruzkoa da. Informazio

horrek parrokiaren antolaketari buruzko datuak ez ezik, biztanleei buruzko datuak ere ematen ditu. Lekuko guztien arabera, une hartan 54 familia, hau da, 204 lagun zeuden jaunartzea eginda¹¹ Anoetan.

Era berean, parrokiako langileen berri ematen digute. Anoetako parrokiak hiru ministro zeuden: erretore bat eta bi benefiziodeun. Hiru

⁶ Hauexek bertaratu ziren: Anoetako parroquia-elizako erretore Juan Antonio Etxeberria Ateaga, Juan Bautista Ezeiza eta Juan Francisco Etxeberria Ateaga herrikoi ahaldunak, eta ibarrako Miguel Francisco Barrenetxea, Anoetako Miguel Antonio Munita Mendigibel, eta Azpeitiako Antonio Ignacio Barrena Sarobe zaindariak "de todas la capellanas que ai fundadas en la parroquia de esta villa la cuel es patrona de su iglesia parroquia y los vecinos tienen el derecho de presentar la rectoría en los casos de vacantes y el rector el de los dos únicos beneficios en los cuatro meses ordinarios".

⁷ IEA, C/2758, 14. zk., 13a.-17a.

⁸ IEA, C/2758, 14. zk., 17a.-20g.

⁹ IEA, C/2758, 14. zk., 20g.- 24a.

¹⁰ IEA, C/2758, 14. zk., 9a.-13a.
¹¹ Normalean, zazpi urteetatik aurrera

kargu horien artean parrokiako errentak banatzen zituzten. Auzotarrek erretorea aukeratzen zuten, Anoeta parrokiaren zaindaria baitzen. Benefiziodunak, berriz, erretoreak nahiz auzotarrek aukera zitzaketen.

Lekukoek diotenez, erretorearen eta benefiziodunen zereginak oso bestelakoak ziren eta erretoreak bere gain hartzen zituen gurtza gehienak. Hauek ziren erretorearen egitekoak: meza eman jaiegunetan eta astelehenetan, hileta-elizkizunak egin, bezperetan parte hartu eta arrosarioa errezatu jaiegun guztietan eta salbeak abestu Andre Mariaren bost jai nagusien bezperetan eta larunbatetan. Benefiziodunen zeregina, berriz, hainbat meza ematera mugatzen zen.

Halaber, une hartan Anoetan fundatutako kapilautzen inguruko informazioa eskaintzen digute. Bost kapilautza aipatzen dituzte, motak eta errentak zehatztuz.

Informatzaileei, parrokiaren gobernu ona bermatze aldera, komenigarria iruditzen zitzaien erretore bat, benefiziodun bat eta kapilau bat egotea. Horretarako, ordea, benefizio bat kendu eta kapilau bakar batean bildu behar ziren kapilautza guztiak. Kapilau horren zeregina errentak kobratzea, aitortzak entzutea eta erretore eta benefizioduna ez zeudenean haiiek ordezkatzea izango zen. Lanak erretorearen eta benefiziodunaren artean banatu beharko ziren. Benefiziodunaren betebeharrak izango ziren eliztarren beharrei hobeto erantzuteko Anoetan bizitzea, aitortzak entzutea, hilzorian zeudenei laguntha, oliadura eta biderakoa emateko erretorearekin txan-dakatzea eta katekesia azaltzea igande goizeko mezan.

Plan Benefiziala egiteko bildutako informazioari esker, Anoetako San Joan Bataiatzailea Parrokiaren barruko arazoen berri izan dugu: parrokiako lanak egiteko ministroen eta haien mantentzeko parrokiaren errenten eskasia eta banaketa txarra.

¹² IEA, C/137, 1. zk.

¹³ DEAH, 1244/002

¹⁴ DEAH, 1244/005

¹⁵ IEA, C/717, 6. zk

XVI. mendetik, jada, agiriak aurkitu ditugu, non patroiek, anoetarrek auzitan ari diren erretore eta benefiziodunen aurka dagozkien zereginak ez betetzeagatik (batez ere gurtza aipatzen da).

1593an¹², alkatearen, auzotarren eta kontzejuaren auzi bat izan zen parrokiako benefiziodunak ziren Juan Lopez Muñozaren eta Juan Martinez Antxietaren kontra, 1540ko epai bat ez betetzeagatik. Epai horren arabera, bi benefiziodunek zegozkien lanak egin behar zituzten. Haien betebeharrak betetzen ez zituztela ikusirik, errentarik (eskaintzarik eta irabazi benefizialik) ez emateko esku zuen herriak. Demandatuek –aldi berean bikarioa eta benefizioduna ziren Tolosan– epai hori ez zela bete argudiatu zuten. Azkenean, zegozkien zerbitzuak emateko agindua eman zitzaien.

Mende bat beranduago, 1653an¹³, benefiziodunen zereginei lotutako arazoak aurki daitezke oraindik ere. Hori dela-eta, Anoetak eta parroquia-kabildoak hitzarmen bat izenpetu zuten. Hauek dira hitzarmen horretan zehazten ziren Anoetako parrokiako benefiziodunen lanak: herri-meza kantatzen joan jaiegun guztietan, bezperak abestu urteko bost jaietan, purgatorioko arimen aldeko meza abestu astelehenetan, parrokian antolatutako urrenaren guztietan parte hartu, egunero herri-mezak eman egokitzen zaizkien hilabeteetan eta lau herri-meza eman astero.


1733. eta 1786. urteen artean, beste auzi bat izan zen parroquia-kabildoaren eta Anoetaren artean, goizeko mezari buruzkoa¹⁴. Auzian, erretore bat eta bi benefiziodun aipatzen dira. Auziaren abiapuntua azken hauen betebeharrak ziren. Erretoreak eta bi benefiziodunek, ordea, errentak ez zitzaizkiela iristen esaten zuten. Epaileak herriak ohiko eskaintzak ematen jarraitu behar zuela erabaki zuen; beraz, erretore eta benefiziodunek zegozkien errentak jasotzen jarraitu zuten.

Auziak ez dira soilik benefiziodunen zereginei buruzkoak. Erretoreari eta haren errentei buruzkoak ere badira. 1631n¹⁵, auzitan ibili ziren Anoetako parrokiako erretore eta etxezain Laurencio Ateaga eta

Domingo Sarobe lizentziatua. Azken hau Tolosako medikua zen eta Anoetako aurreko erretore Miguel Idiakenean oinordekoa. Auzi-jartzaileek erretorearen irabazi jakin batzuk erretorearen etxea konpontzeko erabil zitezela eskatu zuten, bertan ezin baitzen bizi. Azkenean, epaileek eskaera horren aldeko epaia eman zuten. 1631n, elizako etxezainak erretorearen etxea behera erortzeko zorian zegoela esan zuen: *"inabitable y de suerte que amenaça ruina por ser de edificio muy antiguo y de materiales de poca fortaleça y es neçesario repararla luego por que de otra suerte se caera de todo punto y sera en mayor daño de la dicha parrochia y porque tampoco tiene donde habitar el rector"*¹⁶. Domingo

Oteitza lekuaren arabera, Anoetan soilik 24 etxe zeuden eta bertan jabeak eta baserritarra ("de caseros de labrança") bizi ziren eta erretorearen etxea oso gaitz zegoen, ez zelako konponketa-lanik egin, izan ere, erretorea bederatzi urte zeramatzan bere etxe berrian bizitzen, alegia, Apezetxean.

Erretoretza eskuratzearen ondorioz ere liskarrak sortu ziren. Horixe gertatu zen, hain zuzen ere, 1674an¹⁷ Miguel Ateaga erretorearena hil eta erretoretza hutsik geratu zenean. Erretoretza betetzeko asmoz, Miguel Urdanbidelus eta Juan Ormaetxea Olozaga aurkeztu ziren. Olozagak anoetarren boto gehienak zituen.



Juan Ormaetxea Olozaga aukeratzeko botoak, Anoetako parrokiako erretore izateko (1674).

¹⁶ IEA, C/717, 6. zk.

¹⁷ IEA, C/901, 14. zk.



Urdanbidelusek argudiatu zuen Ormaetxea ez zela Anoetakoa, Hernialdekoa baizik. Ormaetxearen abokatu defentsariak anoetarrak ez ziren aurreko erretoreei buruzko frogak aurkeztu zituen eta Juan Perez Etxaniz Batxilerra aipatu zuen. Azkenean, Iruñeko gotzaingoak frogak eta aurkeztutako botoak onartu, eta erretoretza Juan Ormaetxeari emateko erabakia hartu zuen.

Erretorearen eta benefiziadunekin batera, serorak, freilak edo mojak topatu ditugu. Emakume hauek, laikoak izateari utzi gabe, elizak eta gurtza-objektuak zaindu, mantendu eta garbitzen zituzten. Berrogei urtetik gorakoak izan behar zuten, zintzoak eta ospe onekoak, ahal zela ezkongabeak edo alargunak, eta horretarako, aurretik, elizaren garrantziaren araberako dote bat entregatua eta bizi ziren etxean haien kontura konpondu behar zuten. Elizen zaindariekin izendatu eta Gotzainak onartzen zituen¹⁸.

1569an¹⁹, Marina Agirreren eta Emilia Ateagaren arteko auzi bat topatu dugu, serora kargu huts batengatik. Marinak azaldu zuen aurreko serora Maria Aginaga hil aurretik aukeratu zutela hura laguntzeko, eta, gainera, serora hautatzeko ahalmena zuten auztarrek aukeratu zutela. Emiliari buruz, berriz, hauxe esan zuen: “*disoluta y mundana y ha parido dos o más veces de hombres casados y a andado por el mundo perdida disfrazada y con hábito mudado y ha tenido y tiene mala fama i es persona sospechosa*”. Erretoreak eta alkateak aurkeztu zuten Emilia, eta testigantzean ez zen libertinoa zela aipatzen. Azkenean, biek eskuratu zuten serora kargua. Horiek horrela, bat hiltzean bestea arduratuko zen eta biak hil arte ez zen serora berririk aukeratuko.

¹⁸ LARRAMENDI, Manuel: *Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*. Donostia: Gipuzkoako Edizioen eta Argitalpenen Elkartea, 127-130. or.
¹⁹ IEA, C/11, 3. zk.



2. Ermitak



2. ERMITAK

1568ko artzain-bisita batek²⁰ adierazten duenez, bi ermita zeuden Anoetan: San Joan Goikoa eta San Andres. Bi mende ondoren, 1726ko artzain-bisitan, Anoetako bi ermitetan egiten ziren letanien prozesioak aipatzen dira. Gotzainak debekatu egin zuen prozesioak lekuaren eta leku urrenetan egitea, istiluak eta gorabeherak sortzen zirelako. Eta hauxe agindu zuen: lehen prozesioa San Joan ermitan eta bigarrena San Andres Apostolua ermitan egiteko, eta hirugarrenean elizari buelta emateko kanpoaldetik²¹.

1770ean²², Anoetako parrokiako erretore Juan Antonio Etxeberriak egindako txostenean aipatzen da bi ermita zeudela: San Joan Goikoa, parrokiatik legoa baten hamarrenera zegoena "distante de la parroquia como la decima parte una legua" eta San Andres, parrokiaren eta San Joan ermitaren artean zegoena. Garai hartan, bi ermiten serora Juana Felipa Olano zen.

Txostenak hauxe dio: "no combiene profanar las mencionadas hermitas por no ser perjudiciales ni gravamen su existencia a los vecinos y mora-

dores de esta dicha villa". Halaber aipatzen du prozesioak eta gurtza-zerbitzuak egiten zirela bi ermitetan, eta bereziki San Joan Goikoaganako debozioa nabarmentzen zela.

2.1. San Joan Goikoa ermita

1568an, San Joan Goikoa ("San Juan de arriua") irekita zegoen eta ermita garbitzeaz eta bertako ondasunak zaintzeaz arduratzan zen serora bat zuen²³. Dokumentazioan behin eta berriz egiten dira ermita horri eta bertako serorei buruzko aipamenak; esaterako, 1737an, Iruñeko gotzaingoak Juana Felipa Olano izendatu zuen Josefa Olano ordezkatzeko, azken hau oso zaharra baitzen²⁴.

Erretorearen 1770eko txostenean, serorak San Joan ermitaren ondasunen berri eman zuen. Ondasun horien artean, serora bizi zen etxea zegoen, honako lursaila zuena: "ocho celestines de sembradio que tiene 6 pies de manzanos su huerta y otros arboles frutales"²⁵.



San Joan Goikoa ermitaren ondasunen inventarioa (1770).

²⁰ IEA, C/901, 14. zk.

²¹ DEAH, 1238/003, 175a.-176a.

²² DEAH, 1241/009

²³ IEA, C/901, 14. zk.

²⁴ IEA, C/1869, 17. zk.

²⁵ DEAH, 1241/009

1801ean²⁶, auzi bat izan zen garai hartan ermitaren arduraduna zen Miguel Aranzabalekin. Aranzabalek ermitaren lur batzuk zituen alokatuta eta bi urte zeramatzen baselizaren mantentze-lanak egiteko urtero erabiltzen ziren 10 dukatak parrokiako erretoreari ordaindu gabe.

1810eko azaroaren 1ean²⁷, gutun bat bidali zen Gipuzkoako probintziako kontseilura. Gutunean, San Joan ermita saltzeko baimena eskatzen zen: *"la hermita vieja de San Juan y sus pertenecidos eran pertenecientes a la parroquia o a esta villa"*. Ez dugu ermita norena zen argitzen duen agiririk topatu, baina Anoetak azaldu zuen berak ordaintzen zituela gastuak eta zaindaria zela. Kontribuzioak ordaindu behar zituenet, ermita zaharra eta bere etxea eta ondasunak saltzeko baimena emateko eskatu zuen; izan ere, baziren 18 urte erabiltzen ez zela: *"se halla sin uso estos 18 años"*. Kobrezko 5337 erreal eta 13 marabediko salneurria finkatu zen. Azaroaren 4an kontseiluak baimena eman zuen San Joan ermita zaharra saltzeko, eta horrela, Anoetako kontribuzioak errazago ordaindu ahal izateko.

2.2. San Andres ermita


San Andres eta San Joan ermitei buruzko aipamenak gutxi gorabehera garai berekoak dira. 1568an, ermita honen ondasunen inventarioa egin, eta non zegoen zehaztu zen: *"en el camino de Tolosa Anueta con su reja y su altar con llaue cerrada la reja"*²⁸.

Hurrengo aipamenak bertan egindako lanei buruzkoak dira. 1649an²⁹ teilaberritu zen eta 1666an³⁰ San Andres ermitaren burdinsarea aipatu zen berriro, oso zaharra zegoelako eta lapurrak sartzen zirelako. 12 dukat ordaindu ziren burdinsarearengatik; San Joan Goikoako serorari emandako limosna-koak: *"Ytten en la basilica de San*

Andres, por estar su reja muy vieja y desecha, entrando ladrones de noches, solian hurtar frontales y otras cosas que se hallavan y para su remedio se aplicaron doce ducados de vellon de la limosna que hizo Maria de Munita freira de la hermita de San Joan Goicoa".

1726an³¹ ermita horrek arduradun (ermitau) bat zuen: Juan Bautista Barrenetxea. Arduradun honek parrokiari ematen zizkion ermitaren ondasunak eta, ondoren, parrokiako serorak jasotzen zituen. Ermitaua ezkondu zenetik arduratzen zen San Andres ermita, bertako argiak eta beste hainbat gauza zaintzeaz. Alabaina, enbarazu asko sortzen zituenet, herriari ematea erabaki, eta ondasunen berri eman zuen. Bera iritsi baino lehen objektu hauek zeuden: Aldarearen mahaiaren aurrealdeko apaindura 1, aldarean jartzeko mahai-zapi pare 1, mahai-tapiz 1 eta gortina 1. Bera iritsi zenean, ondasun hauek erantsi ziren: 2 aldarearen mahaiaren aurrealdeko apaindura koloredunak eta pintatuak, 2 pare mahai-zapi, farol 1, mahai 1, 5 zapi apaizak aldarean eskuak garbitze-ko. Halaber, txilin bat eta lanpara moduan erabiltzeko linterna edo farol bat. Parrokiako ordezkariek San Joan Goikoa basilikako serora Josefa Olanori eman zizkioten ondasun hauek.

1770ean erretoreak bidalitako txostenean San Andres ermita eta haren ondasunak aipatzen dira; bereziki nabarmentzen da ez zuela ez gelarik ez lurrik *"solo el casco de la hermita"* eta ezta hornidurarik, errentarik eta arduradunik ere, horregatik zaintzen zuen San Joango serorak edo parrokiako sakristauak³².



San Andres ermitaren ondasunen inventarioa (1770).

²⁶ IEA, A/1, 188. zk.

²⁷ DEAH, 1241/033

²⁸ IEA, C/901, 14. zk.

²⁹ DEAH, 1238/002, 129a.

³⁰ DEAH, 1238/002, 158g.

³¹ DEAH, 1241/032

³² DEAH, 1241/009

3. Kofradiak



3. KOFRADIAK

Kofradiak borondatezko elkarketa espontaneoak ziren, non pertsonak edo taldeak elkartu egiten ziren helburu solidarioak bultzatuta. Kofradiek norberaren nahiz taldearen harremanak sustatzen zituzten komunitatean. Kofradiei esker, gizartearen barruan ezartzen ziren harremanak hurbiletik ezagutu ahal izango ditugu.

Gehien nabarmendu ziren garaian, Antzinako Erregimenean, oso garrantzitsuak izan ziren, hainbat funtziobetekoa baitzituzten komunitatean; ofizioak antolatzetik solidaritateak erregulatzearaino. Gizarte txikiak ziren gizarte baten barruan; hori dela-eta, gizartearen isla bilakatu ziren haren dimentsio guztietan: hierarkiak, lehentasunak, boterea eskuratzeko borrokak, solidaritateak, etab.

Kofradia guztiak ez zituzten ezaugarri berak, baina bai xede solidario berak. Batetik, erlijio-kofradiak zeuden, eta bestetik, gremio-kofradiak. Lehenak jenerikoagoak ziren haien osaketa sozialari zegokionez, eta bigarrenek lanbide jakin baten kideetara mugatzen zituzten kofradiakideak.

Erlilio-kofradiak erlijio-ideietan oinarritutako gizarte-harreman mota baten adibide garbia dira. Debozio katolikoari zegozkion betebehar izpiritualen eta sozialen adierazgarri ziren eta orobat solidaritatearen seinale³³: lankidetzak eta elkarren arteko laguntzak zuen garrantzia irakasten zioten jendeari³⁴, eta komunitateko kideen arteko elkartasunean eta laguntzan oinarritutako sare sozialak sortzen zituzten³⁵. Kontzientzia kolektibo bat sortu zen; eliztarrek, besteak beste gurtzara joanez, prozesioetan parte hartuz eta karitezko obrak eginez bizi baitzuten haien erlijio-errea-litea komunitatean³⁶.

Antzinako Erregimenean erlijioa zen mundua azaltzeko eta eguneroko bizitza antolatzeko herriak erabiltzen zuen bitarteko; horregatik, erlijioaren arloko aldaketek aldakuntzak ekartzen zituzten, politikaren, gizartearen eta ekonomiaren arloan. Testuinguru horretan, kofradiak garaiko gizarte korporatiboa antolatzeko modu bat ziren.

Antzinako Erregimenaren erorialdia, gizarte liberalak ekarritako aldaketak, gerrak, desamortizazioa eta, laburbilduz, Elizaren boterearen galera direla-eta, kofradien euskarri zen sistema ekonomikoak, sozialak eta mentalak porrot egin zuen.

Gizarte liberalarekin soziabilitate modu berriak –burgesak nahiz herrikoiak– sortu ziren, esaterako, klub ingelesak edo zirkulu frantsesak. Spainian, non liberalismoa eta industria-iraultza berandu iritsi ziren, soziabilitate modu tradizionalak mantendu ziren, horien artean kofradiak. Alabaina, kofradien funtziok aldatu egin ziren – karitatea erakunde zibilen zeregina izatera pasatu zen–, eta ondorioz, fededun katolikoak erritoen eta jarduera kolektiboen bidez elkartuta mantentzera mugatzen ziren. XIX. eta XX. mendeetan, kofradia batzuek berrikuntza katolikoan parte hartu zuten; izan ere, XIX. mendean Spainiak jasandako eragin sekularizatailearen aurrean balio tradicionalei³⁷ eutsi nahian, eliza katolikoaren ideiak zabaldu zituzten.

Anoetan, San Joan Bataiatzailea parrokiari lotutako bi kofradia aztertuko ditugu: Arrosarioko Kofradia eta Erniobeako Kofradia. Kofradia gehienek parrokietan zituzten haien egoitzak, batez ere landa-eremuan, non parrokiak izaten ziren existitzen ziren tenplu bakarrak. Asozialismoa eta pertsonen arteko harremanak sustatzeko modu bat ziren landa-eremutan³⁸.

³³ LÓPEZ, Roberto J.: *Comportamientos religiosos en Asturias durante el Antiguo Régimen*. Oviedo: Silverio Cañada (editore), 1989, 23. or.

³⁴ GARRIDO AGUILERA, Juan Carlos: *Religiosidad popular en Jaén durante los siglos XV y XVI. Las Cofradías*. Jaén: Jaengo Udal, 1987, 16-17. or.

³⁵ SÁNCHEZ DE MADARIAGA, Elena: "Cultura religiosa y sociedad: Las cofradías de laicos", *Historia social*, 35. zk., 1999, 27. or.

³⁶ BENNASSAR, Bartolomé: *Valladolid en el Siglo de Oro*. Valladolid: Valladolideko Udal, 1989, 387. or.

³⁷ SÁNCHEZ DE MADARIAGA, Elena: "Una forma de sociabilidad del Antiguo Régimen en transformación: Las cofradías madrileñas": FERNÁNDEZ ALBADAJO, Pablo (ed.): *Antiguo Régimen y liberalismo: Homenaje a Miguel Artola*, 3. liburukia. Madrid: Alianza, 1995, 647-654. or.

³⁸ ARIAS DE SAAVEDRA, Inmaculada; LÓPEZ MUÑOZ, Miguel Luis: "Religiosidad popular e ilustración. Las cofradías de Murcia en 1771", *Mélanges de la Casa Velázquez*, XXXI-2, 1995, 102-103. or.

Topografiaren arabera elkartzeak parroquia-komunitate berari atxikitzea, eta ondorioz, kontzientzia kolektibo bat sortzea dakar; izan ere, eliztarrek parrokiako biziota bizi dute, kultu berberetara joaten dira, prozesio berberen partaide dira, karitatezko obra berberetan parte hartzen dute, santu eta irudi santu berarenganako debozioa dute eta jai berak ospatzentzitez.³⁹

Anoetako kofradien fundazioan zerikusi handia izan zuten Trentoko Kontzilioak bultzatutako kontrarreformaren eraginak eta Elizaren arau berriak katolikoei helazteko saiakerak. Arau horiek fededunen komunitatearen ideia sustatu eta usadioak aldatzen zitzuten kultu homogeneizatuago baten bidez.

Anoetako kofradiek ibilbide luzea egin dute, XVI. mendetik gaur egun arte. XVI. mendetik XIX. mendera arte, Trentoko Kontzilioaren ondoren, Espainiako kofradiek asko garatu ziren. Denbora horretan, kofradiek aldaketak jasan zitzuten etengabe, izan ere, erlijioak gizartean zuen eraginaren baitan zeuden. Horiek horrela, XVII. eta XVIII. mendetan gizartearen antolaketan paper nagusia izatetik XIX. mendean garrantzia nabarmen galtzen iragan ziren, orduan hartu baitzituen Estatuak bere gain gizarte-laguntzaren zereginak.

3.1 Arrosarioko Kofradia

Arrosarioko Kofradia da Gipuzkoako korrejidorea zen Miguel Barreda Yebra kofradia gipuzkoarren egoerari buruz egindako txostenean azaltzen den bakarra⁴⁰.

1770eko irailaren 28an, Gaztelako Kontseiluko presidentea zen Aranda Kondeak Errege Agindu bat bidali zien Estatuko korrejidore edo gobernadore guztiei, ermandade, kofradia, kongregazio eta gremio ororen txosten zehatzak egiteko. Kofradia batzuen bidegabekeriengatik Erregearen aurrean egindako salaketen ondorioz, Estatuak probintzia bakoitzean zeuden kofradien inguruko txosten bat egitea

erabaki zuen, haien hobeto kontrolatu ahal izateko⁴¹. Erregearen Agindu horren ondorioz idatzitako espedienteak Agiritegi Historiko Nazionalean daude gordeta. Gipuzkoakoa dugu laburrenetako bat⁴²: Miguel Barreda Yebra korrejidoreak Aranda Kondeari 1772ko apirila-ren 10ean bidalitako grafiko bat da, parrokiek bidalitako informazio laburrekin.

Arrosarioari eskainitako kofradiek 1475ean Alemanian deitura honekin domingotarrek fundatutako lehen Kofradian dute beren jatorria. Ordena hori izan zen, hain zuzen ere, kofradia hau mundu katoliko guztian zehar barriatzeaz arduratu zena. Sorreran helburu nagusia heresiaren kontra borrokatzea zen, baina beste traza bat hartzen joan zen, harik eta ohiturak aldatzeko tresna bihurtu zen arte⁴³.

Domingotarren zeregina zen parroketan predikatza, eta leku bakoitzeko parrokoarena, beriz, eliztar guztiak Arrosarioko Kofradian inskribatza eta orobat emankizunetara eta prozesioetara joaten zirela eta jaiegunetan Arrosarioko Aldarean errezatzen zutela zaintza⁴⁴, Konstituzioetan adierazitakoaren arabera.

Arrosarioko kofradia ezagunenetako zen, eta Gipuzkoan, 1772an zeuden 315 kofradietatik 93k zuten deitura hori⁴⁵.

3.1.1 Fundazioa

Gizabanako batzuek elkartzea erabakitzentzutenean eta funtzionamendu-arau batzuk –konstituzioak– finkatzeko beharra ikusten dutenean sortzen da kofradia bat. Hartara, kofradia baten fundazioa konstituzioen onarpenari lotuta dago nahitaez. Konstituzioak elizako agintariekin edo kasu berezitan (gremio-kofradiek direnean) agintari zibilek onartu behar dituzte. Batzuetan, kofradiak usadioak bultzatuta antolatu, eta pixkanaka konstituzioak ezartzen ziren. Konstituzio horiek eskribau bati aurkeztu behar zitzakion legeztatzeko, eta ondoren, agintariei helarazi onartzeko.

³⁹ BENNASSAR, Bartolomé: *Valladolid... Op. cit.*, 387. or.

⁴⁰ AHN, Gaztelako Kontseilua, 7094. leg., 2. zk.

⁴¹ ARIAS DE SAAVEDRA, Inmaculada; LÓPEZ-GUADALUPE MUÑOZ, Miguel Luis: "Cofradías y ciudad en la España del siglo XVIII", *Studia Historica, Historia Moderna*, 19, 1998, 198. or.

⁴² AHN, Gaztelako Kontseilua, 7094. leg., 2. zk.

⁴³ MANTECÓN MOVELLÁN, Tomás Antonio: *Contrarreforma y religiosidad popular en Cantabria: las cofradías religiosas*. Santander: Kantabriako Unibertsitatea, 1990, 65. or.

⁴⁴ *Ibidem*.

⁴⁵ AHN, Gaztelako Kontseilua, 7094. leg., 2. zk.

Funtzionamendu egokia bermatzeko kofradiakideek edo anaikideek finkatzen zituen arauak ziren konstituzioak. Konstituzioetan kofradien xeeda eta kofradiakideen betebeharrauk zehazten ziren. Kofradien azterketa funsezkoa izango da talde edo komunitate bakoitzak erabilitako soziabilitate-mekanismoak ezagutzeko. Konstituzioak bizirik zeuden; etengabe ari ziren aldatzen eta hobetzen.

Anoetako Arrosarioko Kofradiari buruzko lehen aipua 1632koa da eta Konstituzioak aipatzen dira. 1632ko urtarrilaren 14an, Iruñeko gotzaingoaren bikario nagusia zen Miguel Labrixak baimena eman zuen Anoetako Arrosarioko Kofradia fundatzeko. Eskaera anoetarrek aurkeztu zuten: *"los vecinos del lugar de Anoeta"*. Dirudinez, Arrosarioko Andre Mariaren irudi bat egina zuten, baina gotzaingoaren baimenik gabe ezin zuten inolako emankizunik egin. Gainera, kofradiaren gobernu ona bermatzeko arauak, konstituzioak eta ordenantzak ezarri nahi zituzten: *"reglas constituciones y ordenanzas para el buen gobierno de la dicha cofradía"*⁴⁶.

1632ko otsailaren 15ean, frai Pedro Eguillor –*"religioso del señor santo Domingo predicador del convento de San Telmo de la villa de San Sebastián"*– Arrosarioko kofradia fundatu zuen Anoetako parrokiian, eliza horretako Andre Mariaren kaperan eta aldarean: *"que esta por la parte de la epístola del altar mayor"*. Horretarako, eta predikari domingotarren eginbeharra betez, ebanjelioa, hasiera, eskerrak, induljentzia, konstituzioak eta arauak predikatu eta azaldu, eta parrokiako erretorea zen Bartolome Munita lizentziatua kapilau izendatu zuen. Egun horretan bertan –igandea zela aipatzen da–, kofradiakideen lehen zerrenda egin zen, kapilaua buru zela. Dirudinez, maiordomo kargua Martin Garaietxeak bete zuen. Kapilauek 267 kofradiakide inguru inskribatu zituen.

Lehen konstituzioak 1692an finkatu ziren. Sei kapitulutan labur-biltzen ziren Anoetako San Joan parrokiak kofradiakideek betebeharreko oinarritzko eginbeharrauk⁴⁷. Kofradiakideek bi betebehar

mota zituzten, batetik erlijio-kultuaren ingurukoak, eta bestetik, betebehar ekonomikoak. Lehenengo artean zegoen lehendabiziko igandeetan meza nagusiaren ondoren egiten zen prozesiora Arrosarioko irudiarekin joatea, arrosarioa errezatzea eta meza entzutea. Betebehar ekonomikoen artean zegoen bai mezan bai testamentu-legatuetan limosna ematea. Era berean, betebehar ekonomikoa zen kofradian sartzeko nahiz urtero ordaindu beharreko kuota: kofradiakide bakoitzak urtero erreala laurdena –*"un quartillo"*– ordaindu behar zuen, hiltzen zenean meza aldarean egiteko.

1703ko⁴⁸ uztailaren 24an, Aulkia Santuak baimena eman zion Burgosko San Pablo komentuan bizi arren une hartan Anoetan bizi zen frai Juan Villodas predikarien ordenako lekaideari, besteak beste, Arrosarioko kofradiak fundatzeko: *"fundar, aprobar, revalidar y confirmar las cofradías del santísimo Rosario de María Santísima Madre de Dios y Nuestra ynstituir y confirmar sus libros, nombrar y confirmar sus abadades, capellanes y demás ministros necessarios para su ministerio y assistencia"*⁴⁹. Hau da, Konstituzioak baiezatzeko. Horixe zen, hain zuzen ere, Gipuzkoa osoan egiten ari zena, Andoainen ikus daitekeen bezala⁵⁰. 1703ko konstituzioek 24 kapitulu dituzte eta Arrosarioko kofradia guztien eredu bera dute.

Garaian hartan parrokiako erretoreea zen Agustín Lizarraga Ateaga izendatu zuten biziarteko abade eta kapilau⁵¹. Berriro aipatzen dira kofradiakideek jasotako induljentziak eta kofradia arautzen duten konstituzioak. Interesgarria iruditzen zaigu nabarmentzea Villodasek esandakoa: *"admitir y escrivir por sus cofrades todas las personas que llegaren a edad de siete años"*⁵². Baieztapen hau dokumentuaren bukaeran azaltzen da berriro: *"que tengan cuidado de escrivir por sus cofrades todas las personas que llegaren a edad de siete años para nadie se prive de ganar y tan a poca costa tan grande tesoro de yndulgencias, gracias"*. Horrela, etxe-

⁴⁶ DEAH, 1240/002

⁴⁷ DEAH, 1240/002

⁴⁸ DEAH, 1240/002, 25a.-30g.

⁴⁹ DEAH, 1240/002, 25a.

⁵⁰ RODRIGUEZ PEREZ, Ana Isabel: "Las cofradías en Andoain", *Leyçaur 7*, Andoain, 2002, 78-79. or.

⁵¹ DEAH, 1240/002, 26a.

⁵² DEAH, 1240/002, 26g.

en arabera ordenatuta, kofradiakideen berri ematen da, etxe bakoitzaren barruan zeuden kofradiakideak zehaztuz⁵³.

3.1.2 Antolamendua

Kofradien konstituzioetan, kofradiakideen betebeharraak ez ezik, barne-antolamenduaren jarraibideak ere finkatzen ziren; izan ere, ezarritako arauak betearazteko, karguak izendatzen ziren kofradia bakoitzean.

Kofradien ordena hierarkikoa zen: azken erabakia zuen kargu bat zuen, eta haren azpitik gainerakoak egituratzentziren. Hierarkizazio hori Antzinako Erregimenaren gizartearren isla zen.

Arrosarioko Kofradiaren barne-antolamenduan bi kargu garrantzitsu zeuden: kapilaua edo abadea eta maiordomoa.

Kapilaua edo abadea kofradiako arduradun nagusia zen. Kargu hori parrokoari zegokion, eta biziartekoak zenez, aurreko kapilaua hiltzean, parrokiako hurrengo erretoreak edo antzinatasun –eta ez adin– gehien zuen benefiziodunak ordezkatuko zuen. Kapilauaren zeregina kofradiako liburuak berrikustea eta konstituzioak errespeta araztea zen⁵⁴.

Hurrengo kargua hierarkian maiordomoa zen. Kargua urtebetekoa zen eta edozein kofradiakidek bete zezakeen. Hauek ziren maiordomoaren zereginak⁵⁵: Arrosarioko Andre Mariaren aldarea eta haren irudia garbitzea, kofradiako kontuak eramatea eta kofradiakide berrien izenak apuntatzea, ondoren kapilauak zegokien liburuan idazteko.

3.1.3 Funtzioak

Kofradien funtzioen artean bi nabarmendu ditugu: erlijio-funtzioa eta gizarte-funtzioa. Lehena ofizio eta jarduera kolektibo batzuen bidez

fededunen arimak salbatzean zetzan. Kofradien funtzio sozialen xedea, berriz, kofradiakideen artean elkartsun-loturak sortzea zen. Kofradiakide bakoitzak gainerako kideak lagundu behar zituen karitateko obrak eginez, esaterako, pobreak eta gaixoak zainduz.

Babes izpirituala eta sozialaren bilaketa izan zen kofradien ezaugarririk erakargarriena bat. Haien maila soziala gorabehera, biztanleek kofradien Jainkoaren aurrean eskaintzen zuten bitartekotzaren eta babesaren bila jo zuten⁵⁶.

Kofradien eginkizunik nagusiena –kofradia bakoitzaren konstituzioetan araututa zegoen– kultuzko ekintzak sustatzea zen⁵⁷; eliza katolikoaren aginduak betez, kristau zintzoaren arima salbatzeko⁵⁸. Horretarako, jai bat ospatzen zen urtero kofradia bakoitzaren izearen egunean. Eta orobat hileroko mezak edo prozesioak (gaur egun arte iritsi diren ospakizun deigarriak) eta, nola ez, kofradiakideen arimaren aldeko mezak.

Andre Mariarenganako kofradien Mariaren bost jai nagusiak ospatzen zituzten: Deikunde, Jasokunde, Jaiotza, Sorkunde eta Garbikunde. Anoetako Arrosarioko Kofradiak jubileua⁵⁹ ospatzen zuen kofradiakide guztientzat hilabete bakoitzaren lehen igandeetan: konfesatu, komulgatu eta parrokiako Arrosarioaren aldarea bisitatzen zuten. Meza nagusiaren ondoren, Andre Mariaren irudiarekin egiten zuten prozesioa, kandelak eskuetan zituztela⁶⁰.

Halaber kofradien zeregina zen karitatezko obrak egitea. Kofradiakideek elkarri laguntzen zioten, ez bakarrik izpiritualki, baita materialki ere.

Hasieratik, kofradiak antolatzeko funtsezko beste arrazoi bat kofradiakideen aldeko ehorzketa duina eta otoitzak lortzea izan zen⁶¹.

⁵³ DEAH, 1240/002, 2a.-5g. Erretorearen etxea, Aginaga, Ipenza, Ateaga, Luebana, Etxeberria, Arrutarte, Tapias, Agirre, Sarobe, Eraussia, Alliri, Idiaker, Eguzkiza, Mendigibel, Buztinaga, Igerabide, Goikoetxea, Arozteka, Aginagarena, Borondegi, Apaetxea, Arressea, Iriartze, Ansassagasti, Argindegia, Migelesagasti, Urrizetta, Barrundia, Katategi, Iturgarzaga, Borondegi, Molmo, Hernialde, Bidaondo, zumalikardi, Ateaga Etxeberria.

⁵⁴ Kofradien liburuetan konstituzioak, kofradiakideen izenak eta kontuak idatzentziren.

⁵⁵ DEAH, 1240/002

⁵⁶ SÁNCHEZ DE MADARIAGA, Elena: "Cultura religiosa... Op. cit.", 25-26. or.

⁵⁷ ARIAS DE SAAVEDRA, Inmaculada; LÓPEZ MUÑOZ, Miguel Luis: "Religiosidad popular... Op. cit.", 95. or.

⁵⁸ ARIAS DE SAAVEDRA, Inmaculada; LÓPEZ MUÑOZ, Miguel Luis: "Las cofradías y su dimensión social en la España del Antiguo Régimen", *Cuadernos de Historia Moderna*, 25. zk., 2000, 225-226. or.

⁵⁹ Jubileua barkamen oso bat zen, alegia, bekatuen barkamen mundutarra.

⁶⁰ DEAH, 1240/002

Kofradiak hildako kofradiakideen eta komunitate katolikoaren beste kide batzuen hiletak prestatzear arduratzent ziren⁶². Hortaz, kofradia bateko kide izateak ehorzketaren gastuen ordainketa bermatu eta nola-baiteko duintasuna ematen zuen⁶³.

Arrosarioko kofradiaren betebehar sozialak ziren hildako kofradiakideen aldeko meza kantatzea, hilobiaren gainean errespontsua errezatzea eta ogia eta argizaria eskaintza, eta orobat kofradiaren zutoihalarekin eta kandela banarekin hildakoari laguntza⁶⁴.

3.1.4 Ekonomia

Kofradiek, besteak beste, hiletak eta mezak egiteko oinarrizko gastu batzuei aurre egin behar zizkieten. Kofradiakideek ordaindutako prozesioak eta banketeak egiten zituzten ere. Horren harira, kofradiek ahal zutena baino gehiago gastatzen zutela eta, askotan, erlijio-kultuarekin zerikusirik ez zuten gauzetara bideratzen zutela dirua salatu zuen Ilustrazioak.

Arrosarioko Kofradiaren gastu nagusiak urteroko funtzioaren argiztapanak –batez ere argizariak– eta emanaldian parte hartzen zuten apaiz eta laguntzaileek eragindakoak ziren. Gastuen artean zeuden ere hildako kofradiakideen aldeko mezak eta hiletak eta ondorengo ogi- eta argizari-ri-eskaintzak. Beste funtsezko gastu bat aldarea eta erretaula zaintza zen, egoera onean eta behar bezala argiztatuta egon zedin.

Anoetako Arrosarioko kofradian topatutako lehen kontuan (kontu hori 1632ko apirilaren 12ko da), argizariaren gastu arruntak eta haien kostua ez ezik, kofradiaren fundazioak eragindako gastuak ere adierazten dira⁶⁵.

Gainerako kontuetan (kontuen liburuak gordetzen dira 1932. urtera arte), hauek ziren ohiko gastuak: argizaria argiztapenerako eta kofra-

diakieen erabilpenerako, eta Ama Birjinaren eta hildakoien aldeko mezen gastuak. 1922tik 1932ra bitarteko gastuetan, nabarmenzekoak dira kofradiak emandako hainbat limosna: Oñatiko beneditarrentzat, fede-propagandarako, eliza-bokazioetarako, Afrikako Misioetarako eta Tolosako ospitalean zegoen Maria Zabalorentzat: "propaganda de fe", "vocaciones eclesiásticas", "Misiones de África", "a la pobre María Zabalo recluida en el Hospital de Tolosa"⁶⁶.

Arrosarioko kofradiaren diru-sarrerak kofradiakideei eta parrokiako kideei eskatutako limosnetatik zetozen.

Lehen kontuan (1632), Anoetako Arrosarioko kofradiaren diru-sarrera gisa azaltzen dira atabakan jasotako limosna eta zenbait dohaintza, hala nola Adrian Etxeberriak emandako sei dukatak eta erreala edo Domingo Olozagak emandako bi dukatak⁶⁷. Aparteko diru-sarrerei dagokienez, 1871eko otsailaren 19an, kofradiak erabaki zuen kofradiakideen artean dirua biltzea Arrosarioko Andre Mariaren aldarea pintatzeko eta urezatzeko⁶⁸: "pintar y dorar al gusto del día el altar". Gainerako kontuetan, oinarrizko diru-sarrerak kofradiakideen kuotek, dohaintzek eta limosnek osatzen zituzten.

3.2 Erniobeako Andre Mariaren Jaiotzaren kofradia.

Erniobeako Andre Mariaren Jaiotzaren kofradia apaizek soilik osatzen zuten. Alabaina, apaiz horiek Erniobe Korriedoa osatzen zuten herrietakoak izan behar zuten.

Korriedoak elizaren banaketa bat baino ez ziren, eta gotzaingoari ordaindu beharreko zergarekin zuten zerikusia. Zerga handi hori ordaintzeko, parrokiek bat egiten zuten eta horregatik sortu ziren korriedoak⁶⁹. 1675ean, korriedo gipuzkoarrek beren konstituzioak

⁶¹ MADARIAGA ORBEA, Juan: *Una noble señora: Herio Anderea. Actitudes ante la muerte en el País Vasco, siglos XVIII y XIX*. Bilbao: UPV/EHU, 1998, 204. or.

⁶² ARIAS DE SAAVEDRA, Inmaculada; LÓPEZ MUÑOZ, Miguel Luis: "Las cofradías... Op. cit., 225-226. or.

⁶³ LORENZO PINAR, Francisco Javier: *Muerte y ritual en la Edad Moderna. El caso de Zamora (1500-1800)*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea, 1991, 186. or.

⁶⁴ DEAH, 1240/002


⁶⁵ DEAH, 1239/001

⁶⁶ DEAH, 1240/002

⁶⁷ DEAH, 1239/001

⁶⁸ DEAH, 1240/002. Etxeen zerrenda eta garian edo artoan emandako limosna azaltzen da. Hauek dira azaltzen diren etxeak: erretorearen etxea, Goikoetxea, Igerabide, Bustinaga, Mendigibel, Eguskiza, Idiakoz, Aroztegia, Posada, Borondegi, Apaetxea, Arretxea, Iriarte, Urrutinea, Argindegia, Mikelasagasti txiki, Urrizeta, San Juan, Barundia, Katalegi, Iturgizaga, Aginaga, Aginaga Etxeberria, Bideondo, Zumalikardi, Ipinza, Ateaga, Aleaga, Etxeberria, Arrutarte, Tapia, Agerre, Sarobe, Sarobe eskuina, Erausia eta Aliri.

⁶⁹ INSAUSTI, Sebastián: "División de Guipúzcoa en valles", *Donostiarri buruzko Azterketa Historiko Aldizkaria*, 8. zk., Donostia, 1974, 224-225. or.



Arrosarioko kofradiaren fundazioak eragindako gastuak (1632).

ezarri zituzten. Bertan adierazten zen guztira hamar korriedo eta laurden zirela. Korriedoak osoak, erdiak edo laurdenak izan zitezkeen⁷⁰. Hainetarte zegoen Erniobeak korriedo osoa.

Eliza-banaketa hau bat zetorren banaketa zibilarekin; izan ere, Gipuzkoako bailaren banaketaren barruan Erniobeak zegoen eta, dirudienez, Tolosa eta Hernani arteko lurraldeak osatzen zuen: Anoeta, Hernialde, Irura, Amasa-Villabona, Zizurkil, Alkiza, Larraul, Asteasu, Aduna, Sorabilla, Andoain, Urnieta eta Astigarragako zati bat⁷¹.

Erniobeak korriedoak eskumena zuen Gipuzkoako hamar parrokia hauen gainean⁷²: Asteasuko San Pedro, Urnietako San Miguel, Andoingo San Martin, Amasa-Villabonako San Martin, Zizurkilgo San Millan, Alkizako San Martin, Larraulgo San Esteban, Adunako Andre Maria, Irurako San Miguel eta Sorbillako San Martin.

Zerrenda horretan ez dago Anoetako parroquia, baina parroquia horretako zenbait agiritan Erniobeak kofradia agertzen da. Era bere-

an, beste parroquia batzuetako agirietan, kofradia horren kide ziren Anoetako apaizak aipatzen dira.

3.2.1 Fundazioa

1615eko urtarrilaren 10ean, Donostiako fiskala eta epailea zen Pedro Martinez Araizen aurrean aurkeztu ziren Erniobeak Korriedoko Andre Mariaren konstituzioak. Iruñeko Gotzaingoaren bikario nagusiak konfirmatu zituen konstituzio horiek⁷³.

Baina topatu dugun lehen datua 1596koa da. Hala, maiatzaren 30ean, Juan Larrandobunok hauxe eskatu zion Iruñeko Gotzaingoari: Erniobeak Korriedoko kofradiakideek konstituzioak betetzeari eta, zehazki, Aduna parrokiako kofradiaren zatiketari buruz haien izenean eraman zuen auziak eragindako gastuak ordaintzeko⁷⁴.

Erniobeak kofradiaren antolamenduari dagokionez, bi urte garrantzitsu egon ziren: 1615 eta 1706. 1615ean lehen aldiz aipatu ziren konstitu-

⁷⁰ Euskal Herriaren alde, XII. Liburukia. Bilbao: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, 1974, 84-92. or.

⁷¹ INSAUSTI, Sebastián: "División ... Op. cit.", 225. or.

⁷² Euskal Herriaren... Op. Cit., 87. or.

⁷³ DEAH, 1206/001

⁷⁴ IEA, C/149, 12. zk.

zioak, eta 1706an berritu egin ziren. Bi urte horien artean eta ondoren, konstituzioak behin eta berriz berrikusi ziren⁷⁵.

Kofradiaren edo ermandadearen konstituzioetan lehenik eta behin kofradiaren izena zehaztu zen. 1615ean, Andre Mariaren kofradia gisa agertu zen (“cofradía de nuestra señora”)⁷⁶ eta jai nagusia Andre Maria Birjinaren jaiotzaren egunean finkatu zen. 1706. urtean, berriz, Andre Mariaren Jaiotzaren kofradia gisa azaldu zen: “la Natividad de nuestra señora”⁷⁷. Esan beharra dago kofradiari “kofradia” edo “ermandadea” esaten zitzaiola, erlijio-xedeei garrantzia handiagoa eman nahian. Garai jakin batuetan, “ermandade” kontzeptuak gehiago nabarmentzen zuen erlijio-alderdia eta “kofradia” kontzeptua, berriz, gehiago lotzen zen gremioekin⁷⁸.

Konstituzio horiek 27 kapitulutan zeuden banatuta, eta bertan kofradiaren helburuak eta jarraibide orokorrak finkatzen ziren: karguen izendapenetik hasi eta kofradiakideen urteroko jaiaren ospakizunearaino edo otoitzetaraino.

1706an, Sebastian Larrañagak eta Gabriel San Millanek 17 artikulu berri idatzi zitzuten kofradiaren konstituzioetarako. Kofradiakide guztiai ez zeuden ados erabaki horrekin, eta ondorioz, auzitan sartu ziren. Azkenean, ordea, artikulu berriak onartu ziren. Konstituzio horiek egin beharreko elizkizunak eta ehorzteko modua azpimarratzen zuten. Hau da, kofradiaren funtzionamendua hobetu nahi zen, laguntza izpi-ritualaren eta mundutarraren zeregina hobeto betetzeko.

3.2.2 Osaera soziala

Erniobeako Andre Mariaren Jaiotzaren kofradia apaizek soilik osatzen zuten, eta apaiz horiek Erniobe korriedokoak izan behar zuten.

1615eko konstituzioen 18. kapituluak baldintza hori finkatzen zuen: ez zen kofradian onartuko korriedokoa ez zen apaizik eta are gutxian-

go apaiza ez zen inor. Eta norbaitek gezurra esanez gero, 8 errealeko isuna ordaindu beharko zuen.

Halaber, kapitulu horrek korriedokoa izatea (“naturales del corriodo”)⁷⁹ zer zen zehazten zuen: “...los hijos del vecino o moradores con que sean naturales del mismo corriodo aunque ayan nacido fuera de el por ausencia de sus padres con que ayan sido dezmeros a una de las parroquias de dicho corriodo...”.

Hori bai, korriedokoa ez zen apaizen bat korriedoko benefizioduna edo erretoreoa edo bikarioa baldin bazea eta kofradian sartu nahi bazuen, sar zitekeen, baldin eta finkatutako diru-kopurua ordaintzen bazuen.

Sarrera mugatuta egon arren, kofradiaren barruan kide guztien arteko berdintasuna zen nagusi. Hain zuzen ere, konstituzioen 15. kapituluak aipatzen du berdintasun hori: Ez zegoen alderik kargu eta lanbide ezberdinak betetzen zitzuten kofradiakideen artean, eta are gutxiago jateko eta edateko orduan⁸⁰.

Apaiz batek kofradia horretan sartu nahi zuanean, “de epistola” apaiztu eta urtebeteko epea zuen horretarako, eta gainerako kideen ekarpen bera egin behar zuen, sarrera-kuotari eta gainerako gastuei zegokienez. Meza emateko apaizten zenean, berriz, zegozkion mezak bere kontura eginarazi behar zituen.

Kofradia ezin baldin bazea elkartu apaiza onartzeko, erizainei abisatu behar zitzainen eta apaizak konstituzioak beteko zituela aitorzten zuen. Korriedoan zeudenak eta apaiza onartu nahi ez zutenek urtebeteko epea zuten hari sarrera ukatzeko.

1725eko maiatzaren 29an, Andoainen, batetik, Ignacio Sasturain eta Pedro Zabala erizainak aurkeztu ziren, eta bestetik Juan Miguel Lizarraga Ateaga eta Juan Francisco Olozaga, biak Anoetakoak. Azken bi hauek kofradiakide gisa onartu zitzuten uztailaren 27an

⁷⁵ DEAH, 1206/001, 9a.-15g.

⁷⁶ DEAH, 1206/001, 3a.

⁷⁷ DEAH, 1206/001, 10a.

⁷⁸ GARRIDO AGUILERA, Juan Carlos: *Op. cit.*, 47. or.

⁷⁹ DEAH, 1206/001, 3a.-6a.

⁸⁰ DEAH, 1206/001, 3a.-6a.

Amasako Pietateko baselizan. Kofradiako konstituzioak bete eta, ber- tan sartzeko, 16 ezkutu ordaindu behar zituzten bakoitzak⁸¹.

3.2.3 Antolamendua

Kofradiako karguak hertsiki lotuta zeuden korriedokoekin. Korriedoko prokuradoreak –ardura gehieneko kargua zen– kofradiakoa izan behar zuen.

Kargu garrantzitsu bat, 1615eko konstituzioetan azaltzen den moduan, maiordomoarena zen. Urtero bi maiordomo izendatu behar ziren kofradiaz arduratzeko. Kofradiako karguak txandaka betetzen ziren; kofradiakide guztiek bete behar zituzten. Kofradiakide batek kargu bat bete bazuen, hurrengo urtean salbuetsita geratzen zen, eta txandakatzea hobeto kontrolatzeko, kofradiako liburuan apuntatu behar zen nork betetzen zituen karguak.

Hauek ziren maiordomoen zereginak⁸²: urteroko funtzioa baino zortzi egun lehenago, erakundearren barruan karguren bat betetzen zuten kofradiakideei abisatzea haien eginkizunak betetzera garaiz iristeko, kofradiakideen kontu eta idazpen liburuez ardu- ratzea, kofradiakideek kofradiaren arauak betetzen zituztela ber- matzea eta hildako kofradiakideen arimarengatik antolatutako zeremonietan kofradiak egiten zituen bazkarietan zerbitzatzea.

Beste kargu importante bat kofradiaren barruan, 1706ko konstitu- zioetatik aurrera azaltzen dena, erizainena zen, maiordomoaren karguarekin nahasten ohi dena. Haien zereginak ziren: gaixo zeuden kofradiakideak zaintza, kofradiakideei abisatzea gaixoen- gandik ez aldentzeko, janariz hornitza urreurrenen eta hilet- elizkizunen ondoren, kofradiakideek ordaindutako kuotak jasot- zea, kofradiako kontu liburuaz arduratzea eta kofradiako liburua zein bildutako dirua gordetzen zen kutxaren giltza gordetzea.

3.2.4 Funtzioak

1615eko konstituzioetan, kofradiaren fundazioaren xede gisa ezartzen zen purgatorioan zeuden hildako kofradiakideen arimak salbatzea: “...por quanto una de las caussa principales por que se establecio y hordenó esta santa cofradía fue para socorrer las almas de los cofrades difuntos que están en el purgatorio...”⁸³.

Horren frogatzen dugu bazkariak egiten jarraitzeko kofradiakideek 1652an aurkeztutako eskaera: “...mejor sufragar las almas de los cofrades difuntos, celebrando mucho numero de missas y la fiesta en cada un año en el lugar del ultimo difunto...”⁸⁴.

Helburu hori lortzeko, mezak errezzatu behar zituzten hildako- en arimengatik⁸⁵. Behin abisatuz gero, kofradiakideek bederat- ziurrenetara eta urteurrenetara joan behar zuten eliz atorrekin eta boneteekin. Bestela, 4 errealeko zigorra ezartzen zitzaien. Soilik gaixo zeudenean, zaharrak zirenean (“que no puedan venir comodamente”) edo ikasten ari zirenean salbuetsita zeu- den joatetik⁸⁶.

Ehorzketa egunaren ondorengo bederatzi egunetan, ehorzketa eskaientzen zen parrokiako 8 edo gutxienez 6 apaizek joan behar zuten txandaka, nokturnoa kantatzen eta meza abestu bat erres- pontsuarekin ematera hildako kofradiakidearen arimagatik. Bederatziurrenean zehar, erizainek hiru argizari zuri jarri behar zituzten hilobiaren gainean⁸⁷.

Kofradiakide bat hiltzen zenean, erizainek ehorzketarako apainga- rriak eta hilkutxa prestatu behar zituen. Hilkutxa zapi beltz batekin estaltzen zen. Halaber 6 argizari prestatzen zituzten hilobiaren gai- nean jartzeko. Argizari horiek hildako kofradiakidearen omenez egin beharreko gainerako elizkizunetarako ere balioko zuten⁸⁸.

⁸¹ DEAH, 1206/001, 78a.-79a.

⁸² DEAH, 1206/001

⁸³ DEAH, 1206/001

⁸⁴ DEAH, 1206/001, 6g.

⁸⁵ DEAH, 1206/001, 3a.-6a.

⁸⁶ DEAH, 1206/001, 3a.-6a.

⁸⁷ DEAH, 1206/001, 12a.

⁸⁸ DEAH, 1206/001, 11a.

Beste kultuzko egintza bat Erniobeako Kofradian Ama Birjinaren Jaiotzaren egunean urtero egiten zen funtzioa zen. Kofradiakide guztia boneteak jantzia zituztela “con sus bonetes” elkartu behar ziren jaia ospatzeko. Eta maiordomoek, zortzi egun lehenago, karguren bat betetzen zuten kofradiakideak ohartarazi behar zituzten haien eginkizunak betetzeko garaiz iristeko; bestela, 4 errealeko isuna jartzen zieten⁸⁹.


Jaia azken kofradiakidea hil zen elizan ospatuko zen. Jai ibiltaria zen; herriz herri ospatzen zen, eta kofradiak zein herritan ospatu erabaki zezakeen. Jaia asteartean ospatzen zen, eta asteazkena bazen, hurrengo asteartera pasatzen zen⁹⁰.

Urteroko jai horretan, kofradiakide guztiek baziari bat ospatu behar zuten elkarrekin. Gehienez ere hiru plater zerbitzatzen ziren, eta kofradiakide bakoitzak gehienez ere 2 erreal ordaintzen zituen. Lehenik eta behin, mahaia bedeinkatu eta Jaungoikoari eskerrak eman behar zizkioten, eta zuzen jokatu eta neurrian jan behar zuten. Sobratutakoa pobreen artean banatzen zen.

Erniobeako Kofradiak gizarte-laguntzako funtzioak ere betetzen zituen. Kofradiakide bat auzitan sartuta baldin bazegoen eta abokatu bat ordaintzeko dirurik ez bazuen, kofradiak lortzen zion bat. Eta kofradiaren lagunza ukatuz gero, kofradiatik bota eta isuna jartzen zioten.

1656an, bi arau erantsi ziren kofradiako konstituzioetan. Horietako batek kofradiakideak behartzen zituen elkarri laguntzera. Kofradiakide bat gai-xotzen bazeen eta/edo biderakoa jasotzen bazuen, bi kofradiakidek lagundu behar zuten bai osatu arte bai hil arte, behar bezala hiltzen laguntzeko: “bien morir”⁹¹. 1706ko konstituzioetan, arau berri hori aipatzen zen, baina bertan esaten zen “erizainak” arduratzentzira gaixoaren egoera azterteaz eta zainduko zuten kofradiakideak izendatzeaz. 1656an, maiordomoa zen izendapen hori egiten zuena. Bi kasutan, ordea, gaixoz ez arduratzentzira zirenak postu horretan txandakatzen ziren.

Kofradiakideak elkarri lagundu behar zioten behar izpiritualetan. Kofradiakide bat gaixo zegoenean, erizainei abisatu behar zitzaien bisitatza joateko eta, gaixotasunaren arabera, behar zuen guztia



Erniobeako kofradiako kide baten ehorzketa (1706).

⁸⁹ DEAH, 1206/001, 3a.-6a.

⁹⁰ DEAH, 1206/001, 3a.-6a.

⁹¹ DEAH, 1206/001, 7g.

emateko. Era berean, sakramentuak garaiz ematen zizkiotela ber-matu behar zuten⁹².

Gaixo zegoen kofradiakideari sakramentuak ematen zizkiotenean, erizainek kofradiakideei deitu behar zieten gaixoa zaintzera joan behar zutela esateko. Kofradiakideek txandaka joan behar zuten; horrela, gaixoa ez zen inoiz bakarrik gelditzten. Bestela, 10 errealeko isuna ezartzen zitzaien⁹³.

3.2.5 Ekonomia

Diru-iturri garrantzitsuenetako bat kofradiakide bakoitzak ordaintzen zuen kuota zen: Kofradian sartzeko, “tres escudos de a diez reales de plata” ordaindu behar zituzten, eta urtean behin ezkutu bat kofradiaren gastuetarako. Kopuru horiek erizainen esku geratzen ziren. Erizainek gastuei aurre egiteko dirurik ez zegoenean, ermandadeari jakinarazi behar zioten⁹⁴.

Asko ziren kofradiakideek bete behar zituzten eginbeharrok, eta huts eginez gero, kofradiako diru-kutxak betetzen zituzten isunak ordaindu behar zituzten. Isunak, esaterako, funtzia oso zegoen egunetan dirua jokatzeagatik⁹⁵ eta kargua ez onartzeagatik jartzen ziren, baina batez ere funtzioretara, elizkizunetara eta batzordeetara ez joateagatik.

Kofradiak zuen gasturik nagusiena argizariarena zen; elizkizunetarako ezinbestekoa zen argizaria. Halaber, urteroko funtziaoa parte hartzen zuen organo-jolea ordaindu behar zuten.

Anoetako kofradiak erlijio katolikoa zabaltzeagatik ez ezik, gizartearen izan zuten eraginagatik ere izan ziren garrantzitsuak. Kofradiakide bakoitzak babestuta sentitzen zen bere eta bere anaikideen otoitzie esker. Eta gaixotasunaren edo pobreziaaren aurrean, kofradiakide gizartearen babesgabetasuna bete zuten benefizientziaren bidez.

Kofradiakide esker, Anoetako landa-gizarteak gizarte-loturak sortu zituen komunitatearen barruan. Elizkizunetara, prozesioetara eta hiletetara elkarrekin joateak gizabanako bakoitzari leku bat ematen zion taldearen barruan, eta gizabanako arteko eta gizabanakoaren eta taldearen arteko harremanak indartzen zituen. Eta orobat gizabanakoaren eta taldearen babes beharrak asetzten zituzten elkartasun-loturak sortzen ziren.


⁹² DEAH, 1206/001, 10g.

⁹³ DEAH, 1206/001, 10g.-11a.

⁹⁴ DEAH, 1206/001, 14a.

⁹⁵ Urteroko jaien edo hildako kofradiakideen urteurrenetan ezin zuten zorizko jokoetan dirurik jokatu. Bestela, 8 errealeko isuna ordaindu behar zioten kofradiari.

4. Fundazioak



4. FUNDAZIOAK

Erlizio-fundazio bat da hainbat ondasun edo kopuru ekonomiko kultuzko, karitezko edo benefizentziako ekintza batera bideratzeko ekintza⁹⁶.

Fundazio mota hauek daude⁹⁷: urteurrenak, oroimenak, kapilautzak eta ongintzako ekintzak. Jarraian haien arteko diferentziak azalduko ditugu. Lehenengo hiruen fundazioak hildakoen arimengatik mezak egitea zuen xede. Fundatailearen arima edo fundatailearen eta bere kargu zeuden arimak salbatzeko mezak izaten ziren. Ongintzako ekintzen helburua, berriz, filantropikoa zen, izan ere, emaileek aukeratzen zitzuten mezen onuradunak, gehienetan beren jatorrizko etxeari edo lekuari atxikitakoak, pobreak edo behartsuak izanik.

Fundazioen dinamika bat dator Trentoko Kontzilioak (1545-1563) kontu izpiritualetarako atera zituen dekretuekin; horietako batek arima salbatzeko ekintza onak egin behar direla baieztagaten du⁹⁸. Eta hala, Elizak berak sustatu eta sortu egiten ditu behar izpiritualak, eta kristauen bizitzaren ardatz bihurtzen du arimaren salbazioaren bilaketa.

Hildakoak bekatuak garbitzen zituen bere arimarengatik ordaindutako mezen truke, eta nolabaiteko elkartasuna sortzen zen hildakoena eta bizien artean. Bizien eginbeharra zen hildakoak “erreskatatzea” eta hainen arimak purgatorioan pasatzen zuten denbora laburtzen saiatzea⁹⁹. Bekatuak garbitzeko beste modu bat zen ongintzako ekintzak egitea. Normalean, hil ondoren egiten ziren. Legatu bat uzten zen, testamentu, kodizilo edo eskribauaren aurrean eman-dako eskritura baten bidez, eta hil ondoren, hildakoak izendatutako pertsonak arduratzen ziren haren borondatea betetzeaz.

Arima salbatzeko bide bat, herritar gehienentzat eskuragarria zena, kofradiak ziren. Kofradiek kofradiakideen arimen sufragioak erregulatzen zituzten. Beste aukera bat, elitistagoa zena, sufragioak eskatuz eta fundazioen bidez karitatea eginez testamentua egitea zen, baina ongintzako ekintza horiek ez zeuden herritar guztien eskueran; soilik aberatsenek eros zezaketen beren arimaren salbazioa modu horretan.

Oinarri teologiko hori komenigarria zen Elizarentzat oro har eta parrokientzat bereziki; izan ere, arimak garbitzeko inbertitzen zen diru eta ondasunak Elizako edo parrokiako kide baten esku geratzen ziren halabeharrez, apaizen diru-sarrera iturri bilakatuz¹⁰⁰. Horrela, bada, fundazioak emateak apaizen mantuela bermatzen zuen eta fundazioak ematen zituenaren komunitateko kide izateko sentimendua sustatzen, izan ere, emaileak, bere arima salbatzeaz gain, ahaideen eta auzotarren aitorpen soziala lortzen zuen.

4.1. Urteurrenak, Oroimenak eta Kapilautzak

Lehen aipatu dugun moduan, urteurrenen eta oroimenen arteko aldea oso txikia da; hori dela-eta, maiz nahasten dira. Garaiko dokumentazioan, bi termino horiek aldatu eta bi adierak helburu berberetarako erabiltzen dira. Urteurrenek fundatailearen heriotzaren urteurrena ospatzen zuten eta oroimenak fundataileak zehaztutako egunetan egiten ziren, eta ez hil zen egunean.

Urteurrenen fundazioak sortzen ziren urtean meza bat edo gehiago egiten zirenean fundatailearen heriotzaren urteurrenean. Eliza Zientzien Hiztegiaren arabera, egun jakin batean jazotako gertaera garrantzitsu bat oroitzeko urtero antolatzen diren erlilio-ospakizunak dira¹⁰¹. Aitzitik, oroimenen fundazioak fundataileak adierazitako egun jakinetan urtero enkargatzen diren mezak dira, esaterako, santu jakin baten jaia.

⁹⁶ Eliza Zientzien Hiztegiaren arabera, “erliliozko, karitezko edo ongintzazko ekintzaren bat xede duena” da fundazioa. (ALONSO PERUJO, Niceto; PÉREZ ANGULO, Juan: *Diccionario de Ciencias Eclesiásticas*. Bartzelona: Librería de Subirana Hermanos Editores, 1885, 693. or.). Alabaina, Antonio Mostazaren arabera hauxe da: “ondasun jakin batzuk karitezko helburu bat betiko lotzeko modu bat. Horrela, fundataileak hil ondoren bere borondatea beteko dela bermatzen du”. (MOSTAZA RODRÍGUEZ, Antonio: “Derecho patrimonial canónico”, *Derecho Canónico*, t. I. Irún: Nafarroako Unibertsitatea, 1974, 305-348. or. LÓPEZ LÓPEZ, Roberto J.: *Comportamientos...* Op. Cit., 136. or.).

⁹⁷ *Ibidem*, pp.305-348; LÓPEZ LÓPEZ, Roberto J.: *Comportamientos...* Op. cit., p.136.

⁹⁸ GONZALEZ NOVALIN, José Luis (Zuz.): *La Iglesia en la España de los siglos XV y XVI*. Madrid: Editorial Católica, 1980, 491-493. or.

⁹⁹ LE GOFF, Jacques: *El nacimiento del Purgatorio*. Madrid: Taurus, 1985, 374. or.

¹⁰⁰ CATALÁN MARTÍNEZ, Elena: *El precio del purgatorio: los ingresos del clero vasco en la Edad Moderna*. Bilbao: Servicio Editorial. UPV/EHU, 2000, 26. or.

¹⁰¹ ALONSO PERUJO, Niceto; PÉREZ ANGULO, Juan: *Diccionario...* Op. Cit., 505. or.

Urteurrenak zein oroimenak betikoak edo aldi baterakoak izan daitezke, denbora tarte jakin baterako edo betiko ezarri diren arabera. Alabaina, zalantzak izanez gero, betikoak direla pentsatuko dugu, betikoa baita fundatzaleak bere arima garbitzeko duen borondatea¹⁰².

Bi kasuetan, emaileak ondasun jakin batzuk bideratzen zituen fundazioan zehaztutako ospakizun liturgikoen kostuari aurre egiteko. Karga horrek, honenbestez, urteurrena edo oroimenak fundatzeko jarritako ondasunak batuko zituen. Alabaina, ondasunak zatitz gero, karga jabeen artean banatu behar zen.

1672. urte inguruan, Anoetako parrokiak zeuden urteurren, oroimen eta kapilautza kopuruen berri ematen duen agiri bat topatu dugu¹⁰³. Espediente baten barruan zegoen agiria dugu. Bertan, Jose Antonio Carrera parroquia-kabildoaren kide bakarrak eta benefiziodunak Iruñeko Gotzaingoari eskatu zion fundazioek eskatutako ospakizun kopurua murritzeko, izan ere, bizi-mailak gora egin zuen baina mezariek ez, eta ondorioz, ezin ziren meza guziak eman. Gotzaingoak Carreraren eskaera onartu zuen. Ondorengo taulan, fundatzileen izenak, ospakizunetarako utzitako diru-kopuruak eta eskatutako meza motak ikus daitezke.

Fundatzalea	Printzipala	Urteko errenta	Urteroko mezen kopuria
Maria Domingo Goikoetxea	20 dukat	dukat 1	- 11 meza, kobrezko erreal bana meza bakoitzeko
Domenja Arrutarte	100 dukat	5 dukat	- 26 meza errezatu, kobrezko erreal bat eta 30 marabedi meza bakoitzeko - Urteurren bat dukat erdiaren truke
Joanes Etxeberria		35 dukat	- 6 meza errezatu, kobrezko bi erreal meza bakoitzeko - Aldareko Sakramentuarentzako argiak, 24 dukat
Miguel Munita eta Katalina Legarra (Senar-emazteak)	40 dukat	2 dukat	- 11 meza errezatu, kobrezko bi erreal meza bakoitzeko
Miguel Idiaquez (Kapilautza 1632an)	570 dukat	28 dukat eta erdi	- 116 meza errezatu, kobrezko bi erreal eta 25 marabedi meza bakoitzeko
Martin Munita (Kapilautza 1615ean)	400 dukat	20 dukat	- Goizeko meza 1 jaiegunetan errezatua (84tik gora), kobrezko bi erreal eta erdi meza bakoitzeko
Maria Tapia	20 dukat	dukat 1	- 4 urteurren herri-mezarekin, 11 lakari-lauden ogi eta argizari eskainiz
Bartolomé Ydiaquez eta Mariana Mendigal		2 dukat	- 6 urteurren herri-mezarekin, 11 lakari-lauden ogi eta argizari eskainiz
Maria Miguel Galatas	40 dukat	2 dukat	- 7 meza errezatu, kobrezko 3 erreal eta 5 marabedi meza bakoitzeko
Miguel Munita eta Katalina Legarra (Senar-emazteak)	40 dukat	2 dukat	- 7 meza errezatu, kobrezko 3 erreal eta 5 marabedi meza bakoitzeko
Juan Lopez Albistur (Kapilautza)	1000 dukat	50 dukat	- 3 meza errezatu astero, 3 erreal eta erdi meza bakoitzeko

Mezen taula (1672).¹⁰⁴

¹⁰² ÁLVAREZ Y GÓMEZ, Mariano: *Manual de Capellánías y Pías Memorias*. Gasteiz: Cecilio Egañaren inprimaketa eta kodernaketa, 1903, 506. or.

¹⁰³ IEA, C/2590, 5. zk.

¹⁰⁴ IEA, C/2590, 5. zk.

XVIII. mendean zehar, Anoetan, oroimenak eta urteurrenak fundatzen jarraitu ziren, horren adibide dugu Maria Arrutartek eta bere alaba Josefa Antonia Jauregik 1730ean¹⁰⁵ edo Maria Josefa Etxeberriak 1785ean¹⁰⁶ emandakoak, eta baita XIX. mendean zehar ere, hortxe ditugu, esaterako, Jose Ramon Gaitarrok 1881n ezarritako oroimenak¹⁰⁷.

Kapilautzei dagokienez, Kapilautzen eta Ongintzako Oroimenen Eskuliburuaren arabera, hauxe da kapilautza: “fundación perpetua hecha con la obligación aneja de cierto número de misas u otras cargas espirituales en iglesia determinada, que debe cumplir el obtentor en la forma y lugar prescritos por el instituyente”¹⁰⁸.

Kapilautzen fundazioaren helburua “talde” baten arimen sufragioa mantentzea zen. Talde horretako kideak ez ziren nahitaez senitartekoak izan behar, baina guztiak nahi zuten beren arimaren aldeko mezak bermatu. Fundatzalea zen baldintzak finkatzen zituen: kapilautza-mota, diru-kopurua, kapilaua, zaindaria, etab.

Kapilautzak, batez ere, bi motatakoak izan zitezkeen: kapilautza laikoak edo laikoen patronatuak eta eliza-kapilautzak. Kapilautza laikoak edo laikoen patronatuak elizaren esku-hartzerek gabe eratzen ziren. Kapilautza mota horiek eta maiorazkoek antza handia zuten¹⁰⁹. Eliza-kapilautzak, ordea, familiarrak edo ez familiarrak izan zitezkeen. Bertan esku-hartzzen zuten eliza-againtariek, Aita Santuaren edo Gotzainaren baimenarekin¹¹⁰.

Bi eliza-kapilautza mota zeuden: familiarrak edo odolekoak, non patronatua familia jakin bateko ahaide edo gizabanako batekin lotzen zen¹¹¹ eta ez familiarrak, non patronatua ez zen fundatzalearen ezein ahaiderenak edo ezein familia jakinarekin lotzen.

Kapilautza laikoen zaindaria aukeratzeko orduan, ez zuen axola haren sexuak edo egoera zibilak, eta haren betebeharren artean zegoen mezak egiten zirela egiaztatzea, “maiorazkoari” lotutako ondasunak mantentzea, kapilaua hautatzea, etab. Eta horixe zen eliza-kapilautzen patronatutik bereizten zuena.

Ohiko antolamendu hau irudi eta formen bidez adierazi daiteke. Hala, esan genezake ohiko gizarte honek bere burua ikussten eta ulertzen duela neurri ezberdinak esferez osaturik. Hauetatik txikiyenek handiago baten barnean bilatuko dute babes. Hauetako bakoitza unibertsotxiki bat da eta antzeko baloreak ditu. Honek ahalbidetzen du pertsonek uler dezaten zein den bere lekua munduan eta zer den haiengandik espero dena.

Lehenengo esfera, pertsonek baloreak hartu eta jokabideak ikasten dituzten lehen gizarte-esparria, etxearen, baserriaren, eta familiaren inguruan bilatuko da. Mundu hau familia buruaren ardura da: Etxeko Jauna edo Etxeko Andrea. Hauek ez dira zehazki etxearen jabeak, honen administratziaileak baizik. Sarritan hauek maizterrak dira. Familiaren eta familiaren etxearen izen onaren arduradunak dira eta, orobat, ordezkatzen duten talde osoa eginaraztearenak. Familia buruei begirunea eta obedientzia zor zaie. Haiek bilatzen dituzte bideak eta estrategiak, etxeak eta sendiak iraun dezaten eta behera etor ez daitezten.

Horretarako, beren lanaz eta menpean dituzten pertsonaz baliatzen dira, hauek odol berekoak nahiz bazkideak edo ezkonsenideak izanik ere. Baino, batez ere, haien hurbilekoen etorkizuna erabakitzeko gaitasunaz baliatzen dira. Horregatik, aita eta ama ez ezik, Jauna eta Andrea dira. Hartara, familia buruek badute erabakitzerik zeinen eskutan uzten duten etxea edo baseria, eta aukeratzen duten harixe ematen diote sendiaren ondasunen zatirik handiena eta sendiaren administrazio eta gobernuarekin jarraitzeko ardura. Honela, maiorazkoak ohitura-legearen arabera etxeko ondasunen jabe eta jarraitzaile izateko izendaturiko gizonezkoak edo emakumezkoak dira. Gehienetan lehen jaiotako semea izan ohi zen maiorazko gisa izendatua. Horrez gain, oinordeko berriak gainerako senideen ardura hartu beharko du: besteak bere menpe hartuz edo seniparteak ordainduz, bizimodu aurrera atera ahal izan dezaten⁹.



(Alliriko baserritza)

Alliriko Emilio Garmendiaren eta Josefa Tolosaren arteko ezkontza-argazkia. Anoeta.

Alderdi hauak guztiak ezkontzen eta testamentuen bidez arautzen dira. Hau da, ezkontzak sendi guztiaren, eta bereziki, senar-emaztegaien interesen arabera hitzartzen ziren. Ezkontzaren menpeko baldintzak, esate baterako, ezkonsariak eta aipatuko ditugun seniparteak, ezkontza-hitzarmenetan jaso eta testamentuetan berresten dira.

Gainera, etxeak, bere harremanez edo inguruko pertsona garrantzitsuenek emandako kontaktuez baliatuz, bestelako irteerak eskaintzen dizkie bere kideei: maila apalagoko ezkontzak, Ameriketara alde egitea, erlijio-bizitza, lanbide bat ikastea, ikasketak...

⁹ William Douglass (1973, 2003: 117-187)



Ateaga baserriko 'etxeakoak'. Anoeta.

(Ateaga baseria)

Hala, pertsonek leku bat, estatus bat lortuko dute gizartean baldin eta eskaintzen dizkieten bideak onartzen badituzte. Bestela, familiak eta etxeak eman diezaieketen babesik gabe bizitzen arriskatuko dira. Ez baita ahaztu behar gizarte honetan ez dagoela ongizate aukerarik ez gizarte-laguntzako erakunderik (gizarte segurantza, ongizatea, laneko bajak, aseguruak, pentsioak, sindikatuak...). Beraz, laguntena eta babes hau gabe, zahartzeak, gaixotzeak eta antzekoak diren bizitzako egoerek eskaletasunera edo txirotasunera eramango lukete pertsona... edo bestela, beren auzoen karitatearen menpe jarriko lituzkete, hauek lagundi ahal izateketan, behintzat.

Eta hau gutxi balitz, ohorea, denon helburuen parte izatea eta behar bezala jokatzen dutenek lortzen duten begirunea dira gizabanakoak gizarte honetan aurki ditzakeen beste eragingarri batzuk.

Pertsonak etxearen eta familiaren esferan antolatzen diren bezalaxe, etxeak komunitateetan, kontzejuetan, antolatzen dira, non gobernatzenko eta antolatzeko papera udalaren esku dagoen. Erakunde hau komunitateko etxe guztiak partekatzen dituzten ondasunak banatzeaz arduratzen da.



Zenbait anoetar. Tolosa.

(Tolosaldea Historia Bilduma 13 / 2008).

Era berean, kontzejuaren esfera, probintziaren esferaren barnean kokatzen da. Azken honetan Batzar Nagusiek gobernatzen dute, eta bertan, udal guztien ordezkariek daude. Hiribilduak eta herriak senide gisa elkartzen dira eta probintzia da guztien ‘ama’.

Zehaztu behar dugu Anoetarena bezalako komunitateek, biztanle gehiegia ez dutenek, probintziaren esferan sartzeko bitarteko bideak dituztela. Bide hauek izan daitezke antzeko ezaugarriak dituzten herriekin biltzea edo ‘senide handiago’ bat bilatzea, babesea bermatuko diona. Anoetak bigarren bide hau hautatu eta Tolosaren esku jarri zen, besteari beste, probintziaren mailara iristeko. Gerora, 1742an Alkizarekin Ainsuko ermandadea eta 1815ean Alkiza eta Hernialderekin Ainsuberreluzeko ermandadeak eratuko ditu¹⁰.

Probintzia ere esfera handiago baten barnean dago, erregeak zuzendutakoa. Honenbestez, hiribilduek aita eta, bide batez, jauna ere badote. Babes honekin, probintziak senide gisako lotura onartzen ez dutenen aukako babesea bilatu nahi du.


Era berean, erresuma esfera zabalago batean dago, erlijio katolikoarenena. Gainera, probintziak erabateko bermea bilatu nahi du modu honetan erregeak egin ditzakeen gehiegikerien aurrean. Horretarako, bere antolamendu politikoaren justifikazioa Jainkoaren nahian bilatzen du. Hala, Aita eta Jaun Gorena bihurtzen da Jainkoa.

Hortaz, esparru hauetan guztietan antzeko antolamendua dagoela ikusten dugu. Aita-irudiak buru dituen hierarkia bat dago: Jainko-Erregea-Probintzia-Udala-Familiaburua. Irudi honi begirunea zor zaio, ordena, justizia eta etorkizuna bermatzen duen neurrian.

2.3. Auzoa

Auzoen arteko harremanak oso estuak izaten ziren, konbentzio eta elkarrekiko betebehar ugari biltzen dituen kode baten menpekoak. Zenbait egoeratan auzoak eginkizun berezi batzuk bete behar zituen¹¹. Etxean zorigaitzen bat gertatuz gero edo norbait hilzorian

zenean, auzoari esan behar zitzaison lehenbizi eta honek bere gain hartzen zuen sendagile, apaiz edota senideei dei egitea. Etxeko jauna gaixotzen bazea, auzokoek laguntzen zuten etxeko lanetan edota abereekin. Honek guztiak erakusten du harremanak oso estuak izaten zirela, eguneroko bizitzan, auzokoekin ahaideekin baino, batez ere baserri herriean etxeak urrun baitzeuden.



Alkartasuna herriko pilotalekuaren bota aurretik zenbait herritarrek ateratako argazkia. Anoeta, 1971.

Ondoko ataletan sakonago deskribituko den bezala, lekukotza emai-leen hitzetan “senidea baino lehenago zen lehen auzoa”; “auzoko bi lehendabiziko etxerekin baino, parienteekin haserre hobe”. Hala izanik ere zenbait lan, ahalegin handiak eskatzen zituztenak, auzoen artean burutzen ziren: artozuriketa, laiatza...

Anoeta hiru auzotan banatuta dago: Ergoien, Goiballara eta Elbarrena bailara. Auzoen betebeharrezkoa hauen arabera antolatzen ziren. Baserri bakoitzak auzo hurbilekoia izaten zuen, eta erlazioa elkarrekiko zen, hau da, A baserriaren auzo hurbilekoia B bazen; B baserriarentzat A. Hauek ziren Anoetako baserri bakoitzaren auzo hurbilekoak:


¹⁰ Pablo de Gorosábel (1862: 39 eta 5)

¹¹ William Douglass (1973, 2003: 187-213)

Aginagazpikoa: Asuribar
 Aginagaetxeberria: Bideondo
 Agirre: Sarobe
 Alliri: Erausia
 Apaetxe: Borondegi
 Argindegia: Mikelasagasti
 Arozetxea: Errota
 Arrese: Urrutinea
 Arrutarte: Tapia
 Asuribar: Aginagazpikoa
 Ateaga: Ipintza
 Ateaagaetxeberria: Iturrealde
 Barrundia goikoa: Katategi
 Barrundia behekoa: San Juan
 Bideondo: Aginagaetxeberria
 Borondegi: Apaetxe
 Buztīnaga: Mendigibel
 Eguzkitza: Idiakaitz
 Erausia: Alliri
 Errota: Arozetxea
 Etxeberria: Luebana
 Goikoetxea: Igerabide
 Idiakaitz: Eguzkitza
 Igerabide: Goikoetxea
 Ipintza: Ateaga
 Iturgaitzaga: Katategi
 Iturrealde: Ateaagaetxeberria
 Katategi: Barrundia Goikoa
 Luebana: Etxeberria
 Mendigibel: Buztīnaga
 Mikelasagasti: Argindegia
 San Joan: Barrundia Behekoa
 Sarobe: Agirre
 Tapia: Arrutarte
 Txulo: Urritzeta
 Urritzeta: Txulo
 Urrutinea: Arrese
 Zumalikardi: Bideondo

1. graf. Anoetako baserri bakoitzaren auzo hurbilekoak.

Bazen ere lan mota bat auzoaren eta hainbatetan herriaren alde egiten zena: auzolana. Auzolana, komunitatearen garapenerako burututako elkarlan antolatua zen; auzoko bizitza arruntean auzokoek zituzten azpiegitura eta baliabideen beharrak lantzeko auzokoek elkarrekikotasunean burututako ohiturazko lana. Auzolanaren bitartez auzokideen arteko elkartasun sareak eraikitzen ziren, elkartasun sare hauek giza harremanak zituzten oinarri. Normala zen herribideak garbitzeo, belarra moztu eta biltzeo... baserrien arteko elkarlaguntza gauzatzea.



(Jesús Elosegi)

Anoeta eta Irurako Etxezarreta paper fabrika batzen zituen zubia uholdeak eta gero. Anoeta, 1953.

Anoetan 70. hamarkadara arte iraun duen auzolana, auzokoek kontzeju irekiez osatutako gizarte antolamendu kolektibo haren aztarna izan daiteke; baita auzokoentzako berdinaren arteko berdintasun printzipioarena ere, izan ere auzolanerako deituak izan eta elkartzen ziren ‘auzokoek’ betebehar eta eskubide berak baitztuzten. Beraz, ‘etxe-jabe’ edo ‘auzokoentzako’ figura duela gutxi arte mantendu dela esan genezake.

Anoetan, XX. mendean, besteari beste ondoko lanak burutu ziren auzolanean: 1942an herriko pilotalekua (auzolanean eraiki zenez Alkartasuna izena jarri zitzaien); 50. hamarkadan Madril-Irun trenbidearen geralekua Renfek egin bazuen ere herriko baserritarrek lagundu zuten; 1953an, Guadalupe paper fabrika eta Anoeta batzen zituen zubia uholdeek bota ostean, herriko baserritarrek auzolanean berreraiki zuten Rezolak eta Orbegozo enpresek porlana eta burdina eman ostean. 1952an herriko eskolak eraikitzeko baserritarrek laguntza emateaz gain, egurra ere eman zuten, ordu arte Kontzejuko edo Udaletxeko bigarren solairuan ematen ziren klaseak.



Herriko zubia uholdeek bota zuteneko argazkia. Anoeta, 1953.

(Argindegi baserrirua)



Herriko plaza eta 1942an auzolanean eraikitako pilotalekua. Anoeta.

(Anoetako Udal Artxiba)

1964an San Joan Bataiatzailearen elizaren zati bat erre ostean, ‘zimitoioa’ edo elizako arkupearen berreraiketa; ‘zimitoioa’ edo ‘dotriñeta’ erre ostean auzolanean eraikia izan zen nagusiki. Ramon Murua erretoreak honela deskribitu zuen erreketa eta berreraiketa¹²:

“(...) Izen ere 1964ren Urrillaren 11 gauean, ez nola ta ez nudik su artu zuan nola ez dakigula, erre ta kiskalli zitzaignun Dotriñeta izenaz, ezagutzen genun elizpea, bere ganbara ta guzti, ta antxen erre zitzaitzigan bertan gordetzen genitun santuak prozesioan erabiltzeko zerraldo, ildakoak ekartzeko angarillak, baita aldare aurrean illetan jartzen ziran lau egurezko kandelero aundiak ta ostegun santuko monumentu zarra ta egin berria. (...)

Horrela ba suketaren berri Gotzaia eman ondoren, asi giñan lanean: lendabizi diru biltzen asi ta erriko jendeak ederki erantzun zun, bear zanaren erdia baño geyago; obispadutik 10.000; Segurok ordaindua 18.982 Diputazioak 40.000, burdin zarraz 1.000 pezta.

Labayen tar Joakinaren laguntzalea zan Mugika tar Ramon Jauna ta eurak egindako marrazkin 150.753 peztara eltzen ziran gaztuak. Otzaillean ekin genun erretakoa berritzen: lan geyena auzolanen egin zan ta lana zuzentzeko artu genun Gorostidi tar Antonio igeltzeroa ta Garragarrillaren aizkeneako bukatu ziran lanak. (...) Ala izan dedilla. Murua tar Erramun Erretoreak”.

Baserritarrek ohikoak zuten auzolaneko jarduera bat izaten zen bidegintzarena. Auzoko bideak, oinezkoen eta gurdibideak; baina auzoko elizbideak edo gurutzbideak txukun mantentzeko ere elkartzen ziren auzotarrak, herritarrok. Horretarako esandako egunean, tokian eta orduan denak elkartzen ziren. Sarritan egiten zen jarduera izaten zen, urtero behintzat bai, bestela, sasiak bazter guztiak hartzen zituelako. Ergoien, Goiballara eta Elbarrena bailaretako hairbat bide ireki eta urtero mantendu dira, adibidez Argindegij baserrirako bidea edota 1976an hilerrirako bidea. 2004. urtean Goibailarako bidea bailarako biztanleen artean zabaldu zuten. Urteroko errito honek, auzotarren arteko sozializazioa sustatzeko eta sendotzeko baliagarria izaten zen, eta bertan auzoko arazoez gain, herriko gora beherez ere hitz egiteko egun apropoza izaten zen.



Herriko Zubia uholdeek bota zuteneko argazkia. Anoeta, 1953.

(Argindegij baseria)

¹² Ramón Murua: ‘Anoetako Ikastolaren sorrera’; Lazkaoko Benediktarren Artxiboko Ramón Murua funtsa, sailkatu gabeko dokumentua.

Anoetan oraindik mantentzen den komunitatearen beste elkartasun baloreetako bat, baserriko Suteen Aurkako Anaitasuna¹³ elkartearena da, 1946an sortu zena. Elkartea hau suaren eraginez eroritako etxe eta baserriak berreraikitzen laguntzeko sortu zuten. Elkarteko kideek kal-tetuari ondoko eran laguntzen zioten: diru-laguntzak emanez, materiala jarriaz (batik bat haritz eta gaztainondo egurra) eta eskulana eskainiaz. Honela, urte hasieran, errege egunez, urtarriaren 6an, etxeen jabeak bildu ohi dira dagokien kuota ordaintzera. 1946an 25 pezetako kuota ordaindu zuen bazkide bakoitzak. Hasiera batean, Anoetako Udaletxean bildu ohi ziren, gero Kontzejuaren, 1999az geroztik Modestoenean eta 2005. urtetik aurrera Alkartasuna Anoetako jubilatuaren elkartearen egoitzan.

Elkarte honek berreraikitzen lagundu zuen lehen baseria Alliri izan zen. Alliri 1960ko apirilaren 24ean erre zen. Baserritar bakoitzak diru-

lagunza emateaz gain, auzolanearan, baserritar bakoitzak hamabost egunez aritu zen berreraikuntza lanean; lan hauetan apirilaren 27tik ekainaren 17ra bitartean egin zituzten. 1966ko uztailaren 9an Arrutarte baseria erre zen. Kasu honetan ere auzolanaren eta dirula-guntzari esker berreraikia izen zen aipatu baseria. 1968ko abenduanen 8an Ildiakaitz baserriko bi etxebizitzak erre ziren eta 1978ko azaro hasieran, Urritzeta baseria; bi kasu hauetan diruz lagundi zitzaien baserrien nagusiei. Gaur egun, elkarte honen bazkideak hogeita zortzi dira eta urtarriaren 6an hauetako gehienak elkartzen dira.

2.4. Aldaketa

XX. mendea aldaketaren menda izan zen. Aldaketen, memoriaren, gerren eta teknologiaren menda. Bizi eredu tradizional batetik, bizi molde industrial baterako trantsizio garai etengabea izan zen aro hau.



Gizon-probak Tolosako zezen plazan. Tolosa.

Argindegi baseria

¹³ Suteen Aurkako Anaitasuna espeditorea, Alliri baserriko funtsa. Elkartea hau 1946an sortu zuten ondorengo baserritar eta etxejabeek: Felix Urkola (Barrundi); Basilio Zugasti (Erauski); Ramon Amonarriz (Txulo); Joakin Uzkudun (Eguzkitza); Agustin Beraza (Buztinga); Juan Artola (Mendigibel); Miguel Uzkudun (Idiakaitz); Jose Mari Otaegi (Barrundi); Inazio Aranzabal (Argindegia); Emilio Garmendia (Alliri); Simon Zuriarain (Sarobe); Jose Aldasoro (Iturgaitza); Hipolito Iraola (Tapia); Felix Olozaga (Agerre); Balentin Maioz (Aginazpi); Joxe Garmendia (Asuribar); Lazaro Saralegi (Mikelasagasti); Pedro Sarasola (Bideondo); Markos Sarasola (Zumalikardia); Martin Zugasti (Apaetxe); Jose Bidaror (Ateaga); Luis Garmendia (Arotztxe); Jose Otaegi (Urritzeta); Maria Esnaola (Sarobe); Antonio Sarasola (Iturrealde); Maria Otaegi (Etxeberria); Patxi Goikoetxea (Aginaetxeberri); Jose Inazio Iturrioz (Urrutiñea eta Iriarteburu); Antonio Garmendia (Ateagaitxeberri); Modesto Ormazabal (Modestonea); Demetrio Irazusta (Arrotarte); Joxe Martin Uzkudun (Argindegia); Francisco Arregi (Zubiaurre); Jose Julian Ugartemendia (Lumane); Juan Jose Lasa (San Juan); Antonio Kortajarena (Goikoetxea).

Esperimentazio industrial horren ondoren eman zen Anoetan aldaketa demografikoa. Bizi ereduaren aldaketak berarekin, beste hainbat aldaketa bezala, demografiaren eta, oro har, populazioaren hazkundea ekarri zuen. Kontuan hartu behar da Anoeta etxeen inguruaren oinarritutako gizarte tradizio batetik datorrela, eta tradizio horri uko egin gabe, industrializazio indartsu baina orekatu bat ateaek zabaldu zizkion hainbat industrien sorrerarekin. Ez gara baina antolamendu egitura soilaz ari, familiaren inguruan antolatutako gizarte batek familia bakoitzaren buruaskitasunean baitu funtsa. Eta beraz, pentsa liteke enpresak sartzearekin batera buruaskitasunera-ko joera hori apurtu egin zela, eskulana eta soldatapeko lanaren sarrerarekin. Ez zen aldaketa bakarra izan, sozialki gerora merkatu interesek gidatutako eredu batek edo gizabanakoaren interesez gain hartu zuten bizimodu baterako igarobide bat ere eskaini zuelako enpresa munduak. Gizarte espezializazioa ere ekarri zuen aldaketak. Hori denboran zehar garatuz joan zen prozesu bat izan zen. Horrek, gizartean eragin zituen aldaketa guztiekin.

Jorratutako lurak emandako etekinetatik bizi eta familia-etxearen inguruan biltzen zen garaiko antolamendu ohikotik aldendu eta herri egitura sendoago batera XX. mendean zehar eman zen bila-kaera. Familia belaunaldi ezberdinak batzen zituen eredu hori alda-tu egin zen, familia nuklear batera igaroaz. Etxe berean bizi zen familia kideen kopurua murriztu egin zen, antolakuntza modu berria zela-eta. Herriko bizi antolamendua ezberdina baitzen eta Anoetak antolamendu eredu modernoago bati helduko zion ondo-rioz. Nahiz eta, hala ere, zenbait egiturak, fabrikak adibidez, famili eredukoak eta belaunaldiz belaunaldi igaro zen tradizio bateko-ak izaten jarraitu. Oraindik, iragan mendeko azken hamarkada arte, gizabanakoaren inguruan baino familiaren inguruan antolatutako egitura zen Anoeta, nahiz eta familia egitura hori txikitu; industria moldeetara moldatu zen. Baina aldaketa prozesu hori ez zen bat batean eman, XIX. mendearren amaieran hasi eta denboran zehar garatu zen, oraindik ez da amaitu.

Antolamendu berri hori herri egituraren sendotzeari lotuta ulertu beharko litzateke. Lehendik zetorren herri kontzientzia bat, izarea bat sendotu zen XX. mendearren hasieran. Herriak bere eskumenak era-bili eta zerbitzu eskaintza bat finkatzen hasi zen. Herritar figura indar-



Agirreko baserritarra ur bila. Anoeta.

(Agirre baseria)



Agirreko nekazaria segarekin belar-mozten. Anoeta.

(Agirre baseria)



(Agirre baserria)

Agirre soroan zekale aleak ereiten. Anoeta.

tuko zen ondorioz, banako herritarra. Aldaketa horretan eragina izango zuen, nola ez, sufragio unibertsalak. Anoeta ez baitzegoen men-debaldeko gizartean ematen ari ziren aldaketetatik aparte.

Anoetaren bilakaera historikoa Hego Euskal Herriaren eboluzioaren metafora gisa hartu daiteke: industrializazioak erabat eragindako nekazal udalerri txikiarena alegia¹⁴. XX. mende hasieran biztanlerien hazkunde progresiboa izan zuen. Honen arrazoia, batik bat, trenbidea eta herrian sortutako industria txikiak izan ziren. 1864ean eraikitako Madrid-Irun trenbideak Anoeta zeharkatzen baitzuen; gerora 40eko hamarkadan Anoetak bere geralekua lortu zuen.

Industria txiki horiek galdarategi eta fundizio empresak ziren. Gauzak honela 1950ean Anoetak zuen populazioa mende hasierakoa baino %25 handiagoa zen. 60ko hamarkadan industrializazio garapenak etxebizitzen eraikuntza booma (San Jose Obrero auzoa eraikitzean batik bat) bultzatu ostean, hogei urtetan Anoetako biztanleria hirukoitzu egin zen. 90eko hamarkadan, Hego Euskal Herriko joerarekin bat eginez, batik bat langabeziak eta familia baloreen aldaketeak hala eraginda, Anoetarren populazioak behera egin zuen. 2000. urtetik hona, herrian eraiki diren etxebizitza berriek eta inguruko herrietako etxebizitzen prezio altuagoak eraginda, populazioak igoera txiki bat izan du.


¹⁴ Mikel Errazkin Agirrezabal (2006: 214-216)



(Jesús Elosegi)

Tolosako asteleheneroko peria, Anoetako nekazarien elkargunea. Tolosa, 1945.

Biztanleriaren bilakera



2. graf.: Anoetako biztanleriaren bilakaera.

Egungo Anoetako biztanleriari dagokionean bi datu azpimarratu daitezke. Alde batetik, bertan bizi diren herritarren artean dagoen barne-migratzaire kopuru handia, batez ere inguruko herrietatik Anoetara etorritakoena alegia, eta bestetik, 0-19 urte arteko herritar gazteen indize altaua.

ANOETA	Guztira	Sedentarioak	Barne-migratzaileak	Etorkinak
Gipuzkoa	673.208	%52,29	%27,16	%20,55
Tolosaldea	44.344	%54,47	%35,49	%10,03
Anoeta	1.709	% 39,14	%54,30	% 6,65

3. graf.: Biztanleria, lurralte-eremu, migrazioarekiko erlazioaren arabera, 2001¹⁵

ANOETA	Guztira	Biztanleen dentsitatea	0-19 urte	20-64 urte	<65 urte
			Guztira %	Guztira %	Guztira %
Gipuzkoa	676.208	341,5	139.147 %20,58	432.626 %63,98	104.435 %15,44
Tolosaldea	44.289	133,3	9.328 %21,06	28.055 %63,35	6.906 %15,59
Anoeta	1.776	70,5	454 % 25,56	1.155 % 65,03	167 % 9,40

4. graf.: Biztanleriaren egitura, adin-taldeen arabera, 2001¹⁶

Esan bezala, oso azpimarragarria da Anoetan bizi diren herritarren artean dagoen barne-migrazio indize altua (%54,30). Herritarren erdia baino gehiago barne-migratzaile izatearen zergatia; 1960tik 90ra Anoetan izandako boom inmobiliarioan koka genezake.

Honek inguruko herrietako hainbat biztanleren migrazioa bultzatu zuen, batik bat pisu merkeagoen bila zetorren jendearena. 1983an egindako inkesta batek zioenez, Irura-Anoetan bizi zen populazioaren %44,1 udalerrian bertan jaio zen¹⁷. Adierazgarria da portzentajea, bertan jaiotakoek ez baitute populazioaren erdia ere osatzen. Anoetaren izaeraren irekitasuna adierazten du datu horrek. Etorkinen kopurua gaur egun handia ez bada ere, herritarren %6.65, aipatutako hiru hamarkadetan kopuru hau altuagoa zen. 90eko hamarkadako industri krisiak eraginda, hainbat etorkin bere jaioterrira itzuli baitzen.

Beste datu esanguratsua 0-19 urte arteko herritarren indize altua da: 1996ko erroldaren arabera, %25.56¹⁸. Datu honen arrazoia ere azken hamarkadetan emandako biztanleriaren igoeran datza. Hamarkada hauetan Anoetara bizitzera etorri ziren biztanleen seme-alabak baitira nagusiki herritar hauek.

2.5. Nekazaritza-ekonomiatik industria-ekonomiarako pausoak

50. hamarkada arte nekazaritza zen Anoetako ekonomia-jarduera nagusia. Anoetarrak laborantza¹⁹ (15 ha.), abeltzaintza (201 ganaduburu, 4 txerri, 9 zaldi, 48 asto) eta baso ustiapenaz (223 ha.) bizi ziren; batik bat arto, barazki eta lekale produkzioaz. Hiru nekazal auzotan banatzen ziren Anoetako 30 baserriak: Goibailara, Elbarrena eta Ergoiena. Industria jarduera oso txikia zen, Alkiza errekan kokatuta zegoen elektrizitate indarraren sorgailu zen zentrala (496.620 kW/h), eta enpresa txiki gutxi batuetara mugatzen zen.

Gaur egun, lehen sektoreak garrantzia nabarmenik ez badu ere, base-rriko ustiapen soiletik bizi diren familia baserritarra bost bakarrik dira; aipagarria da Anoetako lurren ia erdia erabilpena duen nekazaritza-gainazala dela. Honek zera erakusten du, baserrietan bizi den hainbat herritarrek bizimodu mistoa dutela, baseriaren ekonomia sostengu bezala nekazaritza eta industria konbinatzen dituztela.

Egun, Anoetako ekonomia-jarduera nagusia bigarren sektorekoa da. Tolosareniko gertutasunak eta komunikazio onak edukitzeak, Madril eta Paris elkartzen dituen N-I autobidea gertu dago, jarduera industriala bultzatu du, batik bat galderagintza, industria elektrizitate eta makinagintzara. Egun, Anoeta eta Tolosaldeko enpresak postindustrializazio fasean daude. Behin industri krisia gaindituta industri sektorean eraldakuntzan, hirugarren sektoreak industriarekin konpartitzen du bere esparrua. Eskualde ikuspegia duten autoen kontzesionario eta tai-lerek garantzi handia dute.

Lan-sektorearen arabera Anoetako biztanleria ondoko moduan dago sailkatua²⁰: herritar gehienek, %46.5k, zerbitzuetan egiten dute lan; ondoren, industria (%41.46) eta eraikuntzan (%9.31); eta azkenik, nekazaritzan (%2.54). Gipuzkoako datuekin alderatuz gero, industriaren dihardutenen portzentajea handia da. Konparaketa Tolosaldeko datuekin eginez gero, datuak antzekoak dira.

¹⁵ Biztanleria, lurralte-eremu, migrazioarekiko erlazioaren arabera, 2001. EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen zentsua (BEZ01), 2001.

¹⁶ Biztanleriaren egitura, adin-taldeen arabera, 2001. EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen zentsua (BEZ01).

¹⁷ Jon Benito (2003: 91).

¹⁸ EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen zentsua, 1996.

¹⁹ 1950eko datuak. Anoetako Udaleko Artxiboa.

²⁰ 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, lurralte eremuka, jarduera-adarren arabera, 2001. EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen zentsua (BEZ01).



Zenbaitanoetar. Anoeta.

	Guztira	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gipuzkoa	291.606	%2,56	%34,16	%7,03	%56,26
Tolosaldea	18.844	%3,82	%38,02	%9,43	%48,73
Anoeta	769	%2,08	%35,63	%9,62	%52,66

5. graf.: 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, Iurrealde eremuka, jarduera-adarren arabera, 2001

Eredu demografikoari dagokionez, aipatzeko da XX. mendea trantsio demografikoaren garaia izan zela. XX. mendearren hasieran, eta higiene neurriak garatu ahalak, medikuntzaren aurrerapenarekin batera jaiotzean hildako umeen kopurua nabarmenki murritzzen zen. Eta mendearren erdialdera, asmatutako hainbat neurriren ondorioz, jaiotze tasa kontrolatzeko neurriak ere ezagutu ziren. Guzti honek eta bizi ereduaren aldaketak, trantsio demografiko bat ahalbidetu zuen.

2.6. Bizimodu tradizionaletik hiritarrerako pausoa

Aitzinean azaldu den bezala, Anoeta harreman-sare berrien herria da. Alde batetik, XX. mende erdialdean laukoiztu egin zen biztanleria; industrializazioak eta bultzada inmobiliarioak eraginda, Espainiatik lan bila eta batik bat inguruko herrietatik pisu bila hainbat herritar 'berri' etorri ziren. Bestetik, nekazaritza giroko Anoeta industria giroko herri izaterra pasa zen. Beraz, 60ko eta 70eko hamarkadetan, herria zeharo aldatu zen. Ondorioz, herritarren arteko harreman-sareak ere asko aldatu ziren.

Herri eta baserrietako emigracio prozesuak, azken batean bizimodu tradizionaletik hirigunetarakoak, Euskal Herrian oso konstanteak izan ziren XX. mendean eta Anoeta fenomeno horren metaforatzat har genezake. Batik bat 50. eta 60. hamarkadetan anoetarrek beren pau-

soak kaleko paradisu berrien bila zuzendu zituzten: soldatapeko eta ziurtasuneko lana, kaleko erosotasuna, jendeak eskuak lurrez zikintzen ez zituen lekua, aitzurraren trebetasuna berrikuntza teknologikoaren truke aldatzea, ordenagailua, norberaren autoak...; dena ongizatearen adierazgarri, estatus sozial baten eskuratzea. Jakina, honek salneurri bat izan zuen, erauzketa moduan ordaintzen dena, masifikazio moduan eta, halaber, kultura eraldaketan.



Ohitura asko galtzea ekarri zuen bizimoduaren aldaketak.



60ko hamarkadan dantza-soka dantzatzeko usadioa galdu zen. Anoeta.

Aldaketa honetan, mikrokosmos pertsonalak sortzen hasi ziren, lehenagoko makrokosmos kolektiboen erorkena ekarriz. Kepa Fdez. de Larrinoak²¹ zera aipatzen du: "El éxodo rural, la industrialización, el desarrollo de los medios de comunicación y la

escolarización fueron fenómenos sociales que caracterizaron la vida en Europa durante los años cincuenta y sesenta del siglo XX. Ciertamente, emigración y modernización introdujeron marcos culturales nuevos en las zonas rurales europeas, lo que trajo consigo el debilitamiento de la costumbre y el declive de las celebraciones rituales".

Bizimodu urbanoarentzat dena ez zen zoriona, bere barruan giza oinarriaren banaketa eragiten duen krisia gertatu baitzen. Balio berriak bide ekonomikoetatik eskuratuak izan behar zuten, bera-rekiko konsistantzialak zirelako. Gainera, 80 hamarkadan herriak nozitutako langabeziak biztanleen sektore garrantzitsu baten sarbidea moztu zuen, arazo sozial handiak eragin zituen. Aipagarriak dira hamarkada honetan bereziki gazteen artean hedatutako drogamenpekotasun arazo larriak.

XX. mende hasieran bizimodu tradizionaleko gizarte espazioak lurra, familia, auzoa edo praktika erlijiosoak baziren protagonista, balio hauen aldaketa eman zen. Bizitza kalitatea, jolas eta aisia edo garapen pertsonalak hartu zuen garrantzia. Bizitza kalitatea hobetzeak ekarri zuen aisialdiaren gorakada. Eta kontsumorako joera duen aisiak kultur produkzioa baldintzatu du, kultur eskaintza asko aisialdia betetzeko bideratuz. Quijerak²² dioen bezala XX. mendeko bizimodu aldaketak kultura tradizionalaren krisia eragin du. XX mendean bizimodu herritarretik bizimodu globalizatzailerako pausua eman da Anoetan eta Euskal Herrian.

Kultura tradizionalaren krisiaren bilakaera xx. mendean



6. graf.: Kultura tradizionalaren bilakaera.

Giza harremanak eta adierazpen kulturalak eraldatzuz doaz denboran zehar. Horren arabera, gure inguruko herri nahiz erlijio ekintza ezberdinetan panakroniak (elementu kultural permanenten

²¹ Kepa Fdez. de Larrinoa, 2003.

²² José Antonio Quijera, 2001.

tea), sinkroniak (une bateko koiuntura sozial, ekonomiko eta kulturala) eta diakroniak (aldaketa) zeregin garrantzitsua izan dute gaur eguneko gizarte anoetarraren egituraketan: erromeriak, Aste Santuko ospakizunak, garia erein eta jasotzeko egunak... Nahiz eta ospakizunak berekin dakarren eguneroko bizimodu arruntaren etena, herriaren balore tradizionalen errepresentazioak dira,

beraz, jarraian ikusiko ditugun anoetarrek burutzen dituzten ospakizunak eta herri sinesmenaren agerpenak baserriak oinarri zituen gizarte tradizionalaren ikurrak izan dira. Oso azkar aldatzen ari den gizarte baten aurrean gaude; bizitza filosofiaaren baloreak aldatu diren gizarte baten aurrean. Eta, ondorioz, sinesmen, usadio eta ohitura haietan atzean gelditu dira.



(Erreka Itxarria)

Ospakizunek 60. hamarkadatik hona bilakaera bat izan dute.

3. Erliejioa



Mariaren Alabak Kongregazioaren estandartea, 1944koa.

3. ERLIJOIA

Erlificioa, gizartean izateko moduan osagarrizko elementua izan da historian zehar eta kultura gertaera ukaezina. Herrien ondare kulturalak mundu ikuskeria erlijiosoak izaten ditu hezurmamitzale, balore sistemetan islatuak, eta baita arte sorkuntzan, gizarte antolaketetan, herri agerkari eta tradizioetan, festa eta egutegietan ere²³. Horregatik, erlijioaren eduki funtsezkoak lagungarri onak dira Anoetako gizarte antolaketa tradizionala interpretatzeko. Izen ere erlijioaren funtzioa komunitate bateko kideen bizitzaren azken zentzuari buruzko galdeari bere implikazio etiko guztiiekin erantzuna ematen saiatzea izan da.

Erlificioa gizarte-fenomenoa da, sinesmen eta praktika asko eragiten dituena. Gizartea eta mundua erlijio-simboloz josita daude, eta nahiz eta erlijioak bakarrik ez duen gizartea definitzen, kontuan hartu beharrekoak dira²⁴.



Eskolapioetako prozesioa. Tolosa, 1946.

Erlilio ezberdinak historian zehar sinesdunei bere gaitasunen eta bere ekintzen kontzientzia har dezaten giltza ulergarri batzuk eskaintzen saiatu izan dira²⁵: pertsonen arteko harremanak sortzen eta gizartean errotzen laguntzea; mezu erlijioso ezberdinak baloratzeko eta interpretatzeko gaitasuna ematea eta beraien ideia, sentimendu eta desirak adierazteria bultzatzea; eta, batez ere, ardatz nagusi bezala, Jainkoaren eta gizakiaren arteko harremana eta

komunikazioa dela funtsezkoena erlijioaren fenomenoa eta gizakion bizitza historikoan ulertaraztea.

Pertsonen barruko erlijio-indarra izugarria izan daiteke. Erlijoaren indarra, beldurrari, errepresioari, sentiberatasunari, heriotzari, etorkizunari... eta beste gauza askori lotuta egon daiteke. Ondoko leroetan ez da aztertuko erlijioen egia, ezta erlijioa bera ere, gizakion erlijio-sena, motibazioak eta agerpenak baizik. Gizakia ez da galderakin konformatzen; erantzunak nahi ditu eta hala bilatu izan ditu. Erlijoek hori erakusten digute, erantzunak emateko gaitasuna²⁶. Gauzak honela Juan Martín Velasco diona hartuko dugu definotzat erlijioan pentsatzean, hau da, errealitate gorena onartzan duen gizakia sortzen da, giza gertakizuna da, eta errealitate horrek moldatzten du existentzia horren azken zentzu, errealitate osoarena, historiaren bilakaeraren azken zentzu²⁷.

Gizakiek hainbat modutan jaso izan dute bere erlijio esperientzia: giza bizitzan Jainkoaren eskuhartzea kontatzen duten mitoak edo narrazioak; zeinu edo errito kulturalak, bat bateko jokabideak nahiz kodifikatuak; elkarbizitzaren berezko antolaketak edota antolaketa instituzionalak, diskurso arrazionalaren irakaspenak eta argudioak. Erlijoaren errealitatea ez du Jainko-gizakia harremanak bakarrik osatzen, baita harreman hori agertzera ematen duten hierofania ugariek ere. Agerpen horiek dira erlijioaren alderdi ikusgarriak. Hauek dira, gutxi gorabehera, edukien multzo diferenteak lotu eta zeharkatu behar dituzten ardatz hezurmamitzaleak.



Eliz-ospakizunak. Anoeta.

²³ Xabier Galardi (2004: 262)

²⁴ Xabier Andonegi Mendizabal (2004: 262)

²⁵ Conrad Phillip Kottak (2006: 234)

²⁶ Xabier Galardi (2004: 466)

²⁷ Juan Martín Velasco in Xabier Andonegi Mendizabal (2004: 262)



Eliz-ospakizunak. Anoeta.

(Erainia baserrira)

Erlificioa hitza, etimologiari dagokionez, latinezko religare hitzetik dator eta ‘*harremana*’, ‘*lotura*’, ‘*komunikazioa*’ esan nahi du. Erlificioaren oinarria, gizakiek Absolutua, Misterioa, Traszendentearia edota Jainkoia deritzaioten izaki orokorrarekin duten harremaneak osatzen dute²⁸. Kristautasuna bezalako erlijio monoteistek Jainko pertsonal batengan sinisten dute; besteek, aldiz, izate orokorraren eta errealtitate erlijiosoaren irudikapen ezberdinak egiten dituzte.

Erlificioek, orokorrean, mundu simboliko bat osatu eta egituratzenten dute, bere errito, mito eta simbolekin, testu kanonikoak finkatu izan dituzte, eta denbora eta espazio sakratuak mugatu: Sakratua, Santua eta Misterio den Ahalguztidunarekin harremana baiezatzeko, ospakizun kulturalak antolatzen dituzte, sinesdunek Jainkoari eskerrak eta aintza emateko, eta haren grazia bereganatzeko. Erlificioak, dimensio historikoa eta komunitarioa duten fenomeno soziologikoak dira, beraz²⁹.

Ondoko ataletan erlijio sinesmenaren inguruko atal ezberdinak Anoetan nola gauzatu izan diren ikusiko da.

3.1. Mezak, bezperak eta jaiegunak

Bizimodu tradizionaleko Anoetan pisu handia zuten sakramentuek. Apenas zegoen jasotzen ez zuenik. Pekatu handia zen hori: “*eliza juten etzana, markatuta eoten zan, luzaruau. Eh, erljiua oso gorra zan ordun!, jesus! Ez oain bezela!*”³⁰.

Atea zabaldu eta elizako kanpaiak ‘argiezkilak’ jotzen zituen Maria Lasak, urte askotan Anoetako serora izandakoak, tan-tan-tan-tan. Egunean zehar hiru aldiz jotzen ziren: goizean ‘argiezkilak’, eguerdiko hamabietan ‘angelusa’ eta iluntzean ‘abemariak’. “*Azken kanpaiakin, aimaritan [abemarietan] etxera esate zan ta kanpaiak jotze-ako, etxeako bidia hartuta eon bear ginun badazpa’re. Beste garai batzuk zian haik*”³¹. Abemariak arratseko ordu zehaztugabeak ziren, arratsalde aurreratu eta gauaren hasiera bitartekoak, iluntzen hasten zuenean neska-mutil gazteei jartzen zitzaien etxerako ordua. Ordu horretan jo eta erreferentziatzat hartzen zen elizkanpaiari ‘abemarietakoia’ esaten zitzaiolako du izen hori.

Astegunetako mezak ordu erdikoak ziren, egunero egunero goizeko 7etan. Igandekoak eta jai egunetakoak luzeagoak, ordubetekoak-edo. Latinez izaten ziren meza guztiak, sermoia izan ezik. “*Sermoia Anotan euskeaz izate zan beti, baita gerra eta geo’re*”³². “*Apaizak jendeai espalda emanda esaten zun sermoia aldarian, inoiz ez, aurrez aurre, guri beira*”³³. Jai egunetan lehena zazpi eta erdieta eta meza nagusia 10etan izan ohi ziren. Lehenagoko garaietan, XIX. mende amaieran, mezak goizeko 6etan izaten omen ziren Anoetan.

Mezetara misala eskuan hartuta joaten ziren garai hartako emakume guztiak. Gizon batzuek ere eramatzen zuten baina gutxiengoak. Ohitura kontua zen, “*apaizak latinez esate zuna, misalan kastillanoz eo euskeaz eskribituta zeon. Apaizan hitzak entenditzen launtzen ziun*”³⁴. Kantuen letrarik ez zuen ekartzen liburuak, orduko mezatan, koruak abesten zuen batez ere.

²⁸ Ángel Aguirre Baután (1993: 527)

²⁹ Xabier Galardi (2004: 467)


³⁰ Lekuko 03

³¹ Lekuko 06

³² Lekuko 01

³³ Lekuko 03

³⁴ Lekuko 03



Anoetako garai bateko apaizaren estola. Anoeta, 2008.

(Aranzadi Z.E.)

Oro har, meza entzun gabe inor ez zen inora joaten, “iganden arraioen bateatik konparazio batea eliza juten ezpaginen, atsalden herri-
ra jaistea ezta okurritu’re, nola ba!”³⁵. “Gaur baino txikigua zan herria
ta a ze kontrola, eh! Apaíza belakuan kontuatze zan mezeta zeinek
fallo ite zun, eh, Jesus! Don Dionisio Telleria, Jesus!. Igandeko meza
obligaziua zan, ba bai!”³⁶.

Bakoitzak zeukan aukeraren arabera, baina zuten arroparik dotoree-
na jantzita joaten ziren mezetara, “ahal zan arropaik hobena ta apai-
nena jazten genun iganden. Baldin bazan, bakarra izate zan”.

“Etzan aukeraik izaten, inundik inoa’re”³⁷. Baserrietatik elizara jaisten
zirenak eskuan zapatak hartuta jaisten ziren, lokatza zenean, abarkak
edo katiuskak jantzi eta, eskuan zapatak hartuta joaten omen ziren

elizara. Baserritik jaisten zirenean, txoko batean uzten zituzten abar-
kak, “inork lapurtzeko beldurrik’be”³⁸ itzuleran berriz ere janzteko.
“Igandeko arropa ta oinetako zikinakin nola jungo ginen ba eliza?!”³⁹.
Mezetara ‘igandeko arroparekin’ jantzita joanagatik, etxeratzean hura
eranztea izaten zen lehen eginbeharra, “gure etxen ez ziutzen jaieko
arropakin eoten uzten”⁴⁰. Kasu gehienetan, igande arratsaldez ez
zuten arropa hura janzten, mezetarako bakarrik erabiltzen zuten
jantzi dotoreena. Igandeko mezetarako edo bestelako elizkizunen
baterako gordetzen zituzten, hileta elizkizunetarako-eta.



Odriozola-Otaegi familia igandetako arropaz jantzita. Anoeta.

(Odriozola-Otaegi familia)

Anoetan elizatik atera eta Kontzejura edo Modestoeneara joaten
ziren gizonak baso-erdiren batzuk hartzen. Halere denek ezin
zuten joan ahal, “zakurrik [txakur txikiak, dirua] etzan-ta! Mutil gaz-
tek ez baino heldugok, batzuk jute zian; salda, haragi egosia edo
txoixo muturren bat hartze zuten bazkal aurretik, baxo-erdik bultz-
tuta. Batzutan uretan pasatako arrautza izate zan hamaketakoa,
gatza pixkatekin”⁴¹. Hori bai, aperitiboa hartzen joaten ziren guz-
tiak gizonezkoak ziren; emakumeak zuzenean etxera, gehienak

³⁵ Lekuko 03³⁶ Lekuko 02³⁷ Lekuko 01³⁸ Lekuko 03³⁹ Lekuko 03⁴⁰ Lekuko 02⁴¹ Lekuko 01

bazkaria prestatzera elizatik atera eta zuzenean. Meza ondorenean bazen beste ohitura bat ere, “meza bukatu eta pelotalekuak jute ginan korrika batian. Txandaka jolasten genun, mutil koxkorraak ta, gaztiak’e hantxe ibiltze ginan; hogei urtekuak eta baita gehiago-kuk’e”⁴²”.

Bazkariari dagokionean, astean zehar babarrun gorria eta jai egunean, babarrun zuria edo garbantzua; makarroiak edo arroza kontu berriagoak omen dira. “Ordun prestatze zan bezela, garbantzua, ez da bazkai txarra gaurko’re, e?. Haragia, urdaia, txoixua, hirugiharra..., ahal bazan, guzu hoik denak sartze zitzazkion eltzeai. Hoiak bai ziala benetako sakramentuk, kar kar!”⁴³. Postrerako sagar erreak prestatzen zituzten askotan, batzuetan baita ahia ere, esnea eta ogi-irinarekin egiten zen. Arrozesnea jai egun handietarako izaten zen. Postreak ez ziren egun bezalakoak, orain otorduro izaten da postrea, orduan ahal zenean. Bertako fruta, sagarrak-edo. Sagarren garaia noiz iritsiko zain

egoten ziren. “Ordun, baserrita koadrilaka joate ginen mutil koxkorraak sagar-lapurreta. Sa[gajr mordua hartze genun, askotan erdi-gordinak, heldugabek’e bai. Kolkon sartu ta gustoa asko bueltatze ginan. Etxekok siesta juten zianen, gu salga[r]rak jatia”⁴⁴.

Ardoa egun berezi-berezietako bazkarietan soilik edaten zuten. “Ardua gutxitan ateatzen zan mahaira, ondo gordea izate zan, ta napa-rruko ardua ze esanik ez, ardo gorria”⁴⁵. Gainerakoan, pitarra gehienetan, lehen sagarrarekin egindako sagardoari deitzen zitzaina pitarra. Aurrenoko sagardoari. Hari ur dezente botatzen zitzaison. Gero, barrika hasi eta sagardo ona izaten zen hasieran, baina, barrika jaisten.

Meza nagusiarekin ez ziren bukatzen igandeko betebeharrak, arratsaldeko hiruetan bezperak izaten ziren, urte guztian igandero. Bezperetan arrosarioa errezzatzen zuen apaizak eta kantu bereziak abesten ziren, salmoak.



(Argindingo baserrik; izen zerealdi: Isabel Berasategi)

Anoetako Mariaren Alabak cofradia kideak. Anoeta, 1945 +/- . Ezkerretik eta eskuinera eta goitik behera. **Goiko ilaran:** X; Visitación edo Pilar Aldasoro (Iturgaitzaga); María Cruz Sarasola (Zumalikardi); Máxima Sarasola (Bideondo); Juanita Sarasola (Bideondo); Jesusa Sarasola (Zumalikardi); Arantxa Berasategi (Modestoenea); María Berasategi (Buztihaga); Florentina Arantzabal (Argindegia); Francisca Otaegi (Urritzeta); María Cruz Urkola (Barrundia); María Errondosoro (Arretxea); X. **Bigarren ilaran:** X; X; Manuela Maiotz (Aginagazpikoa); Ursula Sarasola (Ipintza); Manuela Agirre Zubala (Luebana); Felipe Txakon (Ateagaetxeberria); María Jesús Olotzaga (Agirre); Ángela Urkizu (Etxeberria); Rufina Zugasti (Apaiatztea); Rosario Beraza (Buztihaga); Manuela Maiotz (Aginagazpikoa); Cristina Iraola (Ateaga); On Dionisio Tellería (Erretoreoa). **Hirugarren ilaran:** X; X; Saturnina Mendizabal (Borondegi); X; Victoria Lasa (San Joan); María Aldasoro (Iturgaitzaga); María Soroa (Idiakaitz); X; Teodosia Iraola (Ateaga); X; Pilar Bidaror (Ateaga). **Beheko ilaran:** Josefa Urkola (Barrundia); Antonia Etxabeguren (Katategi); Isabel Berasategi (Modestoenea).

⁴² Lekuko 06

⁴³ Lekuko 02

⁴⁴ Lekuko 02

⁴⁵ Lekuko 02

Igande eta jaiegunetan baserriean lan egitea ez zegoen batere ondo ikusita, "ezta jostorratza hartzia're!"⁴⁶. Herriko erretoreari ez omen zitzaien gustatzen inor jaiegunez soroan edo baratzean lanean ikustea. Ia denek errespetatzen zuten ohitura hura, gutxien-gutxiengoa aritzen zen lanean. Igandeak deskantsurako jaieguna zenez, noiz iritsiko zain-zain egote zian anoetarrak ere. *"Dudaik gabe. Gustora hartzen genun igandea. Halare, asten pilatzen ziren lanak egiteko ere askotan aprobetxatzen genun"*⁴⁷. Batzuek pekatu egitearen zama izaten zuten gainean, ahal bazein, iganderako lanik ez uzten ahaleginetan ziren. Baserriko lanetarako, eguraldiak zeresan handia zuen eta belarrakin edo egurrarekin lan egin behar zenean, askok ez zuen gehiegi begiratzen igandeak ote zen. Gainera, astegunez, etxetik kanpora lan egiten zenez, ez zegoen askoz aukera gehiagorik. Beraz, egin eta kito!

Jaiegunetan lan egitea gaizki ikusita ebanjelioak hala esaten zuelako omen zen, Biblian pasarte ezberdinak ageri dira, horietako batean Lazaroren pizkundea ageri da. Lazaro hil eta gero, larunbat batez, piztu egin zuen Jesusek. Gertaera haren ondorioz, larunbata jai eguntzat hartu zen. Gerora, igandera aldatu zen. Itun Berriko beste pasarte bat ere aipatu dute hizlariak, *"Gure Jainkuak, zazpi euneko astia osatu omen zun mundua sortu zunian. Sei eun laniako eta bat deskantsuako. Deskantsu eunian ezin zitteken, lanik in"*⁴⁸. Pasarte hiaeik oso kontuan hartzen ziren, oso gogorra omen zen eliza gai horrekin; jostea, puntua egitea edo gantxilloa egitea ere debekatuta zegoen. Agiran behintzat ezin omen zen aritu.

3.2. Apaizak, ofrendak eta bedeinkazioak

1930tik aurrera, anoetarrek ondoko apaizak ezagutu dituzte: On Luis Jauregi, On Dionisio Telleria, On Ramón Murua, On José Agirre, On Juan José Garmendia, On Imanol Goikoetxea eta Iñaki Albizturi. On Luis Jauregi gerra aurretik egon zen erretore gisa Anoetan. Euskaltzale eta abertzale porrokatua⁴⁹. Anoetak izan zuen beste apaiz-

za idazlea On Ramon Murua izan zen. Murua'tar Erramun bezala sinatzen zituen bere idazki euskaltzaleak. Berak batez ere antzerki-lanak eta alegiak edo fabulak idatzi izan zituen; baita Anoetan jasotako legendak ere. Alegien bidez dotrina edo kateksia irakasten zien gaztetxoei; euskaltzale eta fededun izatearen garrantzia helarazi nahi izaten zien. Bere alegi idazkietako zenbait liburu honen eranskinean atxikitzen dira⁵⁰.



1957.09.17an agiri honen bidez On Dionisio Telleriaren ordez On Ramón Murua izendatu zuen Donostiarra Gotzainak Anoetako erretore.

⁴⁶ Lekuko 03

⁴⁷ Lekuko 06

⁴⁸ Lekuko 01


⁴⁹ Atal honen amanera bere biografiari eta jarduerari buruzko informazioa; eranskinean beriz, bere idazlan hautatuak.

⁵⁰ Bere idazlanak Lazkaoko Benediktarren Artxiboko Ramón Murua funtsean daude gordeta, bestek beste sermoiak, poemak, fabulak, antzerki-lanak... Funtza hau sailkatzeko dago oraindik.

(Lazkaoko Benediktarren Artxiboa. Ramón Murua funtsa)

Apaizek euskaristiak ospatzean batez ere sermoiei ematen zieten garratzia eta elizjendeek ere sermoi hauek errespetu osoz entzun ohi zituzten. “*Nola euki ote zuten hoinbeste urtetan horrenbeste hain lotuta? Gogorra zan hua ta izuarritzko bildurra sartzen zitzaiun pulpitolik sermoiak entzundakuan. Ba al dakizu ze sermoi iten zituzten Anotan?*⁵¹”. Don Dionisioren sermoiko mezu batzuk gogoan dituzte oraindik ere: “*Bikote bat ezkatzian haragikeritan topatu eta hilda geratu ziren biak edo nik gaur goizean ikusi dudana, nik gaur goizean ikusi dudana eta nik gaur goizean ikusi dudana!!!*”. “*Gu danak ahoa zabalduta ta bildurtuta. Erantzuna, ‘neska bat bizikletan. Pekatu galanta!*” Apaizan modua gogorra zan ta guztik seko ika-tuta. Pekatu eginez geo inpernura!⁵²

Ohiko mezez gain, ejerzizioen garaian sermoi gehiago izaten zen. Ejerzizioak egokitzen zirenean, zortzi egunetan segidan izaten ziren sermoiak. Erretorea aurrean jarrita, egunero joan behar izaten zuten esanak entzutera. Komuniorik hartzen ez zuenak ere, urtean behin pazkozkoagita egiten zuen. Pazkoaldian, nahi eta nahiez, komunioa hartzera behartuta zeuden, “*obligazioa zen*”, konfesatu egin behar lehenago ordea.



⁵¹ Lekuko 03
⁵⁴ Lekuko 01

Elizbarrutiak bazituen noizean behin elkartzen ziren batzordeak, orain bezala, elizako juntak zeuden orduan ere. Elizkizunetatik kanpo bestelako ekintzak antolatzeaz arduratzenten ziren.

Apaizak sotana beltza janzten zuen kalerako eta elizkizunerako alba txuria. Garaiaren eta egunaren arabera, kolore ezberdineko kasuillak edo kapak janzten zituzten albaren gainetik. Era lepotik zintzilik estola. “*Lau koloreko kasuillak zituzten, atzera eta aurrera jazten zianak: gorria, berdea, txuria eta morea...*”. Hileta elizkizunetan kasuilla beltza erabiltzen zuten. Liturgiaren arabera banatzen ziren garaiak: Aste Santua, Pazkoaldia, Eguberriak... Era mezetara zihoazen herri-tarrak ere ahalik eta apainen jantzita joaten ziren, jai egunetan eta igandetan bereziki. “*Emakumeek mantilla burutik behera jantzita joan behar genuen nahi eta nahiez ta, kopeta ondo tapatuta gainea!*⁵³



(Aranzadi Z.E.)

"Mezetañ alimentun ofrenda izate zan. Kandelak, ogia, eroskak eo eroskilak eamaten zian gehienetan. Dirurik ez baina, bestelako jakia k'e bai, batzutan. Nahi zulako ekartzen zituen jendeak. Apaizan estolari musu eman eta 'pater noster' esanaz bedeinkatzen zun apaizak jandakua"⁵⁴. Ofrenda asko izaten zenez, ogiz edo eroskaz betetako hiru bat zaku erraz osatzen ziren meza nagusiaren bukaeran.

San Juan inguruan, gari-bilketa egiten zenean, akolitoak lagunduta, soroak bedeinkatzera joaten zen apaiza. Arrautzak eta oilaskoak oparitzen zitzaitzkon gero apaizari. Saska eta guztioi joaten ziren, beraz, bedeinkazioa ematera. Ama Birjinaren egunekoare ere ohitura berezia bazeen, "garai baten, basarritarrek asto gainen jarrita ematen zizkien oilaskok Ama Birjinai. Oilasko piloa. Urte guztian apaizak nahikoa oilasko jateko modua izaten zun... Basarritarrek zuten hobena apaizantzat izate zan: frutaik ta berduraik onenak... eh, uztaiak onena. Esateako, pikondua pikuak ematen hasten zanen, 'hara ze piku onak. Batzuk apaizai emango dizkiou', oso kontu arrunta zen hoi".

Uzta ona jasotzen jarraitzeko esperantzan eta esker onez egiten zen. "Denok emate genion ahal genuna apaizai, gue etxen tixerrian puskaiak obena, bi axpixinetatik bat behintzat, apaizai emate zitzaison, bestia berriz aitan arrebel"⁵⁵. Apaizari begirune handia zitzaison, hitz egin ere berorrikaz hitz egiten zitzaison, errespetuzko erregistroan. Apaizari bezala, medikuari ere begirune handia zitzaison eta sendagileak ere jasotzen zuen uzta onaren fruiturik.



(Agirre baserria)

⁵⁴ Lekuko 01⁵⁵ Lekuko 02⁵⁶ Lekuko 03⁵⁷ Lekuko 03⁵⁸ Lekuko 01⁵⁹ Lekuko 02⁶⁰ Belen Altuna (2003: 226)⁶¹ Lekuko 03⁶² Lekuko 03⁶³ Belen Altuna (2003: 226-227)

3.3. Bekatuak eta aitortzak

Bekatuak egitea, tradizio katolikoan erlijio-arau bat jakinaren gaineran eta borondatez urratzea da. Lekukotza emaileen hitzetan, bekatuaren eta okerraren bideak zenbatezinak dira, eta Egiarena, berriz bat bakarra. Apaizek dotrina katolikoa irakastean, Jainkoak agindutako moral zorrotzean hezteam, "gauzak beti nola izan dian ta nola izan beauen eakuste ziuen"⁵⁶ eta batez ere, gizaki "pekatarioi txarreako [gaizkirako] daukaun berezko joera superatzen"⁵⁷.

Kristau katolikoan Teodizea edo Jainkoaren Justiziarena gai ardatza da. Jainkoia Ahalguztiduna, Orojakilea eta Guztiz Ona da. Eta apaizten sermoien arabera, "sufritze diteun gaitz guztik Jaungoikok bialdutakok die gu kastiatzeko"⁵⁸; gaztigu hitzaren zentzu bikotzean: zigortzearena zein abisatzearena.

Jaio orduko hartzen ditugu denok oinordekotzan Adan eta Eba gure 'gurasoek' egindako 'jatorrizko bekatuak' eta horrek azal lezake jasaten omen dugun gaitzaren zergatia. Adanek bekatuaren bidez, gizakiak Jainkoaren agindua berariaz desobeditu zuela ematen da aditzera; erorketa horren arduradun bakarra gizakia da, eta beragatik sartu izan da bektau munduan. "Itun Berrian, Jesus bekatarien bila munduratu dela adierazten zaigu; orbain ikaragarri hori nola garbitu erakustera, hain zuzen"⁵⁹.

Beraz bektauak kristautasunaren teologiarengarri ardatza da; "gue Jaungoikon borondaten kontra aitzen dan gizonan konportamentua"⁶⁰. Honela, jasaten den gaitz fisikoa, sufrimendua, garbiketa-tresna da aldi berean: Jainkoari barkamena eskatzeko eta geure burua bertutetsu egiteko bidea. Beraz, "pekatuk ekartze itu gaitz guztik" eta "denok gea pekatarik"⁶¹.

San Paulok egituratu zuen sendo bekatuaren dotrina⁶², berak idatzi zituen, halaber, lehenengo hutsegite-zerrendak. Bekatari eta penitentiari buruzko tratatuak ugalduz joan ziren etengabe orduz geroztik. San Agustinen garaian bekatu larri edo mortalaren eta

bekatu arin edo benialaren artean sailkatzen modua nagusitu zen. Honela, bekatuak larria izateko honako hiru baldintza bete behar ditu: kontzientea, borondate osoz egindakoa eta gai astun bati dagokiona izan behar du. Bestela arina izanik ere, anoetarrek pulpitudik maiz entzun izan zuten bezala “*pekatu mortaleako bidia seiñalatzeu pekatu arinak*”.



Zazpi bekatu nagusien mahai.

Santo Tomas izan zen, behin eta berriz definitzen aritu izan ziren hutsegite-zerrenda hura finkatu zuena: zazpi bekatu nagusien edo kapitalen zerrenda burutu zuena, alegia. Gerora, kristau dotrina guztien ardatz bihurtu zena. Akinokoaren garaian horrela geratu zen zehaztuta zazpi bekatuen hierarkia:

- | | |
|-------------------------|-------------------------|
| - handiustea (urguilua) | - alferkeria |
| - bekaizkeria (inbidia) | - sabelkeria (gula) |
| - haserreña | - haragikeria (luxuria) |
| - lukurreria | |

7. graf.: Zazpi bekatuak

Ordudanik zazpi bekatuen zerrendak beti indarrean iraun badu ere, bere mailaketa aldatu egin da zerbait. Trentoko Kontzilioaren

⁶³ Belen Altuna (2003: 227)

⁶⁴ Juan Bautista Aguirre (1850a: 4)

ondorengo dotrinenetan honela geratu zen sailkapena: handiustea, lukurreria, haragikeria, haserreña, sabelkeria, bekaizkeria eta alferkeria. Zazpi bekatu nagusi horiei zazpi bertute nagusiak kontrajartzen zaizkie, hala nola⁶³:

- | | |
|-------------------|-------------------|
| - umiltasuna | - neurritasuna |
| - eskuzabaltasuna | - karitatea |
| - kastitatea | - lanerako gogoa. |
| - pazientzia | |

8. graf.: Zazpi bertuteak

Hamar aginduak izan ohi dira dotrina gehienetan bizkarrezurra, eta agindu hauetako batzuen azalpena eta zehaztapenak osatzen dute jaiegunetako mezaren nahiz misioaren zati handi bat. Juan Bautista Agirre Asteasuko erretoreak XIX mendean idatzirkir utzi zuen bezala: “*amar Aginte, edo Mandamentuak letraz ezarri zituan Jaunak arrizko bi oletan: lenengoan zeuden Jaunaren onrari dagozkan iru agintea, eta bigarrenean lagun urkoaren onari begiratzen diezanak*”⁶⁴. Hau da, lehenengo hiru aginduak Jainkoari zor zaion maitasun eta ohoreari dagozkionak dira eta gainerako zazpiak, berriz, lagun hurkoari zor zaion maitasun eta onginahiarri dagozkionak. Ebanjelioari jarraituz, hamar aginduok bitan laburbiltzen direla esan daiteke: Jainko gauza guztien gainetik eta lagun hurkoa zeure buru bezala maitatzea:

- 1.- Jainko maitatzea gauza guztien gainetik
- 2.- Haren izen santuaz alferrikako juramenturik ez egitea
- 3.- Jaiegunak santutzea
- 4.- Aita-amak ohoratzea
- 5.- Ez inor hiltzea
- 6.- Haragizko bekaturik ez egitea
- 7.- Ez lapurtzea
- 8.- Testigantza faltsurik ez egitea eta gezurrik ez esatea
- 9.- Lagun hurkoaren emaztea ez desiratzea
- 10.- Besteak ondasunak ez gutiziatzea

9. graf.: Hamar aginduak

Hamar agindu hauetan, finean, kristauaren portaera arautzen da. Mundu honetan “*persona guztik deu gue gurutzia*” eta norbere egoera edozelakoa izanik ere, “*pazientziya ta umiltasunaz ematen jakin biar da, Kristok in zun bezela*”. Fededun bakoitzak bere mailari, ofizioari, sexuari, eta familiar eta gizartean duen tokiarri dagokiona egin behar du, “*hoi da gue Jaungoikok jarritako ordena. Gue Jaungoiko matteak bakoitzai mezi duna emate dio. Beharren dauna’re konporme egon bear daukanakin*”. Eta bestetik “*betico vicitza doatsua iristeco ez da ascó becatutic aldeguitea; gauza bearra da gañera bacoitzac bere estada, eta vicimoduan obra onac, edo Ceruraco irabaciak eguitea*⁶⁵”.

Elizak bost agindu agintzen zituen, “*nahi zuten bezala edo ondo zetorkien modun mugitzen zituzten, elizanak zialako*⁶⁶”. Hauek omen ziren:

- 1.- Igandero eta elizaren festa egunetan meza osoa entzun.
- 2.- Gutxienez, urtean behin konfesatu eta gehiagotan, hiltzeko arriskuan edo pekattuan egonez gero. Baita komunioa hartu behar izanez gero.
- 3.- Aste Santuan komunioa hartu eta pazkozkoa egin.
- 4.- Elizak agintzen duenean baraua egin. “*Bitilia ostialetan izate zan ta baraualdia Ostial Santu eunen ta Hausterre eunen*⁶⁷”.
- 5.- Jaungoikoaren elizari apaiz-dirua ordaindu.

10. graf.: Elizako bost aginduak.

Portaera eredu horretan oso zigortuak ziren pentsamendu lizunak, haragizko izenak, esku-sartze lohiak eta abar: “*Bitartean ibilico dira becatutic becatura amilduaz; oraiñ pentsamentu batean gue-roseago itz loyak gozotoro aditzean: oraiñ escuca, edo queñada batean, guero musu edo laztanetan: oraiñ ipui ciquiñac contatzen; guero dantzan, edo dantza ondoan alberdanian*⁶⁸” . Halere, bekatu hauek hiru modutara egin daitezke: pentsamenduz, hitzez eta obraz. Azkenekoa izanik denetan larriena, batzuk delituak ere.

Tentatziale nagusienak berriz hiru dira: deabrua, mundua eta haragia. Deabruari dagokionean, jasotako lekukotzen arabera,

oso abila da adin bakoitzerako tentaldiak egokitzen: haurrak desobedientzia, inbibidura, eredu txarrekin tentatzetan ditu. Gazteak haragikeria, harrokeria eta abarrekin. Helduak ofizio gorenak edo boterea eskuratzeko grinarekin eta adinduak berriz zikoizkeria eta diruzaletasunarekin. Deabruari aurre egiteko neurri nagusiak otoitzta eta umiltasuna omen dira.



(Pieter Brueghel)

Infernua irudikapena.

Munduak bere plazer material, haragizko, iragankorrekin tentatzetan omen gaitu, handiuste eta harrokeriarekin, ondasun eta ohore grinarekin. Eta tentaldiaren aurrean jarraitu beharreko neurriak berriz neurritasuna bilatu eta mundutarren hutsaltasunetik ihes egitea omen dira⁶⁹. Azkena berriz haragia. Hiru tentatzialeetan okerrena, gure barruko etsaia baita. Soinean dararamguna, horren aurreko neurria berriz baraua.

Bekatu-mota amaigabeen inguruau jardun gara orain artean, eta ihesbiderik ez dagoela ikusi dugu: ekintzak ez ezik, pentsamendu, irrika, sentiera eta grinak berdin-berdinak baitira bekatu-iturri.

⁶⁵ Juan Bautista Aguirre (1823: 285). Jaungoikoaren legeko amar aginteen erakusaldiak Lekuko anonimoa

⁶⁶ Lekuko 01

⁶⁷ Juan Bautista Aguirre (1950b: 402)

⁶⁸ Belen Altuna (2003: 232)

Hala, gizaki guztiak jauskorak izanik, salbatu ahal izateko nahi-taezkoa da bekatu mortal guzu-guztien aitortza. “*Pekatu mortala bat bea’re konpesatu gabe hiltze’ana zuzenen inpernua’ijua*⁷⁰”

Eta salbatzeko ezin huts egin diren sakramento guztien artean, maiztasun eta jarraikortasun handia eskatzen duen bakarra, hain zuen ere, aitortza edo penitentzia da. Hurrengo atalean ikusiko den bezala agiri edo txartel bat ematen zitzaien herriko fededunei Pazkoan behintzat aitortu zirela kontrolatzeko. Ez zen nahikoa aitortza eta jaunartza, besterik gabe; aurrena katekesiaren arlo nagusienak (otoitzak, Jainkoaren hamar aginduak eta Elizaren bostak, zapzi sakramentuak, erruki eta kontrizio-ekintzak...) ondo ezagutzen zituela frogatu behar zuen fededunak, eta herriko apaizak ahoz egiten zion azterketa gainditu behar zuen.



Ostegun santuko prozesioa. Tolosa, 1944.

Lekukotza emaileen iritzian Anoeta bezalako herri txiki batean aitortzak ikaragarrizko boterea ematen zien apaizei; banan banan kontrola baitzezaketen eliztarren kontzientzia. Bainan fededunen artean, haiek beren buruen baitan ere eragin handia zuen aitortzak. Izan ere, fededun guztiei dotrinak agintzen baitzien nork bere burua sistematikoki azter zezaten, arakatu eta hitzez adierazi zezaten.

Apaizen zereginetako bat barne-begiratzearen garapena sustatzea zen; eta gogoeta hori modu eraginkorrean egiteko fededunei metodo zehatz bat erakusten zien, pulpitolik nahiz ‘dotriñetan’ gazteei irakatsitako katekesiarekin. Horrekin batera, gogamena kontrolatzen erakusten zitzaien, tentaldiak uxatu eta kristau-gogetak egiten.

Aitortzari buruzko dotrinek diotenez, Jesukristok berak emana da sakramento hau. Kristok, beraz, hiru arrazoiengatik eman izango zigun sakramento hau: deabruaren atzaparretatik atera gaitezen Jainkoaren laguntzaz; aitortzaren bidez damua izan dezagun eta absoluzioa berehala jaso eta gure bekatuak barkatuak izan zaizki-gula ziur egon gaitezen⁷¹.

Konfesioa edo aitortza komunioa edo jauna hartu baino lehen egin behar zen; lehenik. Txanda bakoitzean gainera. Eta, goizeko zazpi eta erdietako mezetara zohoana nola moldatzzen zen?. Apaiza seietarako han izaten omen zen. Apaizari “*gezurra pran-ko*” esaten zietela aitortzen dute informazio emaileek. “*Umetan, etxen lotsagabekerik in genitura eo..., amai txokolate puxkan bat kendu geniola ta holakoxeko kontuk. Gerogo, pentsamendu txa-rak izan genitura, mutilen batekin dantza egin genula eo besten-gatik gaizki hitzeitten aituko ginela eo*”⁷².

Neskari edo mutilari musu ematea pekatu handia zen oso, halakoren bat eginez gero, elizatik eta kongregazioetik kanporatzen omen zituzten. “*Konfesionarion ondon jartze ginan denak. Emakumek sare-tik eo kordinatik beste aldera hitz eiten genun portsiakoso, gizonak apaizakin parez pare aitzen zian*”⁷³. Egia guzti-guztia ez omen zuten kontatzen baina ia guztia bai, beldur handia baitzuten, “*guztia pekatua baitzan ta indako pekatuk esan gabe hilezkeo, inpernura jungo zea zan kontestaziua ta, Jesus!. Ikiarrizko bildurra genun. Neska askok dardarka jotze zun konfesionarioko sarea. Apaizak pekatu handia dakarki honek pentsatzeko modun. nerbioso jartze ginenen, erdia esatea ahaztu igual ta segidan berriz’re konfesatze-a’re igual ta, Jesus!, bazpada’re, inpernutik libratzeko. Konpesatu*

⁷⁰ Lekuko 02

⁷¹ Belen Altuna (2003: 318)

⁷² Lekuko 03

⁷³ Lekuko 01

ta geo, indako pekatuk barkatzeko, penitentzia jartze zun apaizak. Pekatun tamainako errezu mordua in bihar zan ta batzuk bakarrik emate zuen absoluzioa. Hoi bai, aurretik pekatu geio ingo ez zenula prometitu behar zinun.”⁷⁴

Apaizek kontu asko jakiten omen zuten, “etxeko kontu asko ate- atze zan. Dana”. Eta galdu ere denetik egiten zuten, “ezkondu ta geo, gertatu izan zitzaiun gizonak eta biok zenbat bider iten genun galdetzea. Urten behin konfesatzea nahi ta nahiezkoa zanez eta herrikoai responditzia lotsa emate ziunez, behin baino gehiogun jun ginen Tolosara konfesatzea, San Prantziskora. Tolosako apaizai eantzun ta absoluziorik ez ematea’re gertau izan tzaku”⁷⁵. “Ez haurtzaroik ezta gaztetasunik ere ez genun izan, dana pekatua zanez, ezin baigenun ezer’re in. Komuniua hartzea jun ta hortzekin ikuitzen bagenun, hora’re pekatu!. Dana txarra zan; inpernua. Ta hitz hua ez genun aittu’re in nahi”⁷⁶.



Konfesionarioa. Anoeta, 2008.

⁷⁴ Lekuko 02

⁷⁵ Lekuko anonimoa

⁷⁶ Lekuko anonimoa

⁷⁷ Lekuko 01

⁷⁸ Lekuko 03

⁷⁹ Lekuko anonimoa

⁸⁰ Lekuko anonimoa

Elizaren eta erlijioaren alderdi onaz ere hitz egij dute lekukotza eman dutenek: “eliza oso gorra zan. Laun-urkuai maitasuna behar zala ta maitasuna behar zala ta esate bazuen’e, konparazio batea pareja batek musu emanez gero, pekatua! Punta batetik bestera jun gea. Oaingo libertadea’re gehiegizkua da, hala pentsatz’et. Egia da oso lotuta geundela ta hola ez zegona markatua izate zala. Baino, dena etzan hain txarra geo, eh. Gauza askotako ona zan; errespetu gehio genien gurasoi eo pertsona heldui. Ezindui’e gehio laun iten zitzaion ordun”⁷⁶.

Baina horretarako ezinbesteko zen aitorta behar bezala egitea, ondoko bost pausoak arretaz jarraitzen zirelarik:

- Kontzientzi azterketa: “Konpesatu aurreko egunetan, bakarrik ta ixilen, banan-banan goatu mandamentu guzik ta azken konpesiotik indako hutseitek goatu”⁷⁸.
- Bekatuen damutzea: Damurik gabe, aitortzak ez omen du balio. Bi eratakoa izan omen daiteke damua: bekatuarekin Jainko iraindu dugulako damutzea; hau da, ‘kontrizioa’, ‘onezko-damua’ edo ‘damu osoa’ edo zerua galdu eta infernua irabazi dugulako damutzea, ‘atrizioa’, ‘beldur-damua’ edo ‘damu ez osoa’. Kontrizioa da damu-mota gorena, “Jainkoai zaion maitasuna dalako ta ez bildurra”⁷⁹. Bekatari bat aitortu gabe, baina benetako amore-damuz hilko balitz, salbatu egingo litzateke; beldu-damua duenak, ordea, guztiz beharrezko du aitorta.
- Zuzenketa asmoa: Egiazkoia izateko hiru baldintza bete behar ditu: bekatu guztiei buruzkoa izatea, horiek gerta daitezkeen zirkuntzantzia guztiak saihestekoas asmoa izatea eta borondate hori sendoa eta eraginkorra izatea. Ez dute halako asmo sendorik agertzen, adibidez, “taberna juten jarraitu ta eztuela edango esaten aitze dia-nak; Pazkoa aurretik pare bat asten pekatu in gabe eoten saiatzea eta dauneko zuzendu diala esatea; behin absoluzioa ta txartela eskutan dala berriro’re pekatu-bidean aitzea”⁸⁰. Benetako zuzenketa asmoa behar omen da eduki, XIX mendean Juan Bautista Agirrek

idatzirik utz izuen bezala: "baldin au esanda ezpadeu guero arretaric zure soroco sasiac, larrac, arantzac, eta belar gaistoac ateratzeko; ezpadezu lurra maneatzen, simaurtzen, eta ichitzen; ezpadezu iñaurquiñic biltzen, ;cer esango dugu zure asmoaz?"⁸¹.

- Ahozko aitortza: Aitorleari aitorta egitean, Jesukristoren beraren aurrean dagoela pentsatu behar omen du bekatariak eta beharbada, azken aitorta izango duela pentsatu. Ondo egina izateko, aitortzak "osoa eta benetakoa" izan behar omen du. Aitortzeko orduan, bekatu-modua (pentsamendua, hitza, ekintza) eta zirkunstantziak (norekin, non, noiz, zenbat aldiz, nola, zein pentsamendurekin, etab.) xehetasun osoz azaldu behar dira.
- Ezarritako penitentzia betetzea: Aitorleak ezarritako penitentziak helburu bikoitza du: egindako bekatuen zorra ordaintzea eta etorkizunean halako bekatuak saihestea. "Jaungoikuakin hartutako zorrak kentzeko meza entzun, erosaiua errezzatu, aldareak bisitatu, limosna eman ta holauak in behar dia"⁸². Aitorta on batek bekatariaren arima garbitu omen dezake.

3.4. Infernua, paradisua eta purgatorioa

Kristautasunarentzat Ebanjelioa eta Itun Berria⁸³ izan dira oinarrizko ardatzak. Kristautasuna salbazio-erlijioa da funtsean, eta horrexegatik hain errotua egon izan da gizarte tradizionaletan. Gizakioi hil eta gero zer gertatuko zaigun argitzea da kristautasunaren kezka nagusia, heriotzaren ondoren nola eta non izango garen jakitea. Kristautasunak gorputzen piztueran sinesten du, Jesus ere gurutzean hil ondoren berpiztu egin baitzen. Gizateria osoa berpiztu eta gero, Jainko ahalguztidunaren nahia beteko da: berak ezarritako arau batzuen arabera epaituko gaitu. Lurrean nolako jokabidea izan dugun, horrelako patua izango dugu beste munduan. Beste munduko leku eta biztanleak aurrez aurre jartzen dituen sistema bitarra dugu, beraz. Piztura garaien bukaeran geratuko da: "onak" betiko biziko dira leku zoragarri batean, paradisuan; "txarrak" oinazez beteriko leku batean, infernuan, galduko

dira betiko. "Inpernua sua besteik eztaun lekua da. Hara jutekuan, surtan erre ta erre baino, sekula erretzen bukau ez. Hoixe da inpernua, betiako sufrimentua, hala eakutsi digue behintzat"⁸⁴. "Goitic ta beetic sua, alboetatic sua, aurretic ta atzetic sua, beguietatic sua, belarrietatic sua, ao-surretatic sua, araguietatic sua, azurretatic sua, unetatic sua, eta alde guztietatic sua"⁸⁵. Ildo horretan, zeruko paradisua eta lurreko paradisua edo Eden-a bereizi behar dira, lehenengoa bigarrenaren betiereko erreplika izanik.



(Iñaki Elorriaga)

Eskolapiotako prozesioko aingeruak. Tolosa, 1946.

Beste bereizketa bat ere egin behar da: batetik, "infernua", betiko kondenatuen oinaze-lekua; bestetik, "infernuak", hala nola, Kristo ezagutu ez zuten gizon-emakume zuzenak (bataiatu gabekoak, beraz) daude han, Jainkoa noiz etorri eta aterako dituen zain⁸⁶.

Erdi Aroaz geroztik beste munduak irudimena biziki piztu izan du, artistek lan joria egin izan dute literatur testu ugari eta ikonografia aberatsa sortuz. Era berean, azken judizioa, infernua eta paradisua arazo-iturri izan ziren kristauentzat hasiera-hasieratik. Berehala

⁸¹ Juan Bautista Aguirre (1850b: 512)

⁸² Lekuko 03

⁸³ Biblia euskaraz ondoko helbidean: www.biblija.net

⁸⁴ Lekuko 02

⁸⁵ Juan Mateo Zabala, 1816 in Belen Altuna (2003: 334)
⁸⁶ Jacques Le Goff, 1989.

finkatu zituzten beste munduko lekuak gure munduarekiko: infernua lur azpian zegoen eta paradisua zeruan. Ondorioz, zero eta paradiso hitzak sinonimo bihurtu ziren, hau da, Jainkoaren eta aukeratuen betiereko bizilekua zen.

Bi auzi sortu ziren beste munduaren inguruan: batetik, Jainkoak hildakoak noiz bidaliko dituen zerura ala infernura eta, bestetik, heriotza eta azken judizioa bitartean ba ote den betiereko epaia eteteko aukerarik. Lehen auziari dagokionez, kontrako bi teoria gailendu ziren, biak Erdi Aroko Elizak onartuak. Batzuek ziotenez, hildakoak garaien bukaerako judizioaren zain egon beharko dute beste munduan nolako zoria izango duten jakiteko. Beste batzuek ziotenez, berriz, Jainkoak aukeratu dudagabeak, santuak alegia, hil eta berehala hartzen ditu paradisuan. Aukeratuek ez dute azken judiziorik izango eta, izanez gero ere, epaia jakina litzateke. Azken judizioan aukeratuak izango direnak hori iritsi arte non egongo diren ere saiatu ziren argitzen.⁸⁷

Beste munduan sartzeko, Azken Judizioa gainditu behar da lehenbizi, gizateria osoarena alegia, edo judizio indibiduala bestela. "Azken juizian, Kristo da jueza. Aingeruk pertsonak konportamentu onak ta txarrak bilduko dituzten liburuk eakutsiko izkiote Kristori ta beak, letu ta geo, epaia emango'u"⁸⁸. Judizio indibidualari dagokionez, hauxe dugu unerik gorena: piztueraren ondoren, Gabriel goiaingeruak arimak pisatuko ditu balantza izugarri batean. Balantzaren alde banatan, San Pedro, paradisuko atearen zaindaria, eta Satan, infernuko jauna, egongo dira arimak norantz egiten duen zaintzen.

Epaia jaso ondoren, aukeratuak paradisura igoko dira eta San Pedrok irekiko die atea; kondenatuak, berriz, infernura jaurtiak izango dira. Aurreko atalean aipatu bezala, galbidea bidez abala eta erraza da; salbamenarena, aitzitik, estua eta malkartsua. Horregatik pulpitotik maiz entzun izan zen bezala, asko izango dira deituak, baina gutxi hautatuak.⁸⁹



(Jesús Etxebarria)

Ernioko gurutzea. Ernio, 1936.

"Gu gaixki portatzte ginanen gue amona zanak hala esate zuin: San Pedrok atiak itxiko'izkizue!"⁹⁰. Paradisuan, bakearen eta zorionaren erreinuan, dena da aukeratuen gozagarri: loreak eta argiak ikusten dituzte, kanta eztia entzuten, usain gozoak usaintzen, fruitu ezin ederragoak dastatzen, ehun leunak ukitzen (aukeratuek, apalak izaki, tunika zuri ederrak janzen dituzte. Gutxi dira biluzik irudiztatu dituzten artistak, beti ere lurreko paradisua erori aurreko xalotasun horretan). Paradisua, batzuetan harribitxiko hesi garaiez inguratua, harresiz babestutako gune zentrokideetan dago banatuta. Erdira hurbildu ahala, argia biziagoa da, usain nahiz zaporeak ederragoak, gero eta harmonikoa da dena. Azkenik, erdigunera iristen gara, Jainkoaren bizilekura, ikuskari dohatsuen azken xedera. Genesiko paradisua lorategia zen, hala baitzegokien ekialdeko klima eta irudimenari. Erdi Aroan, berriz, hiri zahar eta berrien garaia izanik, paradisua harresi handi batez inguratutako hirigunea zen batik bat. Jerusalem zerutiarren ereduari jarraitzen zitzzion, beraz. Paradisuan onak izandako bataiatu hutsak sartzen ziren, bataioa ezinbestekoa baitzen (ez, ordea, nahikoa) hara joateko.⁹¹

Infernuan, su itzalezinak geratu gabe erretzen ditu kondenatuak, kelaino beltzak eta distira gorriska beldurgarriak sortuz. Garrasi ikaragariak. Kiratsa. Ez dago besterik ilunpeetan murgildutako mundu beltz

⁸⁷ Jacques Le Goff, 1989

⁸⁸ Lekuko 01

⁸⁹ Mateo 22:14

⁹⁰ Lekuko 04

⁹¹ Jacques Le Goff, 1989


horretan. Infernua gorri-beltza da. Bainha hori ez da txarrena, izan ere, deabruak ankerrak dira oso eta tormentu ezin gogoragoak ezartzen dizkiete etengabe kondenatuei. Paisajeak, gehienetan ikusi ere egin ez arren, izua sortzen du: harkaitz zorrotzak, haran sakonak, kiratsa darien ibai zein aintzirak, metal urtuz, narrastiz eta munstroz beteak. Bi dira infernura heltzeko bideak: putzu batetik eroriz ala proba bat eginez. Ez dago, ordea, proba hori gainditzerik: infernuaren gainean egindako zubi bat igaro behar da, gero eta estu eta irristakorragoa. Batzuek infernua sail desberdinatan banatuta zegoela uste zuten, kondenazio-mailen arabera alegia; beste batzuek barruan zirkuluak nahiz planoak zituen espazio bakarra irudikatzen zuten: zirkulu bakoitzean zigor-mota bat ezartzen da; planoak, berriz, gero eta ilun eta beroagoak izanik, barrunbeetan murgiltzen dira hondora iritsi arte: hantxe dago Satanen erreinua⁹². *"Infernuba zer da? Carcela, eta lece ilun icagarri bat, lurraren erdian, edo barruban, Jangoicoaren justiciatic iminia, suuz, penaz, eta tormentuz beteric, pecatu mortalean ilten direanentzat"*⁹³.

Kondenatuek pairatu behar dituzten oinazeei dagokienez, beti ere hiru alderdiok azpimarratzen dira: sufrimendu espiritualak, sufrimendu fisikoak eta sufrimendu horien betiko iraupena. Okerrena beti espirituala da: Jainko ezin ikusi eta horren jakitun izatea.

Zerua, ongia, goian; infernua, gaizkia, behean. Aipa dezagun, azkenik, nolako loturak dituzten denbora eta espazioan hilek eta biziek, Jainkoak, Satanek eta gizakiek, hau da, betiereko beste munduak zein presentzia duen lurrean. Aingeruak, eta zenbaitean Jainkoaren semea nahiz Ama Birjina, zero-lurretan ibiltzen dira Jainkoaren eta gizakion bitartekari. Bainha horixe bera egiten dute infernuko deabruak eta Satanek ere. Beste munduak lurraren historian parte hartzen du, beraz. Ikuskarien, mirarien eta pribilegiatu bakar batzuek egindako bidaien bidez, beste munduak eta mundu honek bat egiten dute⁹⁴.

Aipatzeko da, bestetik, infernuari paradisuari baino gehiago erreparatzen zitzaiola⁹⁵. Kristauak salbazioaz ardura zitezen, Eliza kato-

likoak, paradisura joateko nahiari heldu beharrean, infernura joateko beldurra zabaltzeari ekin zion. Sinestunak, azken ordua iristean, askoz ere beldur handiagoa zioten infernuari heriotzari berari baino. Beldurrean oinarritutako kristautasuna hedatu zen horrela.



Zegamako San Martin elizako purgatorioko Arima Bedeinkatuen erretablo aldekidea.

(Maria Isabel Astizaran - Gipuzkoako Foru Alaldia)

⁹² Lekuko 01, Lekuko 02, Lekuko 03 eta Lekuko 04

⁹³ Bartolomé Olaetxea, 1763 in Belen Altuna (2003, 335)

⁹⁴ Jacques Le Goff, 1989

⁹⁵ Lekuko 11

San Agustinek⁹⁶ gizakiak lau taldetan banatu zituen: "gutziz onak" (paradisura joango dira), "gutziz txarrak" (infernura joango dira), "ez hain onak" eta "ez hain txarrak". Hortik abiatuta, ondorengo ustea hedatu zen: bekatu txikiak egin dituztenei, hil ondoren, berrerosteko aukera ematen zaie "su purgatzale" batean "zigor purgatzaleak" betez gero. "Su purgatzalea", infernuko suaren antzezoa, "leku purgatzale" batean omen zegoen, baina ez zekiten zehatz-mehatz non kokatu. Paradisuaren eta infernuaren artean kokatua, purgatorioa azken judizioaren egunean desagertu egingo da zerurako bidea hartuko dutenek uzten dutenean.

Purgatoriola joango dira grazia-egoeran (hau da, herizko bekatu guziak aitortura eta barkatuta) izan arren, beren bekatuengatik hartutako zorrak mundu honetan penitentziak eginez ordaindu ez dituztenak. Iragan- edo igarobide-leku bat da, beraz, zor zoriek kitatu eta arimak 'garbitu' ondoren zerura joan ahal izateko.

Purgatorioak zerurako bidea irekitzen die, horrela, bekatari txiki, eta, oro har, bekatari guztien segurtasuna eta esperantza indartzen du. Batez ere purgatorioan dagoen arimak era guztiako laguntzak jaso ditzakeelako: bizidunen otoitz, eskari eta ekintza onei esker, lasterrago irtengo baita zerurantz. Arimen alde egiten den kultu guztia, eta horien aldeko otoitz, meza eta eta eskarien antolakuntza guztia purgatorioko egonaldia horrela labur daitekeelako ideiatik dator, beraz.

Hiru baldintza hartzen ziren kontuan purgatorioan eman beharreko denbora zehazteko. Lehenengo eta behin, hildakoak bizitzan zenbat bekatu egin zituen (ondorengo bereizketa ezarri zuten: batetik, bekatu arinak, infernura joan aurrelik garbi zitezkeenak; bestetik, larriak, garbiezinak): bekatu-kopurua beste denbora eman beharko zuen purgatorioan. Baina biziek, adiskide nahiz familiakoek, eskariak (otoitzak, limosna, mezak) eginez gero, arimak lehenago uzten zuen purgatorioa. Ordainduz gero, Elizak hildakoa purgatoriotik ateratzen zuen: "indulgentziak" zirelakoak, alegia. XIII. mendetik aurrera indulgentzien salerosketa erruz hedatu zen Elizan. Beraz, purgatorioa utziz gero, bide bakarra hartzen zen: paradisurako bidea.

⁹⁶ <http://www.corazones.org/santos/agustin.htm>



Anoeta Mariaren Alabak kofradiaren estandartea, 1944an egina. Anoeta, 2008.

(Aranzadi Z.E.)

Hirugarren leku horrek infernua saihesteko aukera eskaini zuen. Gainera, purgatorioaren asmakuntzaren ondorioz, ordura arteko sistema bitarraren ordez, beste sistema konplexu eta malguago bat finikatu zen, gizartearen bilakaerarekin bat. Purgatorioak berebiziko garrantzia eta hedadura izan zituen, batik bat XIII. mende hasieran sortutako eskeko fraide-ordenei esker (domingotarrak eta frantziskotarrak). Purgatorioaren bidez, halaber, hil ondorengo judizio indibiduala ere aitortu zen. Bestetik, urtean behin, gutxienez, banakako aitorta egiteko obligazioa ezarri zuen Elizak (Latrango kontzilioa, 1215). Aurreko bi faktoreen eraginez, gizabanakoak garrantzi han-diagoa hartu zuen talde eta ordenen aurrean. Egiturak eta portaerak nabarmen aldatu ziren gizartearen: bekatu eta penitentziak kalkulatzeko sistema bat asmatu zen eta, merkatarietan zein merkatarien goraka-

da ezaugari izan zuen garai hartan, beste munduaren inguruko kontuak ateratzeari ekin zitzzion. Aipatzeko da, azkenik, purgatorioari esker, Elizak askoz ere botere handiagoa eskuratu zuela hildakoen munduaren gain (XIII. mendean purgatoriaoa fedezko dogmatzat hartu zuten), eskari eta indulgentziengatik bidez, ordura arte Jainkoaren eremua zen hartan esku hartzen hasi baitzen. XIII. mendearren erdia aldera, lurrean gizarte-egiturak eraldatzen ari zirela, beste mundua ere zehatz-mehatz egituratu zuten (San Bernardo, Santo Tomas Aquinokoa). Bi linbo asmatu zituzten oinarrizko "hiru lekuen" (infernu, purgatorioa eta paradisua) osagarri: patriarkena bata eta haurtxoena bestea. Lehenengoan, Kristo haragiztatu eta bataioa ezarri aurreko gizaki zintzoak bizi ziren. Hutsik zegoen, ordea, Jesukristok, infernuelara jaitsi zenean, patriarken linboan zeudenak zerura eraman baitzituen. Bataiatu gabe hildako umeak, berriz, haurtxoen linbora joaten ziren.

3.5. Akolitoak eta serorak

Akolitoak edo monagiloak eliz-laguntzen aritzen ziren nerabeak izan ohi ziren. *"Meza izaten zenean, laguntzera joan egin behar. Apaizari arropak prestatu eta sotana janzten laguntzen genion, baita mezetan behar zituen tresnak antolatzen ere. Mezetako diru bilketa egitea ere monagiloaren edo akolitoaren lana zen. Eltzetsu moduko ontziak pasatzen genituen eserlekutik eserlekura. Guk irekitzen genituen gero ontzi haien. Hilean bost pezeta jasotzen genituen trukean"*⁹⁷.



Akolitoak. Anoeta.



(Arantzadi Z.E.)

Anoetako akolito edo monagiloaren jantzia. Anoeta, 2008.

Elizaren ardura zuen eta apaizari laguntzen zion emakumeari deitzen zitzzion serora. Eliza txukun mantentzeaz ere serora arduratzan zen, mezak irauten zuen bitartean, kandekatutako itzal ez zitezen begiratzan zuen, besteak beste. Anoetako serora urte askotan **Maria Lasa*** izan zen, 'Maria Kanpanera' ezizenaz ezagutua, Igerabide etxearen bizi izan zelarik. Anoetan serorari zegokion kanpaiak jotzea, egunsentian, eguardian eta abemarietan edo ilunabarrean; baita herritarren bat agonian zegoenean edo hiltzean eta baita eguraldi oso txarra zegoenean ere. Elizaren garbiketaren ardura zuen eta baita apaizaren jantzienarekin.



(Barrenetxea-Lasa familia)

* María Cruz Lasa Aiestaran, Juan Ramón Lasa Izagirre eta Paula Aiestaran Etxezarretaren alaba, 1915eko irailaren 14an Villabonan jaio zen eta zenbait urtetan Alkizan bizi izan zen, bere gurasoak; José Ramón Barrenetxea Yurritarekin ezkondu zen, 1990eko azaroaren 10ean hil zen Anoetako Igerabide etxearen, Barrenetxea-Lasa familiak emandako datuak.

⁹⁷ Lekuko 11

Serora hitzaren jatorria latinezko 'soror' hitzetik eratorria izan behar du, ahizpa esan nahi duelarik. Alabaina Resurrección María Azkuek datu esangurutsu bat gehitu zuen; Euskal Herriko hainbat eskualdetan emakume ezkongabearen izaera ere bazuela; beste zenbaitetan aldiz sakristauaren emaztearena ere. Era berean 1557tik aitzina serora gisa emakume ezkongabeak edota berrogei urtez gorako emakume alargunak soilik izan zitezkeela finkatua geratu zen; moral zuzenekoak eta gotzainaren baimenarekin⁹⁸.


3.6. Apaiz-diruak, bulak eta bederaziurenak,

Hiru hilabetetik behin, apaiz-dirua edo hamarrenak (diezmos y primicias) deitzen zitzaiona biltzen zen. Orduan ez zegoen soldatarik eta apaizarentzako dirua modu horretan biltzen zen. Dirua ematea ez zen obligazioa baina, gehienek ematen zuten. Lehenagoko garaietan apaiz-dirua ordaintzen ez zuen bat baino gehiago geratu omen zen Anoetan hileta elizkizunik gabe. Anoetan, erretore-etxera eramatzen zen dirua eta errezipoa jasotzen zen trukean. Borondatea ematen zuten, bakoitzak ahal zuena. "Pezta [0,6 centimo €] asko zan ordun, txakur txiki batzuk ematen genituren, fedea bagenun baino, eh, diruik ez!"⁹⁹.

Galdera batzuei erantzun eta gero, txanpon batzuen truke eros zitezkeen bulak erretore-etxeen. "Pezta bana-eo balio zuten. Bazan zer-bait garai hartako". Bulak txartel modukoak ziren, eta hildakoaren gainean jartzen ziren, arrosarioa esatera haren etxera joandakoan. Bulek batzuetan beste eginkizun bat ere, garizuma guztian zehar haragia jateko libre zen bulak ordaintzen zituena. Bijilia, Aste Santuan eta beste bi edo hiru txandatan izaten zen urtean zehar. "Bula hartzen ez bazezen, ordea, urte guztiko ostiraletan egin behar zen barau"¹⁰⁰. Anoetan helduenek ezagutu zuten bulak hildakoaren zerraldoan uzteko usadioa ere; horrekin zera ematen omen zen aditzeria, hilberrria bekatu guztietatik libre zegoela eta zerurako bidea erretea-edo.

Anoetan bederaziurenak hiru garaitan izaten ziren: San Josetan (martxoak 19an); Ama Doloretakoan (data aldakorra, Ostirala Santu aurreko ostiralean ospatzen zen lehen) eta Ama Birjina

Kontzesiokoan (urriak 12an). Bederaziurenak aipatu egunetan amaitzen ziren, eta garai hauetan "*aurreko bederatziz egunetan, eguno-nero-egunero, meza eta gero misala liburuan egun horri zegokion pasarteak irakurtzen ziren. Gure aitona zenak biloba guztia hartu eta zintzo eta serio asko eramatzen gintuen bederaziurenak mezeta-ra, meza oso bereziak ziren, eta ezin ziren nola hala galdu*"¹⁰¹.



(Modestoenak haserria)

Arantzazuko amabirginaren bederaziuren ospakizunen liburua.



(Modestoenak haserria)

Izaskungo amabirginaren bederaziuren ospakizunen liburua.

⁹⁸ Antxon Aguirre Sorondo (2002: 123)

⁹⁹ Lekuko 01

¹⁰⁰ Lekuko 02

¹⁰¹ Lekuko 01

3.7. Misioak eta prozesioak

Aste Santua zetorrenean iristen zen misioen garaia. “*Misioak Aste Santurako preparazioak ziren. Konfesatu, pekatu guztiak aitortu eta garbi-garbi geratzen ginen. Konfesio generala zen*”. Ohitura bat eta beste, behin baino gehiagotan konfesatzen ziren orduko gazteak. “*Jesus! Urtean zehar askotan konfesatzen ginen gu! Astero-astero*”. Aste Santuaren aurretik oraindik ere egiten dira ejerzizioak “*baina orduan, denak joaten ginen errezzatzeria. Apaiza kontzejuko tabernatik igual pasatzen zen, barruan zeudenak elizara eramateko*”. Misioez gain, prozesioak ere oso ugariak ziren, “*Aste Santuan prozesio asko izaten zen baina, baita urtean zehar ere*”. Ostegun eta Ostiral Santu egunetan kalbarioak errezzatu eta prozesioan ateratzen ziren arratsaldean. Halere Anoetan prozesiorik nagusiena Korups egunekoa zen.




Korups eguneko prozesioa Aralarren. Aralar, 1944.

“*Ostial santu egunen Anoetako elizatik atea eta galbaioko aldapa arte [Galbarioeta, Barrundi-txiki etxe parera], ite zian prozesiok. Bi guutze bakarrik mantentzen dia bakarrik, bata osoik eta bestia eroita. Ergoiena bailarako bidia zabaldu zanian, bakizu, aurrian topatutako guztia bota in zuen, ta, eh, lastima baño...*

¹⁰² Lekuko 02

¹⁰³ Lekuko 06

¹⁰³ Lekuko 02



(Gipuzkoako Foru Aldundia)

Galbarioko aldapa hasieran kokatua dagoen kalbarioa. Anoeta.

3.8. Kofradiak: Mariaren alabak; Luistarrak eta Frantzikotarren hirugarren ordenekoak

Komunio handia egin eta gero, Mariaren Alabak kongregazioko kide egiten ziren neskak. Mutilak berriz, Luistarren kongregaziokoak. Oro har, ezkontzen ziren artean ziren kongregazioko kide. “*Nahi zunak ematen zun izena ta hilean behin kuota bat ordaindu behar izate zan. Kongregaziokok, hilean behin komunioa hartzena obligatuta geunden*¹⁰³”. Kongregazio bakoitzak, biltzeko egun eta ordu zehatzak zuen eta bakoitzak bere zintarekin joan behar zuen elizkizun hortara. Kolore ezberdinako zintak zituzten kongregazioek. Medaila modukoak. Hilean behin besterik ez zituzten janzen, elizkizun horietara joateko soilik. Anoetan Mariaren Alabak hileko lehen igandetan biltzen ziren, meza nagusian eta Luistarrak hileko azken igandetan. Urtean behin, Ama Birjinaren egunean Mariaren Alabek eta Luis Gonzagaren egunean Luistarrek, festa izaten zuten. Ezer berezirik gabe baina, meza ederragoa izaten zen egun horietan. Mezaren ondoren, ekintzaren batzuk antolatzen ziren. Apaiza oso zorrotza zenez, kongregazioko kideren bat falta ote zen begiratzen zuen.

On Dionisio Telleria izan zen kofradiak antolatu zituena Anoetan, “*jendek respeto haundia zion*”. Mezak oso bereziak izaten ziren kantuez lagunduta, “*ondo gogon det nola Apatxeko Joxepa Zugasti ta*



Anoetako Luiatarak edo San Luis Gontzaga kofradiako kideak. Anoeta, 1945+/- . Ezkerretik eta eskuinera eta goitik behera. **Goiko ilaran:** José Miguel Iraola (Tapia); Juan Cruz Urkizu (Etxeberria); Segundo X (Agirre); Juan Maiotz (Aginagazpikoa); José María Uzkudun (Ieratxulo errota); Antonio Uzkudun (Argindeggi); José María Iraola (Ateaga); Florentino Olotzaga (Agirre); Nicasio Urkizu (Etxeberria); Dionisio Sarasola (Iturralde); Eusebio Etxabeguren (Katalegi); José Ramón Lasu (San Joan); Marcelino Urkizu (Etxeberria); Ignacio Amonarriz (Txulo); Ignacio Uzkudun (Argindeggi); José Antonio Garmendia (Alliri); X (Mendigibelko morroia). **Bigarren ilaran:** Marcos Sarasola (Bideondo); Juan Aldasoro (Iturgaitzaga); Faustino Maiotz (Aginagaetxeberria); Joaquín Lazcano (Mikelasagasti); Agustín Amonarriz (Txulo); Ignacio Otaegi (Urritzeta); X; Joaquín Mendizábal (Borondegi); José Uzkudun (Eguizkitza); Dionisio Tellería (erretorea); Benito Zuaznabar (Sarobe); José Sarasola (Bideondo); José Martín Uzkudun (Argindeggi); Justo Urkola (Barrundia); Angel Zugasti (Apaizuetxea); Bautista Urkia (Idiakaitz); Ramón Amonarriz (Txulo); Germán Berasategi (Modestoenea). **Hirugarren ilara:** Román Urkizu (Etxeberria); José Manuel Tolosa (Mikelasagasti); X; Antonio Berasategi (Modestoenea); X; Juan Uzkudun (Errota); Rufino Aldasoro (Iturgaitzaga); Simón Urkola (Barrundia); Santiago Zuaznabar (Sarobe); José Arantzabal (Argindeggi). **Laugarren ilara:** Pedro Sarasola (Zumalikardi); Juan Sarasola (Ipintza); Jacinto Sarasola (Bideondo); Jesús Agirrezabala (Luebana); Manuel Odriozola (Goiokoetxea); X; Agustín Odriozola (Goiokoetxea); Bautista Urkola (Barrundia); Hilario Sarasola (Zumalikardi); X; Antonio Sarasola (Zumalikardi); X.



(Aranzadi Z.E.)



(Aranzadi Z.E.)

Ezkonduek osatzen zuten Anoetako Frantziskotarren hirugaren ordenako kofradiaren estandartea. Anoeta, 2008.

Mariaren Alabak kongregazioaren estandartea, 1944ean egina. Anoeta, 2008.

Irabideko Maria Lasak bi bozeten noa kantaten zuen, eh, nola kantatu geo, eh!¹⁰⁴. Mariaren Alabak kofradiaren estandartea 1944an bordatu zen, “1944ko uztaren [uztaila] lehenen beinkatu zan, Marian Alabama eta Luixtarren estandartiak, biak batea, bealdiko pesta antolatu’re, gaiñea. Beinkaziok ta geo pelota-partiduk”.

¹⁰⁴ Lekuko 02

Ezkonduen artean, Anoetan, Frantziskotarren hirugarren ordenako kofradia antolatua zuten. Hauek ere haien estandartea eta kolkoan eraman ohi zuten medailak izaten zituzten. Hilabeteko bigarren igandero ospatzen zen beraien ospakizun berezitua.



(Anoetako Z.E.)



Anoetako Frantziskotarren hirugarren ordenako kofradia osatzen zutenek eraman zuten lepokoia. Anoeta, 2008.

3.9. Luis Jauregi 'Jautarkol', Anoetako erretoreoa

Luis Jauregi Etxenagusia doktoreak (Erreenteria, 1896-Zarautz, 1971), Comillasen (Cantabria) egin zituen apaiz ikasketak, bertan apaiztu eta bertako Teología eta Zuzenbide Kanonikoko irakaslea izan zen. Comillaseko seminarioan ezagutu zituen Nemesio Etxaniz, Jose Ariztimuño Aitzol, Jokin Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia, Joseba Markiegi eta Nikolas Ormaetxea Orixek Euskal poetak¹⁰⁵. Orixek era karri zituen gazte haiek "euskararen sorora".

Zeruko Argia, Yakintza, Euzko Gogoa, Euskal Esnalea, Ekin, Bertsolariya aldizkarietan eta El Día egunkarian eman zituen argitara bere idazlan eta olerki gehienak¹⁰⁶. Luis Jauregik Jautarkol izengoitia erabiltzen zuen

bere idazkietan, garai hartako usadioari jarraituz, izen-deituren lehen silabak elkartuta asmatu zuen (JAUREGI TAR KOLDobika).



(Carrión-Sola barrieta familiak)

Zutik Aitzol, Jautarkol. Eserita: Mirentxu Irujo, Mari Zubala (Jose Antonio Agirrearen andregaita), Jose Antonio Agirre Lehendakaria izango zena eta Pio Montoria. Altzo, 1932.

1929an Biozkadak olerki bilduma eman zuen argitara. Sekulako oihartzuna izan zuen liburu honek, aire berriak baitzekarren euskal poesiaren alorrera: ez zen bertsolarien moldea, ezta gutxirentzako moduko poesia berrizalea ere. "Biozkadak lanaz, egile honek Becquer-en errmantizismoa euskal literaturara ekarriko du, eta lirika neurritsu eta finagoa idazten hasiko da, zeinetaz baliatuko baitira Jautarkol eredu zuten hurrengo belaunaldiko poeta lirikoak"¹⁰⁷. Poeta hau igarobide bilakatu zen euskal poesiaren bilakabidean, tradizio idatzia eta ahozko lirika uztartu baitzituen. "Lizardik bere aitzineko Emeterio Arrese eta Koldo Jauregi, Jautarkol proposatu zituen lirika kultoa sortzeko eredu gisa"¹⁰⁸.

Baina beste ondoriorik ere ekarri zuen liburuxka hark, euskal olerki-gintzan ez ezik euskal literaturan eta euskal kultura zabalean ere hautsa harrotu zuen. Urte hauetan, Aitzolen eta Lizardiren bultzadaz batez ere, 1927an sortua zen 'Euskaltzaleak' erakundea (Lizardi, Aitzol, Labaien...) buru-belarri zebilen bere egitasmo euskaltzaleak


¹⁰⁵ Elixabete Pérez Gaztelu (2002: 4)

¹⁰⁶ Ipuiaik: Argia (1924-02-03); Ipuiaik: Argia (1924-02-17); Ipuiaik: Argia (1924-02-24); Ipuiaik: Argia (1924-03-23); Ipuiaik: Argia (1924-03-30); Ipuiaik: Argia (1924-04-06); Ipuiaik: Argia (1924-04-13); Ipuiaik: Argia (1924-04-20); Ipuiaik: Argia (1924-04-27); Ipuiaik: Argia (1924-05-04); Ipuiaik: Argia (1924-05-11); Ipuiaik: Argia (1924-05-18); Ipuiaik: Argia (1924-05-25); Ipuiaik: Argia (1924-06-01); Ipuiaik: Argia (1924-06-08); Ipuiaik: Argia (1924-06-15); Ipuiaik: Argia (1924-06-22); Artzai-Neska: Argia (1927-10-23); Xenpelar bertsolaria: Argia (1930-06-01); Bai erri gaxoa: Amayur (1931-06-06); Euskal Esnalea: El Día (1934-12-14)

¹⁰⁷ Jon Kortazar (2004: 121)

¹⁰⁸ Jon Kortazar (2004: 64)

gizarteratu nahian. Literatur talde honek literaturaren berrikuntzan oinarritutako euskal gizartearren berpizkunde bultzatu nahi zuen, berrikuntza horren funtsa poesia epikoa, ezagutarazten erraza zena, litzateke. Liburuaren oihartzuna zela medio, Euskaltzaleak taldeak Jautarkol omendu behar zuela erabaki zuen. Horren kariaz antolatu zuten lehen ‘Euskel Olerti Jaia’ Errenterian, Jautarkolen sorlekuaren, 1930eko ekainaren 1ean. Lauaxetaren ‘Maitale kuttuna’ olerkiak eraman zuen lehen saria.



Luis Jauregi erretoreak argitara emandako ‘Biozkadak’ liburuaren azala, 1929.

1933ko urtarrilaren 1an Altzotik Anoetara iritsi zen erretore kargua betez, Mateo Mujika orduko Gasteizko gotzainak bidalia. Garai hartan Anoetak, Altzok ez bezala, trena bazuen eta garriobide honi esker Altzon zituen harremanak sendotzeko modua izan zuen Jautarkolek: ‘Tolosako taldetxo’ askotan joaten zitzaion. Herriko zaharrenek gogoan dute II. Errepublika garaian José Ariztimuño ‘Aitzol’ apaiza, euskaltzale eta EAJ/PNVko politikari gailena maiz bertaratu ohi zela Anoetako Erretoretxera, harreman oso ona omen zuten. “Aitzol zana gure etxera’re [Modestoenea] maiz etortze zan. Ondo goguan det beak eakutsi zian kantua¹⁰⁹:

nere semian seme
ene hiloba laztana
maitatu zak jaungoikua
ta gure Euzkadi ama”

Luis Jauregi apaiz-zereginet atzendu gabe, olerkiak, artikuluak plazaratzen, literaturari buruzko eztabaidean esku hartzen, euskararen alde hitzaldiak ematen, ‘Euskararen eguna’ eta beste antolatzen; hitz batean esateko, Pizkundean bete-betean murgilduta jardun zen. Bere idazlanak oso oparoak izan ziren¹¹⁰:

- Biografia: Xenpelar bertsolaria: 1958, Itxaropena
- Itzulpena: Paskual Duarte'ren sendia; Camilo José Cela: 1967, Itxaropena
- Narrazioa: Egizko edertasuna. Ipuin luzea....: 1923, Gaubeka Irarkola; Ipuiaik: 1924, Iñaki Deunaren Irarkola; Ipuiaik: 1953, Itxaropena.
- Poesia: Biozkadak: 1929, Ama-Birgiñaren Irarkola

1936ko altxamendu militarrean Frankisten alde borrokatu zuten karlistita errekeeteek Nafarroatik sartu eta 1936ko abuztuaren 11an Tolosa mende hartu zuten. Honen ondorioz Jautarkolen lagun askok Iparraldera ihesi joan behar izan zuten, tartean gero harrapatu eta afusilatua izan zen Aitzol. On Luis Anoetan geratu zen, ez baitzuenuste ihes egiteko adinako arrazoirik bazegoenik, bere adiskide Aitzol ez bezala, Jautarkol ez baitzen politikagintzan nabarmendu.

¹⁰⁹ Lekuko 01

¹¹⁰ Literaturaren Zubitegia: Luis Jauregi, Jautarkol: <http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00290.htm>

Alabaina, guda-egoera lasaitu artean gordetzeko gomendioa eman zioten badaezpada ere: “*ondo goguan det gue atta zanan trajia jantzi [Modestoenea] ta Atian [Ateaga baserria] nola euki zuten han babesia eman ta gordeta*”¹¹¹. “*Naparrak [matxinatutako errekeatek] gure etxera sartu zirenean [Ateaga baserrira] On Luis ikuilun zeon ta regimendu guztiai bazkaia ematea behartu ginuzten. Bea han zeon ezkutun. Ze bildurra pasa! Eh!. Rekete batek hala esan zun, ondo gogun det, euskeaz gainera, eh: ‘Hok gue aldekok dituk ba, erregia hemen eona et-eta, eh, hok gue aldekok ditruk eh!.* María Cristina Erregina konsorte liberala Atian egona zalako¹¹² aiko zian baino, tia... ”¹¹³. “Egun askotan egon zan, han, Atian, girua kalmatu zan artian. Erretoretxea bueltatzian detenitura eaman zuen, lapurrik bezela, txakurrak bezela, gogun det nik, eh, Tolosako Eskolapiota, han prepatutako kartzela. Geo Matxinbenta biali zuten kastigatuta”¹¹⁴. “*Atian babes emana eskertzeko eo, 1940an bertsok biali zizkiun On Luisek, ondo jasuak diteu, eh!*”¹¹⁵



Yakintza aldizkariko harpidedun-xartela.

¹¹¹ Lekuko 01

¹¹² XIX. Mendean, Miguel Olotzaga eta honen emaztea hiltean, beren familia ugaria umezurtz geratu zen eta bi alaba Isabel II.aren gortean aritu ziren lanean. Francisca izan zen erreginaren armazaina eta honen emazteak adoptatu zuten lehenena. Ondoren, bere ahizpa Josefa deitua eta biak erreginaren konfiantzazko etxeko zerbitzariak izan ziren. Francisca, Isabel II.aren egon zen Ginebrako erbestealdian. Bi ahizpa hauak Ateaga baserrian jaioztako lau iloba (Petra, Martina, Agustina eta Vitoriana) eraman zituzten. Madrilgo gortera zerbitzatzen. 1880an, Maria Cristina erreginak uda Donostian igarotzen zuela aprobatxatuz, (garai hartan Donostia zen lekuri gustuko enetakoak), Eulalia infantak Ateaga baserrian eman nahi izan zuen denboralditxo bat bere osasuna sendotzearren. Atsedenaldian, Alliri baserritik ekartzen zioten asteme-esnea edaten zuen. Egonaldian, Maria Cristina erreginak berak zenbait bisita egin zituen isilean Ateagara.

¹¹³ Víctor Bidar Zabalio, Ateaga baserrian jaioa eta bizi izandakoari 2005ean jasotako lekukotza.

¹¹⁴ Lekuko 01

¹¹⁵ Víctor Bidar Zabaloren lekukotza.

¹¹⁶ Lazkaoko Benediktarren Artxiboa. Ramón Muruaren funtsa, sailkatu gabea.

ATEAGA BASARRIA

GUDA= GARAICO OROIGARRI AZTU-EZIÑA

Anoeta erritxoan
alai ta tente muñoan,
Ateaga basetxea,
oroigarri zarrez betea.

Ez da Jauregi gaztelu
ala aberatz bizi-leku,
bai kristau etxe langille,
Atezabal maitatzaile.

Urteak etorri ta juan,
bizirik daukat barruan,
oroigai aztu-eziña,
maite-irudi atsegia.

Jaun onak nire bidean,
-bitzitz gau illunear-
Piztu zun izar argia,
Ateagako baseria.

Izerditan estu, larri,
aterpe baten egarri,
itxaropenez betea
jo nuan bere atea.

Etxeko Jaun ta andreak,
-maitez, errikuz beteak-
semetxo baten antzean
artu niñuten etxeen.

Ateaga, zabal, maite,
nolaz aztu nil il-arte..?
ua atseden, babes toki
itzal gozo, maite kabi...!

Aiek egun, egun aundi,
zortzi egun maitagarri,
oroi-maitez igurtziak,
bañan bildurrez josiaik..!

Urbil, sua ta ekaitza,
-asarre gorroto gaitza-
nere kaia ta aterpea,
Ateagako basetxea.

Nire oroigai kutuna,
aztu ezin dan laguna...!
Bertsoz jantzia pakean
bizi adi milla urtean
euskeria bizi artean...

Unrestillan 1940an jarriak
Luis Jauregi apezak¹¹⁶.

1936ko gerran Ateagan eskainiko babesia eskertuz Luis Jauregik idatzitako poemak.

Tolosako Eskolapioetan sartu zuten preso. Egun gutxiren Miguel Apeztegia eta Francisco Laskerasekin batera askatua izan zen Tolosako Antonio oiarbide apaizaren esku hartzea tarteko^{2*}. Apaiz karlista batek libratzea lortu zuen. Ez zuten hil, kartzela-zigorrik ere ez zuen izan; izan zuen, ordea, bestelako zigorrik. Orduko zulo beltzean aski zen euskaltzale izatea zigorra jasotzeko, eta Jautarkolek ere izan zuen berea: Lauzirika gotzain frankistak Aratz-Matxinbentako “errekarzulo ospelera”¹¹⁷ zokoratu zuen, Rafael Albisu apaiz errenerteriarrarekin batean. 1937ko urtarrilaren 20an Alfonso Velardek, Gipuzkoako Gobernadore Militarrak Gasteizko



“Euskal olerti jaia”. Jautarkol Saritutako olerkia jendeurrean irakurtzen.

^{1*} Jose Andrés-Gallego Antón M. Pazos (2002:430-446)

^{2*} Euzko apaiz talde (tomo V:170)

Bikario Orokorrari bidalitako gutun batean aipatzen denez Luis Jauregi EAJ/PNVko afiliatura zen, Anoetako afiliatu bakarra. Gutun hau Gasteizko Bikarioak Gomá kardenalari bidali zion¹⁸. Hiruzpalau urte egin zituen Beasain alde horretan Azpeitiko Urrestillara joan arte. Urrestillan lehenbizi apaiz laguntzaile eta gero erretore izan zen. “Ni aiatuta nau areino hari bixita itea, ne bizitzan este bat pasatzia ateata naun aldi bakarrian, geio enaiz iñoa atea, baino han izana nau. Oso hizketaldi entzunak ite zitun, jendia urrutitik e' juten zan bere sermoiak entzutea. Lagun giron eotea ere atsegin zun, jendeakin hizketan”¹¹⁸.



Entzuleen artean Guam-go gotzaina eta Aitzol. Bedoña, 1935.

¹¹⁷ Lekuko 01

¹¹⁸ Lekuko 01

4. Herri erlijiozkotasuna



Santa Ageda bezpera.

4. HERRI ERLIJIOZKOTASUNA

Ondoko lerroan herrikoitasunaren ikuspuntutik aztertuko dugu erlijioa, komunitate baten kultura adierazpenetako bat den heinean. Ikerketa arloa, beraz, gizatalde baten aktibitate sinbolikoaren fruitu den sinesmen eta errituen multzo bat da; taldeak berak sakratu edo erlijioso bezala kategorizatu dituenak¹¹⁹. Herri erlijioaren kontzeptua erlijio ofizial historikoaren nagusitasun soziokulturalaren testuinguruan kontuan hartu beharrekoa da. Erlilio nagusiek edo sinesbideek era-kunde hierarkikoa, doktrinaren sistematizazioa, arau moralak eta erritual araztuak zehazten ditu. Herri taldeek, doktrina, arau eta erritual horiek onartu ahala doktrina haitetik osotasunean erorriak izan ez diren sinbolo eta errituak mantendu dituzte.

Erlijoizkotasun herrikoiarri buruzko ikerketak gaur egun gizarte-historiaren barruan murgilduta daude eta metodologia historikoa eta metodologia antropologikoa uztartzearen alde egiten dute. Historia duten kulturak ezagutzeko hain beharrezkoak den denborazko sakontze horren ekarpena, antropologiarekin bat datorren metodologia osatu baten bidez egiten du historiak¹²⁰.

“Erlijoizkotasun herrikoia” esapidearen definizioa ez da erraza. Erlilio herrikoi, erljioizkotasun herrikoi, erljiozaletasun herrikoi, jaiera herrikoi, katolizismo herrikoi edota erlijio herrikoi terminoak parekatu ohi dira. Erlilio kultu edo arrazionalaren, erlijio subertsibo edo alderantzizkatzalearen kontrapuntua izan daitezke erlijio ofizial eta nagusiaren aurrean¹²¹. “Erlijoizkotasuna” erlijioaren zehazpena



(Sarobe baserria)

Saritan, herri erlijioizkotasunaren agerpenak erlijio ofizialarengandik ezberdindu izan dira.


¹¹⁹ Gurutzi Arregi eta Ander Manterola (1993: 532)

¹²⁰ Ana Isabel Rodríguez Pérez, 2002

¹²¹ Antonio Ariño Villaroya (1989: 471-472)

izan daiteke, zeina ez baita agerian jartzen ez bada forma, jokabide, erritu eta sinesmen zehatzten bitarbez.

Erlificioa *herrikoi* gisa adjektibatzea erlijiosotasun ofizial gisa sailkatutakoari kontrajartzen zaio. Biak nahasi egiten dira; era gutxi gorabehera berezi batez koexistitzen dira. Batzuetan erlijio herrikoia ikusten da beste erlijio-sistema batzuei dagozkien –eta erlijio nagusien barruan integratuta dirauten– sinesmen eta praktiken hondar-multzo bat bezala. Beste batzuetan, berriz, produktu misto bat izango litzateke, agindu ofizialek herriaren praktikekin izandako topaketaren emaitza. Baino erlijio herrikoia beti ekarriko lituzke berekin erlijio-fenomenoaren asimilazioa, eta, herriak erlijio ofiziala ulertu eta praktikatzeko daukan era¹²².



Euskal Herriko kristau fededunak. Lourdes, Frantzia, 1953.

Erlijiosotasun kontzeptuari berriro helduz, hitz hori erlijiores bat praktikatzearen ahalmenari dagokiola ulertzten da, jaiotzean gizaki orori ezarriak zaizkion gizabanako- eta gizarte-mugen barruan. Erlilio fenomenoa, bai kanpoko adierazpideen aldetik –errituak edo gurtza– bai sinesmenen aldetik, bizirik dagoen errealitatea da eta erlazioa du ekonomiarekin, politikarekin, gizartea antolatzeko moduekin, aldaketa ekologikoekin eta kultura osatzen duten elementu guztiekin¹²³.

Erlijoia eta erlijiosasuna kulturaren oinarrizko osagaitzat jo behar dira; giza jardueren aniztasunean eragiten dutenak dira. Era berean behar-beharrezko da ondo kontuan izatea Euskal Herrian erlijioa eta politika ezin bananduzkoak zirela.

Europa moderno eta garaikidean konfrontazio esplizitua piztu duten bi aro garrantzitsu izan dira. Erlilio katoliko ofizialaren eta kultura edo erlijio herrikoien artean. Lehena Kontrarreformarekin gertatu zen, eta bigarrena Vatikanoko II. Kontzilioaren ostean. Biak ala biak gertatu ziren kontzilio orokoren ostean, zeinek zalantzan jartzen baitzituzten –kanpoko faktoreek hertsatuta eta zertzelada historiko oso ezberdinente-rakundea presente egoteko eta ezartzeko erabilitako moduak eta gizarteari helarazten zizkion mezuak. Erlilio ofizialak ezarritako formulak akulturatu eta helarazteko estrategia pastoralak ere sortu ziren bi kasuetan. Mezu dogmatikoaren aurrean magikotzat, sineskeriatsutzat, antagonikotzat eta bideraezintzat salatuak izan ziren jokabide eta sinesmen herrikoiekiko halako gatazka bat piztu zen emaitza gisa, epe luzera –jarrera herrikoien erresistentzia ikusita– egokiera- eta sinkretismo-irizpide eta praktikak nagusitu baziren ere¹²⁴.

Gatazka-testuinguru honetan, Anoeta bezalako nekazal komunitate txikietan, erretoreek eragin nabarmena izan zuten herriaren kristau-heziketan. Hauek erlijiosasun herrikoian izan duten presentzia bi eratara islatzen da: ordezkatzen dituzten fededunen ordezkapenarengatik eta sustatzen zuten gurtza publikoagatik.

¹²² José Luis García García (1989: 19)

¹²³ Carlos Álvarez Santaló et al. (1989: 7)

¹²⁴ Antonio Ariño Villaroya (1989: 473)



Zenbaitanoetar.

(Agirre baserna)

Gizon emakumeek elkartzeako eta bere erlijio-bizitza kolektiboa antolatzeko izan duen era, apaizen bitartekaritzaren bidez beretza hartzen dituen erregela eta arauak, eta erlijiozkotasunaren erreprezentazioak eta adierazpenak. Anoetan nola gauzatu diren ikusiko dugu ondoko lerrootan:

4.1. Leku sakratuak

Eliza antolaketatik zuenago erregulatutako guneetan baino ermita eta santutegietan autonomia handiagoaz jardun izan direnez herritarrok, hauak leku sakratuetan mantendu izan dute indarrak handienarekin herri-erlijioa. Leku sakratu hauetan erritual sistema kolektibo bat gauzatu izan da: ermita inguratzen duten pro-

zesioekin, euria eskatzeko errogatibekin, urteko erromesaldiekin... Erlijiotasun honen ezaugarri nabarmenetako bat, errito hauen inguruan burutzen diren festa-ekitaldiak eta erromeriak dira. Ofrenda edo eskuratutako mesedeen deboziozko eskertzak zuzenki lotuak agertzen dira errituaren kanporatze agerpenean.

Leku sakratu hauak gertakari miragarriak edo agerpenak tarteko sortu izan dira eta agerpenen, mirarien eta sendaketen inguruko ahozko-tradizioek leku hauen sakratutasuna elikatu izan dituzte. Herri kontakizun hauak lekuaren sakratutasuna kristau erlijioa ezarri aurrekoia izan litekeela erakusten dute. Honela, Euskal Herrian ohikoa da ermitak bertan bizi ziren lamiak aldentzeko eraikitzen zitzatenaren ustea.



Alliri baserriko lurretan 2006an aurkitutako gurutzea. Anoeta, 2006.

les es muy provechoso para su salud. La primitiva -iglesia- estuvo en el lugar donde en el día existe la casería llamada San Juan que es paraje más apartado y alto”.

1726ko artzain-bisitaren mandatuetan¹²⁶ Anoetako egindako letania-prozesioak aipatzen dira. Prozesioak herritik kanpo eta urrutitik egitea debekatuta zegoen, izan ere *“desordenak eta lizunkeria”* gertatzen ziren. Lehen prozesioa San Joan baselizara eta bigarrena San Andres Apostoluaren baselizara egin behar ziren. Hirugarren prozesioa, berriz, elizaren kanpotik bira ematean zetzan. Eta Pazko-egunean Tolosan zegoen Izaskungo Andre Mariaren baselizara egiten zen letania-prozesioa San Andres baselizara egindakoak ordezkatu zuen. Letania hauetara bertako apaiz guztiek joan behar zuten. *“Prestel”-ak kapa morea eraman behar zuen prozesioa bukatu arte eta gainerako apaizek eliz atorra eta birretak eskuetan. San Joan Goikoa baselizari buruz hauxe esaten zen¹²⁷:* *“hai mucha devucion y frequencia de gentes, no solo de la circunferencia sino tambien de lugares extraños...”*. Prozesioak egiteko, *“una cruz de madero con palo largo”* erabiltzen zuten.

Era berean, haur negartia, norbaitek begizkoa egin zielako zirela uste izaten omen zen, eta horregatik San Joan egunez Anoetako San Joan ermitara eramatzen omen zituzten¹²⁸. Begizkoa, pertsona batzuek begiraden bidez eta aztikeriaz, batez ere umeengan, eragiten omen zuen kaltea zen, Anoetako informazio emaire baten hitzetan *“nik nee seme-alabak lanbat-santun bedeinkatutako uraz igurzten nitun bzapare’re, hala eakutsi ziuten-ta!”*



Korputz prozesioa. Aralarko San Migel, 1930.

¹²⁵ Pablo de Gorosábel (1862: 39)

¹²⁶ Donostiarriko Elizbarrutiko Artxibo Historikoa, 1238/003-00. Fabrikaren kontu liburua: 1676-1802. 175 a. - 176 a. orr.

¹²⁷ Donostiarriko Elizbarrutiko Artxibo Historikoa, 1241/009-00 sf.

¹²⁸ Juan Garmendia Larrañaga (2003: 144)

Hauexek dira, Anoetako erretore zen Juan Antonio Etxeberriaren esanetan, ermitak 1770ean zituen erritu-objektuak eta ondasunak¹²⁹: "...dos pares de corporales, un alba con su amito y cíngulo, una casulla blanca con su estola y manipulo, un misal antiguo y cuarderno de los santos de España, seis frontales, tres paños largos para el altar, cuatro candeleros dos de estaño y otros dos de madera, una lámpara de estaño ordinario, una cruz de madero con palo largo para las procesiones, un címbalillo para llamar a misa, cuatro toallas de mano, una sacra con su cruz y atril para el altar, catorce cruces de madera para visitar el calvario, un arca para guardar el grano, una mesita con su tirador quesirse para revestirse".

Garai hartan serora zen Felipa Olanok, berriz, baselizak etxe bat zuela esan zuen. Serora bizi zen etxe horrek lursail bat zuen, honako eremua hartzten zuena: "ocho celemenes de sembradía". Lursailak baratzea, fruta-arbolak eta sagarrendoak zituen: "seis pies de manzanos, su huerta y otros árboles frutales". Hau da, baselizak liturgia erlijiosoarentzat eta serorarentzako baratzte txiki bat eta fruta-arbola batzuk mantentzeko beharrezkoa zen guztia zuen. Hauxe da txostenak



San Joan baserriaren kokatzen den gurutzea, behinola ermita izan zenaren aztarna.
Anoeta, 2003.

¹²⁹ Donostiarriko Elizbarrutiko Artxibo Historikoa, 1241/009-00 sf.

¹³⁰ Donostiarriko Elizbarrutiko Artxibo Historikoa, 1810 - 11 - 01: DEAH, 1241/033-00, s.f.

jasotzen duena: "no combiene profanar las mencionadas hermitas por no ser perjudiciales ni gravamen su existencia a los vecinos y moradores de esta dicha villa que si una salida en rogativas generales y particulares, que se hacen de la Parroquia en necesidades urgentes con advertencia que en tiempos de las rogaciones generales la cruz de esta parroquia salia a diferentes lugares cunvecinos".

Baseliza baserri bihurtzen hasi zen 1810ean¹³⁰. 1789ko Frantziako Iraultzaren ondorioak Europa osotik hedatu ziren, Euskal Herrian eta baita Anoetan ere. Napoleonen tropen presentziaren eta haien mantenuaren ondorioz, udalek beren ondasunak, lurra eta base-lizak saldu behar izan zitzuten. Gainkarga fiskal horren ondorioz, Anoetako kontzejuak San Joan baseliza eta Alliri baseria saldu behar izan zituen. Orduz geroztik anoetarrak ez ziren hara bertaratzen erritoak burutzea, nahiz eta ahoz-ahoz iraun duten lehen-goko ohitura haietan.

Ildo berean, bada Basagain sorginen bizilekua zenaren ustea, Goiballarako lekukotza emaileen hitzetan "guri hala esaten zigitzen behintzat. Inolarretan ez ginен bazpare Basagaingo bizkarren ibiltzen". Basagainen Burdin Aroan (k.a. 500) herri harresitutu bat egon zen kokatua. Ohikoak dira Europan zehar kristautasuna aurreko asentamentuen eta sorginen, jentilen eta basajaunen kontakizunen arteko loturak.

Tolosako San Blas ermitaren inguruan, Kandelaria egunean ospatu ohi da festa bezpera, armonika doinuaz dantza eginez, eta eroskillak salduz. Mahai gainean, elizatxoaren inguruan, kordoi eta domina bedeinkatuak saltzen dituzte. Anoetarrek joera handia omen zuten hara bertaratzezko.

Anoetan kordoi eta dominak jartzen zizkieten gurasoek umeei, ezta-rriko mina uxatu edo sendatzeko. San Blas egunez, gosaltzeko txoko-latea bolatua-rekin izaten zuten, batez ere erlikiaaren ardura zuten apaizek; bazkaltzeko ere ez zuten zerri-hanka faltarak izaten ermita-txean. Meza nagusiaren aurretik eta ondoren, janari eta baserriko gaien bedeinkazioa izaten zen. Ondoren, erlikiai muin egitea.

Antzina, apaizak izaten zuen ardura; azkeneko urteetan, erlikia alda-rean egoten da, eta bertan egiten diote muin. Baino San Blas ez da umeen eztarriko minaren aukako zaindaria soilik, gizon-emakume guztienarekin ere bada, adin guztietakoena. “Eztula iten dunai San Blas esateko ohitura’re ezautu deu”¹³¹.



San Blas eguneko erromeria. Tolosa, 1933.

Zikloak gauzatzen diren egutegiaren testuinguruan hartzen dute zentzia.

4.2.1.- Neguko eta udako solstizioak

Euskal Herriko baserritarrek udako solstizioan ezezik, negukoan ere suarekin ematen zioten azken agurra urteari, eta, garai hartan, neguko solstizioaren ohorez jai handiak egiten ziren, eguzkiaren jaiotza zela-eta. Gabon gaua eta neguko solstizioa irudikatzen dituen euskal pertsonaia mitologikoa Olentzero edo Olentzaro da. Ohitura pagano hori kristautasunak bereganatu zuen. Honela, Olentzero, Jesusen jaiotzaren berri ematera jaitsitako artzain edo ikazkin bezala irudikatu izan da. Kanta eta ohitura ugari sortu dituen pertsonaia honi izen desberdinak eman zaizkio, Anoetan Olentzaro eta Olentzero izenak erabiltzen direlarik. Ahozko tradizioak dioenez, Gabon gauean portaera zintzoa izan duten haurrei opari eta jostailuak ekartzen dizkie.



Goiballarako herritarren San Joan sua piztu eta afaldu aurretik. Anoeta, 2005.

4.2. Egutegi erlijiosoa

Herri egutegian oraindik solstizio eta ekinozioetan oinarritzen zen izaera kosmogonikoak bizirauten du¹³². Natur zikloetan eta aktibitate tradizionaletan erlazionatutako errito erlijiosoen errepresentazio diren aktibitate sinbolikoak ugaritu ohi dira urte saioi hauetan. Besteak beste eguberri ospakizunak, urteberria, edo kandalaria neguko solstizio inguruan edo garrantzia gutxiagoko San Blas. Udako solstizioan San Joan Batailatzailearen ospakizuna da ardatz nagusiena; suarekin, ur sendagarriekin, belar eta lore babesleekin, izaera sakratuko haritza, formalismopean mantendu diren desagertze bidean dauden sinesmenak.

Ereite eta uelta-bilketarekin bat egiten duten ekinozioek eguraldi onaren eskaria edota uelta ona izategatikо eskertzera erritu kolektiboekin erlazionatua dago, honela errito eta ospakizun hauek

¹³¹ Lekuko 03

¹³² Gurutzi Arregi eta Ander Manterola (1993: 533)

Udako solstizioaren inguruan ikusten eta ezagutzen diren erritu askok bizirik diraute eta agerpen erlijioso modura heldu zaizkigu, eta, jakina, izadi-adierazpenak dira. Superstizio, magia eta mitoaren pizgarri da udako solstizioa¹³³; hori guztia gertatzen da bereziki suaren, uraren –gurgarri paganoak– eta landareen –erramilletia edo landare-sorta– partehartzearekin. Gauza baten irudia eta horrek adierazten duena gauza bera dira, suak elkartzen gaitu eguzkiaren botere bizi-emailearekin. Gogoan izan behar da, bestalde, berez, izatez, suak duen garbikuntza-eginkizuna¹³⁴. Garbikuntzaren izatasuna ageri da ekainaren 23ko gauean pizten den su gainetik jauzi egin aurretik agertzen den adore, irrika eta eskari-egoeretan. Eskari bat da San Joan bezperako azken orduetan suaren inguruan egiten dena.

4.2.2.- *San Joan sua*

Anoetan, San Joan Bataiatzailea egunaren aurretik, arratsaldez, berto-ko apaizak bi elizmutillek lagunduta Anoetako baserriren lurak bedeinkatzen zituen eta ondoren, baserri bakoitzaren atean bedeinkatutako argizaria zuen gurutzea jarri ohi zen. San Joan bezperan, Anoetako etxeoandreen zeregina omen zen San Joan lore, arrosa, krabelin, arto landare, gari-buru eta etxeko fruta ezberdinaren artean *erramilletia* edo landare-sorta osatzea. Erramilletia hurrengo egunear bedeinkatzera eramaten zuten.

Juan Garmendia Larrañagak Gregoria Irazustari jaso zionez¹³⁵, San Joan bezperan, gaueko bederatzietan, Elbarrenako Sarobe baserrian Amasa, Anoeta, Hernialde, Irura eta Villabonako eliz-kanpaiak entzuten zituzten. Tono ezberdineko kanpai-soinu hauek San Joan suaren piztuera iragartzen omen zuten. Hau omen zen Anoetako patroiaren omenezko festen hasiera.

San Joan sua herriko plazan eta baserri bakoitzaren lekurik ikusgarri- netan pizten zen. Sua, aurreko urtean bedeinkatutako erramilletiaren hondarrekin pizten zuten eta belar, garo eta adarrekin elikatzen. Ondoren “Biba San Joan Bautista” deiadarrarekin jauzi egiten zuten suaren inguruan, gizon zein emakumeek; ezkongabe zein ezkonduek.




(Aranzadi Z.E.)

Barrundia baserriko San Joan sua piztu ondoren. Anoeta, 2005.

Solstizio jai honen segidan, herriko gazteek, herrian zehar barriaturik zeuden baserriak zeharkatzen zituzten. Gazte hauek ardoz beteriko zahato edo zahagiak jartzen zituzten zeramatzen makilen izkinetan.

“Urteko gaurik motzena” aurreratu ahala, sua itzaltzen eta kea gutxiagotzen zelarik, plazako suaren inguruko festa alaitzen zihardutenean txistulariak isildu egiten ziren eta Udalak Kontzejura edo herriko tabernara inguratzen zirenei zahagiko ardoa eskaintzen zien. Azken urteetan, Anoetako Udalak ardoaz gain, gaitetak ere eskaintzen ditu. Ohitura zahar hau, Kontzejuan azken aldiz 2001ko ekainaren 23an burutu zen; 2002an Udaletxe zaharra bota baitzen. 2002ko San Joan bezperaz geroztik aipatu jan-edanak Udaletxe berriko arkueetan burutzen dira.



(Aranzadi Z.E.)

San Joan baserriko
San Joan sua.
Anoeta, 2005.

¹³³ José Miguel de Barandiarán (1997: 59)

¹³⁴ Mikel Errazkin Agirrezabala, 2007

¹³⁵ Juan Garmendia Larrañaga (1984: 35-39)

1984 eta 1985ean Anoetako Udaleko zinegotzi eta Alkateak suaren inguruan dantzatuaz San Joan zortzikoa eskaini zieten herritarrei. Gerora, ekitaldi hau burutu ez bazeen ere 2000. urteko San Joan bezperan Udal korporazioa, osteria, suaren inguruan San Joan Zortzikoa eskaintzen hasi zen. Aldi honetan, honela antolatu izan da festa: arratsaldeko seietañ buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistulariek egin ostean, zazpietan ardoa eta gaitetako eskaintzen ditu Udalak, Udaletxeko arkueetan. Zortzi t'erdietan ohitura zko San Joan bezperako herri-afaria herriko plazan. 22:45ean txalapartarien saioa, San Joan bezperako jaia iragarriz eta gaueko hamaikean, herriko txistulariek ‘alkate soinua’ jotzen dutelarik Alkate eta zinegotziak Udaletxetik ateratzen dira. Ondoren suaren izkinetan kokatu eta korporazioak sua pizten du. Ondoren herritarren aurrean San Joan Zortzikoa dantzatzen da. Jarraian, ‘Gora Anoeta’, Anoetako ereserkia-ren doinuapean herriko hautetsiak Udaletxerantz hurbiltzen dira. Ondoren Udal zinegotziek eta alkateak, dantza eskolako ikasleek eta herritar boluntarioek suaren inguruan San Joan Zortzikoa dantzatzen dute. Jarraian Anoetako Kantu Taldeak ‘San Joan Zortzikoa’, “Belarrek usainak”, “Atso tronpetariak” eta “San Joan San Joan” abestiak abesten ditute¹³⁶. Talde honek 1998az gerotzik abesten ditu aipatu abestiak. Jarraian erromeria, herriko musikariekin alaitua.

Juan Garmendia Larrañagak Anoetako Agirre baserrian jaso zuenez, San Joan egunean “eguzkiak abiadura handiarekin birak emanez ate-ratzen omen da”¹³⁷. Gainera, gure hainbat informatzaileen arabera San Joan eguneko basura edo ihintza oso osasuntsua omen zen, horregatik, Anoetako baserritarak, denbora tarte ez finko batean, belazeetan oinutsik ibiltzea ohikoa zen.

San Joan bezperan prestatzen zen erramilletia San Joan eguneko goizeko zazpi t'erdietako mezetañ bedeinkatzen zen 1930az gerotzik gutxi gorabehera. Lehenago goizeko seietañ mezetañ bedeinkatzen zen. Familiakoren bat hiltzen zenean, erramilletia egosi egiten zen eta ur honekin hildakoaren gorpua igurtzi. Aipatu ura gaixorik zegoen gana-duari eman ohi zitzaion edan eta sendatu zedin.

4.2.3.- Gabonak, abenduak 25

Eguberriak iritsi baino pare bat egun lehenago hasten ziren solaskide-ak etxeen jaiotza jartzen, ilusio handiz hasi ere. Denek ez zuten aukerarik izaten buztinezko jaiotzako figura txikiak erosteko: “ogi-mamia-rekin ere egiten genitun figurak. Gutxi irauten zuten ordea. Legortu bezin laster puskatzen zien-ta”¹³⁸. “Argizaiakin figurak iten nitun nik, figurak iten moldatuz geo, ondo eoten dira geo. Cure amona zanak, lauki itxureko puxka bat ematen zigun-ta, gusto aitzen ginen lanean, eh”. Batuetan animaliaren batzuk ere tartekatzen zitzuten figurekin batera, “goatarekin egiten genituen arkumeak. Jostorratza eta hariarekin ateratzen genizkion nolabait hankak eta burua”.

Jaiotzako paisaia antolatzea ere gustukoia izaten zen lekukotza emai-leentzat. Goroldioa erabiltzen zuten zeliaiak irudikatzeko. Goroldioa bildu eta gero, ondo lehortzen uzten zuten lehenengo. Jaiotza jartzen hasi baino lauzpabost egun lehenago joaten ziren biltzera. Txokolateak ekartzen zuen zilarrezko papera urearen pare gordetzen zuten Gabonak iritsi aurretik, errekaren lekuaren jartzen genuen zila-rezko papera, ura irudikatuz. Garaitsu hartan txokolatea jaten bazuten, papera txukun-txukun gordetzen omen zuten. Eta bidea egiteko ere bazituzten bitartekoak, ogi xehatua edo zerrautsa erabiltzen zuten kamioa egiteko. Kasuren batean hondarra ere bai. Jaiotza jartzeko ez zegoen leku jakinik, bakoitzak ohitura ezberdina zuen, orokorrean etxearen sarreran jartzen zen, baina barruan jartzen zuenik ere bazeen; egongelan edo sukaldlean. Urtero egiten zen jaiotza berria, “hautsa hartze zun ta”. Jaiotzak etxeetan jartzen ziren nagusiki baina, dirueskean ateratzeko, mutil-koadrilek ere egiten zitzuten. Elizan ere urtero ipintzen zuten, etxeetan baino handiagoa.

Jaiotzaz gain ez zen bestelako apaingarririk jartzen, gorostia ez bazeen. “Sortaka bat igual jartzen genun ontziren baten. Ordun gorostia erruz izaten zen. Urritzen hasi zanean debekatu zuten hartzea”¹³⁹. Gabonetan jaiotza jartzen zen zenbait etxetan; kalea ez zen apaintzen.

¹³⁶ Eranskinean gehitzen dira kantu hauek.

¹³⁷ Juan Garmendia Larrañaga (1984: 37)

¹³⁸ Lekuko 01

¹³⁹ Lekuko 01



Jaiotza. Tolosa, 1929.

Gabonetako garaia 24an gauean hasten zen. “*Illusioa eoten zan apari legia iteko; noiznahi etzan iten ta! Illusioa zerbait desberdina jateko ta zerbait gehio eateko. Basarrian, urte guztian baba ta urdaia besteik ez zan jaten ta gabonetan bakailaoa, intxaur saltsa, konpota... jan ta ardoa edaten zan. Bainan tripakiak ere jaten ziren; eta azak ere bai!*”¹⁴⁰. Beste baserri zenbaitetan berriz, “*baratxur-zopa, bakailaoa tomatearekin eta gaztaina erreak afaltzen zituzten, sagardo eta ardo, kafe eta pattar zuriarekin*”¹⁴¹.

Egunez neska eta mutil aritzen zen kantuan etxez etxe eta baserriz baserri. Gazteak gutxi ibitzen omen ziren baserrietan, helduak gehiago. Bide asko egin behar omen zen diru gutxi biltzeko.

Orain bezalaxe, abestu eta gero txapela pasatzen zuten baserriz baserri zebiltzanean. Koadrilan zebiltzanak, haien artean banatzen zuten dirua. Baziren iluntzez eta gauez ateratzen ziren taldeak ere, mutil taldeak. Kantuan igarotzen zuten iluntzea eta batzuek baita gaua ere. Giro aparta izaten zen abenduaren 24an. “*Gaur baino gehiago abesten zen orduan, dudarik gabe. Oso giro polita sortzen zen*”¹⁴².

¹⁴⁰ Lekuko 03

¹⁴¹ Lekuko 04

¹⁴² Lekuko 06

¹⁴³ Lekuko 06

¹⁴⁴ Zarautz-Olotzaga familiaren agiritegia; Agirre baseria.

Anoetan, “abenduko hilaren hogeita lauean”, eskean kantatzen ateratzeko ohitura oso zaharra da. Herriko zaharrenek jaso dutenez, XX. mendean hasieran gazte taldeak eguberri bezperako inolarrean eskean ibili ohi ziren garai hartako baserri eta kale etxe bakanetan. Kantuz eskean ibiltze hori gauean oso berandu arte luzatzen zuten, gaueko ordubiak edo hirurak arte. Oso talde gutxik eramatzen zituzten musika tresnak. Besteak beste, gaztaroan ondokoa abesten ibiltzen omen ziren¹⁴³:

*“Inzentsua ta mirra
urriarentzako
zedozer guretzako
ez al da paltako”.*

Gerora, XX. mendean erdira arte elizako koruan kantatzen zuen talde bat baserriz-baserri atera izan zen hainbat urtetan. Eliztar talde hau anoetar eta iruratarrez osatua zegoen, eta Patxi Arregi anoetarraren akordeoi-soiniuz lagunduta irten ohi ziren eskean. Urteren batean Olentzero ere atera zuten astoaren gainean. 1951. urtean aipatutako Share Elkarteko laguntzalde honek “*1.302 pezeta Irura eta Anoetako behartsuei laguntzeko atera zituzten*”¹⁴⁴. Garai hartan Anoetan kantatzen ziren abestiak eranskinean daude.



Anoetako Gazte Asanbladako kideak Eguberri bezperan kantu-eskean. Anoeta, 2002.

Eguberri edo Olentzero bezperan etxez-etxe 'gabon eskean' ibiltze-ko usadioak ez du etenik izan Anoetan, eskola nazionala, gerora Eskola Publikoa, eta Anoetako Herri Ikastola urtero, goizetan atera izan baitira herriko gazteenekin. Gainera herriko gazteenak arratsaldetan, lagun taldetan banatuta ibili ohi dira etxez etxe eskean. XX. mendeko 80. hamarkadan, hainbat urtetan, abenduaren 24ko arratsaldeetan herriko katekesi irakasleak atera izan ziren hainbat haurrekin. 1993az geroztik Anoetako kantu taldea ere atera ohi da Olentzeroren etorrera abestera.

Anoetako Gazte Asanbladako gazteak urtero atera ohi dira eskean. Goizeko zortzieta geratu ohi da berrogei bat gaztez osatuta-

ko taldea. Talde honetako hainbat kidek trikitixa, akordeoia eta panderoa jotzen dute. 2003an talde hau Olentzero eta Mari Domingirekin, Olentzeroren laguna, atera zen. Lehen geldialdiak Goiballaroko baserri eta etxeetan egiten dituzte, ondorengoak Elbarrenan eta azkenik Ergoienen. Herriguneko auzoetan abesteko ohiturik ez dute, soilik herriko tabernetan. Herriko hiru bailaretako baserri eta etxeetan, bertakoek diruaz gain jan-edanak ere eskaintzen dizkiete taldekideei. Jasotako diruarekin gazteek Anoetako Goikoetxea tabernan egiten dute bazkari-legea. Arratsaldean, soinujoleen musikarekin kalejiran ibili ohi dira; jarraian Olentzeroren jaitsieran parte hartzen dute, bertan, euren aldarrikapenak burutzen dituzte.



(Agirre baserria)

Anoeta eta Irurako kantari taldea, Olentzero eta Anoetako Agirre baserriko Poxoko astoarekin 1.303 pezeta bildu zituzten. Anoeta, 1951.
Goran: José Arrieta (Irura); Leonardo Larrinaga (Irura); Carlos Bonilla (Irura); Miguel Itsaso (Irura); ?; José Oiartzabal "Ortzaika" (Anoeta); Luis Izagirre (Irura); Félix Olano (Irura); Joanito Mujika (Iriarteburu, Anoeta); José Luis Ameztoi (Irura).
Beheran: Domingo Ameztoi (Irura); Patxi Arregi (Zubiaurre, Anoeta); Gregorio Ameztoi (Irura); Francisco Bidaron (Ateaga, Anoeta); Germán Berasategi (Modestoenea, Anoeta); Félix Olozaga (Agirre, Anoeta).

Gabon gaeuan herrian giro ederra izaten bazen ere, iluntzerako etxera joaten ziren guztia, “egun horretan ondo errespetatzen zen ordutegia. Familia biltzeo ohitura hori ederki errrotuta zegoen, gaur baino hobeto”. Afaritarako aza-olioa zen etxe gehienetan. *“Baserrietan barazki asko izaten zenez, azalorea jaten zen. Hala ere, gau horretan aza-olioa zen nagusi. Aza, patata mor doxkarekin egosi ondoren, soberan zuen ura kendu eta olio erreba botatzen zitzaiion gainetik. Goxo-goxoa”*. Bigarren platera, arraina izaten zen, “batzuek bisigua, besteek bakailaoa eta txitxarroa ere bai; poltsikoaren arabera”¹⁴⁵.

Jaten zutena jaten zutela ere, oso berezia zen Gabon gaeuko afaria. *“Egunero jaten genitun babarrunak edo babak alde batea utzi ta jaki diferentea izaten zen. Ilusioa handia, noski!”*. Halako afari batek postrea ere berezia zekarren, *“gabon gauan Errezil sagarrakin indako konpotua mahai guztitan izaten zan. Aran beltzak, mahaspasak... gozatzeko, ahal zena botatzen zitzaiion konpotari”*¹⁴⁶.

Anoetan gabonetarako su edo egur bereziren ez zen pizten, zaharrenen hitzetan ez dute horrelakorik ezagutu. Afaria prestatzeko egur ona bai.

Familia osoa biltzen zen etxeen; aiton-amonak, gurasoak eta seme-alabak. *“Denak batea eoten ginuen. Apaldu ta geo kantuan e aitzen ginuen geo askotan. Baita kartaketan e, puntuan eo seikourrean e. Ordun joko hoiek besteik ez genekizkin-ta”*. Gau berezi horretan, familiar alaitasuna izaten zela diote: *“Atton-amonek garai bateko ipuiak kontatzen zizkiguen. Antzinako kontuak ta. Gure attona zana oso berezia zen ipuiak ta kontatzen, xigarro muturra ahuan hartura aitzen zan. Aho-zabalik eoten ginan hari beira”*. Eta oheratu, ez ziren nekatu arte oheratzen. Gau bereziak ordutegia ere berezia zuen. Gerra ondoren ‘misa de gallo’ antolatzen hasi zen eliza. *“Gu umek ginela etzen izaten. Geroko kontua da”*. Gaeuko hamabietako meza zen. *“Nahi zuna jute zan. Hasieran betetzen bazeen e denborakin eliza ia hutsa geratu zan. Ohitura hura ez zan ondo sustraitu”*¹⁴⁷.

Ohitura ere izaten zen gauerdiko mezetara joateko parrokiara. ‘Adorazioko meza’ ospatzen zen. Lehenengo kantuak, gero otoitzak eta bukaeran meza santua izaten zen. Jende asko joaten zen.

Garai hartako Gabonetan, orain baino elur gehiago egiten zuela oroitzentz dute elkarrizketatuek. Gabonek kolore txuria zuten haientzat. Orain tarteka bai, baina orduan, Gabonak eta elurra eskutik lotuta etortzen omen ziren gehienetan. Solaskideek gustukoak omen zitzutzen Gabonak. Hala ere, batzuei tristura sortzen zien eta die oraindik ere garai horrek, etxekoren bat falta baldin bazen, tristeak omen ziren.

Garai bateko Gabonek eta egungoek batere antzik ez dutela argitzen dute solaskideek, hauen ustetan *“Gabonak urtez urte doaz galtzen. Lehen zentzu bat zuten, erlijioarekin eo lotura bat eo bazuten. Oain...”* Kontsumismoak duen pisuaz ere hitz egiten dute, *“ordun gutxikin konformatze ginan, beste aukeraik etzan-ta. Dirua izan bagenu, zer egingo ote genuken?”*¹⁴⁸

“Olentzero” gabonetako erretzen zen enborri deitzen zitzaien hasiera batean. Gerora, Euskal Herriko ekonomia eta bizimoduari dagokionez, lehen mailako jarduera izan zenez ikazkintza. Olentzero bera ere ikazkin bihurtu zuen herri gogoak. Basoa, sua, eguzkia... betiere gizakiaren eskuerakoak eta aldi berean miste-riotsuak. Julio Caro Baroak, Olentzaroren mitoaz dioenez, naturaz gaindiko ikazkina eta soltzioaren garaian mundura datozen hildakoen ordezkarri izateaz bestalde, Olentzarok eguzkia berarekin zerikusirik badu.

Halere Olentzeroren sinesmena XX. mende hasieran ez zegoen batere errrotua Anoetan. Anoetako etxeetan XX. mende erdian joan da txertatzen. 80ko hamarkadaz geroztik Olentzero astoaren gainean pipa hortzeten dula lsasti menditik jaitsi ohi da, herriko pilotalekuaren herriko haurrei harrera egiten die, baita urte horretan nola portatu diren galdu ere.

¹⁴⁵ Lekuko 02

¹⁴⁶ Lekuko 01

¹⁴⁷ Lekuko 01

¹⁴⁸ Lekuko 03



(Anepeko Uda | Artiboa)

Olentzero Anoetara Isasti menditik jeitsi ohi da urtero. Anoeta, 2006.

4.2.4.- Eguberri eguna, abenduak 25

Eguberri egunean, lehen-lehenik meza nagusira. Kantoreak elizan jaiero izaten baziren ere, Eguberri eguneko meza berezia izaten omen zen. Kantu ederrak abesten ziren. Kantoreak batetik eta herria bestetik. Eguberri egunean, Urteberri egunean eta Errege egunean, mezaren amaieran, Jesus haurra ateratzen zuten musu emateko. Elizjendea muin ematera ilaran zihuala, ‘haurra sehaskan’ kantua abesten zuten. Jesus haurrari muin ematen zitzaionean, eskuan poltsa hartuta, akolito bat egoten zen ondoan. Txanponen bat botatzen zen orduan zorrora. Denborarekin kendu egin zuten ohitura hura.

Abenduaren hogeita bosta ere egun handia izaten zen. Hiru meza entzuteko eguna izaten zen. “Meza nagusian, ezkonberriak, senide-

ak... elkartzen ginen”. Hamarretako meza nagusira joateko ohitura zegoen, eta gero denak elkartzeko ere. Ondoren, kontzejua bete jende egoten zen, tragoren bat hartzeko edo.

Eguberri egunean, arropa berezia janzen zuten apaizek “eleganteagoa. Kasuilla, kapa eta estola dotore-dotorea. Arropa bereziak sakristian eoten zien egun hoiatarako”¹⁴⁹. Meza bukatu eta gero, gizonak tabernara, “batzuk Kontzejua ta bestek Moxtonera, bakoitzak bere bidea hartze zuen. Tragoxkakin batera, besterik ez bazen ere azeitunan batzuk eskatzen genitun eta generalean, ardo txuria hartzen bazeen, egun hoieta edari berezigon bat eskatzen genun, bermuta-edo, Tio Pepe-edo”¹⁵⁰. Emakumeak, berriz, etxera; “nahiko lan izaten zen bazkaia prestatzen”. Lan ugari egiten zuten orduko emakumeek sukaldean, “beharko lana egin, gogoz gainea. Dena eskuz egiten zen... Pentsa zenbat lan: bezperako afaia, bazkaia, ontzi guztik garbitu...”¹⁵¹.

Oilo zaharrarekin egindako salda eta oilasko erreak izaten ziren bazkaltzeko, postrerako “ahal zunak turroia: Alicante gogor-gogorra edo Jijona biguna. Almendrak osoan edo puskatuta. Bi turroi mota, besteik ez zen ordun. Hoi bai, oaingon alden goxogok zian. Eta, Alicante jan nahi zunak, erreminta onak behar. orreatik”¹⁵². Mazapanak ere izaten omen ziren, aukera askoz gehiagorik ez. Egun berezietako bazkarien ostean, pattarra edateko ohitura bazeen, dendetan kupeletan izaten zuten pattarra salgai. Botilarekin joan eta nahi zenuena eskatzen zen: laurden bat, litro erdi bat, hiru laurden edo litroa igual.

Loterian jokatzeko ohitura aspaldidanikoa da, “txanponak zituenak, orduan’e jokatzen zuen loterian. Eguberrietako loterian batez’e, Errege eunekoan ez hoinbeste. Dezimok 50 pezta balio zun, billete guztik 500 pezta (...). Nik beste hiru lagunekin batea eosten nun bille-tia, 100 peztagik gora jartzen genun bakoitzak. Komeri latzak izaten genitun diru hori biltzeko, bai hoixe!. Zazpi eo zortzi urtetan jokatu genun. ‘Reintegroa’ besteik ez zitzaiun egokitu, bi alditan. Nazkatu egin ginen ta jokatzeai utzi genion”.

¹⁴⁹ Lekuko 02

¹⁵⁰ Lekuko 02

¹⁵¹ Lekuko 03

¹⁵² Lekuko 02



(San Juan baserria)

Juan Jose Laso bere emazte Juana Lasarekin eta seme-alabekin. Anoeta.

Gabon eguneko afariari dagokionez, senideak denak elkartuta egiten zen afaria. Gaueko 8ak inguruan izaten zen. Gabon eguna bijilia edo barraualdia izaten zen; ezin zen haragirik jan, eta jatordua zera izaten zen gutxi gora-behera: baratzuri zopa, olio azak, tomatean bakailoa eta intxaur saltsa. Hala ere, tripakiak eta olio azak ere jaten ziren. Gero, konpota, kafea, kopia, pururen bat, eta ardo nafarra, zahagistik aterata. Ardo nafarra, beltza eta klaretea, izaten zen lehen edaten zen ardoa.

Ondoren karta jokoa ere egiten zen, ‘*hogeita hamaiaka*’. Kanturik ez zen egiten. Ezkonberriak, edo kanpoan morroi edo neskame bezala lanean ziarduten senitartekoak ere, baina baita etxeen bizi zen morroi edo neskamea ere, elkartzen ziren egun horretan etxeen. Zenbait etxetan morroiek eta neskameek aginaldoa edo gabon-saria bakailaoa izaten zuten, eta harekin joaten edota etortzen ziren etxera. Gabon Zaharretako afarian ez zen hainbeste jende elkartzen. Morroiak eta neskameak behintzat ez; eta Gabon egunean bazkari normala egiten zen.

Ez zen erregalurik egiten eta “etzeon oain bezela Olentzero-ta antzekoik. Oaingo gauzak dia hoik!”¹⁵³. Agian Gabonetako jatorduren bat baldin bazen berezia prestatzeko, hori intxaur saltsa izaten zen; erritoa izaten zen. Ogi mamia hartu eta apurrak egin eskuarekin, ongi txikituz, azala kenduta. Azal honekin gero baratxuri zopa egiten zen. Ondoren, intxaurre mailukadarekin jo, intxaurre oskola kendu eta katiluan intxaurre mamia utzi. Gero egurrezko katilu batean intxaurre mamia xehe-xehe egin. Esnea kanela zotzarekin eta azukre ugarirekin nahastuz, ondo egosi. Gero, xehetutako intxaurre bota.

Auzotarrekin eta senideekin hartu eman apartekorik ez zen egoten, baina Gabonetan, hamalau-hogeい urteko gazteek, mutilek jakina, errondak egiten zituzten, “ta eun hortan jokun aittu ta patta-raean besteik etzan iten”¹⁵⁴.

Hogeita seian “normalidadera bueltatzea izaten zen”. Gabon egunean kanpora joandako morroiak eta neskameak berriro lanera itzultzen ziren; horregatik “lenago bezelaxe”¹⁵⁵ edo “aurrea len bezelaxe” esaera.

4.2.5.- Inoxente eguna

Abenduaren 28a egun handia zen garai hartako haurrentzat eta gazteentzat. Hogeita zortzian, ‘inoxente eguna’, ez zen orain bezala bromarik egiten, “baino etzan okasioik galtzen norbatti adarra jotzeko”¹⁵⁶.

Bihurrikeria ugari egiten zuten. “Poteak lotu. Asko gustatzen zitzaiun biziak letei potek lotzea, ordun ez zen pasatzen automobilik-ta. Txakurrei’re bai, martxa arra ematen zuten, bai hoixe!”¹⁵⁷. “Era guztitako bihurrikerik iten genitun, amona gaixok erosketak itera ateazten zianen, asto ‘pastillak’ sartzen genizkien zumitzeko zestun. Haietako emakume bat ne amaginarreba izatea tokau zan urte atzuk geroo”.

¹⁵³ Lekuko 06

¹⁵⁴ Lekuko 06

¹⁵⁵ Lekuko 01

¹⁵⁶ Lekuko 02

¹⁵⁷ Lekuko 02

¹⁵⁸ Lekuko 02



Herriko gazte-kuadrila. Anoeta.

(Anoetako Udal Artxiboa)

“Bizkarren monigotea jartze giñun askotan, noiz eo noiz letreroa ta guzti. Behin monigotia bizkarren zintzilik zeaman Anoetako batek ‘inocente’ zeukan eskribittua”. Eskua irinetan sartu eta esku-marka txuri-txuriak uzten ere abilak omen ziren hizlariak. Gogoratzen duten txantxa xelebrenea Tolosan gertatu omen zen, herriaren sarrean zegoen Tolosa tailerretan. Burdinazko txapekin egiten zuten lan bertan. Baserritarra astoarekin etortzen zirenean, lantegiaren sarrean uzten zituzten lotuta. Denbora luzez uzten zituztenez, bertan egiten zituzten eginbeharrik animaliek. Ondorioz, astorik han ez uzteko eskatu zieten baserritarrei. Kasurik egiten ez zutela ikusita, astoaren perrak txapa gainean soldeatu zituzten. Baserritarra astoaren bila etorri zenean, ezin astoa mugitu.

Egun batzuk lehenago hasten ziren txantxa egin pentsatzen, “eguna aillatzeko irrikan eoten ginan. Beldurrak’e bai, eh!, ez pentsa. Guk ziria sartu bai, bai, baino ez baikenuen, eh, guri hola-koik itea nahi”¹⁵⁸.

4.2.6.- Urtezahar eta urteberri, abenduak 31 eta urtarrilak 1.

Urtezaharretan Ondarribitik fraile bat etorri ohi zen Anoetara elizatrak konfesatzera. Urte berritan fraileak berak eman ohi zuen Jauna.

Urtezahar arratsaldea beste egunetako baino bereziagoa bazeen ere, ez zen alde handirik izaten, gehienez ere mutilek lagunartearen baso-

erdiren batzuk hartzen omen zuten ‘inolarrean’ edo ‘ilunbistan’. Ahal zuten familiako kide guztiak biltzen ziren Urtezahar gaelean afaltzea. Gabon gaeuko afariaren antzekoa izaten zen. Berezia. Afal ondorenean, nola ematen ote zieten amaiera urteari? Oro har ez zuten urtea agurtzeko mahatsik jaten. Telebistarik eta irratirik ez zenez, ordulariari begiratu eta gutxi gora-behera kontatzen ziren kanpaina-dak. “Din eta dan, gue ama zana aitze zan kantun”¹⁵⁹.



Anoeta eta Irurako gazteek. Irura.

(Agirre baserria)

¹⁵⁹ Lekuko 02

Ez zen inor kalera ateratzen orduan, “familia giroan geratzen ginenei danak. Burutik pasa’re ez zitzaiun egiten kalea ateratzea”. “Kartaketan aitzen ginenei gehienian, punttun”¹⁶⁰. Urteberria hurrengo egunean zorionten zen, ez Urtezahar gauean.

“Kastellanok ekarri zuen etxefuegoak botatzeko ohitura. Ordun etzan inolako suik izaten”¹⁶¹. Urteberri eguna, berriz, inguruko ezaugunei eta lagunei urtea zorionduz hasten zuten. Meza nagusia izaaten zen jarraian eta, ohitura denez, horrelako egun batek eskatzen duen moduan, bazkari ederra egiteko biltzen ziren mahaiaren bueltan, “orduan ere, ahal zena egiten genuen”¹⁶².

Urte berriari ongi etorría emateko ez zen ospakizunik egiten, egun normal bat bezala izaten zen. Ez zen esaten orain bezala: ‘Urte Berri On!‘.

4.2.7.- Errege eguna, urtarriak 6

“Umeak ginela, etzan errege kabalgataik izaten”¹⁶³. Halere urduri eta pozik egoten ziren ume haien ere erregeen zain. “Gurasoek kontatuta, bagenekien erregeek opariak ekarriko zizkigutela. Horretarako zapatan jarri behar, ordea. Inoiz zapatarik garbitzen ez zuenak ere, gogo onez garbitzen zituen egun horretan. Lustrea ematen genien zapatei, zeinek brillo gehiago atera aritzen genuen”¹⁶⁴.

Opari banaketaren unea atzo bezala gogoratzen dute lekukotza emaileek, “gure aita zenak, izugarrizko ilusioa izate zun regaluk partitzeko. Anai-arreba asko ginan ta sukalden biltze ginenei denak. Isil-isilik. Aita leihuan ondon jartze zan ta halako baten, zaldin pauso hotsak entzun zitula esate ziun ‘ustet pasa diala, ustet pasa diala...’. Gu denak nerbioso, urduri, eh. Pasa ziela seguru esaten zunen, leihua zabaldu ta anaia zaharrenak utzitako regaluk partitz zizkiun. Erregaluk oiea jun aurretik ematea izaate zan gue aitta zanan ilusia. Etsun hurrengo eunera arte itxaroteko pazientzik”.



Errege jaialdia. Tolosa, 1933.

Halere Errege egunean jaso ohi zituzten opariak, “ohetik jaiki eta zapataren ondoan izaten genuen utzitakoa. Hura poza! Erregalia ez zen ezer handirik izaten baina ilusioa..., izugarria!. Horrenbeste jostailu eta oparien artean, oraingo umeek ez dute ilusio hura bizi”¹⁶⁵. Garai hartako opariak bestelakoak ziren, xumeagoak bai, baina baita zentzu eta sentimendu gehiagokoak ere. “Guri pilotu uzten ziguten generalean. Aitak bere eskuekin egindako trapuzko pilotu”. “Niri urte batean eskularruak ekarri zizkidaten. Haiexek faltako nituen-eta”, “nik ondo gogoa dut, nola kartoizko panpina ekarri zidaten, ze ilusioa egin gainera!”

Etxe gehienetan pikuak edo txokolatezko konfite txikiak izaten ziren, kolore ezberdinako paperetan bilduta. Bakotzak poltsa txiki bana ziaten zuen normalean. Eta misterio haren egiazko aldea ezagutzen zutenean zer? “Orduan ere eskolan jakiten genuen. Ume batek besteari esanda. ‘Ez al dakizu? Opariak aitak eta amak uzten dituzte!’ a ze disgustua!”. Etxe batuetan, egia ezagutzen zuten gaztetxoek, ez zuten oparirik jasoko handik aurrera. “Egunak magia galtzearekin batera, aurrerantzean, opariak jasotzeko aukera ere galdu egiten

¹⁶⁰ Lekuko 02

¹⁶¹ Lekuko 04

¹⁶² Lekuko 01

¹⁶³ Lekuko 04

¹⁶⁴ Lekuko 01

¹⁶⁵ Lekuko 03

genuen. Kasurik onenetan, jostailuen ordez arropa jasoko genuen handik aurrera”.

Jai handia izaten omen zen, eta jai guztien antzera ospatzen zen. Hemen ere nahiz eta etxe bakoitzak zeukanaren arabera egin erregalua, ez zen umerik egongo herrian leihoa bere zapata garbiak, briollo ederra emanda, jartzen ez zituenik. Beti egoten zen zerbaite: arroparen bat, erreala, pikuak... Garairik txarrenetan ere beti uzten omen zuten eskukada bete piku behintzat. Sarritan dirua jarri goizean eta gero gauean berriro amak kendu. “ *Beste garai batzuk zian!*”.

Gero, hamar urtetik gora, Erregeak zeintzuk ziren jakinda, anai arreben artean ere musu zapiren bat, koloniaren bat, dirua ailegatzuz gero... egiten zen. Hori bai, orain bezala, umeak urduri egoten ziren lorik egi ezinda.

Errege eguneko meza nagusian ofrenda berezia izaten zen, jendeak ogia eta eroskaz gain errege-sagarrak-eta ematen zituen, bakarren batzuk baita intzentsua ere.

4.2.8.- Kandelaria eguna, otsailak 2.

Kandelari egunean ‘Presentación del Señor’ ospatzen zuen elizak, kandelak bedeinkatzeko eguna izaten zen. “Meza goizeko bederatzi-tan izaten zan, eta kandelak ez ziren etxeen argitako erabiltzen geni-tunak bezelakok, desberdinak baino. Bedeinkatutako kandela hauek pizten ziren elizakoak-eta emateko etxera zetozenean, ekaitza zetorrenean...”¹⁶⁶. Kandelaz gain atxak eta argizaiioletako argizaria ere bedeinkatu ohi ziren. Atxa, kilo bat baino gehiagoko zuzia da. Prozesioetan-eta santuei eta Ama Birjinari mesedeak eskatu eta eskertzeko eramatzen da, eta batez ere hiletetan eta, oro har, hildakoentzako kultuan izan du betekizun nagusia, eliza barruan eta kanpoan. Argizaiola beriz, itxura antropomorfoa edo gizaki itxura duen zurezko argi egitura da, 30-50 bat centimetrokoa. Bi aldeetatik lanturik egoten da, argizariarentzako gunean izan ezik, zati honetan argizariak bueltan inguratzen du argizaiola.

¹⁶⁶ Lekuko 02

¹⁶⁷ Lekuko 02

¹⁶⁸ Lekuko 03

¹⁶⁹ Lekuko 01

Bada oraindik kandelak gertakizun berezietarako pizten dituenik ere “*nik ne bilobek esaminak dituztenen, seme-alabak biajen dau-denen-ta pizteko usadioa daukat*”¹⁶⁷.

4.2.9.- San Blas eguna, otsailak 3.

Orduan, ume asko joaten zen bere ogi opilarekin eta kandelarekin elizkizunera. Elizan kandela pizten zen, eta honekin urtean zehar katarro eta eztula ingurutik kentzea nahi izaten zen. Han uzten zen kandela piztuta. San Blas opilak etxeen ere egiten zinen. Lehen eta orain, antzeko neurrikoak izaten zinen opilak. “Ez genuen besterik, janaririk-eta, eramaten bedeinkatzen. Bedeinkatutako ogiarekin, berriz, urte osoan egoten zen ogi zati bat etxeen; ogiaren azken bi muturrak, ontzi batean etxeko armairuan gordeta egoten ziren, hurrengo urtean berria ekarri arte”¹⁶⁸. Gerora jana bedeinkatzen ere hasi ziren “eguneroko jana ematen nuen nik bedeinkatzen, arroza, garbantzuak-eta”.



Trikitilariak San Blasen. Tolosa, 1933.

Lehen, etxeeko animaliak eta abereak txerri, katu, txakur, behi eta beste-lakoak bedeinkatu nahian, ogi zati bat ematen zitzaien jateko. “Guk ogi hori jan aurretik, pusketa bat hartzen ginun eta ‘Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izanean’ egiten genuen”¹⁶⁹.



San Blasen koxkol-jokoan eta korrika. Tolosa, 1936.

(Jesús Ebsoegi)

4.2.10.- Santa Ageda bezpera, otsailak 4

Badirudi XIV. mendekoa dela Siziliako Quieiano gobernadorearekin ezkondu nahi ez eta, bularrk moztu eta hil arte torturatu zuten santa martiriaren debozioa Elizaren barnean. Dena den, Euskal Herrian ospatzen den Santa Agedak mito paganoetan du oinarria. Emeterio Sorazu¹⁷⁰ Euskal Herriko ohitura zaharrak aztertu dituen adituak dioenez, egun horretan egiten diren afarieki eta Santa Agedaren inguruko festa osoak zerikusi handia dute inauterienkin. Inauteriak inausketa-garaian ospatzen ziren, zuhaitz-adarrak kimatzen ziren garaian. Badirudi, jai horien sustraien gizon-emakumeen arteko harreman amodiozkoak zirela nagusi. Eta hala, mutilak koplak kantatzetik janariz ondo hornituta etortzen ziren bitartean, herriko emakumeek piper-opilak, intxaurrek eta gozokiak eraman eta afaltzeko lekua prestatzen zuten. Kristau doktrinak lizunkieriazko bekatua gaitzesten zuenez, Elizak bekatzeko giro hori garbitu eta nolabait bataiatzeko Santa Agedaren jaia antolatu zuen.

Martiri honen omenezko ospakizunak, *legiarekin konplitz* kantuian eta eskean ibiliz burutzen zen Euskal Herriko herri askotan, kobletan santuaren bizitzaren berri emateaz gainera etxejauniei eta etxejaundreei jakia eskatzen zitzaien.

Anoetan, gaur egun bi talde ateratzen dira kantari, Anoetako Ikastolako haurrak eta Anoetako Kantu Taldea. Nahiz eta indar handia duen santa eskea deituriko honek, nahiko ohitura berria dela esan daiteke. Anoetako Ikastolako haurrak eta irakasleak XX. mendeko 70. hamarkada amaiera 80. hamarkada hasieran hasi ziren Anoetako kale-etxe eta herrigunetik gertuen kokatuta dauden baserriean zehar abesten. Azken urteetan Loatzo Musika eskolan musika tresnak jotzen ikasten duten ikasleen musika soinuarekin eta Euskaraz Bizi ekimenaren barnean DBHko ikasleek osatutako koplak kantatuz betetzen dute santa eskea. Ospakizun honetan jasotako dirua hasiera batean Ikastolaren beharretarako erabiltzen bazeen ere, egun, bildutako dirua Anoetako Ikastolako azken ikasturtean ikasten ari direnen ikasbidaia ordaintzen laguntzeko bideratzen da.

Helduagoei dagokienez, Anoetan lehen aldiz 1970eko otsailak 4an atera zen talde bat kantari, Txomin Garmendia bertsolaria koplak kantatzen aritu zelarik.

Gerora, 1981an, hogeiren bat eliztarrek osatutako talde bat Felix Atxegak akordeoia jotzen zutelarik eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria kopla-kantari Anoetako kaleetan eta herrigunetik gertuen kokatuak dauden baserriean kantatzen atera ziren hiruzpalau urtetan. Santaeskean jasotako diruarekin elizako bankuak erozi ziren ordura arte Anoetako San Joan parrokian aulkietan esertzen baitziren bertaratzen ziren kristauak.

1989an hasi eta bizpahiru urtetan Kuku elkartearen ekimenez hogeita hamarren bat herritar atera ziren ohiko jantziarekin: brusa beltz, lepoko zapia eta txapela mutilek eta soinekoak eta buruko eta lepoko zapia neskek. Aldi honetan Andoni Argoitiak zuzendu zuen kantu taldea eta Anjel Mari Peñagarikano herriko bertsolariak kantatu koplak. Talde honek Anoetako ia baserri guztiak igarotzen zituen kopla kantari, baita herriko taberna eta kale-etxeren bat ere. Bildutako sariarekin afaria egiten zuten, egunean bertan Kuku elkartean.

1994an Kontxi Luluaga zuzendari zelarik, Anoetako Ikastolaren ekimenez helduen santa-eskeko taldea berrantolatu zen; orduda-

¹⁷⁰ Emeterio Sorazu, 1979.

nik, huts egin gabe, urtero-urtero, atera da kantari Kantu Taldea. Talde hau Xalbador Garmendiak zuzentzen du, akordeoia Ainhoa Elizondok jotzen eta kopla Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak abesten¹⁷¹. Hogeita bost kantariz osatutako talde hau otsailaren 4ean, hiru t'erditan geratu ohi da herriko ikastolan, kafea hartu eta azken entseua egin ostein Goibailllaruntz abiatu ohi da auto ezberdinatan banatuta¹⁷².



Santa Ageda bezperako korua. Anoeta, 2002.

(Paxi Sanz)

Lehen geldialdia Zumalikardiko baserritarrek duten Sarasola sagardotegian burutzen da, bertan *poltseroari* diruaz gain, talde-kideei sagardoa eskaintzen diete bertakoek. Ondoren Bideondo eta Asuribar baserrietan kantatzen dira Santa Ageda kopla. Handik Elbarrena bailaran, Ateagaetxeberria, Luebana, Etxeberria, Arrutarte, Tapia, Sarobe baserriko bi etxebizitzak eta Allegin burutzen dira geldialdiak. Ezinbesteko beste kantu saioa anoetarrentzat historian zehar bilgune izan den Modestoenean egin ohi da. Ondoren, Ergoien bailaran, Barrundi baserriko bi etxebizitzetan, San Joan, Txulo eta Argindegia baserrietan kantatu ohi da. Ondoren kaleko hainbat etxe eta auzotan abesten dira kopla, azkenik herriko Izarti, Itzuli, Haizea eta Arkupe tabernetan abesten da.

Baserritarrek ordain bezala diruaz gain ardoa eta gaietak atera ohi dituzte. Arratsaldean zehar jasotako diruarekin, gaueko bederatzia aldera Kuku elkartean bertako bazkideek prestatzen duten afaria egiten dute taldean parte hartutako guztiek.



Santa Ageda bezperako korua. Anoeta, 2001.

¹⁷¹ Anjel Mari Peñagarikanok abestutako hainbat kopla; landutako gai eta erregistro ezberdinen arabera ikusteko: Mikel Errazkin Agirrezabala (2005: 56-57)

¹⁷² Kantu taldeak abesten dituen abestiak ikus eranskinean.

4.2.11.- Iñauteriak, data aldakorra

Pío Barojak Los demonios del Carnaval lanean zioen bezala, Iñauteri edo karnabalak izan dira gizarte jairik osoenak eta borbilena. Guztia berekin baitute: farrealgara, basatikeria, maltzurjokoa, izua, kezkabidea eta zitalkeria. Beraietan irauten dute totem edo direlako aitzin kutsudun sentimenik zaharrenak.



Iñauterietako soka-muturra Plaza Berrian. Tolosa, 1934.

bre eta farregarriez kalez-kale ibiltzea, musikaz alaituta ibili ohi da jendea. Ostegun gizenean hasi eta zaldunita, astelehenita eta astearrita egunean amaitzen diren jai hauek Anoetan ez dira ospatu izan, aitzitik jendeak autobusa hartu eta Tolosarako joera zuen. “Ondo gogon det nola Apatxeko Angel eta Mikelasastiko Tomax nola ibiltze zian zaku bete belar hartu ta zezenan aurren pesta-jartzen. Haik bai parre-algarak”¹⁷³

4.2.12.- Hausterre eguna eta Garizuma, aldakorra

Kinkuagesima hurrengo asteazkena da, barau eguna eta elizan eliztarrrei bekorian hausterrea ezartzen zaien eguna. Iñauteriak amaitu eta hurrengo egunean, hausterre edo errauts egunean, ez zen apartekorik egiten, “eskolatik joaten ginen goizean hautsa hartzera”¹⁷⁴. Hauts egunak garizumaren hasiera eta barau aldia adierazten zuen; besteak beste, erromeriak eta musikak Pazko arte isilik egotea.

4.2.13.- Erramu eguna, aldakorra

Garizumako seigarren igandea izaten zen egun honetan, aurreko astean mozutako erramuak bezperan, larunbatean, lotzen ziren erramu sortarekin, gero elizan bedeinkatzeko. Elizatik bueltan, era-bilitako sahats egurrarekin gurutzeak egiten ziren, eta gurutzeetan erramu hosto batzuk jartzen ziren. Gero, ate aurrean eta soroetan jartzen ziren. Soroetan maki-la luze batekin jartzen zen gurutzea. Honela dena bedeinkatua egoten zen: “Eztakiu zertako, guk hola jaso deu”¹⁷⁵. Gurutze-bidea egiteko eguna ere izaten zen. Oso jendetsua izaten zen elizkizuna. Egun honetan prozesio handia egiten zen “elizako ate txikitik atera ta haunditik sartu, eliz-atzetik barrena”¹⁷⁶.



Erramu eguna.

Iñauteriak data aldakorretan ospatu ohi dira. Berpizte Pazkoak agintzen baitu, udaberriko ilargi betearren menpe egonik.

Iñauterietan edo karnabaletan axolagabekeria, beste izaera, itxura eta hizkera hartza, maskaraz mozorrotza, dantza eta pantomima xele-

¹⁷³ Lekuko 02

¹⁷⁴ Lekuko 01

¹⁷⁵ Lekuko 03

¹⁷⁶ Lekuko 01

Erramu egunean bedeinkatutako erramua inor hiltzen bazeen edo ikuiluan ezbeharren bat izaten zenerako-edo gordetzen zen. "Tximistaka aritzen zenean, erramu egunean bedeinkatutako erramu surtara botatzen genuen". "Erramu egunean egin eta San Joan goizean ezartzen diren gurutzeek tximista eta ekaitz erauntsia urrunten dituzte. Suge asko agertzen denean, ekaitza edo erauntsia izango da laster". "Erramu bedeinkatua, ur bedeinkatua eta argizari bedeinkatua erabiltzen zen abereak gaitzetik libratzeko"¹⁷⁷.

4.2.14.- Aste santua, aldakorra.

'Misioak' egiteko Aste Santu aurretik kanpoko fraideak etortzen ziren, frantziskotarrak batez ere, baina baita agustindar edo pasionista-eta beste batzuk ere, jendea konfesatza eta sermoiak botatzera. Urte askotan Constantino fraile pasionista etorri izan zen Lazkaotik, baita Amezketako On Ramón Etxeberria entzutetsua ere. Jende askok baliatzen zuen konfesatzeko, eta ohikoa izaten zen elizaz kanpoko fraideak jende pila bat eta bertako apaizak hiruzpalau bakarrik izatea, "badakizu, kanpokoari hobeto esaten zitzainkion pekatuak!". Astebetekoak izaten ziren 'misioak' eta elizkizunak, eta prozesioa ere egiten ziren: parroquia inguruan. "Sermoiak ere heldurtzeko modukoak izaten ziren: infernua gora eta behera"¹⁷⁸.

Aste Santu aurretik hasi eta Pazko igandera arte, 'pazkozkoa' egiteko garaia ere izaten zen; hau da, urtean behin aitortzeko eta Jaunartzeko garaia. Horrela, Garizumako bigarren astean, hamar urtetik gora zuten herritarrei, hau da, 'komunio handia' eginda zutenei, txartel bana banatzen zitzaien. Baina txartela jasotzeko doktrina jakin behar izaten zen, eta hori ziurtatzeko halako egunean herriko apaizak elizan prest egoten zen doktrina galdetzeko. Eta horrela, jendea ilaran txanda noiz etorriko, apaizak doktrina galdetzen, mutilak ezker aldetik eta neskak eskubi aldetik. Hori bai, galdetutakoa ez bazen jakiten, buelta etxera, eta ondo jakin arte ez zen txartelik jasotzen 'pazkozkoa' egiteko. Hau pasa eta gero, konfesatza joan behar izaten zen, eta konfesatzeko fraideren bat etortzen zen kanpotik.

Bekatuak aitortu ondoren jaunartzera joaten zen. Eta horretarako, eskuan, txartela eramatzen zen, eta, jauna hartu eta gero, apaizek zeukan hiruzpalau puntako txapelan utzi behar izaten zen txartela. Txartel horretan urtea idatzita azaltzen zen. Uzten zen txartela zuria zen, senefa beltz batekin, norbait hiltzen zenean egiten ziren txartelak bezalakoa, eta baita zein urtetakoak zen agertzen zen. Txartela utzi eta gero, akolitoak beste txartel bat ematen zuen, beste era batekoak, eta horren araberaedozein unetan eskatuz gero jakin bazekiten zeinek zeukan eginda eta zeinek ez 'pazkozkoa'.

Baina doktrina ez zitzaien denei galdezen, "aberatsak lenago're ere aberats-ta, goatzen naiz nire amak esanda behin, bere aurrealdean herriko familia oneko bat joan zela elizara doktrina pasatzera eta apaizak ez ziola galduetu doktrina. Ondoren, ba, nire ama jun zan. Ta ordun berari apaizak galduetu omen zion zen ote zen 'gracia'; eta nire amak zera erantzun: orain ikusi duguna, jauna!".

Garaia batean, asteazkenean hasten ziren elizkizunak; tinieblak-edo ospatzen ziren orduan. Horretarako elizako kanpaiak jo eta abestiak kantatzentziren. Oso kanpai eta abesti tristeak izaten omen ziren. Elizako koruan egoten ziren kantatzentzien herriko kantoreak. Elizan ez zen elizkizun formalik izaten egun horretan, ez zen publikorik egoten. Elizako aldarean hamabi kandela hori eta zuri bat pizten ziren hamabik Jaungoikoaren apostoluak ziren eta zuria Jaungoikoa bera. Hau kandelen erdian jartzen zen. Salmoak bezala abestuz, kantu bakoitzaren bukaeran koruan zeudenek hankekin jotzen zuten koruko lurra, kantu hura bukatu zela eta kandela bat pizteko adierazi nahian.

Ostegunean, 9etan izaten zen meza nagusia eta Jauna 'preso' sartzen zen. Ez zen Jaunik hartzen Pazko eguna arte; larunbatean 'aleluia' abestu arte. Halere, norbait gaixo edo hilzorian bazegoen, bada, orduan bai. Ez zen ur bedeinkatua ere egoten elizako pontean; hutsik egoten zen. Kanpaiak ere ez ziren jotzen. Elizkizun orduetan kalean zehar joaten ziren akolitoak 'matraka' jotzen. "Carai hartan barau juten ginen jauna hartzea, handitako pekatua zan, janda jauna hartzea, ze errespetua gainera!, orduan ia dena zen pekatua baino!"¹⁷⁹.

¹⁷⁷ Lekuko 03

¹⁷⁸ Lekuko 03

¹⁷⁹ Lekuko 03

Matraka edo karraka asko erabili izan zen soinu-tresna da. Matraka arruntek zurezko mihi bat izaten dute U luzearen forma duen zurezko euskarri baten barrualdean helduta. Irekita dagoen muturrean makila bat sarturik dauka alde batetik bestera. Kirtenerako, makila alde batetik luze uzten da eta barrualdean hortzak dituen ardatza jartzen zaio. Kirtena tinko harturik karraka jiratu egiten da eta mihiak ardatza jotzen du hortz batetik bestera saltatzean hots handia aterata. Aste Santuan orduak jotzeko, elizkizunetara deitzeko, erabiltzen zen gehien bat.

Ostiral-Santuan baserrian ez zen soroko lanik egiten: bijilia edota barau eguna izaten zen. ‘Kanpai baraua’ egiten zen: egun horretan kanpaia jotzen zenetik, larunbata arte baraua egiten zen. Ezin zen haragirkik, hegaztiirkik, txerrikirik jan; arraultzak bakarrik. Patatekin egindako tortilla ere jaten zen, eta baita bakailaoa ere. Urtean behin aitorza eta Jauna hartzeko erabiltzen zuten askok egun hau.

“Urte guztin elizaik zapaldu gabe, eo konfesioa ta jauna hartzeik in be asko zian len’ei!. Dana kontrolatze zan, zein jute zan eliza ta zein ez. Garai harten Don Dionisio erretoreai izuarriko bildurra ta respetua zitzzion, berorrika hitz iten genion, ta basarrita jute zenez, nola tratatu gainea!. Gure etxen bazekin oilo-kabik nun zeuden ta eskua tapa-tapa sartze zun esku bete arrautza etxea emateko!”

Ostirala ‘idulentzia’ eguna ere izaten zen. Arratsaldean, prozesioa egiten zen. Jesukristoren pasioa hamalau egonaldietan egiten zen elizan zehar. Goizean, hasteko ‘Idulentzia’ egiten zen, hau da, Jesus ‘presoa’ askatu egiten zen eta arratsaldean ‘hil da Jesus’ abesten zen, gero, arratsaldean, ‘Gurutzea adoratzea’ egiten zen, eliztarrek, aldare ingurura joan eta gurutze santuari musu emanet, erreberentzia bat egiten zuten. Ondoren, Kristoren hileta egiten zen prozesioan.

Larunbatean, goizeko 9etan ‘Aleluia’ elizkizuna izaten zen. Baino aurretik, goizeko 8etan, elizako ‘dotriñetan’ ura eta sua bedeinkatzen ziren. Egun horretan bedeinkatutako suarekin, mutilek ardagaia pizten zituzten, gero baserriz baserri eta etxez etxe ibiltzeko. Ardagai zuhaitzetan hazten den onddo bizkarro bat da, ongi lehortuz gero

sua luzaroan mantentzen duena eta usain gozoarekin gainera. Ardagai batzeko garai onena udazkena izaten da, eta pago zaharrenetan aurkitzen omen dira onenak. Hilberrian hartzerik, ez zen kome ni izaten, hala eginez gero pipiak jotzen duelako; beraz, beste edozein ilargi alditan hartzea hobe da.

Neskek, berriz, bedeinkatutako ura ere hartzen zuten, jendeari etxean ura bedeinkatua eskaintzeko. Eskaintza hau eguerdi arte izaten zen: “*Mutilak burruntzian zintzilik eramatzen zuten piztutako ardaila. Poltsikoan, berriz, ardaila zati txikiak, etxeen aurretik mailukarekin ongi zapalduta, gero hobeto pizteko. Etxe aurrera ailegatzean, poltsikotik ardaila zati txiki bat ateratzen zen, eta burruntzian zegoenarekin elkartuta, putz eginez, txikiak sua hartzen zuen*”¹⁸⁰. Ondoren, etxeandoarek hartzen zuen eta sutara edo labera botatzen zuen, eta horrela bedeinkatuta gelditzen zen. Etxekoandreak horren ordainetan bost edo hamar zentimoko limosnatxo bat ematen zuen.

Urarekin ere antzerakoa egiten zen: ura hartu eta etxeetan eskaintzen zen. Ur bedeinkatua etxe guztieta egoten zen garai batean. Ekaitza zetorrela-edo, ur bedeinkatua hartu eta erramu zati batekin bustiz, bota egiten zen etxera edo sorora. Erramua surtako hautsetan ere jartzen zen; dena ekaitzaren beldurrarengatik. Animaliekin ere gauza bera egiten ziren: kanpora eraman beharra zegoela-edo... bedeinkatu egiten zen ur bedeinkatuarekin. Eta norbait hiltzen zenean ere, han egoten zen ur bedeinkatua. Etxeetan, ur bedeinkatua egoten zen... Hasiera batean Mendekoste Pazkoetaraino, baina ondoren urte guztian ez zen faltan izaten ur hori.

Suak eta urak berezko sinbologia dute Euskal Herriko ohitura zaharretan. Etxeko beheko suak, edo ekonomikak ondoren, familia bateko ongizatea edo bizitza neurtu izan du. Suak berotasuna ematen digu, janariak prestatzeko ere baliagarria da, izurrite edo gaixotasunen ondorioak erretzeko ere erabili izan da, garai batean gaixo egondakoaren ohea erretzen zen.

Igandearen, Pazko eguna izaten zen. Gazteentzat egun handia: bi hilabete ‘lehorrean’ pasa eta gero, erromerietan hasteko garaia berriz ere.

¹⁸⁰ Lekuko 02

4.2.15.- San Isidro, maiatzak 15

Baserritarrentzat egun handia izaten zen; jai izaten zen. Meza nagusia goizean izaten zen, eta “garai baten apaiza pulpitutik jaitsi ta arto-landare eta galburu batekin apaintzen zen prozesiorako joera omen zen, guk ez ginun halakoik ezautu”¹⁸¹. Ondoren Modestoenean bazkaria egiten zuten herriko nekazariek, gizonezkoek eta emakumeek, bazkaria ohikoa izaten zen, zopa eta bi platera. Gaur egun ere base-ritarrak bazkaria egiteko gelditzen dira.



(Jesús Elosegi)

San Isidro.

4.2.16.- Korputz eguna, aldakorra.

Corpus Christi eguneko jaia Trinitateko igandearren hurrengo ostegunean ospatu izan da orain dela urte gutxira arte, baina azkenaldian hurrengo igandera atzeratu da. Korpus edo Besta Berri eguna ospatzea, oro har, Beranduko Erdi Arotik datorren ohitura da. Urbano IV.ak ezarri zuen 1272an bulda bitartez¹⁸².

Egutegiari dagokionez, egun aldakorra da Korputz eguna. Udaberriko lehen ilargibeteko astean ospatzen da Aste Santua;

Pazko eguna baino berrogei egun lehenago hausterre eguna; iñau-terietako azkena eta garizumaren hasiera. Garizuma erramu egune-ra arte ospatzen da, eta Asentzio egunetik berrogei egunetara Korputz eguna egokitzen da¹⁸³.

Anoetan, meza ondoren, Korpuseko prozesioan arkua egiten zuten dantzarietik, txistulariek Korpus zortzikoa jotzen zuten bitartean. Prozesio honetan, elizari atxikia zegoen hilerrari buelta ematen zitzaion. Prozesio hau pilotalekutik ere igarotzen zen, han aldare bat kokatzen zelarik. Prozesioa igarotzen zen bidean, ezpata belarra eta mihilua jartzen ziren. Aldare horretan Kustodiaren barneko Korpusa bedeinkatzen zuten. Aldarean korpusa bedeinkatu ostean, eliztarrek hainbat abesti abesten zitzutzen, jarraian, txistulariek ‘agur jau-nak’ jo eta azkenik korpusa altxatzen zen.

Prozesioa pasatzen zen tokia era askotako lore eta belarrez estali izan da, esate baterako, eztainu-belar, intxaур-hosto, lizar-hosto, arrosa, zinta-belar eta ezpata-belarrez. Gero belar horiekin San Joan bezperako sua piztu ohi zen, baita beren adar eta guzti arbi-hazi buruekin ere.



(Agirre-Olano familia)

Anoetako Korputsetan herri dantzariak. Anoeta.

Korpus prozesioa eliza atzetik barrena aldarera joaten zen, orain udala dagoen lekuaren hain zuzen ere. Esan bezala, kustodian sartuta eramatzen zen Jauna. Urre koloreko medalla handi baten antza zuen kustodiak. Erdi-erdian, borobil-borobila, kristala. Hortxe sartzen zen

¹⁸¹ Lekuko 03

¹⁸² Juan Garmendia Larrañaga (2001: 64)

¹⁸³ Periko Peñagarikano Labaka (Albiztur, 1955)

Ostia Santua. Prozesioan zehar erretoreak eramatzen zuen kustodia. Hori bai, eskuekin ukitu gabe, sotanaren gaineko kasuilla oso berezia zenez, eskuak babesteko ere erabiltzen baitzen. Erretorea berriz, sei gizonek eusten zuten palioaren azpian joaten zen. Palioa lau makilen gainean zabaldutako oihala zen, aterpe mugikor modukoa. Aterki handi bat balitz bezala. Palioaren atzetik joaten ziren gainerako apiztak eta haien atzetik, prozesioko jendea. Palioa eramatzen zuten sei gizonak herriko pertsonaia esanguratsuak izan ohi ziren.



Korpus eguneko prozesioa Plaza Zarran, Tolosa, 1934. (Jesús Elosegi).



Anoetako parrokiako kustodia. Anoeta, 2008.

Prozesioa amaitu ostean, ordu batetan, udalak bermut-kontzertua eskaintzen zuen. Bermuta eskaintzeaz gain orkestina bat aritzen zen bertakoak alaitzen.

60. hamarkadan, herriko jendea Tolosara joaten zenez batelak ikus-tera, jaien eguna Korpusera igaro zen, egun handia baitzen Anoetan. Jaiekin batera, dantza-soka eta oilasko biltzea ere egunez aldatu zituzten. Halere, oso urte gutxitan atera zen Dantza-soka Korpusetan.

Oilasko biltzea Korpus bigarrenean edo korpus egunaren hurrengo egunean egiten zuten herriko gazteek¹⁸⁴. Aipatu egun hau Gazteriaren eguntzat izendatzen zuten Korpus jaietan. Herriko gazteek goizeko zapietan bildu ohi ziren herriko plazan¹⁸⁵. Jarraian, Azkoitiko trikitilarienkin (Epelde, Egurrola...) baserriz baserri dantzatz, oilasko biltzea egiten zuten. Nahiz eta oilasko biltzea deitu, baserrietan diruza biltzen zuten hegaztien ordez.



Anoetako festetako egutegi- eskuoria. Anoeta, 1978.

¹⁸⁴ 1978 eta 1980ko herriko festen egitaraua, Anoetako Udala.

¹⁸⁵ Lekukoak: Iñaki Urkola Roteta (Barrundi baseria, Anoeta 1956) eta Periko Peñagarikano Labaka (Albiztur, 1955).

Jasotako diruarekin eguerdiko ordu bietan Modestoenean bazkaria egiten zuten. Arratsaldean dantza solte lehiaketa herrikoia antolatzen zuten eta gauean mozorrotzeko ohitura zuten. Garai hartan gazte zirenek azpimarratzen dutenez, herriko jaietako helburu nagusiena sortzen ari ziren Ikastolarako dirua biltzea zen, beraz, era batera edo bestera, dirua biltzea lan egiten zuten festetan. Ian egiten zuten. Halere, oilasko biltze egunean herriko gazteenek Ikastolaren aldeko tabernan txandak libra zitzaten, ikasleen gurasoek lan egiten zuten bertan¹⁸⁶.

4.2.17.- *San Joan eguna, ekainak 24.*

Anoetan, San Joan aurreko astean baserriz baserri ur eta erramu bedeinkatuarekin herriko soroak bedeinkatu ohi ziren. Apaizari laguntzen bi akolito ibiltzen ziren¹⁸⁷.

Anoetan¹⁸⁸, San Joan eguneko ‘egun txinta’ edo egunsentian bedeinkatutako lizar eta elorri adarrak jartzen ziren ateetan. Haur negarriak, egindako begizkoaren menpe zeudela uste omen zen, eta horregatik, San Joan egunez Anoetako San Joan ermitara eramatzen omen zituzten. Gaur egun, ermita hura baserri bihurtuta dago, baina San Joan izena mantentzen du.

San Joan eguneko meza nagusira joateko, herriko agintariak Udaletxetik elizara txistulariek musikatutako ‘alkate soiñuarekin’ joaten ziren. Meza-erdiko garaian suziri bat bota ohi zen, eta jarraian, txistulariek ‘agur jaunak’ jo ohi zuten. Meza bukatzean, ‘alkate-soiñuarekin’ orduan ere, Udaletxera itzultzen ziren herriaren ordezkarriak. Jarraian herriko dantzarien emankizuna izaten zen herriko plazan. Herriko zaharrenek diotenez, egun honetako prozesioa Guadalupe paper fabrika parera iristen zen, txistulariek prozesioa ‘Todo por la religión’ kantaren doinu protokolarioak jotzen zituzten¹⁸⁹.

Arratsaldeko seietan, leku berean, dantza-soka dantzatzen zuten, jarraian, txistuaren soinuarekin *sueltoan* dantzatzen zen

gaueko hamaikak arte gutxi gora-behera. San Joan bigarrenez aipatu dantza ezkonduetegi zuten eta San Joan hirugarrenez ollasko-biltzea eta ollasko-jokuba eta dantza-soka ateratzen zuten herriko gazteek¹⁹⁰.



(Argindegij baserria)

San Joan eguna, Alkate eta zinegotziei dantza-soka dantzatzu. Anoeta.

4.2.18.- *Santu guztien eguna, azaroak 1*

Santu guztien eguna baino zortzi egun lehenago hasita, ‘Miserere mei’ abesten zen egunero. Santo Guztien egunaren bezperan fraile bat etorri ohi zen konfesatzera.

Santu Guztien eguna, emakumeak elizara joateko eguna izaten zen; elizan eta kanpusantuan pasatzen zuten egun hori: goizean elizkizuna ospatu, bazkaldu eta arratsaldean, berriz, elizkizunera... Meza 10etan izaten zen. Baina meza eman aurretik apaizak erresponatsuak edo ‘Pater Noster’ errebatzen zituen, lehen sepulturak zeuden tokian. Sepultura bakoitzean etxeoa Andrea egoten zen aulkia batean, eta lurrean piztutako argizaiola bat. Apaiza pasatzen zenean etxeoa-dreak hainbesteko bat ematen zion: orain dela 50 urte, 50 pezeta-eta.

¹⁸⁶ Lekuko 11

¹⁸⁷ Lekuko 11

¹⁸⁸ Juan Garmendia eta Xabier Mendiguren, 2003

¹⁸⁹ Lekuko 12

¹⁹⁰ Lekuko 01



Garagartzaren sepultura eta argizaiola. Amezketa, 2008.

(Aranzadi Z.E.)



Garagartzaren sepultura eta argizaiola. Amezketa, 2008.

(Aranzadi Z.E.)

Zenbat eta diru gehiago eman orduan eta otoitz gehiago egiten zituen apaizak. Eta gasotzen zen dirua akolitoak poltsa zuri batean sartzen zuen. Urtean hil zirenengen sepulturetan manta beltz bat egoten zen zabalik, gainean argizaiola zuela, eta jendeak ohitura izaten zuen manta gainetara dirua botatzeko. Mantan diru asko baldin bazegoen, bigarren apaiz bat etortzen zen otoitzak egitera, dena latinez izaten zen. "Zure sepultura lehenengoetakoa bazen, ba, ondo. Bestela denak pasatu arte itxaron behar, eta norberak kalkulatzen zuen noiz izango zen bere txanda"¹⁹¹.

4.2.19.- Arimen eguna eta Arimen ondretako eguna, azaroak 2 eta Santu Guztien hurrengo igandea.

Arimen egunean, apaiza bakoitzak hiru meza ematen zituen, batzuk ilaran, goizean zehar. Natibitate egunean ere, berdin, 'Erresponsua eta diru-biltzea' izaten zen. Hau bederatzietan hasten zen.

Arimen ondretako eguna, Santu Guztien egunaren hurrengo igandean izaten zen eta norbait hiltzen zenean bezalako elizkizuna izaten zen; hildako guztien izanean egiten zen elizkizuna. Arratsaldean izaten zen: kantuak, korua abesten eta behean apaizak, beltzez jantzita, erantzuten. Sermoia egiteko ere kanpotik etortzen zen norbait, baina sepulturekin ez zen ezer egiten orduan. Garizuma txikia egiteko garaia ere izaten zen, Santu Guztietatik Arimen ondretara. Ez zen soinurik egoten eta barau egiten zen. Kanposantura ez zen orain bezala joaten jendea; "lorek jarri ta kanposantua juatia oaingo moda da. Kanpoko jendek ekarriko zuen eo ohitura hoi, eh. Kanpusantuko sepulturetan eurrezko guutzea jarrita besteik etzan eoten len. Ta kanposantua zikina askotan, garbitu gabe. Garaiko kontuk..."¹⁹².



(Agirre baserritza)

¹⁹¹ Lekuko 03¹⁹² Lekuko 03

4.2.20.- Hainbat jai

Santa Kruz Egunean, maiatzaren 3an, errogatibak eta letaniak burutzen ziren, apaiza elizatik atera eta kanpoko lau aldeak bedeinkatzen zituen. Kandela muturrei su eman eta erramu bedeinkatuarekin egindako gurutzea kandelaren bost tantekin bedeinkatu eta soro guztietañ jartzen ziren. Soro guztietañ gurutzea gorostia, lizarra, elorria eta metro inguruko makil-eztaka eta gurutzea sartzen ziren.

Asentzio edo igokunde eguna, ostiral santutik eta berrogei egunetara, ostegunarekin ospatu ohi da. Egun hau baino hiru egun lehenago hasita, meza eta gero errogatibak burutu ohi ziren, "prozesioa dotrinatik barrena zimitoriotik sartuta"¹⁹³. Asentzio egunean berrogei credo errezzatzen ziren. "Cure aitona zanak berrogei arto ale ematen zizkiun esnatu orduko, eta bat errezzatu orduko pote batean ale bat uzten genuen, berrogeiak errezzatu arten han egoten zen ia ondo errezzatzen genituen kontrolatz, bestela, egurra!"¹⁹⁴

San Antonio eguna, ekainaren 13an ospatzen da. Animalien patroia da San Antonio. Garai hartan jaieguna izaten zen, urtean zehar zorte ona izateko elizan bedeinkatutako urarekin ikuilura joateko ohitura zegoen, gero animaliei botatzeko.

Santiago eta San Inazio, uztailaren 25ean eta uztailaren 31n, jai egunak izaten ziren, baina baserrian garitarako garaia izaten zenez, jaietarako ez zen denborarik izaten. "Hoi bai zintzo asko goizen meza santua entzutea. Gaur bezela etzan ordun ospakizun difrenteik izaten, oraingo kontuk dia hoiiek!"¹⁹⁵.

Pilarika eguna berriz, urriaren 12an, "eztakit noiz hasi zan jai hau ospatzen. Francok jarritako jaien bat da, inundik inoa. Baserritarrek garota jun behar izate ginun, pentsa ze pesta ingo genun ba!. 'Garotako Ama Birjina' ere deitu izan genion egun horri. Etzen ospatzen, igande normal bat bezela izate zan"¹⁹⁶.

4.3.- Igarobide-errituak

1909an Arnold Van Gennep¹⁹⁷ etnologo frantsesak '*rites de passage*' edo igarobide-erritoak esamoldea proposatu zuen, gizabanakoaren garapen sozialean burutzen diren hainbat trantsizio definitzeko; hau da, nerabezartotik helduaroa, ezkongaiarotik ezkontzara, talde edota komunitate bateko kide ez izatetik parte izatera, bidaia bati ekitik bidaia horren itzulerara eta abar azaltzeko. Igarobide-erritoak gizarte ez-industrializatuetako bizitza sozialean ezinbestekoak dira; komunitatearen errituetañ burutzen direlarik, hau da ez dira modu indibidualean gertatzen.

Bizitzak etapa, ziklo eta aldaketez osatuak daude. Eta gizabanakoak atzerantz begiratu eta kapitulu bat amaitu dela jabetzen da, hazi dela, aldatu dela... Finean ezinbestekoak du beste hasiera bati ematearen sentzasioa, amaiera bat edota topaketa bat bera. Honela igarobide-erritoak eten-puntuei zentzu bat ematen zaien erritualak dira.

Finean, gizakia bere bizitzan zehar, ez da gehiegi aldatzen biologikoki. Jaiotza, hilekoan edota heriotzan ezik ez du muga biologikorik jazotzen. Alabaina bizitzan bertan aro edo etapa ezberdinak igarotzen ditu: haartzaroa, nerabezaroa, helduaroa eta zahartzaroa. Eta igarobide-erritoak hutsune hori betetzen saiatzen diren gertaera sozialak dira; bizitzan egoera batetatik besterako trantsizioa zehazten eta definitzen duten errito kolektiboak. Trantsizio horiek aldaketak definitzen dituzte, hainbat aldagaietako dagozkie-nak: leku, egoera sozial, maila sozial, adin-taldea...

Igarobide-erritoetan komunitatea osatzen duten kideek gizabanakoaren status soziala aldatu dela errekonozitu eta onarpen soziala ematen die. Honela prozesu baten amaiera eta beste baten hasiera irudikatzen duten errito hauetan komunitatean errepikatzen diren ekintzak burutzen dira, pertsonei jarraitu beharreko orden bat segitzen laguntzen dielarik; guzti honekin bizitzako fase batetik besterako trantsizioan sortu daitzkeen zalentzen aurrean bizitza berari zentzua emanez.

¹⁹³ Lekuko 01

¹⁹⁴ Lekuko 02

¹⁹⁵ Lekuko 01

¹⁹⁶ Lekuko 03

¹⁹⁷ Arnold Van Gennep, 1979 (1909)



(Bideondo basera)

Ezkontza-ospakizunera bertaratuak.

Gisa honetako erritoak ezagutzen diren kultura eta erlijio guztietaen egikaritzen dira¹⁹⁸; honela, igarotze-erritoak berak dituen helburu nagusiez gain errito bakoitzak bere helburu propioak dituzte:

- jaiotze erritoak: komunitateko kide berriaren iragarpenaz gain honekiko komunitateak eskaintzen duen babesia islatzen da.
- ezkontza erritoak: komunitatean sortu den unitate familiarraren aurrean ernalkuntza erritoak errepresentatzenean dira.
- hileta erritoak: komunitateko kide izan den horrekiko defentsa islatzen da
- ordenazioak (apaiz edo errege gisa ordenatzea): dibinitateaz jabetzeko erritoak dira.
- sarbide erritoak: errito lagungarriak dira. Anoetan, bziimodu tradizionalean adibidez sarbide erritoak dantza-sokan irudikatzen

ziren¹⁹⁹. Dantza-soka, hainbat dantzaren multzoa da, garai batean nekazal munduko gizartean funtzio sozial nabariak zitueña²⁰⁰. Bertan ondoko dantzak egiten dira: desafioa edo aurrez-aurrekooa; axeri-dantza, alpargata edo esku aldatzeko soinua; agurra; zortziko bat, aurreskuak inprobisatu behar duena; fandagoa, arin-arina eta biribilketa. Soka honen protagonistak aurreko eta atzeko dantzariak dira, aurreskularia eta atzeskularia, Anoetan ‘urre-aitziak’ izenez ezagutuak. Dantzaren pasarte batean, zubia egiten da, hau da aurreskularia eta bere ondoko dantzariak besoak jasotzen dituzte eta besapetik gainerako dantzari guztiak igarotzen dira; honen esanahia onarpen sozialarena zen, hau da, dantzaria komunitatean heldu gisa onartua bazen, sokan ere onartuko zuten; aldiz, izen txarrekoa bazen, sokatik bota egingo zuten.

¹⁹⁸ Conrad Phillip Kottak (2006:234)

¹⁹⁹ Artikulu honen ondoko atalean dantza-sokari buruzko informazio osatuagoa: 4.2.17.- San Joan eguna, ekainak 24

²⁰⁰ Fernando Rojo eta Mikel Errazkin Agirrezagabala, 2003.

Jatorria eta interpretazioari dagokionez, modu ezberdinak esanahiak aurkitu izan zaizkio dantza sozial honi. Zaharrenetarikoa Gorosabel historialari tolosarraren izkribuetan irakur daiteke, honek dantza-soka gudarekin harremanetan ezartzen zuen; bertan aurreskuak eta atzeskuak desafioa dantzatzeko garaia bi buruzagien arteko erronkatzat ulertzten zuen. Ondoren, garrantzia emakumeari ematen hasi zitzaiion; jada bi dantzarien arteko erronkak ez zuen garrantzirik, eta bakoitzak plazan zein emakume aukeratzen zuen agurra eskaintzeko. Nahiz eta Iztuetak²⁰¹ jaso zuen bezala herriko alkateek dantzatzenten zuten, oso dantza protokolarioa izan da XX. mendean zehar. Azken urteetan, antropologoek, esate baterako, Urbeltzak, beste ikuspegi bat eman diote: gazteek gizartearen parte izateko sarbidea, hau da, helduen komunitatean parte hartzen hasteko erritoa. Ukaezina da, gaur egun, dantza-soka, gure arbasoengandik jasotako ohitura eta erritoak betetzen ondo pasatzeko aukera dela, eta baita komunitate edo giza-talde baten identitatearen agerpena ere.



Dantza-sokan atzeskularia agurra dantzatzen. Anoeta, 2003.

Igarobide erritoei dagokienean, aitzinean esan bezala, errito hauen bidez komunitatea egikaritzearen jakitun izaten da; guztioen parte hartzen du eta trantsizio horren aldaketa bera babesten du. Honela, elkartasun, berdintasun eta gertutasun sozial handiko sentimendua hedatzen da.

²⁰¹ Juan Ignacio de Iztueta, 1968 (1824)

²⁰² Arnold Van Gennep (1986: 20-22)

²⁰³ Arnold Van Gennep (1986: 24-35)

Gisa honetako erritoetan ondoko hiru fase lantzen dira; zeinak errito guztietai ez diren proportzio berean gauzatzen²⁰²:

- Aurrelikako erritoak edo banantzeakoak: hauetan gizabanako komunitatetik banatu eta leku edo estatus berri batera igarotzen da. Gisa honetako erritoak garatuagoak agertzen dira heriotza errituetan.
- Errito liminarra edo tartekoak: hauek batez ere haurdunaldia, ezkon-gai-harremanetan, sarbidekoetan irudikatzen dira.
- Errito postliminarra edo agregazioakoak: hauetan komunitaterako itzulera errerepresentatzen da, jada erritoaren zikloa osatu egiten da; oso agerikoak dira adibidez ezkontza erritoetan.

Igarobide erritoak garatzen ari diren unean norbanakoaren bizitza sozialak eta individualak aldaketak izaten dituzte. Finean hori da errito askoren helburua. Gertakari hauetan aktibitate sinboliko nagusia-goa gauzatzen da²⁰³, horregatik ulertzeta daiteke erlijio izaerako erritoak ugaritu izana igarobide hauetako gertakarietan. Honela kristau eskeema sakratuan adin-talde ezberdinaren trantsizioak hainbat erlijio sakramento erritoekin ospatzen dira, hala nola: bataioa, lehen jaunartzea, sendotza, ezkontza edota hileta. Alabaina, herri izaerako sinesmen eta usadio erritualen agerpenak ere ugaritu egiten dira trantsizioaldi hauetan. Era berean, heriotza erritoak, agoniak hobiratzera arte, ez dira azken erritotzat hartuak, beste giza kategoria batera igarotzeko errito gisa baizik: bizirik dauden hildakoak.



Dantza-sokako erronda Bideondo baserrian. Anoeta, 2003.

Alabaina bestelako errito motak ere sailka daitezke; hau da, egoera-aldaketako errito edo egoera-aldaketako ohitura hauek urtaraoak aldatzean gertatzen diren ohiturak izan daitezke edo baita gizarte-, politika- edo erlijio-maila berri batera igarotzean izaten diren ospakizunak ere. Honela, egoera batetik besterako igaroaldian kokatzen diren erritual kolektibo ezberdinak ezartzen dira: eskasiatik oparotasunera (uzta bilketa errituak); aro batetik besterakoak (urte berrietako erritoak, fundazio edo apaiz-ordenazio erritoak). Atal honetan, adin-maila desberdinak igaroaldiak errepresentatzeko erritoak Anoetan nola egikaritzen diren eta nola ulertzen diren aztertu ditugu soilik. Berauek mailaka agertuko ditugu eta haien sekuentziak bizitzaren prozesua osatuko du helduarora arte: jaioberriak, haurtzaroa, nerabezaroa, gaztaroa, ezkongaiaroa eta ezkontaroa eta heriotza.

4.3.1.- Jaiotza

Familiaren egunik garrantzitsuenetarikoa izaten zen seme-alabaren jaiotza. Ez beste kide bat etxera zetorrelako soilik, baita berak etxe-koen egokitzapena eta egoeraren aldaketa ekartzen zuelako ere. Jaiotzak, bestalde, bataioa zekarren, eta gertaera biek usadio eta ohitura bereziak zekartzaten: jaiak, zeremoniak, bisitak...

Gurasoek umetan esan zieten, “medikuek poltsikoan ekartzen zituzten jaioberriak”²⁰⁴ gero, elizak beriz, “jaungikoaren borondatea horrela zelako” ekartzen zituztela umeak mundura esaten zien. Haurra zikoinak ekarri duenaren esaera hori beranduagoko da, dirudinez Gaztelatik ekarritako esaera da. Haurra Parisetik zetorrela esaten zuten: “Parisetik ekarri dute”, baina ez zikoinak; hori ondorengo kontua omen da. Errege egunean tokatuz gero, erregeek ekarri zutela ere esaten zen.

Planifikazio eta neurri gabeko garaiaiak ziren haiet: “zetozenak hartu, hazi eta hezi beharrekok”²⁰⁵. Umeak ekarri behar ziren; zenbat eta gehiago hobe!. Aukeran emanez gero, hala ere, lehen gaur eguneko aurrerapenak izanez gero garai hartako emakumeek ere ez zituzten hainbeste seme-alaba izango, hala aitortzen dute behintzat.

²⁰⁴ Lekuko 04

²⁰⁵ Lekuko 03

²⁰⁶ Lekuko 03

²⁰⁷ Lekuko 02



(Agirre Baserna)

Haurraren sexuari zegokionez, testuinguruaren araberakoak izan ohi ziren lehentasunak; funtzionaltasuna zen nagusi. Baserriean, adibidez, lehendabizikoa mutila izatea nahi izaten zen, baseria maiorazko edo premu gabe gelditu ez zedin. Bestela, gizonak mutilak eta emakumeak neskak nahi izanaren artean banatzen ziren iritzia. Bainan denak ikuspuntu existentialista batetik begiratuta: “neskak etxen launtzeko, zetozen anai eo ahizpa txikik zaintzeko” edota “mutilak attai bee zeginetan launitteko”²⁰⁶. Lekukotza emaile batek entzunda omen zuen “andre pormalak alaba in bihar dula lenengo”²⁰⁷, baina,

baita neska jaiotzea hutsaren hurrengoa izaten zela ere. Hala ere, denak ados iritzi honekin: “zotorrena zotorrela, ongi etorri zedila”, zeren gauzak ez baitziren orain bezala; atzeratua bazen ez zegoen eskolarik, ez haientzat leku aproposik, baizik eta etxean sartu per secula seculorum.

Ez zen neurrik hartzen; ez zen medikuarengana jotzen, “beatzi hilabeten ez genun eze iten, partoraino-eo”²⁰⁸ erditzeraino, ezertxo ere ez. Lehenengo hilabetan, bizpahiru hilabete, konturatzentziren haudun zeudela. Ez zegoen medikura joan beharrak haudun zeuden edo ez frogatzeko. Ez zegoen medikutara joateko ohiturak, aurretik umeren bat edo galdua ez baldin bazeuden. Orduan bai, jarraipena egiten zen. Azken momentura arte ez zitzaison medikuari deitzen. Eta eguneroko zeregina ez zen uzten, jan eta jantzi berdin, nahiz eta lanak batzuetan oso astunak izan: artoa jorratu, zuritu, baba bildu... eta etxeko lanak berdin. Hala ere, lan zakarrik ez omen zen egiten.



Maria Goenaga bere seme Jose Mariarekin. Anoeta

Jaiotzaren espazio naturala, berriz, etxea, familia izaten zen. Mende honen erdi aldera arte, emakumeek etxeen bertan ekartzen zituzten seme-alabak mundura, emaginaren, senitarteko emakumeen eta auzokideen laguntzaz. Erditza etxeko gertaera zen eta emakumeek baino ez zuten parte hartzen. Presaka, korrika hor joan ohi zen mediakuaren eta komadrona edo emaginaren bila etxeko jauna. Ordurako minak hasita, urak apurtuta, zabaltzen hasita zegoen ama. Batzutan urak medikuak apurtzen zituen. Ama ere hor etorri ohi zen bere alabari laguntzera; dena prestatzera, umea bazetorrelako:

- Izara edo maindire zaharrak apurtu
- Sehaska prestatu eta sukalderra ekarri, epelera.
- Ura berotu ontzi batean, xaboi gutxirekin, eta toaila bat ere prestatu.
- Umea atera, toajan ipini eta amona berriak edo komadronak ur epe-larekin garbitu.
- Umeari zilbor-hestea kendu, haur-laguna ere kendu amari... eta pixontzi batera bota, eta ondoren baratzera eraman eta bertan lurperatzeko.

Ondoren, umea medikuak ikusten zuen: ea negar egiten zuen, mugitizen zen... Bi egunera medikua etortzen zen ama eta umea ikustera, “guk ez genun izan komadrona edo parteraiak”²⁰⁹. Medikua falta zenean praktikantea etortzen zen. Umea norberarekin, amarekin, egoten zen hasieran, berotan. Ondoren sehaskan jartzen zen. Sehaskan egoten zenean ur-poltsa beroa jartzen zitzaison hotzik ez hartzeko. Zumitzezko sehaskak ziren, egurrez egindakoak, eta ‘balantzina’ zuten sehaska batetik bestera erraz mugitzeko. Ardi-larraua erabiltzen zen sehaskako koltxoia ez bustitzeko. Umea jaiota, garbitzea -burua busti gabe, gaixotu ez zedin-, aldatu, bularra eman. Eta etxeak hotzak zirenez garai hartan, berotan mantentzea komeni izaten zen. Elizara joan aurretik bataio antzerako bat ere egiten zitzaison. Badaezpada ere, zerbait gertatuko balitzaoi zerura joan zedin.

Baina jaiotza guztiak ez ziren hain errazak eta azkarrak izaten, nahi baino sarriago umea gaizki etortzen zelako. Ume asko haien zilbor hestez itotzen zen. Beraz, haurra kolorea aldatuta-edo sumatzen bazen, umea gaizki zetorrela ikusten bazen, hartu etxean zegoen ur

²⁰⁸ Lekuko 02
²⁰⁹ Lekuko 03

bedeinkatua, herriko etxe guztieta zegoena eta ‘etxe bautismoa’ ematen zitzaien umeari, etxekoek bertakoek zera esanez: “*nik bataiatzen zaitut Aitaren, Semearen eta Espíritu Santuaren izenean, amen*”²¹⁰. Ur bedeinkatua larunbata santu gauean bedeinkatu ohi zen eta pazko igandez etxez-etxe banatu ohi zen. Haurra etxearen bataiatzea suertatuz gero, haurra elizara eraman behar zen laster eta, errezo gehiago eransten zizkion apaizak.

“*Hoi gutzat gorra izan zan*” ama baten esanetan. Informatzaile batek zera ezagutua du: ume gaixoa atera zuenean medikuak bertan zegoen palankana batera bota zuen, eta ondoren bere senarrak gurutze-rik ez zeukan hil kutxa bat ekarri, umea bertan sartu eta, bataiatuta ez zegoenez, ‘linbora’ eraman zuen. Bataiatu gabekoak hara eramatzen zituzten. Linboa, antzinako kanposantuaren sarreraren eskuin aldean zegoen lur zati ez kotsakratua zen. Umeak ume, andre asko ere hiltzen zen erditzean eta, orduan, batzuetan, ama eta umea bera, batera, kutxa berean, lurperatzen zituzten.

Aurreko mendearen erdialdera, aldaketa handiak gertatu dira umeari jaiotzen lagundu izan dioten pertsonei dagokienez. Ezagutza enpirikoetan oinarrituk lan egiten zuen ohiko emaginaren ordez, apurka-apurka, osasun zentroetan amari laguntzen dioten profesional espezializatuak agertuz joan dira. Honela espazio neutroak sortu dira, maternidadeak edo amaetxeak hain zuzen ere.

Jaiotzaren inguruko sineste ugarik, umea jaio aurretik bizi izaten zen irrikaren eta artegatasunaren berri ematen digute. Horrela, bada, umedunaren gogo jakin batzuk betar behar izaten ziren, sabelaren itxurak jaio behar zuen umearen sexua zehazten zuelauste zuten; era berean, kontuan hartzekoak izaten ziren amaren aurpegiaren ager zitezkeen seinaleak, haudunaldiaren bilakaera eta ilargiaren aldiak. Eriditze ona izateko, laguntza eskatzen zion, nork bere debozioko santuari. Ezagunenetarikoa San Ramon Nonato zen, etxe askotako oheburuko irudia hain zuzen era. Era berean, bataiatu aurretik neurri batzuk hartzen ziren, esaterako, bataiatu arte jaiberriri musurik ez ematea, eta batez ere kuttunak edo irudi erlijiosoak jartzea.

²¹⁰ Lekuko 02

²¹¹ Lekuko 03

4.3.2.- *Bataioa*

Lehen, umeak jaio eta gutxira bataiatzen zituzten, batzuetan jaiotza egunean bertan, jaio eta hurrengo egunean, segidan bataiatzen zen umea, korrika. Bi egunetara gehienez. Edozein garaitan, ahal zenean; goizez edo arratsaldez. Umea sanoa ez zela edo hiltzeko arriskua izan zezakeela ikusten bazen, egun berean ere bataiatzen zen. Bataiatu gabeko umea hiltzen zenean, linbora joango zela pentsatzen zen, eta ez zerura. Leku iluna zen linboa, beldurgarria. Ume haiet Jankorik sekula ikusiko ez zutela esaten zen.

Lehen sakramentua hartu gabeko umeek, leku berezia zuten hilerrian, lur santua ez zen zatian lurperatzen zituzten bataiatu gabeko umeak eta bere buruaz beste egin zuten pertsonak, baita kristautasunean sinisten ez zutenak ere. Linboa esaten zitzaien hilerriko zati horri ere. Haurrak etxeetan edo baserrietan jaiotzen ziren orduan. Bataiatzera, noski elizara eramatzen zituzten. Haurraren aita, aitaponteko eta amaponteko eta iñudea joaten ziren elizara. Iñudea etxeko edo gehienetan auzoko emakumeren bat zaten zen. “*Amak ezintzun etxetik atea, apaizak bedeinkazioa emate zion arte. Pekatua zan hoi. Ezin det usario hoi ulertu. Izuarria iruditze zait*”²¹¹. Euskal Herrian onarpen zabalekoa zen erlijiozko ohitura horren oinarrian sineste hauxe zegoen: umea bataioaren bitartez kristau egin eta jatorrizko bekatutik garbi geratzen zen. Bataioaren ohitura bera jaiotzari lotu-loturik agertzen da.



Bataioa. Tolosa, 1935.

(Jesús Roegi)

Bataiarri edo pontean berriztaturiko jaiotzak aita pontekoaren eta amapontekoaren babesia ere badakar. Aitapontekoa eta amapontekoa haurraren bataioan jaioberria besoetan hartu behar duten gizonezko eta emakumezko dira. Ponte hitzak bataiarri esan nahi du, hain zuzen bataio-ura isurtzean ur hori hartzen duen harrizko ontzia, eta hortik dator izena. Haien betebeharrik behinena fedea agertzea izango da, Kredoa hutsik egin gabe esanez. Bataioan zehar, ama eta aita-pontekoek kredoa esaten zioten haurrari. Haurra aldreibes samarra edo bihurria ateratzen bazea, “*honi ez baitzioten kredoa ondo esan*”²¹² esaten zen.

Bataioan, santuen errezoez gain, kopeta igurztea, ura botatzea eta argi ematea izaten ziren gainerako usadioak. “*Lenengo gurutzia Anotan behintzat, elizan atzen iten zitzzion umeai. Erdi paren bigarrena ta aldarean aurren hurrena. Senidei haurra borondatz bataiatzen al zuten, kristau heziketa emateko prest ote zeuden eo izena gogo onez jartzen ote zioten galdetzen zieten*”²¹³.

Garai batean, aitapontekoaren eta amapontekoaren zeregina garrantzi handikoa zen, haiek, izan ere, besoetakoari izena emateko eskubidea izaten zuten-eta. Aitapontekoak eta amapontekoak familiakoak izaten zinen: alde batekoak eta bestekoak, bizi baziren alde bateko eta besteko familien gurasoak izaten ziren, ondoren anai-arrebak... eta berehala abisatzen zitzaien. Familia artekoa izaten zen. Esaten zenez hamalau urte baino gehiago izan behar zuten aitapontekoek eta amapontekoek elizkizunak balioa izateko. Haurdun zegoen batek ere ezin zuen ‘umea jaso’, gurasoak hilko balira aita ponteko eta amapontekoena ardura baitzen umea jasotzea.

Orokorrean, haurrari izena jartzearakoan kristau egutegiko eguneko izena izan da inspirazio iturriak nagusiena, aitonamoen nahiz birraitona-amonen izenak ere errepasatu, deboziozko santu edota santaren bat ere aintzakotzat hantu eta, izena erabakitzenean. Izen arruntak jartzen ziren, normalean familia bateko eta besteko gurasoak. Bi izen izatea normala zen: bat familia bateko aitona edo

amonarena, eta beste, beste familiakoarena. Normalean izena amapontekoak aukeratzen zuen.



Bataiatutako haurra guraso, aita ponteko eta amapontekoarekin. Anoeta, 1976.

Arratsaldeetan bataioak izaten zirenez, goizean apaizarekin egon eta aste nahiz jai izan, han bertan, eliza aurrean, 3ak eta 4ak bitartean, egoiten ziren aita ponteko eta ama pontekoak bataiatu behar zen umearekin eta bakarren bat auzoko iñudearekin ere. Bataioa eta gero, mokadu bat jaten zuten elizara gerturatuz zirenek; elizara joan zirenek arrantxa egiten zuten elizkizuna eta gero. Anoetan, Modestoenean biltzen ziren gehienetan, gainerakoan etxean jaten zuten zerbaite; saldaren bat-edo, gauza gutxi. Hor bukatzen zen ospakizuna. Egiten zen afariara, bazkaria edo afarimeriendara zortziren bat pertsona hurbiltzen ziren jaiobriarraz gain: aita, aitapontekoa, amapontekoa, eta familia hurbilekoak.

Bataiorako arropak hauek ziren: barruko arropa, eta izara bat. Hori denari heltzeko, ‘pasia’. Zinta bat izarari eta mantari eusteko tela mantilla zeharkatzen zuen; urdina mutila bazen eta arrosa neska bazen. Eta dena batzen, ‘tokila’ bat. Batzuk umeari txanoa ere jartzen zioten. Elizara ondo joaten ziren denak, jaiegunetako jantziekin. Garai hartan, tela erosten zen, felpazkoia... eta zikintzen zenean dena egosten zen, ongi garbitzeko; ondoren, uretan eragin edo akclaratu egiten zen. Ez

²¹² Lekuko 01

²¹³ Lekuko 03

zen lixibarik erabiltzen, umearen azala ez erretzeko. Soineko txuri luzea janzten zitzaien umeei eta burua txapeltxo txuri batekin estali. Senitarteko edo bizilagunen artean txandakatzen zuten jantzia, batetik bestera. “*Cure etxeen, oraindik gordeta daukagu ni bataiatzerrakoan egin zidaten arropa*”.



Haurra bataiatzeko unea. Anoeta, 1976.

Haurrak banaka bataiatzen ziren beti, bikiak ez baziren behintzat eta, aspaldi batean, aste egunetan. Gerora, bataioak igandetako elizkizunetan tartekatzen hasi ziren. “Ondo gogon det nola askotan, elizkizuna ta geo, txakur txikik ta gozuak jasotzeko zai izate ginan elizan atarin”²¹⁴

Bai jaiotza, bai bataioa bera ere, etxeko gertaerak izaten ziren. Hala ere, auzoko mutiko eta neskatoak izaten ziren jazoera horien aurrean alaitasunik handiena agetzen zutenak. Elizkizunera aita ponteko eta ama ponteko umearekin, eta iñudea edo neskatxo bat joaten ziren. Neskatxo honek kandela eta urez betetako pitxarra eramatzen zituen. Hamabost minutuko saio batekin, aita pontekoak eta amapontekoak kredea errezzatu ondoren, bukatzen zen dena. Ondoren, aita pontekoak dirua botatzen zuen elizpean edo zimiterioan: txakur handi eta txikiak, eta zilarrezko erreal txikiren

bat noizbait ere bai. Elizako atarian itxaroten egoten ziren eta aitapontekoak eta amapontekoak fruitu lehorak, gozokiak eta txaponak jaurtikitzen zizkien. Aitaren batean bukatzen zen zeremonia; hamabost minututan. Ondoren, elizpean herriko neskamutil guztiak izaten zitzuten zain, eskolatik irten berri, zenbat diru eta gozoki botako ote zuten zain. Mundua den bezalaxe, maila desberdinako bataioak, ezkontzak eta heriotzak egoten ziren; bakoitzaren poltsikoaren arabera. Hau da, bataioetan batzuk txakur handiak edo txikiak, “*beste batzuk zilarrezko errealen bat!*”²¹⁵. Eta beste batzuk denetatik botatzen zuten, gainera, gozokiak, botatzen zitzuten tartean.

‘Atsolorreta’ deitzen zitzaison auzoko andreak eta lagunak ama eta jaioberria ikustera zetozenean egunari, garaia. Haurra izan eta hamabost egun inguruko jaiegunetan ama berria ikustera joaten ziren adiskide emakumeak, txokolate, azukre, oilo edo antzeko opariren bat eramanez. Baserri giroko ohitura zen hau. Emakumeek bata berriak estreinatzeko eguna ere izaten zen. Andreak txokolatea, membriloa... ekartzen zuten, gertuko senideak oiloa ere bai, baina dirurik ez. Beste batzuk berriz, aparte etortzen ziren, eta hauek txokolatea edo dirua, bost duro edo, ekartzen zuten opari gisa. “*Ne kasun atso-lorreta bazaika egin ziaten ahaide hurbilekok, auzok ta Alkizako umetako ne launek. Oiloa eamateko ohittura izate zan bisitatzezon*”²¹⁶.

Erditzearen ondoren amaren dieta oilo-saldak, tortilak... edo porru patatek osatzen zuten. Lau bat egunean horrela. Esne asko egiteko esne asko edaten zuten. Lanean poliki-poliki hasten ziren. Lehenengo jaioberria izaten zen, gero gainontzeko guztia. Jateko: oilo salda, besterik gabe. Egun batzuetan egosítako oiloa jaten zen. Ez zela ona gehiegiz jatea eta; horrelaxe komeni zela... Gero oso ahuldua egoten ginen, sarritan mareatu eta ohera joan behar izaten genuen. Andreak oilo salda eta gizonak oiloa. Dena dela, poliki-poliki hasten ziren lanean.

‘Eliz-sartzea’ ama berriak etxetik irten eta lehen aldiz elizara joateari deitzen zitzaison. Jaiotzatik hamabost bat egun pasa eta gero, etxeko-

²¹⁴ Lekuko 02

²¹⁵ Lekuko 02

²¹⁶ Lekuko 03



Bataio ospakizun ondorengo argazkia. Anoeta. (Argindegia baseria).

andrea bizkortuta zegoen, elizan sartzeko moduan. Ez zegoen egunik: erditzetik zortzi hamar egun-pasa ondoren izaten zen eliz-sartzea. Beharrezko zen bedeinkazioa kalean ibiltzeko. Umea bera ere ezin zen kalera atera. Parrokoari abisatzen zitzaion noiz joango zen ama; bedeinkazio hauek arratsaldeetan egiten zirelako. “*Hiruretan izaten zen normalen. Ta jute ginen: umia, ne ama ta ni (umearen ama). Atzealdeko eliza sarrerako elizpera, dotriñeta deitzeieun lekuak ateatze zan parrokua. Gu, berri, belauniko eskailera barrenen. Apaiza estolakin irteten zan, guk musu eman, otoitzta egin ta kito! Ez genun horren truke eze ematen, ez eze ordaintzen*”²¹⁷. Zortzi bat egun pasa eta gero, iñudea ondon gerula eta amak kandela, elizara joaten zinen. “*Gure aurreko zaharrak buruan teila bat zutela joaten zirela elizara ere esaten zen. Apaizaren estola hartuta sartzen ginen goiko sarerratik elizara, atzetzik iñudea, ama berriaren ama edo etxekoia izaten zena-, umea eta norbera –umearen ama-. Ondoren apai-zari etxeko generoa ematen zitzaion: ogia, sagarra, ardo goxoa...*”²¹⁸

Apaizari aurretik abisatuta, eta umea txukun jantzita, serora edo besteren baten laguntzaz, eliza aurrera joaten zen ama berria. Elizaren atzealdeko atean zain, beste batzuk aurreko atetik sartzen ziren,

apaiza egoten zen, estolarekin jantzita. Sarrerako harmailetan ama belauniko jarri, estolari heldu, eta latinez ulertzen ez zen otoitz batekin sartzen zen elizan. Musu eman estolari eta elizkizuna bukatzen zen. Eta ohiturak halaxe zirenez, erretoreari ordain-saria eman behar izaten zitzaion; bakoitzak ahal zuena; ez zuenak, bada, ezer ez. Dena dela, baserritarrek, oilo, arrautza... edo gaztaren bat beti zeukaten eskaintzeko.

Haurra izan ondoren ama berriak eliz-sartzea egin baino lehen etxe ingurura atera behar zuenean teila buruan zuela egin ohi zuen, etxetik irten gabe zegoela adierazteko. Aurretik, amari ur bila-edo, kalera atera beharra sortzen bazitzaion, teila bat buruan jarrita egiten zuen. “*Gue aurreko emakume guztik betetzen zuen usario hua, pekaturen konsekuentzin beldur baitzian, gue garaiako galdu zan baño*”²¹⁹. Ohitura hori kandelero egunetik zetorren. Ama Birjinak eliz-sartzea edo presentazioa egin zuela esaten zen.

“*Elizan sartzeko kontua ez pentatsu brometakoa zala. Gure antzina-ko emakume gaixoak, etxeak geldik lan egin gabe ezin egon-eta, buruan teila bat jarrita irteten zian kanpoa*”. Honekin adierazi nahi izaten zuten etxeak jarraitzen zutela, eta elizan santu aurretik etxetik ez zirela ateratzen.

Baina beste batzuentzat, ohitura honen esanahia beste bat zen: emakumea teila bat buruan zuela ateratzen zen etxetik. Medikuaren agindua betetzeko, ezin zirela teilapetik irten, etxetik ez alde egiteko esanahi horrekin, agindu hori betetzen zuten teila bat buruan jarri.



San Joan elizako ponte-harria. Anoeta, 2008.

²¹⁷ Lekuko 03

²¹⁸ Lekuko 01

²¹⁹ Lekuko 03

Hurrengo umea ekartzeko denbora dela-eta umeak zetozenean hartu behar; ondo etortzea besterik ez omen zuten eskatzen. Ez zitzaison beste ezeri begiratzen. Ez zegoen inolako metodorik. Hala ere, “herrian baldin bazegoen andreren bat ume bakar batekin guk inbidea handia izaten genun, eta nola egingo ote du bada horrek” esaten omen zioten elkarri.

4.3.3.- Haurtzaroa

Haurtzaroan, hasiera-hasieratik, umea amari lotuta egoten zen; haurra besoetakoa zen eta amak bularra emanez elikatzen zuen. Edoskitzaroak edo bularra emateak bi urte iraun ohi zuen, eta gehiago luza zitekeen egoera horrek haurdunaldi berriak sahesten zituela uste zuten-eta. Haurdun geratuz gero, bular ematea eten egiten zuen amak emakume haudunaren esnea ona ez zelakoan.

“*Ordun miseria besteik ez zeon*” eta urtebetetzerik ez zen ospatzentz; ez zen ezer oparitzen. Umeak lepoan hartuta, manta batekin estalita paseatzen ziren; eta beste umeren bat baldin bazen, “hua atzetik etortze zan, oinez baldin bazekien behiñipin”. “Basarritik kalea jeisteko asto-saskitan eamaten zian. Gue umek kajan sartu ta arrastaka ibilitakok dia. Umeak orduan nunahi lurrean ibiltze zian, lurren barrena”²²⁰.

Hazkuntzak zekarren zama arintzeko, amarekin batera senitarteko beste emakumeek parte hartzen zuten haurra zaintzeko lanean eta, sarritan, auzoko haurtzain gazte batek ere, iñudeak. Horrela, azken honek, emakumeari zegozkion zereginetan hasteko aukera izaten zuen.

Lehenengo txantxurrak, haurraren lehen haginak, sasoi berri baten hasiera adierazten zuten. Hortzen etorrerak burukomin asko ematen zituen lehen, orain bezala. Askotan irten ezinda, orduan titarea izaten zen teknikarik ohikoena oiak zulatzeko: hartu titara, sartu behatzean... eta igurtzi oietan. Beste batzuk ahorako zerbait latza emanet errazten zuten etorrera. Bainha hortza gorputzeko atal sakratua omen zenez, ezin zen gurutze santua egin gabe bota eta “Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izanean, amen” esan gabe.



Haurra amonaren besapean. Anoeta, 1979.

Lurrean barrena, katamaran ibiliaz, zutik jartzeko ahaleginak egiten zituen umeak, “han edo hemen zegoen aulkiren bat harrapatu nahian”. Sukaldean aulkia inguruan jartzeak ere laguntzen zion umeari, lehendabiziko urratsak batetik bestera emateko garaien. Hala ere, lehendabiziko urratsak amak besapetik sartutako eta eutsitako zapi batez egiten zituen.

Umearen elikatzeko ohiturak aldatu egiten ziren eta ibiltzen eta hitz egiten hasten zen. Bakarrik emandako urratsak eta esandako lehenengo hitzak pozaren eta alaitasunaren iturri izaten ziren etxeileen

²²⁰ Lekuko 03

artean. Haurraren hastapen eta aurrerabide guztiekin zaintzaileak jolasera bultzatzen zituzten. Sasoi honek esne-haginak eduki bitartean irauten zuen. Haurra hitz egiteko arazoekin bazetorren edo mutua bazein ‘eskalearen ogia’ ona zela esaten zen.

Haginak sei edo zazpi urterekin erortzen zitzakien haurrei eta horrekin batera zentzuduna izenezko adin-maila berria hasten zen. Sasoi honi zegokion jarduera nagusia taldekako jokoa izaten zen. Adin horretatik aurrera jokorik gehienetan sexuen arteko banaketa ezartzen zen. Jolas jardueraren osagarri, urteek aurrera egin ahala areagotuz zihoa eskola jarduera agertzen zen.

Lehenbiziko urteak “amaren gonapean” pasa eta gero, haurra politiki-poliki autonomia irabazten hasten zen. Gero, zenbait ekintzak sozializazioari ekiten zion, eta horretarako baliabide bezala jolas eta eskola erabiltzen zituen haurrak. Legez, irakaskuntza derrigorrezkoa zen 14 urtera arte.

Sei edo zazpi urterekin sartzen zen eskolan haurra, eta eta hamalau urte bete arte aritmetika, ‘dictado’, geografia pixka bat, ... eta otoitzaldiak eginez joaten zitzakien egunak mutilei; neskak ordea, arratsaldean arreoa prestatzeko ‘laboreak’ egiten zituzten, mutil eta neska elkarrekin aritzen ziren Anoetan. Hamalau urte



Eskola-umeak. Anoeta.

(Agirre baserria)

egin eta gero, eskola bukatzera iritsiz gero behinik behin, jende askok bide erdian uzten baitzuen eskola, bukatzen ziren ikasketak.

Aurrera jarraitza ezinezkoa zen, aukera hori herriko dirudunek bakarrik izaten zuten. Zortzi eta erdiak inguruan hasi eta hamaikak eta erdiak ingurura arte, izaten zen goiz aldeko eskola; arratsaldeko, berriz, ordu bietan hasi eta laurak eta erdiak bitartean. Osteguna arratsaldez jai egiten zuten Anoetan eta larunbata eskola goiza eta arratsaldez. Material urriarekin letrak eta zenbakiak identifikatzen zituzten.

Eskola egun bati dagokionez, goizeko bederatzietan sartzen ziren. Oso puntualak izaten omen ziren umeak, nahiz eta baserrietatik etorri. Eskolak hasteko otoitzaldia egiten zen, Aitagunea errezatuaz. Hori eta gero, klaseak hasteko lehendabizi aurreko egunean etxerako emandako lanak errebisatzen ziren 'debereak'. Batzueta banaka edo denak batera, zer kalifikatu nahi zenaren arabera. "Geo, tema berriezin hasten ginan, ze egun zan, ba, horren arabera konpazio batea, astelena lengua, geografia... Hurrengo egunen, berriz, matematika... Hamaika t'erdik arte". Ondoren doktrina. Bazkaltzera joateko ordua. Errekrea hamar t'erdietan izaten zen, ordu erdikoa.



(Anoetako Udal Artxiboa)

Eskola-umeak. Anoeta, 1953.

Materiala oso pobrea; irakurtzeko liburu batzuk, mapa zahar batzuk... Inteera batzuk ere egiten ziren. Ebaluazioa ez zen derrigorrezkoa. Baino, dena dela, hilero, ezagutza eta jarrenen kalifikazio bat egiten zen, puntu batzuk emanez.

Gau-eskolak ere baziren. Hasiera batean ez... baina gero antolatu zuten eta kaletarrok nahiz baserritarrok etortzen ziren. Hemen ere denetik egiten zen; ortografia, irakurri... eta arreoa prestatu laboreak eginez.

Eskolak Udaletxe zaharreko 2. solairuan ematen ziren, neskak eta mutilak denak batera. Gerora Don Dionisio Telleria apaizaren ekimenez Udaletxeari hirugarren solairua altzatzeko baliabideak lortu ziren. Hirugarrenean maisua bizi izan zen. 1952an berri, 'Eskola Nazionalak' inauguratu ziren, hartara Luis Carrero Blanco

almirantea, aldi hartan Hezkuntza Ministroa zena hartan etorri zen. Inauguratzeta eta bedeinkazio ekitaldian Ministro honi dantzosa dantzatu zitzzion.

Gela hartan sartuta, ondokoa ikusten omen zen: "aurrealdean, paren, guutzea, kalenda bat ta Francon retratua zeuden. Mahaiak oso haundik bi jartzeko bezela ta kajoi gabe armairuren bat liburuekin ta apal batzuk, eta kalefazio bat; lendabizi egurraz ta geo zerrautsaz ibiltze zana".

Gerra ostean 'eratzunaren zigorra' oso zabaldua izan bazeen ere han eta hemen, herrian ez zuten halakorik ezagutu. Irakasleak Falanjekoak ziren eta oso gogorrak baino ez zuten horrelakorik egin. Tartean bakarren bate re Margarita zen, hau da Falanjearen emakumeen elkarteko militantea.



Eskola-umeak. Anoeta.

Goizero-goizero, 11:30ean dotrina izaten zuten ikasleek. Elizako atzeko partean edo ‘dotriñeta’ izenekoan elkartzen ziren. On Dionisio Telleria apaizak irakasten zien katekesia, besteari beste “*La Historia de la Sagrada Escritura*”, Jesusen jaiotza, pasioa.... Doktrina ebanjelioak bezala euskaraz irakasten zen, eta 12:30 arte aritzen ziren.

4.3.4.- Jaunartzea

Haurtzaroa bukatzean, Lehenengo Jaunartzea edo Komunioa ospatzen zen. Bi jaunartze egiten ziren: txikia, zazpi urterekin, eta edozein eran jantzita egiten zena, eta bestea, handia, 10 urterekin.

Doktrina, goizeko eskola saioaren ondoren eman ohi zen, 11:30etatik 13:00etara, egunero, Anoetako Elizako ‘doktrinetan’, “*Don Dionisio Telleriak estu hartze ginun ta gainea segmentu haundiak iten ziun gue sineskera ta elizara juten ote ginen o ez. Jaieko meza nausin irakurritako ebanjelioko pasadizon ingurun galderak iten zizkiun asten zehar katekesin*”²²¹. Doktrina, Anoetan, euskara hutsez ematen zen. Egunero goizeko 7:30etan eta iganderoko 10:00etan meza nagusia ere euskaraz ematen ziren bezalaxe. Seizazpi urte betetzean, komunio txikia egiten zuten gaztetxoek. Sakramentu hori apaizaren eskutik jasotzen zuten. Horretarako ordez, dotrinara joan behar izaten zuten eta otoitz guztiak ondo baino hobeto ikasi: Aita gurea, kredea, salbea, mandamentuak... den dena ondo ikasi behar omen zen. Errezo horiek guztiak ondo jasotzen omen zituzten hain gaztetxotan ere, entzutearen poderioz, besterik ez bazen ere.

Komuni txikia eta handiaren artean bazegoen gainditu beharreko tartea, txikia egin ahal izateko orazioak ikasi behar baziren, handia egiteko dotrina ikasi behar zen. Apaizak galderak egiten zituen eta gazteek erantzuten ez bazekiten, ez zuten komunio handia egiterik izaten. Lekukotza emaile batek ondo gogoan du anoetar gazte baten kasua: “*Anoetan mutilen bat geratu zan komunio handik in gabe, apaizan aurren, dotrinako galderak kontestatzen jakin ez zulako*”²²².



Jaunartzeko argazkia.

Kasu horietan hurrengo urtera arte komuniorik egin gabe geratzen ziren gazteak. Lehenengoari baino, askoz ere garrantzia handiagoa ematen zitzaien bigarren komunioari. “*Hamabi urtekin bazeñekin zertara joan zinen elizara. Zazpi urtekin, berriz, dotrina buruz ikasiko zenun, baño entenditzu gabe. Komunio haundiako, esate zenuna jakin gainen zenekan*”²²³.

²²¹ Lekuko 03

²²² Lekuko 01

²²³ Lekuko 03

Horretarako aurretik ondoko errezoak ikasita egon behar ziren: Kredoa, Gurutze-Santua, Aita-Gunea, Agur Maria, Gloria, Salbea,... “*Ez da zazpi urte azkarregi doktrina ikasteko?*”. Ordurako doktrina ikasita egoten ziren. Ikasi etxean egiten zen norberak ikasi eta gero, apaizak predikatu ondoren, galderak egiten zituen, “*gure aita zanak makina bat arto zuritu zitun gui atta guria eakusten ai zala, han aitze zan arta-zuiketan*”²²⁴.

Komunio txikiko egunari zegokionez, “*goatzen naiz nola ostiral baten, goizeko zazpi ta erditako mezeta jun ginen-ta, gaineako herritarrekin batea, Jauna nola hartu genun. Handik eskola. Gerra pasatako urtek zian ta etxe gehienetan ez geneukan aukera haundik. Guk kalez jantzita egin genun komunio txikia baino, gure urte berian, txuriz jantzita, Anoetako elizan jaunartzea in zunik'e izan, bazan*”²²⁵. Jaunartzeak Aste Santua eta gero, maiatzean izaten ziren.

Gerrak mugatutako urte haitetan, jaunartzea kolorez jantzita egiten bazuten ere, aurretik eta ondoren, aingeruz janzen ziren, oro har, neskak. “*Jaunartzia in ta geo, maiatzan jaiero aingeruz janzte ginan. Ama Birjinai erramiletak ofrezitze genizkion*”. Komunioa egiteko

txuriz janzen zirenean, soineko txuri luzea eta buruan tula eraman zuten. Errosario txuria eta hezurrezko azala zuen liburu txikia gordetzeko, patrika txiki libre bat izaten zuten “*oso polita*”. Eskularru txuriak ere ez zitzaiak falta. Mutilek galtza motzak edo luzeak, txaketa eta kasu askotan, korbata izaten zuten soinean, “*ahal zan bezelako trajia jazten ginun*”. Gainerakoan, eskuan gurutzea izaten zuten eta besoa lazo handi batekin egindako besokoa. Komunioko kopa eta kaliza zituen grabatuta besoko hark. Mutilek ere, hezurrezko azala etaurrezko hizkiak zituen liburuxka eramatzen zuten eskuan.

Ohitura honetan parte hartzeko erabiltzen den janzkeria aldatuz joan da. XX. mendearren hirugarren hamarkadatik aurrera nesken artean andregaien gisako soineko eta belo zuriak zabaldu dira; mutilen artean, berriz, marinela eta almiranteen jantzi dotoreak. Hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan eliz agintariak janzkerari loturiko gehiegizko gastu hori geldiarazten saiatu ziren. Guztientzat berdina, edo kale-arroparekin egiten hasi zen. Esperientzia horrek ez zuen arrakasta handirik izan, eta berriro ere soineko zuriak agertu dira edo familia bakoitzak askatasun osoz jokatzen du.



(Argindegia baserria)

Lehen jaunartzeko argazkia.
Anoeta, 1971.

²²⁴ Lekuko 03

²²⁵ Lekuko 06

Komunioa hartu aurretik, aitortza egitea ezinbestekoa zen. “Konfisionariora jute ginan ta gue gaixtakeri kontuk esate genizkion apaizai: amari alde egin izana, txanpon txiki batzuk edo txokolate puxka bat hartu izana... izaten zen zer-konfesatua, bai hoixe!. Don Dionisio majina bat mutilen etxea’re juna zan hiaeik konfesatzea ekartzea. Ordun, konfesatu’be ez baitzeon komunioa iteik. Abusatu iten zuten askok”²²⁶. Behin jaunartzea egin eta gero, astero-astero joan behar zen konfesatzeria.

Komuniorako jantziak utzitakoak izaten ziren gehienetan, bai nesken nahiz mutilen kasuan. “Soineko prestatukin in nun komunio handia” Mutilek ere, prestatutako jantziekin egiten zuten batek baino gehiagok jaunartzea: “komuniorako traje beltza in ziaten nei”. Guzti-guztiekin ez zuten komunioko argazkia ateratzeko aukerarik izan.

Komunioa hartzera binaka joaten ziren, mutilak mutilekin eta neskak neskekin, aldare ondora joaten zinen aulkietatik altxata. Bi alderdietan aulkiak jartzen zituzten jaunartzea egin behar zuten gazteak eser zitezken. Mutilak alde batean esertzen ziren, neskak bestean. Txikienak aurrean, altuagoak atzean.

Jauna hartzeko hainbat baldintza bete behar zen, besteak beste, baraualdia egitea. “Aurpegia garbitzeko beldurrez ibiltzen ginen.

Ttantaren bat ahoan sartuz gero, akaso ezingo genuen komunioa hartu. Izan ere, baraurik joan behar zen elizara, ur ttanttarik ere hartu gabe. Ohitura hori kendu zutenetik ez dira hainbeste urte pasa, ez pentsa!”²²⁷. Baraua egiteaz gain, baziren baldintza gehiago ere, osti santua ezin zen hortzekin ukitu. Mingaina atera eta gainean jartzen zuten komunioa. Pixkanaka-pixkanaka tragatu egin behar zen. Lehen komunioan erakusten zuten hori guztia, aurrelik ordea, bedeinkatu gabeko ostiarekin egiten zitzuten frogak. Beldurra eta errespetu handia sortzen omen zieten hanka sartzeak. Neskek ezin zuten burua agerian izan komunioa hartzeko garaian, “mantillekin juten ginan jaunartzea. Atzea samar jarri gero, aurrera ekarrazten ginuzten. Kopetan erdi pare-raino atzeratzea geneukam gehienez ere mantilla”²²⁸. Emakumea, elizkizuna edozein zela ere, behartuta zegoen elizara mantillarekin sartzen.

Komunioa goizeko zapta eta erditan egitea ez zen gauza arraroa. Izan ere, jaiegunez nahiz lanegunez, goizeko zapta eta erdietako mezetan ematen zen Jauna. Meza nagusian, jende gehiegi elkartzen zenez, goiztiar ibili behar zen, beraz, komunioa hartu nahi bazen.

Ez zen bazkaririk eta erregalurik egiten, nahiz eta lekukotza emandako batek ondokoak jaso: “Erregaluak aita eta ama pontekoak; normalean dirua. Nei, izeba-osabek garai hartan, 15 pezta balio zun poltsikoko erlojua erregalatu ziaten”²²⁹.



(Zahala Bernarras familia)

Lehen jaunartzeko argazkia. Anoeta, 1968.

²²⁶ Lekuko 02

²²⁷ Lekuko 03

²²⁸ Lekuko 03

²²⁹ Lekuko 02

4.2.5.- Sendotza

Garai harten, sendotza jaunartzearen aurretik egiten zen kasu askotan. Beste batzuetan ordea, jaunartza eta gero. Gotzaina herrira etortzen zenean, adinari gehiegi begiratu gabe ematen zitzaien hau-rei eta gazteei sakramentua hori. *“Ama zanak esate zunez, nik hiru bat hilabete nituenen hartu nun konfirmazioa. Hurrengo txanda igual hamar urte beandugo izango zen, ta, multzo handia elkartzen zen oispua Vitoritik etortzen zen bakoitzen”*. Garai harten Gipuzkoako elizak Gasteizko gotzainaren elizbarrutiari zegozkion, gotzaina Matías Mujika goierritarra zen, 1936ko gerran pertsonaia esanguratsua izan zena hain zuen ere.

“Nire anaia ere txikitán eraman zuten. Nik sei urterekin hartzun sendotza, udaberria zan”. Hainbat ume, gazte-gaztetan era-maten zuten sendotza egitera, zertara zihoazen konturatzeko adinik ez zuten garaian, *“goizago edo geroago, sendotza egin behar zen eta kito. Sei hilabeterkin, bost urterekin edo beranduenez, hamar-hamabi urterekin egiten zen. Egokitzen zenean”*. Eta zertan oinarritzen zen? *“hartzera gindoazen sakramentu har-tan sinesten al genuen galdetzen zigun obispoka. Masaileko txiki bat ematen zigun gero”*²³⁰. Erantzuteko adinik bazuten, baiezkoia esaten zuten, *“ez zegoen beste erremediorik”*. Gainera, mezak latinez izaten ziren orduan, *“ez genuen ezer ere entenditzen. Ez geniekien apaizak zer zioen ere”*²³¹. Sendotzaren aurretik, nagusi-enak konfesatu egiten ziren. Pekatu txikiak apaizari azaltzen zizkioten. Konfirmaziorako, kaleko arroparekin joaten ziren jantzita, normal-normal. Ezer berezirik gabe. Sakramentua hartzeta eta segidan eskolara!.

Garai zaharretatik hirurogeita hamarreko hamarkadara arte ez zegoen sendotza edo konfirmazioa hartzeko adin jakinik. Apezpikuek baino ezin zutenez sakramentu hori ezarri, herri-teria aldiar-aldiaren egin ohi zituzten bisitaldiak aprobetxatuz hartzten zuten gazteek sakramentu hura. Gure inkestetan, haurrak eta gazteak, jaioberriak eta helduak, nahastuta, denak batera agertu dira sakramentua hartzeko garaian.

Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren, Sendotzari beste ezaugarri batzuk eman nahi izan zitzaitzion eta 16-18 urteko gazteen sasoia jo zen egokientzat sakramentua hartzeko, aldez aurretik presta-kuntza sakon, serio eta luzean eginez. Horregatik dira gutxiago Sendotza aitortu eta dutenak bataiatutako edo Lehenengo Jaunartza hartutako ikusian. Gaur egungo joera indartzen bada, nerabezariotik gaztarorako aldaketan ezarritako ohituratzat hartuko du gizarteak.

4.3.6.- Nerabezaroa

Nerabezaroan, neska-nautilak haurtzaroko jolasak apurka-apurka alde batera utzi eta hamasei-hamazazpi urteko neska-mutil egin arte haziz joango ziren. Gaztaroari dagokion adin-tarte hau luzatzen da ‘sasoiko’ neska-mutil egin arte.

Gaztaroan sartzean janzkera eta orrazkera bera ere aldatu egin ohi zuten gazteek. Garai hartantxe hasten ziren mutilak galtza luzeak janzten eta neskak mototxen edo txirkorden ordez ile luzea uzten. Baliabideak zituzten etxeetan, alabak soineko luzea janzten zuen eguna, egun handia zen.



(Agirre Olano familia)

Anoetako nerabeak dantzak egin ondoren. Anoeta.

²³⁰ Lekuko 02

²³¹ Lekuko 03

Sasoi honetan eskola utzi eta lanean hasten ziren mutilak, morroi edo lanbideren batean ikasle. Neskek etxeko zereginei ekiten zieten XX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik hona ikasten ematen duten aldia erabat luzatu da orokorrean bai neskentzat bai eta mutilentzat ere. Horregatik, gaur egun karrera edo lanbidea ikasten ematen duten aldia jozen dugu gaztaroaren amaieratzat.

Anoetan ere joera handia egon zen gazteak herrian taldeka biltzeko, eta talde haiei zuzendutako ekintzak antolatzeko. Batez ere dantzaldiak eta eta herriko jaiak antolatzearren ardura hartzen zuten. Gazteek eratutako jaialdiak eta ekintzak batez ere San Juanetan, ekainean egiten zituzten. Aurreko atalean ikusi bezala neskak ‘Mariaren Alabak’ kofradiakoak izaten ziren gehienbat eta mutilak ‘Luistarrak’ harik eta ezkondu arte.

Oraindik gazte zirela, mutilek soldadutza egitera joan behar izan zuten, ordura arte betiko bizileku izandakotik urrutti, denbora luze

samarrerako gainera. Bizitzako beste aro baterako aldaketa ekariko zien soldadugora joan behar horrek.



(Argindegi baserritua)

Anoeta.



(Erausia baserritua)

Soldadutza garaiko argazkia.

Gaztaroaren beste ezaugarrietako bat maitasun kontuetan hastearrena zen: erondak eta neska-mutilen arteko lehen harremanak, jaiak eta dantzaldiak bi sexuetako gazteek elkar bat egiteko gune aproposak izaten ziren, batez ere Ernioko erromeria edo Alkizako festak ziren ezagunenak gazte anoetarren artean.

Aurreko mende hasierako hamarkadetan eguneroko zereginetik, taldean egiten zitzuten lanek eta urtaro bakoitzaren amaierako zereginetik elkar ikusteko aukera ematen zieten gazteei; elizako ospakizunen irteera ere aproposa zen horretarako. Baino bat egiteko, erlazionatzeko eta harremanak hasteko unerik aproposena

igandeetako dantzaldia zen. Hara joan ohi ziren gazte guztiek jantzirik dotoreenekin, auzoko herrietako jaietara eta erromerietara joaten ziren modu-moduan.

Neska-mutilak elizaren zimiterioan geratzen ziren. *“Barandazalapartaka hor erortzen ziren neskei lagunduz, han ibiltzen ginen, neskak zirikatuz baina Don Dionisio ez zegoeneta bakarrik, ez zen giro gero!. Gerezi denboran igandetan bezperak izaten ziren eta gereziak biltzera Sarobera eta Ipintzara joaten ginen. Abemarietarako etxera. Abemaritan soinua ere gelditu egiten zen”*²³².



Anoeta.

²³² Lekuko 02

(Agerre baserritako

4.3.7.- Ezkongaiak

Aspaldi igandeko paseoaldi, dantzaldi eta erromerietan baino ez zuten izaten neska-mutilek elkar ikusteko aukera. “*Ez ginun beste tarteik bakarrik eoteko*”. Gaur egun maitasun harreman batie hasiera emateko burubidea bai mutilarenare bai neskarenare izan daiteke. Lehen, lehenengo urratsa mutilak eman ohi zuen, zuzen-zuzenean jakinaraziz neskari edo haren inguruan ibiliz, sukalde-kontuetarako zuen trebeziaz jakinmina erakutsiz estate baterako. Lagunarengana ere jotzen omen zuten, edo senitarteko edo zeregin horretan adituak zirenengana ere bai, ezkontzaginarengana hain zuzen, neskak mutilekin elkartzeko trebeak ziren haien benetan. “*Nei gaur dan eunen nee andria danak Ernioko erromerian painelu bat eskaini zian; hori, zitun pretendienteen arten ni nahi nindunan seinale zan, holakoxe kontuk, eh...*”²³³.

Normalean herrikoak herritarrekin hasten ziren. Bainan kanpotik ere jendea etortzen zen erromerietara; edo bertakoak kanpora joan. Orduan beste bikote batzuk sortzen ziren. Asteasuko neskek oso fama ona omen zuten, Anoetako festa egunean zetozenean, Anoetako mutilak prakak galtzen ibiltzen omen ziren haien atzetik. Eta zer esanik ez Ernioko erromerian! Dena dela, euskalduna ez zenarekin ezkontzea ez zen ongi ikusten. Era berean, sasoia batean gaizki ikusita zegoen senitartekoena ezkontza; ez zen gomendatzeten.

Dantza eskatu eta kalabazak jasotzea oso normala omen zen, elkarrizketatutako gizonezkoen hitzetan. Nahiz eta batzuk txikito batzuk behar izan, eskatu aurretik ezetza beti duzula, hor joaten ziren gazte bikoteak neskak bikoteei dantza eskatzeria. Erantzunaren arabera, alaitasuna eta tristura. Neskek neskekin ibiltzen omen ziren, eta mutilak etortzen ziren haiei dantza eskatzeria edo ‘faborea eskatzeria’ eta hauek sarritan kalabazak ematen ibiltzen omen ziren.

Konfiantza gehiago lortuta, etxera neska laguntzea izaten zen hurrengo lana. Orduan, ausardiaren arabera, mutilak neskei lepoan eskuak

ipiniz, etxeko bidea egiten zen eta halaxe jakitzen zuten gurasoek zein etxetakoak ziren, bere alabarri etxera lagundu zion mutil hori. Batzueta, bada, poza eta beste batzuetan, berriz, isiltasuna.



(Agiere baserria)

Anoeta.

Festetan neska-laguntzera joan ohi ziren mutilak; hau da, neskari jaiotetxera laguntzen zieten. “*A ze abenturak haik!, neskai etxea laundi, gero ilunetan itzuli behar-ta; bestean zakur ikiarri bat bidea atera-eta.... Ondo gogoan det nola batean ni Goiballarara neska-launtzera eta etxekonekuak ta neska beraren anai zaharrena niri harrika*”. “*Ni eta nire emaztea Ernioko erromeriara batean ezagutu-takoak gara, Anoetako pareja asko bezala. Hango dantza-saio batean painelu eman zidan, zuri-zuria. Garai hartan pretendiente asko zituen baina paineluaren niri esperantzak emateko modua zen. Hurrengo erromerian keinu egin zidan, begia itxitia, eta ni gustura asko bueltan etxera. Gero hasi ginen elkarrekin ateratzen*”²³⁴.

Fama handia omen zuten Alkizako neskek. Alkizako jendeak joera handia zuen Anoetara jaisteko, “*garai hartan herribide ziztrin bat zan, oaingo bidea ondo gerotzikakua da, ta eosotasunatik-eo hango neskak Anota beira egoten zian. Bikote asko osatu da alkizarren eta anotarren artean eta Alkizako gazteak Anoetara bizitzera eterriak ere asko dira*”²³⁵.

²³³ Lekuko 02

²³⁴ Lekuko 02

²³⁵ Lekuko 02

Balerik ez zen izaten Anoetan. Garai hartan erromerietan Tarragona, Isidro Larrañaga, Beloki... izaten ziren, hasieran bakarka aritzen baziaren ere gero konjuntoa atera zuten. Elgeta soinujolea ere Alkizara askotan etorria omen zen. Betsolarien saioak, Uztapiderenak eta Basarrirenak... beranduagokoak omen dira.

Mendearen erdialdetik hona ohitura hori aldatuz joan da eta elkar ikusteko aukera erabat ugaritu da. Neska eta mutil eskolan elkarrekin aritzea, emakumeak soldatapeko lanetan behar egiten hastea eta abar mesedegarri izan dira sexuen arteko harremanak ugaritzeko. Halere, dantzaldiak izan dira urte luzez neska-mutilek bilgune nagusiak. Gerora, aisialdiari eskainitako tartea handitzean, neska-mutilek batera egoteko aukera gero eta zabalagoa izan dute.

Gaur egun tabernak eta diskotekak dira gazteen bilgune. Ordutegia ere atzeratu egin da: lehen arratsalde-iluntzeetan biltzen ziren eta



Anoeta.

²³⁶ Lekuko 02

²³⁷ Lekuko 03

²³⁸ Lekuko 02

orain gau-goizaldeetan. Asteburuetan ia ohikoa da gaueko jaigiroa eguzkiak argi egiten hasi arte luzatzea. Gua parrandan emateari gau-pasa esaten zaio.

Nerabezaroa ekintza sozialekin hasteko garaia zela esan daiteke. Sozializazio horren praktika, erromeria, dantza garaia izaten zen, nerabezaroaren benetako ‘sarbide errito’ bihurtuz, batez ere emakumeena, non orrazkerak, janzkerak, dantza erraztasunak... mutilak erakartzeko sinbolo bihurtzen ziren. Erakarri esan nahi da, dantza kontuetan gizonezkoa alde batera ibiltzen baitzen, erronda egiten.

“Gu plazan elkartzen ginengin normalen”, eta inguruetaiko erromerietara joateko ohitura zegoen, Erniokora, Hernialdera, Alkizara... “Garai hartan Alkizarako joera haundiagenean, hango emakumek Anota beira eoten zian, kamioa’re txarra zan aldi harten ta Anoeta beraientzat difereentea zan. Hola Alkizako emakume asko ezkondu zian Anota”²³⁶.

Hori bai, ai-marietarako edo inorralerrarako etxera. “Garai hartan errespetu handia genien gurasoei eta zintzo-demonio etxera!”.

“Garai hartan ni pretenditzen Alkizako etxe oneko maiorazko bat ibiltzen zan, eo, atzo bertan ikusi nun gainea Tolosako asteleheneko perin. Baina epela ziero. Halako baten hala esan nion, gogondet, eh, hainbeste inconsistentzi ta geo, ezertako balio eztun gauzak etxen mantentzeko nahikua nitula etxeko trapuzaharrak, ta ospak, orratio, enula eze jakin nahi beakin, ospak!!”²³⁷

Ezingo dugu ukatu garai hartan amodioa izan zela erreminta onenetakoa harremanak hasteko. Basoerdi batzuk beti laguntzen zuen ideiak argiago izateko eta ausardia pizteko. Beraz, ardo batzuk edanda deklaratzen zen jende asko. Izañ ere, mutilak izaten ziren beti lehen urratsak ematen zituztenak. Neska asko, berriz mutilen bat gustatu eta isilik egoten omen ziren. Isiltasun estrategikoak suertatzen omen ziren, beraz, lehendabiziko harremanetan; hau da, mutila hurbildu, zerbaite esan, neskarekin dantzana hasi; hurrengo dantzaldi batean ere berdin... eta horrela harremana hasten zen. Hala ere, batzuetan, lagunen baten laguntzaz edo abisuren bat eman ondoren, bikoteak osatzen ziren; baina hori ez zen izaten normalena. Batzuetan familiak berak bideratzen zuen harremana.

Lagunak baino zertxobait gehiago ziren bikote berriak elkartzeko ohitura zegoen plazan, edo lotura handiagoa baldin bazegoen etxe aurrean ere bai. Ez zegoen ohiturak astegunean elkartzeko. Elkarto ondoren, kontzejura edo joaten zen jendea. Kafesne bat hartu, eta tertulia txiki bat egin ondoren, dantza ordua noiz etorriko zain egoten ziren. Harreman horretan hitza zen nagusia eta ez kontaktu fisikoa. Elkarri eskua eman ere ezin zuten egin; gaizki ikusita omen zegoen. “Dena dela, zintzo ibili behar izaten zen. Lehen, “zerua edo infernua besterik ez zegoen. Beraz, kontuz ibili beharra egoten zen”²³⁸. Ukitu ezin hori orokorra zen, eta zerbaite egin nahi izanez gero, “debekatutako” lekuetan izan behar, Don Dionisio apaizaren gandik ihesi ibiltzen omen ziren garai hartako anoetarrak.

Behin harremanetan hasiz gero, bikotearekin kalean paseatzeko askatasuna egoten zen; baina beti kontuz izanda eskuak non jartzen ziren ‘debrazete’ pentsatu ere ez!, “Gutxi gozten ilunpen ibiltzia, aimaritako etxeal!” Hori gutxi balitz, elizak esaten zuena ere gogoratu beharra egoten zen, zeren bekatuak aitortzerakoan Don Dionisioren klasikoa omen zen “pentsamendu txarrik izan ote zenun”²³⁹ galdeztzea.

Mutilzaharrak txikiteoan eta neskazaharrak paseatzen; hori zen, jaiegunetan behinik behin, ikusiena zena. Aukera handirik ez zegoelako, nahi ez zutelako edo proposatutakoa gustatzen ez zitzaelako, ezkondu gabe gelditzen zirenak asko izaten ziren.

Mutilak inoiz ez, baina neskazaharrak behin adin batetik aurrera paseatzen ibiltzen ziren; dantzan ez. Gainera, mutil eta neska asko kanpora ere joaten zen lanera: neskak tabernaren batera, etxeren batera edo umeren bat zaintzera joaten ziren; eta mutilak, berriz, morroi. Orduan bada jendeak aukera gutxiago izaten zuen ezkontzeko. Hala ere, herrian ez bazegoen aukerarik, zeudenak gustukoak ez zirelako-edo, kanpora, Tolosara batez ere, joateko ohitura zegoen. Neska eta mutilzaharrei adarra jotszeko ohitura ere bazegoen, baina beti brometan.

Bikotea kalean bakarrik ibiltzen hasten zenean, beraien arteko harremana sendoa zela ulertzen zuten bai bataren eta bestearen senideek, bai eta auzokoek ere. Ohiko joera bikoteak ezkontzea omen zen, gauza berezia izan ohi baitzen harreman horiek bertan behera geratzea. Herriak gaur egun baino askoz isolatua zeudenak eta herritarren eurak ere gutxi ibiltzen zirenez batetik bestera, herri bereko edo alboerrietako bikoteen arteko ezkontzak ziren ugarienak.



Anoeta.

(Agirre baserria)

²³⁸ Lekuko 02
²³⁹ Lekuko 02

Gurasoek libre uzten zuten etxeko semeak edo alabak bikotea auke-ratzea; aholkatu batzuetan bai, baina erabakian parte hartu gabe. Hala ere, semeak edo alabak berehalako antzematen zuen aukeratutako neska edo mutila gurasoek gustuko zuten edo ez. Aurkezpena bigarren deialdia edo proklama jotzen zenean egiten zen, denera hiru izaten ziren. Orduan lagun eta senideen aurrean, bikote berriaren aurkezpena egiten zen. Ohitura hau ‘parabien’ bezala ere ezagutzen da. Hau da, mahai baten inguruan elkartuz, ezkontzarako opariak eskaintzen zitzaizkion bikoteari. Bitxia bada ere, ekintza honetan ez zuten gurasoek parte hartzen. Are gehiago, bikotearen gurasoek elkar ezagutzeko egunik ere ez zen egoten.

Ezkondu aurretik, apaizarekin hitz egiten zuten emaztegiak eta senargiaiak. Ezkontzaren aurreko hiru igandetan, iragarpen modura, pregoiak egiten zituen apaizak mezetan. ‘Aipatu egunean, halakok eta halakok ezkondu egin nahi dute. Inork ospakizuna galerazi nahiko balu, nigana etor dadila’ esanaz. Tartean izan da eten den ezkontzarik, maitaleren bat edo haurren bat agertu zelako, kasu gehienetan.

Baserri giroan batez ere, eta notario aurrean, bakoitzak zer zekarren jarri aurretik, ezkondu behar ziren gurasoek hitzartu egiten zuten bakoitzaren aportazioa: gurasoak zeinek jaso, anai-arrebei zenbat eman... eta bakoitzak zer zekarren edo zeraman. Hitzarmen hau oso garrantzitsua izaten zenez, merienda txoren batekin-edo bukatzen omen zen. Baina, jakina, bakoitzak ahal zuena jartzen zuen, eta beste hainbeste hartzeko esperantzaz. Baserriko erremintak, gela edo sukalderako osagarriak, diru pixka bat...

Ezkontzarako betebehar batzuk izaten ziren. Agian, guztietatik garrantzitsuena, ezkongai bakoitzak, notario aurrean, bere etxetik ekartzen zituen ondasunak zeintzuk ziren baieztagatzeko kapitulazioena izan zitekeen. Ezkongai bakoitzari zegokion parrokian egiten ziren ezkontzarako deiak, deiuneak, egiteko egunak zehazteak ematen zuen jakitera ezkontza egun batetik besterakoa izango zela. Deiunealdian ezkongaien etxeak ezkontzarako prestakuntzez arduratzen ziren.

Anoetan ohitura zabal izan da betidanik ezkontza eguna baino lehen bi familien arteko lotura estutzea, ezkontza eskatzeko,

ezkontza hitzarmena zehazteko edo opariak elkartrukatzeko. Ezinbesteko zen bi familien arteko hurbilketa hori, aurpegi-ikus-tea, aurrerantzean senitarteko egingo ziren-eta.

Mutilak, eta geroago neskak ere, bazkari batekin ospatzen zuen ezkontzaurreko agurra lagunen artean; horrelaxe erakutsi nahi izaten zuen aurrerantzean ez zela ezkongabe izango. Anoetan ez da ezagu tu ezkongaien lagunek etxe aurretan kopla abestea ezta mutilzahar edo alargunei ezkontza bezperan kantatzen zizkieten kopla barregariak kantatzea ere.



(Agirre baserritako herriko erromeria)

Tradizioz, semea edo alaba etxera ezkontzekoa bazen, bien gurasoek elkar hartzen zuten bakoitzak ezkontza berriari zer emango zion. Etxearen ardura ziurtatu eta etxeoenganako izango zituzten bete-beharrak zehazteaz gain, elkarbizitzarako arauak eta etxeko bizilagun ekiko harremana hitzartzen zuten. Era horretako hitzarmenak berebiziko garrantzia zuten forupeko lurrardeetan; jendaurrean ematen zuten federak eta mandak, ezkontzako kontratua esaten zieten. Kontratu hori sinatzea kontu benetan serioa zen eta bazkariaren batekin ospatzenten, kontratuko bazkaria, bi aldeetako senideak biltzen zirelarik. Etxera etorriko zen ezkontideak ezkonsaria ekartzen zuen, eta etxera zetorrena neska bazen, arreoa ere ekartzen zuen berarekin. Arreoa hori, neskaren beraren amaren ardurapean osatzenten zuen emaztegaiak neskatoatik.

Inoiz gurasoek beraien kontura ere konpontzen zituzten seme-alaben ezkontzak hauek elkar ezaugutu ere egin gabe; ezkontzeko kontratua egin ondoren, bi familiak bildu egiten ziren. Familia aberatsetan salbu, ez zuten ohiturarik oparitzat urreria egiteko, eratzunak edo balio handiko gauzak. Halere, bazen ohitura emaztegaiak senargaiari ezkontza egunerako alkandora edo beste jantziaren bat oparitzeko. Ezkontza aurreko egunetan, emaztegia, amarekin edo senitarteko beste emakumeren batekin batera, hiriburura joan ohi zen ezkontzarako jantziak eta galak erostera.

Ezkonta aurreko egunak ez ziren nolanahikoak izaten: arreoa ekarri eta gauza bakoitza bere tokietan jarri behar zelako. Antzinako ohiturekin bat eginez gero, urte haietako ezkontza aurreko irudi normalean zen gurdia, idi parea dotore hornituta, eta gurdia gainean arreoa etxe batetik bestera etxeko aitak gidatuta. Gainera, ezkontzako bazkal ostean, jende aurrean, etxera ekarritako arreoa erakutsi egiten zen.



(Sarobe baserria)

Dantza-sokan aurreskuak, berak hautatutako neskari dantza egin ondoren ateratako argazkia. Anoeta.

4.3.8.- Ezkontza

Esan bezala, garaiko gizartean sartzeko aukera ematen duen esfera sendirena da eta ezkontza izan da gizartean aintzakotzat hartua iza-teko modurik eraginkorrena. Senar-emazteen ezkontzaren unea ohiko gizartearren antolamenduaren giltzarrietako bat da. Ezkontzaren bitarte, bikote berriak toki berria hartuko du gizartean, ezkontzaren baldintzen arabera gutxi-asko nabarmena izan daiteke-ena. Horretarako, familiek abiapuntua hornituko diente ezkonsarien bidez. Hauek ere handiagoak edo txikiagoak izango dira, etxeen ahal-men adkisitiboaren arabera edo haien barnean senar-emazteek duten estatusaren arabera. Haientzat, inondik ere, ezkontza gizartearren onarpena eskuratzeko era bat da. Haien etxeetarako, berriz, ahalme-na erakusteko modu bat.

Ezkongaien, Eskubide Kanonigoari kasu eginez gero, elizaz ezkon-du nahi izanez gero hamasei urtetan gizonentzat eta hamalau emakumeentzat jarri izan duela gazteen adina. Hala ere, Anoeta inguruan ezkontzak hain gazterik ez omen da ezagutu, batez bes-teko ezkontzen adina altua izan da. Euskal ezkontza berriak ondo-ko printziptan oinarritzen ziren:

- Lehenik eta behin, endogamian. Herriko nahiz herritik kanpokoa, baina euskalduna izaten zen bikote ezkongoa. Orain, berriz, exoga-mia da arruntenetako; alegia, komunitate ezberdinak gizon-emakumeen arteko ezkontzak.
- Bigarrenik, fidelitasunean, leialtasunean; elizan, Jaungoikoaren aurrean emandako hitza beteaz.
- Hirugarrenik, zatitu ezintasunean; heriotzak bakarrik etengo zuena. Ezkontzak irau egin behar zuen gora-beheren gainetik.

Ezkontza adostasunarekin burutzen zen, ezkongai bien oniritziarekin, nahiz eta garai batean batez ere, sarritan, erabakiak baldintzatu-a ere egon:

- Egoeraren bat konpondu beharra suertatzen zelako (Konpontzeko Ezkontzak izaten ziren). Ezkon aurreko haurdunaldiak edota seme-alaba naturalak izanda, eta gurasoen mehatxupean, egiten ziren ezkontzak ziren.

- Interesa ("Conveniencia") zegoelako. Posizio sozial nahiz ekonomiko baten eraginagatik, eta herriean ere oso ezaguna maiorazkoaren eraginagatik. Bertan gurasoen papera oso garrantzitsua izaten zen.
- Maitasuna zegoelako. Bikote baten maitasunak emandako legiti-mitatean oinarritura, gizon eta emakume bat ezkontza erabakitzene-ute. Gurasoek ahal den neurrian aholkatzen dute, nahiz eta seme-alabaren aukera onartu.



Hiruretan sumatzen den bezala, etxeko gurasoen papera garrantzitsua eta zenbait kasutan erabakigarria ere izaten zen, eta zenbaitetan baita apaizarena ere.

Ezkontzak bi atal zituen: ezkontza bera, eliz ospakizuna eta ezteiak eta haren ondorengo jaia. Lehenengoak ez zuen gaur egun bezainbesteko garrantzirik. Elizkizuna lanegunean izan ohi zen, gonbidatu gutxirekin, lana ia utzi ere egin gabe. Ezkontza egunean bertan edo handik gutxira bazkaria egiten zuten, etxeko seme edo alabaren ezkontidea etxeen hartzen zutela ospatzeko, edo etxera zetorrena emakumea izanez gero, etxekoandre berriari ongietorria emateko.

Ezkontzeko ez zegoen urtesasoik jakinik; bizimoduak berak edo lanaldiak zehazten zuen hori. Ahal zela ez ziren Garizuman ezkontzen, ezta abenduan ere, elizak ez baitzuen onartzen ez belaziorik ez ezkontzarik egun horietan. Nahiz eta meza eta belazioko ohitura ezkontzarako ezinbestekoak izan ez, elizaren aholkuak kontuan izan ohi zituzten.

Ezkontza gehienbat neska eta mutil gazteen arteko kontua zen. Gazteria zen ezkongaietan batera elizarantz abiatzen zena, musika eta suziriarekin, eta alaitasun giroan. Neskaren lagunek janzten zuten eliza dotore, eta bi ezkongaien lagunek abestu egin ohi zuten, meza alaitzeko.

Ezkontza batzuetarako, oso dotore apaintzen zuten eliza. Pasabidea larrosa petaloz betetzen zuten, lurrik ez ikusteko moduan. Eserleku batetik besterako tarteak ere zintzilikatutako lore-ekin apailatzen zuten. "Sekulako lana iten zan eliza apain-apain jartzen". Elizkizuna amaitu eta gero ez zen arrozik botatzen "zerbait botatzekotan, larrosaren hostoa eo botatze zan. Kastellanoek ekarri zuten arroza botatzeko ohitura hori"²⁴⁰.

Lekukoak ere ezkonlagunen artean aukeratzen zituzten, ezkontza-agirian beraien sinadura jarriz. Gaztaroa zen ezkontzarako sasoia. Ezkontza elizkizunetako lekukoak ezkonkideen jaiotzako aitapontea eta amapontea izateko ohitura zegoen. Gerora ezkongaien gurasoak izateko ohitura nagusitu zen.



(Agirre baserria)

Ezkontza elizkizunaren ondoren ateratako argazkia.

²⁴⁰ Lekuko 01

Denborak aurrera egin ahala, gehienbat gazte osaturiko ezkonlagunen taldea beste gizatalde batzuekin osatuz joan zen. Hasteko, etxe-ko senideez gain urrunagoko senitartekoak ere beraiekin batera agertzen hasi ziren. Gonbidatuen kopuruak gora egin du, baina gazteek gaur egun ere leku nabarmena dute bai eliz ospakizunean bai ondoren ospakizunean ere.

Ezkontza eguneko goiz partean, gonbidatuak etxera joaten ziren han-dik elizarantz abiatzeko. Dena dela, elizara joan baino lehen, etxe-koek mokadutxo bat hartzera gonbidatzen zitzuten. Elizara joateko bi jarraigo edo segizio mota izaten ziren. Batean, segidek senargaiaren eta emaztegaiaren etxeetatik irteten ziren eta ibilbidearen leku batean edo elizaren atean elkartzen ziren. Bestean, jarraigo bakar bat egiten zen emaztegaiaren etxetik. Kasu bietan ibilbidea etxetik elizarako ohiko bidetik egiten zen, hau da, elizbidetik. Anoetan bi segizio ezberdinak ezagutu izan omen dira.

Ezkontza eguna eta ezkontzeko orduak oso aldakorrak izaten ziren. Batzuk goizean goiz ezkotzen ziren: seiak, sei eta erdiak... Baino baita eguerdian ere.

*"Ahal zan bezelakoa izate zan boda're. Gure garaitan, etzan raroa ezkontza goizeko zazpitane'e izatea. Gue guraso zanan garaian, berriz, aurretiik izate zan: goizeko seietan eo, hala esate zuen behintzat, eh"*²⁴¹. Goizean goiz edo eguerdian, familia bakoitzaren sosen arabera, ordu ezberdinan egiten zen elizkizuna. Bazkaria ere ez zuten bikote guztiek izaten eta egiten zutenek, familiako hainbat kide biltzen zitzuten, ez guztiak. Bakoitzaren diru kontuek baldintzatzen zuten eguna. Ahalmena zutenek goi-goitik egiten zuten ospakizuna. Erdi mailakoek, ezkondu eta familia giroan etxean egiten zuten bazkaria. Ezer ez zeukanak, berriz, goizeko zazpi eta erdietañ elizara joan, ezkondu eta artajorrara. Oso ezberdina zen bakoitzaren kasua. Hala ere, batetik bestera inbibiarik ez zela azaltzen dute informatzaileek. *"Bakoitzak konformatu in bear zunakin-ta . Ahal zana iten zan ta kito"*²⁴².

Senargaia, dotore, traje 'azul marino' batekin joaten zen. Txalekoa, jaka, gorbata, zapata berriak... Traje hau bizitzan egiten zuten bakarra

izaten zen, eta askotan lurperatu ere traje horrekin lurperatzen zuten jendea. Emakumea ere dotore: traje beltza, buruko mantila bat, esku-larruak... beltzak horiek ere. Erratzunak ere prest izaten zitzuten. Nahiz eta garai batean kobrezkoak izan, gero 'fix' eta urezkoak ziren.

Emakumeak beltzez ezkontzen ziren garai hartan. Txuriz ezkontzen zirenak aberatsak omen ziren. Distintzioa zen txuriz ezkontzea. *"Guk ezagutu genuen txuriz ezkondu zen bat baino gehiago, elizaraino lurrean alfonbra gorria jarrita, baño ez Anotan, inundik inoa're"*. Hala ere, beltzez jantzia ezkontzen zen gehiengoa. Soineko beltz luzea jantzia eta mantalina buruan. Azahar lore naturalekin edo artifizialekin osatutako apaingarria jartzen zitzaison soinekoari bular parean. Lore erramua eskuan eta baita arrosarioa ere, ahal zen ederrena. Zapatak beltzak. Gizonak traiez jantzia, beltzez gehienetan, korbeta eta guzti.



(Arozezka baserritua)

Senargaia sartzen zen lehenengo elizara, amapontekoak lagunduta. Hura zain egoten zen aitapontekoarekin helduta, neska sartu arte. Ezkontza gehienetan, amapontekoak senargairen ama izaten zen eta aitapontekoak berriz, emaztegaiaren aita. Kasu askotan, bataioko aitapontekoak eta amapontekoak mantentzen ziren. Bikoteak izango zuen lehenengo haurra ere haintzat izango zen.

²⁴¹ Lekuko 03

²⁴² Lekuko 03

Dena dela, hauek, pisu handia zuten, bikoteari zerbaite gertatuz gero, haien eragin behar baitzuten haurraren kargu.

Elizkizuna, gaur ez bezala, xumea izaten zen: musika eta kanturik gabe. Ezkontzako meza ere latinez izaten zen, guzti-guztia. Senaremaezteei zuzenduta, nahi zen moduan, euskaran, sermoi txiki bat egiten zuen apaizak. Gainerako guztia latinez izaten zen. Garai hartako ezkontzen ohitura berezieta bat uztarriena zen. Oro har, apaizaren estola txikia emakumearen buruaren eta gizonaren bizkarraren gainean luzatzen zen, uztarria eginez. Usadio horrek gizonak emakumea bere mendean eduki behar zuela esan nahi omen zuen edo alderantziz, emakumeak gizonaren mende egon

behar zuela. Ohitura hori ondo ikusia zegoenaren inguruan leku-kotza emaileen hitzetan “*horrela zelako eta beste aukerarik ez geneukalako hartzen genuen usadio hori ontzat*”. Hizlarietako gehienek ezagutu zuten ohitura hori, nahiz eta guztiei ez zitzaien beren azalean bizitzea egokitu. Menpekotasunaren irudia txanponenkin ere erakusten zen. Hamahiru txanpon eman behar ziren elizara, arrak deitzen zitzaien. Bakoitzaren ahalmenaren arabera, zentimoa, erreala edo pezeta izan zitekeen. Batzuek zilarrezko txanponak ere eramatzen zituzten. Balioak ez zuen axola. Hori bai, hamahiru izan behar zuten. Ohitura horrek gizonak emakumea erosten zuela adierazten omen zuen. Hizlarietako bakarren batek oroigarri gisa, gordeta omen ditu ezkontzako txanponak.



(Sarobe baserría)

Ezkontza-elizkizuna.

Lehen elizaren ate aurrean baimena eman eta diru-eratzunak bedeinkatu egiten ziren, hori baitzen promes eta zin sakratuak egiteko izendatutako zegoen tokia. Berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, ospakizuna eliz barruan egiten hasi zen, aldare nagusiaren aurrean. Mezan senar-emazte berriak ezkontza-estalkiarekin lotzen ziren. Zapi hori emaztegaiaren buruan eta senargaiaren sorbaldan jartzen zen. Jendeak beti uste izan du ohitura hori uztarketa dela. Ezkontzaren gaurko erritoa batez ere elizan egiten da, eta garrantzi handiagoa hartu du ezkongaietik elkarri emandako baietzak.

Ezkontza-elkarreko berriaren ondorio juridikoak senar-emazteek apai-zaren eta leku koen aurrean sinatzen duten aktan adierazten dira. Gaur egun, agiri hori aldareko mahaian sinatzen da; lehen, berriz, sakristian. Senar-emazte ezkonberriak elizatik ateratzerakoan, ikusmin handia izaten da, eta txaloak egin, zoriona opatu, eta, zenbait kasutan, ohorezko dantza eta suziriak izaten dira. Azken urteotan, arroza jaurtitzeko ohitura nagusitu da.

Ezkontza zibila Udaletxeen edo Epaitegian egiazatzen da, eta apurka-apurka duintasun handiagoa hartuz joan da. Hala ere, inkesturako erantzuna eman dioten leku koen esanetan, elizan ospatzen diren ezkontzek baino handitasun gutxiago dute. Hego Euskal Herrian ezkontza zibil gutxi izan da, baina azken bolada honetan gero eta gehiago egiten dira.

Duela hamarkada batzuk, behin zeremonia amaituta zegoenean, emaztegaiak lore-sorta oparitzen zion Amabirjinari elizan bertan edo beraren omenezko kaperan. Zenbait herritan, ostera, lore-sorta familiaren hilobian uzten zen. Lore-sorta lagun bat ematea edota airean goraka botatzea ohitura nahiko berria da, eta azken ohitura honi lotuta badago uste bat, lore-sorta hartzen duena izango dela hurrengoa ezkontzen, hain zuzen.

Ezkontzako argazkiak gizabanakoentzako bizitzako une garrantzitsu hori betikotzen du, eta ohitura moduan duela hamarkada asko hedatu zen. Ezkonberriak argazkilari baten estudiora joaten ziren argazki ofiziala egitera. Gero, argazkiari markoa jartzen zitzzion eta etxeko gela



(Sarobe baserria)

Ezkontza elizkizunaren ondoren ateratako argazkia.

garrantzitsuenean zintzilikatzen zen. Etxetik urrun bizi ziren senideei kopia bana bidaltzen zitzaien. Ezkontza eguneko erretretua ez zegoen guztien eskura. *"Gure garaian elizkizuneko argazkia izatea oso zaila zan, ia inposiblea. Izatez'e, ezkondu ta geo juten ginan argazkin bat ateatzera"*²⁴³. Tolosara joaten ziren gehienak.

Joan-etorriak oinez egiten zirenean, jarraigoa elizatik etxera edo ezteibazkaria egingo zen jatetxera abiatzen zen. Batzuetan, segidari ezteigurdia gehitzen zitzzion, arrearekin eta hatukarekin. Dena dela, normalean, gauza horiek, guztiak ezkontza baino egun batzuk arinago edo geroago eramatzen ziren.

²⁴³ Lekuko 03

Elizako kontuak bukatzerakoan, hamaiketakoren bat hartzeko ohitura zuten. Dena dantza eta musikarekin. Ezkontza egunekoa izaten zen importanteena, eta bazkaria eta afaria egiten zen.

Mai nagusian ezkonberriak, haien gurasoak eta ezkontzan izandako apaiza esertzen ziren. Gero, alboetara senideak eta lagunak. Mena gutxi gora-behera ondokoa izaten zen: zopa, oiloa, haragia (txuleta, xerra...) eta postrea (arroz esnea, mamia, fruta...). Afaltzeko, berriz, zopa, odolkiak, gisatua, fruta. Ahaztu gabe kafeak eta likoreak (Domec, anis del mono...) eta puruak. Eta gero kantuak, bertsoak, karta jokoa eta dantza ugari egiten zen. Musika jotzeko jarritako aldamioan, berriz, musika: trikitixa eta dantza libreak nahiz eta apaizak ongi ikusi ez; denak nahasirik.



Ezkontza ospakizuna.

Garai batean, arreoko gauzak ikusgai uzteko joera zegoen. Emakume batek, batzuetan jostunak berak, arreoko janzteko eta tresnak aipatzen zituen bertaratutako guztiek entzuteko moduan.

Zeremonia hori, ezkontza-bazkariarekin batera, etxe berrian sartzeko egiten zen ohituraren arteko bat zen. Andregaiak gurdian ekartzen zuen bere arreoa baserrira. *"Bere ohea, bere arropak... baita sehaska ere! la guztia ekartzen zuen idi-pareak tiratutako gurdian emakumeak"*²⁴⁴.



(Jesús Elosegi)

Arreoa, 1933.

Arreoa emakumeekin lotuta dagoen usadio bat dela pentsatzan bada ere, ez da emakumeen usadio esklusiboa. Dotea eta arreoa, herentzia banaketarekin ere lotuta daude. Herentziak nolabait dote banaketa zekarren; eta azken honek arreoa ereragina zuen. Notario aurrean eginiko kontratu baten bitartez etxeko ondasunak etxeko artean banatzen zirenean, nagusiarri, baseria edo etxea, bigarrenari dirua eta lanabes batzuk... banatzen ziren. Banaketa horretan ere, anai-arrebei, etxeen gelditu ala ez, dirua ematen zitzaien ezkontzen zirenerako. Hala ere, ezkontza garaian, eta batak eta besteak etxera zer ekarriko ote zuen neurteko asmoz, familia biek hitzarmen bat idazten zuten notarioaren aurrean²⁴⁵. Hauek ezkontza kapitulazioak ziren²⁴⁶. Herentziarekin jarraituz, garai batean baseria seme zaharrenari

²⁴⁴ Lekuko 03

²⁴⁵ Ezkontza hitzarmenenerako ikus: Acuerdo matrimonial entre el vecino de Alkiza Joanes Ançieta y Catalina de Arozechea. Gipuzkoako Artxibo Orokorra, PT 7 (408 a. – 411 a.). Eskribaua: Juan Lopez Olazábal, in Juanjo Agirre-Mauleon (et al.) (2005: 239-40)

²⁴⁶ -1529.03.18: Miguel eta Maria Apaezetxea senar-emazteek beren suhi Miguel Mikelesagastiri emandako ordainagiria. Anoetakoak. Maria Apaezetxearen dotea dela-eta, 630 florin. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (Tolosa), PT, 2. sorta, eskribaua: Francisco Luzuriaga, orriak: 1007 a. - 1008 a.

-1529.03.27: Miguel Mikelesagastik bere anaiña Martini emandako ordainagiria. Anoetakoak. Anoetako Mikelesagasti etxearen dotea dela-eta, 6 urrezko dukat. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (Tolosa), PT, 2. sorta, eskribaua: Francisco Luzuriaga, orriak: 994 a.

-1529.03.31: Domingo Tapiak Joanes Leiza eta bere emazteak Magdalena Tapiaren alde emandako obligazio-gutuna. Anoetakoak. Anoetako Tapia etxea erostean, 6 urrezko dukat. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (Tolosa), PT, 2. sorta, eskribaua: Francisco Luzuriaga, orriak: 995 a. - 995 g.

-1531.02.05: Domena Goikotetxeak, bere anaiña Domingoren mesederako, Anoetako Goikotetxa baseriaren eskubideari uko egiten dio senipartearen truke. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (Tolosa), PT, 2. sorta, eskribaua: Francisco Luzuriaga, orriak: 281 a. - 282 a.

-1551.02.24: Irurako Domingo Iparragirreren eta Anoetako Simona Katategiren arteko ezkontza-hitzarmena. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (Tolosa), PT, 3. sorta, eskribaua: Juan López Olazabal, orriak: 491 a. - 493 a.

maiorkazkoan uzteko ohitura zegoen Gipuzkoan eta Anoetan ere bai noski. Geroago berriz, baserriaren herentzia banaketa Kode Zibilaren arabera egilea zen aukera bakarra.

Kode Zibilaren arabera baserri bateko oinordeko hiltzean hiru zati berdinatzen banatu behar du herentzia. Lehenengo zatia gehienetan seme alabak izaten ziren, zati berdinatzen. Bigarren zatia legezko maiorkazkoen artean nahi duen bezala banatu dezake. Hirugarren zatia, berriz, nahi duenari eman diezaioketako herentzia egiten duen baserritarrok. Herentzia hiru zatitak bat seme-alaben artean banatu beharrak, ordea, iskanbila ugari sortu izan ditu baserriean.

Herentzia lege berriaren arabera egiten bada, berriz, baseria oinordeko bakar bat uzteko aukera dago. Hau da, hiru zati horiek des-

agertu egiten dira, eta herentzia ez da derrigorrez oinordekoen artean banatu behar. Testamentu egileak nahi duen banaketa egingo du eta oinordekoek ezingo dute dagokien zati honi eskatu. Hori bai, lege berria aplikatzeko ezinbesteko baldintza izango da testamentua egitea. Dena dela, lege berri honek ez du indarrik gabe uzten aurreko legea, borondatzkoa da. Nahi duenak Kode Zibilaren arabera egin dezake testamentua, eta nahi duenak lege berri horren arabera.

Batzuetan, ezkontza egunean bertan egin beharrean, ezkontza-bazkaria hurrengo igandean egiten zen, ezkontza-bidaia labur baten ondoren. Egun horretan emazteak familia berriaren sepulturaren jabetza hartzen zuen, eliz hartzea, eta aurrerantzean, etxe berriko hil-dakoei eskaintzak egiteko ardura hartzen zuen etxekoandre gazteak.



Eleuterio Urkizu eta Maria Otaegi.

(Etxeboria baserritako)

Berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera eztei-bazkaria etxetik kanpo egin izan da, jatetxeetan hain zuzen. Ezkontzaz gain, apaizgoa eta eliz bizitza ere gizarte-mailatzat hartu izan dira mundu tradizionalean. Eliz jantziak hartzean eta lehenengo mezak ematean ere ezkontzeten egiten ziren ospakizun berberak antolatzen zituzten horregatik.

Arestian azpimarratu den bezala, nahiz eta ezkontzako egunak desberdinak izan, ezkontza bidaiarako destinoak nahiko antzerakoak izaten ziren. Zaragoza zen garai hartan modan zegoen hiria;.. baina baita inguruko hiriburuak ere: Bilbo, Donostia, Iruñea eta Gasteiz. Sarritan, gasturik ez egitearren, senitartekoentzat etxera joaten omen ziren.

Orohar, aita pontekoa eta ama pontekoa eta senargaiak biltzen ziren ezkontzarako. Batzuk bidaiarik gabe, zuzenean lanera. Besteak Bilbaora, Iruñeara edo Gasteizera hiru edo lau egun pasatzera, eta bakarren bat baita Zaragozara ere. Baserri giroan batik bat, hiru egunetako ezteiak izaten ziren, ardiak hil eta etxeen bertan egiten zen jaia. Senitartekoentzat nahiz auzokoentzat, jende piloa biltzen zen ospakizunerako. Batzuk jatera etortzen ziren, ba omen ziren eguerdian bazkaltzera eseri eta gauean afaltzeko prest zeudenak ere. Ganbaran lo eginez igarotzen zituzten egunak beste batzuk.

Ezkontzaren bidea aukeratuz gero, seme-alabak izatea etxearen eta leinuaren jarraipena ziurtatzen zuen bedeinkapena zen. Ezkondu gabe geratzen zena, mutilzaharra edo neskazaharra, etxera lotuta geratu ohi zen eta etxekoentzat artekoa zen. Mutilzahar edo neskazaharrek orokorrean beti izan dira ondo ikusiak senideen partetik, dena dela, familiatik kanpo adarra jo izan zaie behin baino gehiagotan.

Banandutakoei esaten zitzaien ‘bizi alargunak’. Kasuren bat ere egon omen zen Anoetan. Ezkondu gabe haurra izandakoren bat ere bai. Baina ez ziren horrelakoak maiz gertatzen. Gertatuz gero, irteera desberdinak egoten ziren: ezkondu, familirenen bati eman zaintzeko, hospizioren baten sartu... Zoritzarrez, historian zehar askatasun sexuala, nahiz fisiko nahiz mentala, tabu izateaz gain oso zigortua ere izaten da mendebaldeko zibilizazioko kultura desberdinaren; eta baita, beraz Euskal Herrian eta Anoetan ere bai.



Ezkontza, 1935.

4.2.9.- Heriotza

Egindako galdeketan orokorrean ikusi dugunez, Anoetako biztanleentzat heriotza bizimodu baten amaiera eta beste baten hasiera mugatzen duen gertaera da. Beraz, heriotza igarobidetzat hartzen da, batetik besterako aldaeratzat. Horregatik bada, ardura bereziz inguratuta dago. Errito aberatsez osatutako pasartea izateaz gain, hemen ere etxeak, familiak, elizako hilobian sinbolizaturik, bizitzaren azken pasartea markatzen du. Hala ere, auzoen arteko, familien arteko elkartasunerako gunea ere izaten zen.

Familiako defuntuekiko kultua herri erlijioan garrantzia handikoa da. Haiekiko lotura hainbat moduetan nabarmentzen da: dolu seinaleak, hileta-otorduak, sepulturetako ofrendak, limosnak, mezak, oroitzapenak, urturenrenak... Heriotza ospakizunetan pertsona baten ziklo kulturala itxi nahi da berriro komunitatearen testuinguru sozialean sartuz, izan ere komunitatea bizirik daudenek osatzen baitute, baita hilik daudenek ere. Hildakoek kulturalki definitutako tokiak dituzte eta familiartekoek beren hildakoekin erlazionatzeko espazioak dira hauek. Espazio hauek hildakoak gogoratzea eta beraiei gorazarre egitea ahalbidetzen dute kulturalki markatutako errito, otoitz eta omenaldien bidez²⁴⁷.

²⁴⁷ Ignacio Fernández de Mata, 2006.



Hileta erritoa. Tolosa, 1932.

Heriotza gertuan zegoela jakinik, testamentua egiteko aukera izaten zen notario eta lekukoen aurrean, dokumentu baten bidez hil zorian zegoenaren “azken hitza” idaztea alegia. Bertan hainbeste diru mezak ateratzeko eta ondasunen banaketan borondatea islatzen ziren. Gero lekukoek sinatzen zuten. Testamentuen ondoko zatiak izaten zituzten:

- Lehenik eta behin, hiletetarako etxeak zuen ohiturari jarraituz, ondorengoen eskutan uzten zen hileta antolatzea.
- Bere arimaren alde hainbat meza ematea, kopurua zehaztuta geratzen zelarik, horretarako diru kopuru konkretu bat ere bideratuta uzten zen. Mezak ordaindu ondoren, soberan gelditzen zen diruarekin, meza bat eskaintza eskatzen zen, gehienetan “*a perpetuidad*”.
- Azkenik bere ondasuna bere ondorengoei eskaintzen zitzagon.
- Testigantza bukatuta, lekukoen aipamenak eta sinadunak zetozent.

-Agonia eta azken igurtzia

Gaixotasunak eraginda datorren heriotzaren aurreko egoerari agonia deritzo. Prozesu hau berezkotzat hartzen da gehienetan. Halere, inoiz, heriotza dakarten gaixotasunen arrazoitzat hartu izan dira madarikazioak edo etsaitasun ekintza majikoak ere.

(Jesús Elosegi)

Heriotzaren aurrean jendearen elkartasuna agerian gelditzen zen: senitartea edo auzotarrak, bakoitzak zeukan hartu emanaren arabera, prest egoten ziren gaixo edo agonian zegoenari behar zen bezala laguntzeko: hitz egiten, otoiota egiten... Beraz, normala zen, luze bazihoa agonia, gauak gaixoarekin pasatzea.

Gertaera arruntak hartzen ziren heriotzaren hurbiltasunaren seinaletzat. Sineskera zenbaiten arabera, heriotza inguruan dela adierazten dute etxeko txakurraren zaunkek, edo gautxoriek (batez ere hontza), edota garrantzia handiago gabeko beste hainbat gertaerak, ezusteak, zaratak, eta abar, esaterako.

Agoniako kanpaiak adierazten zuen heriotza; eta kanpai kopuru bera izaten zen hildakoa gizona nahiz emakumea izan hildakoa: hogeita hamahiru joaldi baina kanpai handiarekin (dum, dum, dum...!). Norbait hiltzen zenean agonia jotzen zen, orain bezelaxe. Agonia hogeita hamahiru kanpaikadek osatzen zuten, Jesukristok adina urte. Anoetan, kanpainen hotsa berdina zen emakumea edo gizasemea hiltzen zenean, baita haurren bat hiltzen zenean ere. Apaiza eta akolitoak elizakoak egitera joaten zirenean, hau da, hildakoaren etxera azken igurtzia ematera joatean sei kanpaikada jotzen ziren elizan. Bidean, akolitoa apaizaren aurretik joaten zen kanpanilarekin: ttin-ttin-ttin-ttin-ttin.

Agonian dagoen gaixa ardura handiz zaindu behar da. Orain dela hiru hamarkada arte gaixa etxearen bertan zaindu ohi zen, eta ospitaleetan gutxi batzuk bakarrik hiltzen ziren. Etxeko eta auzorik hurbilenak ziren gaixa zaintzeko ardura hartzen zutenak, eta gaixoak senideen eta adiskiderik minenen bisita izaten zuen, finikatua zegoen gertakaria senideen artean. Senideen eta auzoko arteko haserreak konpontzeko lagungarri ere izaten ziren batzuetan bisita hauek.

Gaixoari eskainitako laguntza ez da eritasuna arintzeko bakarrik. Heriotza ondorengo beste bizitza bat dagoela sinesteak apaiza gaixoa egotea eskatzen du, gaixoak aukera izan dezan Jainkoarekin bakeak egiteko, eta betiko bizitzara eramango duten Jauna eta Oleazioa hartu ditzan. Elizakoak hilzorian dagoenari ematen zaizkion sakramentauek dira, bereziki jaunartzea.

Galdeketako erantzunetan argi geratu denez, orain dela urte batzuk arte Elizakoak agerian eramatzen ziren elizatik gaixoaren etxeraino. Medikuak esandakoaren arabera, etxeiko edo auzokoren batek abisatzentz Zion apaizari azken elizakoak ematera joateko: medikuak esaten zuenean ez zegoela zer eginik edo egun batzuk-edo bakarrik iraungo zuela esaten zuenean. Apaizak akolitoren baten laguntzarekin egiten zuen etxeiko bidea. Ilunduta baldin bazen akolitoak bi kandelako farola bat eramatzen zuen esku batean. Bestean, berriz, txilina, honen bitartez jendeari abisatzeko apaiza zihola elizakoezin eta belauniko jarri behar zirela aurretik pasa ezkerro. Apaizak sotana gainean tunika zuri bat eraman ohi zuen, gainetik estola, eta kate batean zintzilik zilarrezko kutxatxo bat Jaunarekin. Hilzorian zegoen etxera ailegatu-eta, jendea etxearen aurrean zain egoten zen kandelak piztuta. Gelan sartuta, kandelak itzali egiten ziren eta akolitoak mantentzen zuen bakarrik berea piztuta. Aurretik, auzoari abisatzen zitzaison eta hauek ere kandelekin etortzen ziren etxera. Apaizaren zain egoten ziren baserri aurrean eta hau zetorreanean, kandelak piztuta, hilzorian zegoenaren gelara joaten ziren kandelekin. Gaixoa gauza bazea aitorrtu egiten zen, eta ondoren Jaunartzea egiten zuen. Informatzailek esaten dutenez, agonian dagoenak nahiz eta hitz egin ez, ondo entzuten omen du.

Ondoren azken igurtzia edo estremuntzioa ematen zitzaison. Olioaz egiten zen azken igurtzi hori; eskuan eta bekokian igurzen zen. ‘Azkenetan’ edo hilzorian zegoenari kalizan eramatzen zitzaison Jauna. Eta apaizak, akolitoarekin, kapa hori baten azpian, eta atzettik aurrera lokarri batekin, kaliza eramatzen zuen. Azken igurtzia emateko olioia, berriz, kalizak kirten inguruau zeukan atetxo batean eramatzen zuen.

“Lehen, oian, azkenetan zeonai, gaizki zegoenai, apaiza etortze zitzaison etxea. Akolitok apaizan aurretik juten ziren, farolekin argia inez, kan-paia txikiak eo txilinak joz. Apaiza, berriz, atzetik; kapan azpin Jauna gordez. ‘Hara! Baijua elizakok itea’ esate zan apaiza eta akolitoa herrian barrena ikustekon. Belauniko jartze ginen gure aurretik pasatzian. Izan’e, apaizak Jauna eamate zun gaixuai emateko”²⁴⁸.

Gaixoari Jauna emateaz gain, azken-igurtzian, gizakiaren zentzumenak hartzen ziren kontuan. Apaizak, oliaorekin igurzen zituen gaixoaren bost zentzumenak sortzen zituzten gorputz-atalak: hankak, begiak, belarriak, ahoa eta sudurra. Orain gurutze bakarra egiten bada ere, orduan gurutze txikiak egiten omen ziren. Azken-igurtzia jasotako gaixo batzuk sendatu egiten ziren gerora. Kasu horietan, berriz gai-xotuz gero, atzera ematen zitzainen sakramenta.

Azken-igurtzia emateko, senitartekoren batek apaizari gaixoaren berri ematen zion. Mahai batean, etxe guztietan izaten zen zapi berezi bat jartzen zen, bai eta kandelak piztuta izaten zituzten bi kandelero ere. Baso batean ur bedeinkatua jartzen zen eta erramua bustitzen zen bertan. Erramu hori Erramu egunean bedeinkatutako adar puska bat izaten zen eta ur bedeinkatua ez zuen apaizak ekartzen, etxe guztietan izaten ziren. *“Oaindik’e hartzen deu. Nik bakat etxen”*²⁴⁹.

Heriotza gertatzen zenean, eta usain txarrak ekiditearren, leihoa zabaltzen ziren. Gelako ispiluak ere zapi beltz batekin estali izan dira. Lekuren batzutan etxeiko abereei, erleei ere adierazten zitzainen etxeiko nagusia hil zela. Anoetan adinekoenek ez dute halakorik ezagutu. *“Lehen orai bezela etzan esaten zeatik hil zan ta heriotza modu askotakoa izate zan eo, eh: lasaia, hil nahi ta ezin’e bai-ta, tristurak eraman dik halakoa ta...”*²⁵⁰

Etxeko eta auzokoiegi abisua pasatzeko halako ordutan, auzoko hala-kok esanda, arrosario santua izango zela hildakoaren etxean. Hildakoaren senide zirenei heriotzaren berri emateko ardura etxe-koek hartzen zuten. Askotan ahaide gertuenei hildakoaren familiak jakinarazten bazien ere gainerakoei auzorik gertukoena abisatzen zien; herrian auzoak zabaltzen zuen abisua. Adierazte hau modu zuzenez egin behar zen eta hirugarren gradurainoko senideei jakinarentzat zitzainen.

Gorputza bere gelan edo jangelan jartzen zen, “Anotan ezautu deu baita mandion’e”²⁵¹; zegoen tokiaren arabera. Hilkutxaren alboetan,

²⁴⁸ Lekuko 03

²⁴⁹ Lekuko 01

²⁵⁰ Lekuko 03

²⁵¹ Lekuko 02

berriz, bi kandela. Herriko parrokiako agoniako kanpaiak entzunda, herritarrek ongi zekiten nor hil zen, herri txikia zenez Anoeta, herritarren berri ongi omen zuten. Heriotzaren deia berehala egiten zitzaien auzoko guztiei elizako hil-kanpaiak joz. Kanpaiok entzunda hildakoaren alde otoitz egiten omen zuten.

Gaxoa hil ondoren, defuntuaren senitartekoak dolualdian sartzen ziren. Aldi berri honen ezaugarririk adierazgarriena eguneroko zereginak alde batera uztea izaten zen. Lehenengo dolualdia hildakoari lurra eman ondoko hileta-bazkarian amaitzen zen. Bitartean, auzorik hurbilenak edo hildakoaren etxetik gertu bizi ziren senideak izango ziren etxeiko lanak egingo zitzatenak.

Heriotza dela-eta nabarmen azaltzen ziren auzokoene arteko loka-riak eta baita lokarriok eskatzen zitzuten eginbehar jakinak. Egoera hauetan auzokoene arteko harremanek izaten zuten garrantzia aipa-garria da, elkarren arteko ikusi-ezinak ere erabat konpontzen omen ziren. Halere, inkestetan agerian ikusi dugunez, aspaldi batean gehienbat auzokoak arduratzen baziren ere, gerora senideak bera-ganatu zitzuten hildakoaren etxeiko zeregin horiek. Aspaldi lur ema-tearen eguna eta ordua jakinda gero, auzokoak beraiek joaten ziren senideei hil mezua ematera, haien artean erabakitzuen nork nora joan behar zuen. Etxeko nagusia edo etxeikoandrea hiltzean, hildakoak zaindutako etxeiko abereei ere aditzera ematen zitzaien heriotza; “*guk ezteu halakoik ezautu*”²⁵².



(Agiere baserrira)

²⁵² Lekuko 01

Hildakoa jantzi baino lehen garbitu egin behar da, eta garbiketa horretan erritual bat jarraitu ohi zen: horretarako erabiltzen zen larunbata santuan bedeinkatutako uretan Erramu egunean bedeinkatutako erramuaren hostoak irakinten ziren, edo baita San Joan eguneko belarrak, udako solstizioan biltzen zirenak. Hileta-zerbitzuak gaurko eran antolatu baino lehen, auzoko emakumeak ziren ardura hau hartzen zutenak, edo auzoan horretan lan egiten zutenak. Hildakoa jantzirik onenekin janzten zen, ‘etxetik irtete-koekin’, bidaiaren bat egiteko moduan edo habitu eta adierazgarri erlijiosokoekin, Jainkoaren errukia errazago lortzeko.

Gorputza prestatu beharra zegoen hiletarako. Ahoa zabalik hiltzen baten, zapi bat jartzen zitzaison lepotik, gora bururaino gorputza hoztu arte, hozten zenean ahoa itxita gelditzentzela. Senitartekoek edo auzoko gertukoek janzten zuten hildakoa. Premiaren arabera garbitzen zen, ura eta xaboia erabiliz eta gizonezkoei bizarra kenduz. Normalean bizitzan izandako traje bakarrarekin janzten zen. Eta kongregazioren baten parte hartutakoa balitz, San Luis Gonzaga, Mariaren Alaba edo Frantziskotarren hirugarren ordenako kofradiak alegia, orduan horretarako jantzi edo habitu bereziren batekin janzten zen. Emakumeak, Kontzesioko Ama Birjinarenaren jantziarekin prestatzen ziren, erropa urdin argia. Eskuetan, berriz, gurutze txiki bana jartzen zitzainen. Baina, nahiz eta habituarekin jantzi ez, lepoan kongregazioko eskapularioa jartzen zitzainen. Umeei ere berdin, baina beti zerbaiz zuria sartuz. Kofradietako kideak hilean behin elkartzen ziren, egun berezietan, elizkizunak egiteko. Bakoitza bere estandartea zeukan eta norbait hiltzen zenean ateratzen zen estandarte hori eliza aurrean hildakoari eliza barruraino laguntzeko.

Kaxa ere egin beharra egoten zen, eta horretarako herriko arotzari esan behar izaten zitzaison. “*Bakoitzak ahal zuenari*”. Neurriko oholak moztu, barua tela zuri batekin eta kanpoa beltzez forratu, buelta guztian zinta beltz batzuk jarri, burua zihohan inguruan hildakoaren izen eta abizenaren inizial horiak ipini eta gainean gurutze bat jarriz.

“*Anotan gehienak halae bakoitzena etxen indakok ibiltze genitun*”²⁵³. Pinu egura izaten zen gehienetan. Barruan tela zuri batekin eta kanpoa tela beltz batekin forratzen zirenak. Buelta guztian, ertzean, zinta

batzuk, kordoi bezala egiten zutenak, eta hauek ere beltzak. Barrua, nogalina zintatuta egoten zen. Atzean, buru aldean, kartoizko eran egindako hildakoaren inizialak (izen eta abizenak). Hauek hobiak izaten ziren. Gainean, gurutzea.. - eta gero andak, kaxa elizara eramateko. Andak edo angaiak bi egur luze izaten ziren, lotuta, bere gainean hildakoaren kaxa elizara angazainak eroosoago eramateko. Hildakoa artean umea bazeen, zuria izaten zen kaxa.



Jesus Elosegi

Etxekoandrea gorputz. Tolosa, 1936.

Gorputza kaxa barruan sartu ondoren, albo batean Pazkoan bedeinkatutako ur bedeinkatua eta erramu sorta bat egoten zen, zetozenek erramua ur bedeinkatuan bustiz gorputzari botatzeko tartean “Aita Gurea” bat errezatzen zuten artean.

Elizbide, gurutze-bide, gorputz-bide, hitz asko gauza bera esateko. Antzinatik gorpuak elizara eramateko bidea errespetu osoz zaindu eta erabiltzen zen. Berau, ez bakarrik hildakoak eramateko, baita ezkontzara edo bataiora joateko ere, edota biatikoa emateko ere erabiltzen zelako. Denek zaindu behar izaten zuten auzolanean bide hau. Bide zatiaren bat gaizki egongo balitz eta beste nonbaitek pasatu beharra balu, egindako bide berri hori elizbidea bihurtzen zen, nolabait lur zati horren jabearren kalterako. Dena dela, norbait hiltzean, gurutzea eraman behar izaten zenean hildakoaren etxera, hildakoa bera elizara ekartzeko, edozein bidetatik joaten omen zen eta jarraitutako bide horiek ez omen ziren elizbidea bihurtzen. Baimena eskatuz gero eman egiten zen: “*Guutz-bidetik pasatzeko*

²⁵³ Lekuko 03

*deretxoan hartu deu*²⁵⁴ esaten omen zen. Gorputza pasatzen zen tokia gurutze bidea bihurtzen zen bestela. Hildakoa beti hankak aurrerik eramatzen zen, Elizkizuna bukatu ondoren horrenbesteko bat ematen zuten andazainentzat: 25-50 pezeta denentzat. Horrekin bazkaria-edo, egiten zen Modestoenean. “*Guk, gurutzbidea esaten diogu*”. Herritarrok jakinean izaten omen ziren: “*Hoi guutze-bide’ek ta ezin dek kendu*”²⁵⁵. Elizako bidea eta etxerako bidea ez zen berdina izaten beti.

Hildakoari beila egiteko ahaide, adiskide eta auzoek bilera egiten zuten hildakoaren etxearen eta bertan arrosarioa errezatzen zuten; lutua zuen familiak kafea eta edari bizia eskaintzen zizkien bertaratutakoei.

Antzineko legean, hildakoak ez zuen bakarrik egon behar. Horregatik, gau eta egun zaintzen zuten etxeko eta auzokoek gaubelan, etxearen eginko hileta bat balitz bezala. Hildakoaren etxeko ateak irekita egoten ziren, eta hildakoari otoitz egitera zetozena isilik; hildakoa zetzan gela, otoitz leku bihurtuz. Han aldare txiki bat atontzen zen, gurutze eta guzti, eta kandelak eta atxak inguruan, larunbata santuz bedeinkatutako ura eta erramu-orriak zituela; azken hauek otoizlariek hildakoaren gainean astindu zitzaten. Iluntzean senideak eta auzokoak bertan biltzen ziren erosario luzea errezatzeko, salbamenerako kristau-misterioak gogora ekarritz. Gaubelan hamabost misterioko erosarioa errezatzen zen, gaur egun bostekoa errezatzen bada ere. Gauean, txandaka zaintzen zuten hildakoa auzokoek, beraren ondoan piztuta zeuden argiak ez itzaltzeko kontu handia hartuz.

Agonia hori batuetan luzatu egiten zen, eta orduan auzokoak ere etortzen ziren. Gaubela horretan kontuak esan, zerbait jan, otoitzak egin, denak elkarrekin egoten ziren. Normalean gazteak egoten zirenez, kafea eta pattarra tartean, umore ederrarekin bukatzen zuten gaupasa hora.

“*Ni ezaututa nau kajan bula paperak sartzen’ea. Bulak induljentzia jasoa zula esaten zun, pekatu guztitik libre zala-eo. Kajan sartuta*

zeruko bidia erreztu ite omen zan ta, nik ze esangoizut ba, pekatu guztitik karga guztitik libre geatzen omen zan hildakoa, ta ordun hala pentsatzen zan-ta”. Pertsona bat hiltzean purgatoriola joaten da haren arima, kristau sinesmenaren arabera, eta induljentzia lortu ostean paraisurako bidea asko errazten da; mezek laguntzen duten bezala.

- Gurutzbide, gorutzbide edo andabideak

Herriak, ohituraz, aurrelik erabakita zeukan auzokoaren artean zeintzuk eramango zuten hilotza sorbalda gainean elizaraino. Ez etxekoek ez senideek ez zuten antzina andari zeregin hau betetzen, doluagatik euren leku berezia bete behar zutelako hileta-jarraigoan edo -segizioan. Hildakoak elizara eramateko bideak ziren elizbide, hilbide, gurutzbide, gorutzbide edo andabideak... Legezkoa zen eta ohiturazkoa andabide ondoan etxerik ez egitea eta lurra ez mugarriztea. Gorpuak ezin ziren beste bide batetik eraman, nahiz eta beste laburragoa eta erosoagoa izan. Bidegurutze bakoitzean apaizak errespontsua esaten zuen hildakoaren arimaren alde. Ohituraren arabera bide horrek libre egon behar zuen beti, debekaturik baitzegoen langak ezartzea²⁵⁶.



(Jesús Elosga)

Gorpua andazainek gorutzbidean barrena daramate. Tolosa, 1936.

Andazainek edo hilketarieki, hau da, zerraldoa zeramatenei, bide jakin eta aldaezina egin behar zuten. Bideok lotzen zuten etxean

²⁵⁴ Lekuko 02

²⁵⁵ Lekuko 02

²⁵⁶ Eranskinako Anoetako mapan, baserri bakoitzaren kokapenez gain herriko gurutzbideak ere zehazten dira.

eta eliza modu fisikoan eta sinbolikoan. Gurutzbideak herribideak ziren, baseria elizarekin lotzen zuten bideak. Bide sakratuak ziren eta urtean bi aldiz edo bideak auzolanean garbitu ohi ziren. Bide bat gurutzbide gorpua igarotzean bilakatzen zen, “*Anotan bada kasua xelebrea, bide bat gurutz-bide ez izateko basarritar batek galazi in zun bere lurretatik gorpua pasatzia*”²⁵⁷; halere ez zen ohiko ahalakorik pasatzea.

Hileta-jarraigoak prozesioan egiten zuen bide hori. Aurrena elizako gurutzea joaten zen, hildakoa elizaraino gidatuko zuena. Aldez aurretik, apaiza hildakoaren etxera joaten zen, gorpuaaren kargua hartzeko eta berau elizara eramateko. Horregatik, zerraldoaren aurrean joaten zen erritzuko otoitzak eginez. Ibilbidean zehar hil-kanpaiak joazten ziren, gorpua elizaraino heldu artean. Hileta-jarraigoan toki agirian eramatzen ziren antzina sepulturako ofrendak (ogiak, eroskak, intzentsua...)

Hileta-jarraigoa edo segizioa, senideek eta auzokoak hildakoarekin situtzen loturen arabera osatua izaten zen. Odoleko edo erantsiak ziren senideek ondrako taldea osatzen zuten eta, senidetasunaren graduaren arabera hartzen zuten zegokien tokia, bai emakumezkoek eta baita gizonezkoek ere. Zenbat eta senidetasuna estuagoa izan, dolu edo lutua hainbat eta ageriagokoa izaten zen soineko eta jantzi- tan, horrek hildakoarekin bakoitzak zuen lotura erakusten zuen.

Hileta jarraigoan ez ziren antzina hain ugariak senide ez ziren laguntzaileak. Hauek karitatzeko taldea osatzen zuten, kristau elkartasunaren arrazoiz zaudela aditzera emateko. Noiz edo behin hileta-jarraigoan ikur-oihalak ere eramatzen zituzten, hildakoa zein eliz elkartetako zen adierazteko, hau da, zein kofradiatako kide zen.

Hileta elizkizunaren egunean, apaiza eta akolitoa joaten etxera eta hildakoaren aurrean otoitzaldi bat egin ondoren, elizako bidea hartzen zuten. Hildakoaren kaxa eramateko andazainei, andak eramateko gizonak edota andagizonak egoten ziren. Andak edo angaiak hilkuTXA eramateko bi makila antzerako egurrak izaten ziren. Beraz, bi egur luzeren gainean hildakoaren kaxa jartzen zen, bizka-

rrean erosago eramateko. Andazainak ezin ziren senitartekoak izan, ezta etxea bi bizitzakoa balitz etxekonekoa ere. Ezin zen ezkondua ere izan, baizik eta ezkondu gabekoa, gero aldatu bazeen ere. Hildakoa herri gunetik urrun bizi bazeen, andazainak lau ez baizik eta sei izaten ziren, txandakatzeko. Hildakoa hankaz aurrera eramatzen gurutze bidetik. Angaia edo anda eramatzen zutenak altura antze-koak izaten ziren, hala izaten saiatzen ziren behintzat; tarteka beraien kokalekuak aldatu egiten zituzten: ezkerrekoak eskubira eta alderantziz; bizkarra deskantsatzeko.

Elizako bidean, bada, geldiuneak ere egiten ziren eta horretarako zen- bait baserri aurretan mahai bat jartzen zen hilkuTXA bertan uzteko eta andazainek deskantsatzeko. Otoitzaldi bat ere, ‘Pater Noster’-a egiten zen, eta berriro elizako bidea hartzen zen. Elizbide hau jaztetxeen bukatzen zen. Hau da, baserritik etortzeko kalekoak ez ziren jantzi eta oinetakoak ekartzen zituzten baserritarrek. Beraz, jaztetxeen bertan aldatzen ziren, Anoetan hau guztia Modestoenean egiten zuten.



Gorpua andazainek gorputzbidean barrena daramate. Tolosa, 1936.

Bestalde herrian ohituraz bi lekutan mahaia jartzen zen angaia utzi eta deskantsatzeko, bat Erausi baserriaren aurrean eta Modestoenean bestea. “*Mahai hau zapi beltzakin jartze zan. Gue etxe aurren [Modestoenean] angaia utzi eta oinetakok aldatze zituzten angazai- nek. Jende asko biltze zan etxe aurren ta ondorenian komitiba dena*

²⁵⁷ Lekuko 03

batea eliza jute zan". "Jendek basarriko atain itxoite zion gorputzai. Handikan, etxe aurretikan pasatutakon, komitibara jute ginan

Han txukunduta, elizatik apaiza gorputzaren bila etortzen zen. Orduan, berriro hilkutxa hartu eta, hil kanpai hotsen laguntzarekin, elizako bidea hartzen zen. Komitiba handia izaten zen gorputzarekin elizako bidea hartzen zenean:

- 1. Ogiduna. Beltzez jantxitako neska gazte bat. Buruan, zapi baten gainean, otartxo bat ofrendarako ogia eta eroskarekin eta baita sepulturarako argizariarekin ere.
- 2. Akolito bat edo bi, gurutzearekin, eta ondoren apaiza kapa zuri eta liburuarekin.
- 3. Andazainak gorputzarekin.
- 4. Etxekoak.
- 5. Hurbileko ahaideak
- 6. Auzo hurbilena.
- 7. Gainerako familiakoak

Senitartekoak, gizonak kapa beltzekin eta emakumeak mantoi luze batekin, joaten ziren jantzita. Bestalde, azkeneko urtetan ogiduna ez zen joaten komitiban. Zenbaitetan kaxari lau lazo jartzen zitzazkion, eta lazo horiek eramatzen gertuko lau emakume izaten ziren.

Anoetan gorputz bideetan zehar elizara angaietan eraman zen azkeneko tapia baserriko Hipolito Iraola izan zen, 1975eko otsailean.

Hileta-elizkizunak

Kristau lege zaharrak, hildakoaren aldeko meza hilotza eliz erdian ematea agintzen zuen. Hileta-elizkizunean, luto-bankuak, elizako lekurik agerienak, doluan zeuden gizonezkoentzat ziren. Familiako emakumezkoak hilobi sinbolikoaren aurrean, sepulturan, esertzen ziren, etxe bakoitzak elizan berea izaten baitzuen. Lehengo mendean estatuaren herri-aginduek debekatu egin zuten hildakoak eliz barrura sartzea, hilotza aurrean dela hileta-elizkizuna egiteko. Lehenagoko usadioen eta berrien arteko tira-bira horrek ekarri zuen

zerraldoa elizpean uzteko ohitura, elizako ateak irekita zeudela. Inoiz, zerraldoaren ordez katafalkoa jartzen zen eliz barruan.

Elizako erritualean zehaztutako elizkizunak berdinak ziren hildako guztientzat. Halere, hileta guztietan ez zen beti apaiz kopuru bera egoten, elizkizunetan ez zen beti argi kopuru bera piztuta egoten, kantuak ospe handi edo apalagokoak ziren, eta ondra-mezak ere gehiago edo gutxiago izaten ziren. Era honetako ezaugarriek bereizten zitzuten kategoria edo maila desberdinak hiletak, Vatikanoko II. Kontzilioak eragindako liturgia-berrikuntzeta arte indarrean iraun zuten.

Esan bezala, kategoria desberdinak elizkizunak zeuden. Poltsikoaren arabera hiru motatako elizkizunak egiten ziren: 'primerakoa', 'segundakoa' eta 'terzerakoa'. Bataren eta bestearen arteko desberdintasuna elizako aldare desberdinan meza ematen zuten apaiz kopuruan zetzan. Horren arabera, primerakoa bazeen elizkizun nagusia hasi aurretik, aldare desberdinan mezak ematen ziren; lehendabizi jendea ordurako elizaren barruan zegoela. Hogeita bat minutuko mezak izaten ziren, eta horiek bukatu ondoren elizkizun nagusia hasten zen. Elizkizun osoa ordubeteren bat luzatzen zen eta gastuak senitartekoek ordaindu behar izaten zitzuten.

Abeslariek kobratu egiten zuten, hasiera batean, 7-10 pezeta eta gero 25 pezeta ere bai. Hiletak goizez izaten zirenez, jende askok lana utzi egin beharra izaten zuen.



(Jesús Esosgi)

Mariaren Alabak kofradiko kide batzen hileta. Aldaba, 1935.

²⁵⁸ Lekuko 01

Emakumeak elizaren atzoko aldean, sepulturetan, eta gizonezkoak aurrekaldean jartzen ziren, aulkietan. Etxe bakoitzak zeukan bere sepultura, eta aulki azpian etxearen tradiziozko hilobia. Hilobiak ez zuen ez zenbakirik ezta izenik ere. Hildakoaren hilobian, berriz manta beltza, bi argizari, oholean lotuta (argizaiola), eta bi kandela kandelero baten sartuta kokatzen ziren. Lehenago hileta garaian hilobian ezin omen ziren maizterrak egon, baizik eta etxe jabeak izan behar ziren. Beraz, hileta garaian, aurretik eskatutako etxe bateko jabea egoten zen. Meza bukatu ondoren, apaiza, edo apaizak primearakoa bazen behintzat burututako elizkizuna, hilobira joaten ziren eta bertan “Pater Noster” bat edo erresposta egiten zen.

Gorputz ‘presenteko’ meza izaten zen, lehen esan bezala hiru motaakoak: “primerakoa”, “segundakoa” eta “terzerakoa”. “Argia’re garrantzitsua izate zan ordun: primerakon, esateako, argi geigo, ta eliza erdin zeon argi “araña” huandia’re piztuta eoten zan; “terzeracon” berriz, iskinekok bakarrak. Meza guztia latinez izate zan; guk ez genun eze entenditzen. Esaten da lehen meza entzutea bakarrik jute zala”²⁵⁹.

“Entierroa garai hartan goizez izate zan ta bazkai-legea geo. Aspaldiko kontuk die, baño, aurrena gorputza enterratze zan ta geo meza atea. Hiru kategoriko entierrok zeuden, lotsagari azan, nik hala ustet behintzat.. Primerakoa, segundakoa eta tertzerakoa, bakoitzan diruk dependitze zun. Poltsikok agintze zun ordun’e. Gue jaungoikua pobre il zan baño!”²⁶⁰. Esan bezala, gehien ordaintzen zen kategoria, primerakoa zen eta, primerakoa eta tertzerakoa apaiza kopuruak, nahiz ordutegiak ezberdintzen zuten. Tertzerakoa pobreena zen, elizkizunik merkeena. Apaiza bakarrak ematen zuen meza; azkar-azkar goizeko bederatzietan. Segundakoan apaiza gehiagok hartzten zuen parte, bederatzik eta erditan ospatzen zen meza. Primerakon, berriz, kanpotik etortzen ziren apaizak. Ahalmen ekonomiko handikoek aldarea bete apaizekin izaten zuten elizkizuna. Abesbatzak ere abesten zuen goizeko hamarretako elizkizunean.

“Anotan, primerako mezan sei eo zortzi apaizek ematen zituzten elizkizunak, gehienetan aurrena hiruk eta ondorenen hiru hok

korura jute zian kantatzea. Garai hartako hiletetan kantei importantzia handia emate zitzaison. Hileta elizkizunak baino ordubete lehenagotik haste zian. Anotako elizako hiru aldaretan ematen zien mezak, danak batea. Nei tokatu zait akolito bezela bi aldaretan meza-launtzea korrika batian, bi meza aldi berian. Meza aurrekoari vespertina deitzen zitzaison”²⁶¹.

Primerako elizkizunak ospatzean Don Dionisio Telleriaren arrebak, Bibianak, txarro bete txokolate eta bizkotxoa ematen zien bertaratuko apaizei, entierroa eta gero. Akolitoak ezkutuan eta ostutzten ibiltzen omen ziren, txokolatea nola probatuko. Anoetan entierro gehienak segundakoak izaten omen ziren, tertzerakoak ere bai, baino gutxiago izaten ziren. Primerakoan kanpotik ahots oneko apaizak eta kantariak etortzen ziren eta kandelak aldare bakoitzean bi eta intzentsua ere botatzen omen zen. Segundakoan hiru apaizek parte hartzen zuten, bakoitza aldare bakoitzean eta tertzerakoan apaiza bakarrak.



(Jesus Elortegi)

Mariaren Alabak kofradiko kide batzen hileta. Aldaba, 1935.

Elizkizunak ez dira bakarrik hileta-egun horretara mugatzen. Etxekoek, senideek eta auzokorik hurbilenek, dolualdiak irauten zuen arteko elizkizun guztietan parte hartu behar zuten. Dolua, norbait hiltzeak sortzen duen nahigabea da, eta dolualdiari zegokion garaia

²⁵⁹ Lekuko 03

²⁶⁰ Lekuko 02

²⁶¹ Lekuko 02

ere jarraitu beharreko erritualez osatua zegoen. Hauen artean aipa daitezke ondretako meza eta hileta ondoko bederatziaurrena. Dolualdia urturreneneko mezarekin amaitzen zen, hil eta urtebetegarrenean hiletaren antzeko elizkizuna izaten zen.

“Gertuko norbait hiltze zanen preokupazio haundinetakoa, ‘zein arropa tintatuko’et beltzez?’ izaten zan”. “Hildakok gurasok o anai-arrebak bazian, bi urteko lutoa in behar izate zan. Aiton-amonak edo osaba-izebak hiltze bazian, konpazio batea, sei hilabetekoa”. “Anaia hil zanen, ni behintzat, urtebete beltz beltzez ibili nitzan. Txuri-beltzez beste urtebete”.”Amona, aitona eta osabaren bat segidetan hiltzen bazian, bueno... denboraldi luzia pasa behar beltzez jantzita”²⁶²

Kontzilioa aldatu zutenean aldatu zen hainbat ohitura ere. Orduan gorputua elizara sartzen hasi ziren, elizkizuna egin eta gero lurperatzen.

-Corpuaren lur-estatea

XIX. mende hasierako urteetara arte, Hego Euskal Herrian ohitura zen hildakoei eliza barruan lurra ematea. Etxe edo familia bakoitzak elizaren zoruan zeukan lurperatze-leku bat, sepultura bat. Gerora kanposantu edo hilerriak elizaren ondoan eraikitzen hasi izren eta XX. mendean, azkenik, elizatik aparte eraikitzen hasi zirenean, etxeek elizetan euren hil-lekuok gorde zituzten eta antzinako hileta-ohiturak gauzatzen zituzten haietan.

Hilobi sinboliko hau, defuntuentzako aldare bat bezala zen, bere argizaiola eta oihalekin apaindua, etxeko defuntuen alde otoitz egin eta ofrendak eskaintzeko lekua. Sepulturako argiak piztu eta defuntuei eskaintzak egiteko ardura etxeko andareari zegokion. Eginbehar hau ezkontzako kapitulazioetan ere jasotzen zen antzina, eta etxeko hilobiaren arduradun nagusi izateko kargua, sepultura hartze ekitaldiaren bidez egiten zen, aldez aurretik izendaturiko igande bateko meza nagusian.

Emakumeak, etxeari loturiko gertaeren memoriaren jasotzaileak ziren. Emakumeei dagokie santuak gogoraztea, eta zailtasunen, etxe-aldaketen eta ospakizunen ardura baraiena zen. Hildakoak eta erbesteratuak edo lan zein ikasketa-arrazoiak direla-eta, joan zirenak gogoratu behar zituzten. Erbesteratze eta gerra-garaien nahigabeen gordailu ziren. Hau da, ausentzia bertaratzea zen beren zeregina.

Euskal kultura tradizionalean, emakumeek hildakoaren oroinmena aktibatzen zuten. Oroimen honen irudikapen sinbolikoa elizan leku bat okupatzean zegoen, sepulturan, alegia, eta emakumeek argizaiolaren bitartez iraganaren eta orainaldiaren arteko lotura irudi-katzen zuten. Bertan, jarraitasuna naturatik hartutako sinbolean eta amaren funtzioaren erreferentziaren bitartez adierazten da²⁶³. Iragana orainaldiira ekartzeko prozesu hauetan guztietan, beste pertsonen oroinmena aktibatzean, zeregeinei buruzko jakintzak, ezagupenak, eta gorputzaren bizipenak transmititzean, emakumeek memoriara jotzen du, bere memoriara alegia. Bizi-memoria da, zenbait kasutan emozio desberdinetan eta xehetasun sotilekin adierazten dena. Memoria hau, maiz, aberastasun narratibo izugarriarekin eta xehetasun ugarirekin azaleratzen da. Oro har, emakumeek ausentziak presentzia bihurtzeko zeregina esleitu izan zaiela esan daiteke, maite izandako eta ingurune familiarrekin loturiko gertaeren oroinmena lantza alegia.

Etxeko hilobiak garrantzia berezia hartzen zuen hileta-mezan eta dolualdiko elizkizun guztietan. Hildakoaren etxekoek argiak, ogia eta dirua uzten zituzten bertan defuntuaren arimaren alde. Herriko beste etxe batzuetatik ekarritako opariak ere han jartzen ziren, etxeen arteko harremanaren adierazgarri.

Sepulturako argiei esangura mistiko bereziak ematen zizkioten, heriotza ondoan hildakoaren arimak bizirik irauten zuela pentsatzen baitzen atxikiak. Behinolako ogi edo labore oparien ordez, denbora igaro ahala, dirua uzten hasi zen jendea. Apaizari ematen zizkiten, hildakoaren aldeko otoitzak, erresponatsuak, sepulturan egin

²⁶² Lekuko 03

²⁶³ Teresa del Valle (1996: 50)

zitzan, hildakoak horretara betiko salbamena erdiesteko; purgatorioan epaitzen ar izen arimaren lagungarri gisa.

Aurreko mendeko 60. hamarkada arte, sepultura edo hilobi sinboliko hauek izan ziren Anoetako etxeko hildakoentzako alde otoitz egiteko errezu-leku bereziak. Eta, hildakoari han lur ematen zitzaion bitartean, doluko emakumeak edo mindunak eliz barruan irauten zuten hilobi sinbolikoaren aurrean. Hilobia etxearen zati bat izaten zenez, arreta bereriz zaintzen zen leku sakratua izaten zen.

Anoetan kanpusantu edo hilerri zaharra elizari atxikia zegoen, gaur egun haur parkea kokatzen den orubean bertan. 1942-50 artean obrak burutu eta handitu egin zen. Gaur egungo hilerria 1976an konagratu zen eta hilerri zaharreko gorpuak ere hara eraman ziuzten. Nitxoan sartzen lehena Patxi Arregi herriko organista izan zen.

Herriko edadetuenek ez bazuten ezagutu ere, aditzera dute Isasti mendian tifusarekin kutsatuta hildakoak hobiratzeko behin behineko hilerri bat ere egokitu zela, “*gure aiton-amonen garaian-edo*”; oraindik ere zutik diraute hilerri horren lau hormek.



Tifusaz kutsatuta hil zirenak ehorzteko eraiki zen hilerriko aztarnak. Anoeta, 2008.

Hileta elizkizuna bukatu ondoren, elizako atzeko aldean, han kokatua zegoen gorputza hartu eta berriz eta kanposantuko bidea hartzen zen. Gero, gorputza, kanposantuan dagoen kaperan sartzen zen, eta azken otoitzaldia egiten zitzaion. Jarraian, lurra ematen zitzaion.

Baina lurrez estaltzen hasi aurretik, jendeak lur pusketa bat hartu eta “*Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, amen*” eginez, ordurako zuloan zegoen hilkutxa gainera botatzen zuen.

Hileta-elizkizunaren ondoren, jarraigoa, dolukoak behintzat, eliza-raino egindako bidean gordetako ordena berean etxeratzen zen. Etxean, bertako bat galdu izanagatik mina agertuz, etxekek eta senideek bazkari bat egiten zuten elkartsunean, defuntuaren eta “*aurretik etxetik joandako guztien alde otoitz eginez*”. Apaizak edo lehen auzokoak zuzentzen zuen otoitza. Bazkari horretan defuntuaren alde limosna eman zuten guztiak, hau da, mezakoak izaten ziren mahaikide.

Herriko ohiturak agintzen zuen epean baten, etxekek mugatuta zituzten haien gizarte-harremanak. Hildakoaren aldeko elizkizun guztietan egon behar zuten bitarte horretan eta hildakoarekin nola-kо ahaidetasun-lotura izan, halako dolu edo luto ezaugarriak agerian eraman behar zituzten beraien soineko jankeran.

Elizkizuna bukatzen zenean eta jendea ilaran jarrita, “*Pater Noster*” bat errezzatzen zuten. Ondoren, adierazten zuten hortarako izendatuek edo hildako senidearekin harremana zutenek, meza-dirua jasotzea izango zutela halako tokian. Eta halaxe joaten ziren ostatu edo tabernan ogia, gazta, intxaurrak, pikuak... jatera eta ardoa edatera. Kanpoko jendeari bazkaria ere ematen zitzaion.

Hileta-bazkaria, hiletan eta ehorzketen esku hartzen zutenek eta meza-dirua eman zutenek egin ohi zuten bazkari oparoa izaten zen, Anoetan Modestoenean egin ohi zena. Aspaldi, hileta-bazkarietan gehiegikeria ugari egiten omen zen, Gorosabelek ere ondoko utzi zuen idatzita:²⁶⁴ “*los muertos destruían a los vivos*”. Nahiz eta gehiegi keria horien aurka probintzia eta udalerri mailako arau asko eman, ahaide hurbilei harrera ona egiten zitzaien ohiturak mantenduz. Bazkarira normalean familikoak eta meza-dirua ematen zutenak joaten ziren, normalean Modestoeneara. Gero familia-koak bakarrik joaten hasi ziren, urrunetik etorri eta “*komenentziaik ez zutelako bertan geatzen zianak*”²⁶⁵, geroago hamaitetakoa egiten

²⁶⁴ Gorosabel (1899, IV tomoa, 296)

²⁶⁵ Lekuko 01

zen. Bazkarian ondokoa jaten zen: zopa, garbantzuak berdurarekin, legatza prejitu, xerra patata prejitu kekin edo piperrekin, kafea eta pattarra. Elizkizuna ere ordaindu behar izaten zen.

Ez zen hor dena bukatzen, izan ere, hiru egunetan zehar aparteko elizkizun batzuk ere egiten ziren, kantu eta otoitzekin, hildakoaren alde: ondrak omen ziren, "hildakon ariman aldeko elizkizunak, ondrak"²⁶⁶. Eta hauiek bukatzen zirenean ere jateko (ogia, gazta, intxaurrek...) eta edateko (ardoa) usadio izaten omen zen.

Dolua urtebetekoia izaten zen eta hildakoa oso hurbilekoa bazen bi urtetakoia. Beltzez janztekohi garaia zenez, arropa tindatzera eramaaten zen. Urtebetean zehar etxekoren bat joaten zen meza nagusira manta beltza zegoen hilobian egotera eta argizaiola piztera. Urtebetera egiten zen hildakoaren ospakizun meza. Hilobian argizaiola piztuta, apaiza joaten zen hilobia zegoen tokira eta bertan 'Pater Noster' bat egiten zuen eta ur bedeinkatua bota. Ondoren, hilobian zegoen manta beltza jaso eta elizkizuna eta dolu garaia amaitzen ziren. Gero, kanpotarrei hamarretakoa eskaintzen zitzaien. Santu Guztien garaian, egunetik hasi eta azaroa bukatu arte, berriz, meza nagusiaren barruan, etxearen egindako ogia eta eroska uzten ziren hilobian, eskaintza edo ofrenda moduan.

"Hurbilekoa zanen hildakua, bi urtetan mantentze zan dueloa. Bi urte hoitan basarri bakoitzan elizako sepulturan atxak ta bi argizai jartze zian. Bi urte pasatakon argizaiola jartze zan. Lenengo urten mantalina ta mantu beltza jantzita juteko usarioa ginun, tapa-tapa einda ta bigarrenen mantalina bakarrik. Urtebete luto riguroso eta bigarrenean luto txuri-beltza. Urte bitan ogia emate zan ofrenda bezela bezperetan, igandero-igandero eta eroska bostpeztak. Bostpeztak bost egun espezial zian, egun berezik: 3 pazkoak, Santu Guztia eta San Juan eguna. Lehen urteko eroskak handiagoak zian eta bigarrenekok txiki-gok. Eroskak ta ogik Tolosako panaderin indakoak izate zian, guk eroeste genitun [Modestoenea], ta gue ama zana [Carmen Ormazabal] izate zan sepultura bakoitzan zegokiona uzte zuna. Tamaina diferen-teko eroskak edo ogia. Ogia edo eroska uzteko obligazioari preguad eitzen genion, guk behintzat hala ezautu genun"²⁶⁷.

-Orantsuko aldaketak

Hona arteko atalean, inuesta egin den herrietai oraintsura arte indarrean egon diren heriotza ohituren berri jaso dugu. Gure berriemailek bizi izan duten eta gogoratzenten erritu sistema honek aldaketa sakonak jasan ditu, oso denbora laburrean gainera. Galdeketetan nabarmentzen da aldaketa-prozesu horren unerik gailenetako bat hirurogeiko hamarkadaren amaiera izan zela, Vatikanoko II. Kontzilioak hiletan eremura ekarri zuen berrikuntzaren ondorioz.

Berrikuntzok direla-eta, hileta elizkizunak gorputua eliza barruan zegoela egiten hasi ziren berriro, eta zerraldoaren ordez eliza erdian jartzen ziren katafalkoak baztertu egin ziren. Hileta-ohituretan era-gin handiagoa izan zuen oraindik hileta-mezak arratsaldez egiteak. Arin zabaldu zen ohitura berri hora, lan munduan gertatu ziren ordutegi-aladaketekin ere ondo egokitzten baitzen. Horrela, galdu egin zen goizeko hileta-elizkizunaren ondoren hildakoaren senide guztiak haren etxearen otordu eta bazkariak egiteko ohitura.

Hileta-elizkizun berria erabat laburtu zen, defuntuaren ondra-kan-tua kentzean. Elizkizuna latinez egiteari ere erabat utzi zitzaiion. Liturgia berrian liburu santuetako irakurgaiak tokiko hizkuntzan egiten hasi ziren, eta kantuek ere pazkoetako kutsua hartu zuten. Horrela, hiletak heriotzaren kristau-misterioa modu gozoago eta erruksuagoan agertzen zuen.

Urte haietan beste aldaketa bat ere izan zen; elizako solairu guztia luzetara jarritako bankuekin bete zen. Hori dela-eta, sepulturak ere kendu egin ziren; eta etxeko hilobi hauetan defuntuaren alde argiak eta limosnak oparitzeko ohitura ere galdu egin zen.

Anoetan, sepulturak elizatik kanpora ateratzeak defuntuen aldeko otoitz-leku berezia lekuz aldatzea ekarri zuen. Handik aurrera, kanposantuko hilobia zaintzeak garrantzia handiagoa hartu zuen eta haraxe eramatzen zitzuten argi eskaintzak. Gero, argien ordez loreak jartzeko ohitura zabaldu zen. Halere, hileta ohituren aldaketa, ez dira hileta-mezetan egin diren berrikuntzengatik bakarrik gertatu.

²⁶⁶ Lekuko 03

²⁶⁷ Lekuko 01



(Agirre baserria)

Etxekoandrea lutoz jantzita.

Aldaketa-prozesu honetan nabarmenen eragin duen giza-ger-taera hauxe da: gero eta jende gehiago hiltzen dela ospitaletan edo zaharrentzat egokitutako egoitzetan. Hori dela eta, maiz gertatzen da gaur “etxetik kanpo hiltzea”. Egoera berri honetan, antzina etxearren inguruaren izaten ziren heriotza usadioak erabat desagertu dira: elizakoetara joatea, heriotzaren berri ematea, hildakoa janztea, hil-ohea atontzea, auzokoek gaubelan parte hartzea.

Orain hileta-jarraigoa ez da hildakoaren etxetik prozesioan irteten hilotza elizara eramateko. Antzina ohiturari nabarmenena zena erabat sinpletu da, orain hilotzari hileta-elizkizun aurretxoan eliz-pean egiten zaion harrera besterik ez baitzaio egiten. Gurutz-bideak edo andabideak, hileta segizioak oinez egiten zituen ibilbidea erabat desagertu dira, eta antzinako hilbideak ere, andabideak, etxe bakoitza elizarekin lotzen zutenak, guztiz ahaztu dira. Horietako asko sasiak hartuta daude, besteak hesituak eta badira urbanizatutako zatiak ere, etxeek desagertarazi dituztenak.

Orain dela hogeita hamar urtera arte heriotzarena auzoko jazo- era bat zen. Gertaera horrek erabateko lehentasuna ematen zion hildakoaren etxeari. Auzoko guztiak hurbiltzen ziren hildakoaren etxekoei laguntzera, eta hildakoa bertan zegoen bitartean, etxeko egin beharrak betetzen zituzten. Hildakoaren etxe barruko horiek izan dira heriotza ohituretan gehinbat desagertu direnak. Galdeketetan ere argi islatzen da, desagertze honen eragile izan direla besteak beste, gaur egun auzokoen arteko harremannak hain estu eta lotuak ez izatea, lana ere auzotik kanpo egiten baitute gehienek orain.

Egoera berri honetan, heriotzaren gertakizuna senideen arera mugatu da eta lehen auzokoek ziren eginkizunak orain etxeko eta senideek hartzen dituzte bere gain. Gaixoa etxean dagoenean apaizak berak ematen dizkio elizakoak isilean, auzokorrik gabe. Hilda gero, gertukoaren direnak etorriko dira familiari doluminak ematera eta hauek gorputza barruan duen zerraldoaren aurrean egongo dira une labur batez. Lehenago etxean bertan egiten zen arrosarioa, hara biltzen zirela auzoko guztiak. Orain

aldiz, elizan egiten da. Gaubela, etxeko heriotza ohitura gisa, erabat desagertu da.

Heriotza-ohituretan eragin nabarmena izan duen beste arrazoie-tako bat heriotza zerbitzuak merkaturatzea izan da. Mende honen bigarren erdian, heriotza enpresa eta agentziak gero eta gehiago zabaldu dituzte haien zerbitzuak. Eta haiek izan dira pixkanaka, lehen auzokoek ziren zeregin eta funtzieen ardura hartu dute-nak. Auzoen obligazio gisa, auzokoek egin ohi zituzten zereginak ziren, esaterako, hildakoa garbitu eta janztea, gorputza edukiko zuten gela egokitzea, heriotza aldarrikatzea, senideak jakitun jartzea, dolualdian etxeko lanez arduratzea eta, batez ere, zerraldoa etxetik elizara eta kanpusanturaino eramatea.

Usadio zaharrean, heriotzaren gertaerak auzoen artean harreman estua sortzen zuen eta, gehiago edo gutxiago, guztiak emanen zieten laguntza hildakoaren etxekoei. Gorago aipatu ditugun eginbeharren bidez adierazten zen elkartasuna, baina, gaur egun merkatal zerbitzuek betetzen dituzte zeregin horiek, heriotza zerbitzuek. Zeregin horien profesionalizaziorik handiena tanatorioena litzateke, bertan egoten baita hilotza elizkizunera arte.

Lehenagoko bizimoduan, hildakoaren etxea zen heriotza ohitura nagusien erdigunea; bertatik irteten zen hileta-jarraigoa, gehienbat etxeko eta senideek osatzen zutena, eta bertara itzultzen ziren guztiak elizkizunak amaitu eta kanposantuan gorputzai lurra eman osteen. Baina etxean egin ohi zen gaubela desagertu osteen, eta etxetik elizarainoko prozesioa ere galdua, hileta-ohiturak elizakoetara mugatu dira gehienbat.

Hileta-elizkizunetan antzina baino lagun gehiago elkartzen da orain. Inkestetan jaso denez, jendeak bere burua behartuta ikus- ten duela du auzoko, lagun eta ezagunekiko atxikimendua era-kustera, etxekoena eta senideen hileta-elizkizunetara joanez. Berriemaile batek esaten duenez “len hildakongatik juten ginan; oain, hildakoen etxekongatik”. Hiletetara lagun gehiago joan ohi den arren, defuntuaren alde mezak ateratzeko ere atzeraka handia egin du.

Familiakoei ematen zitzaien meza-dirua, edo elizan ematen zena, etxeen eta familien arteko harremanen adierazgarri zen. Familia batzuetan oraindik jaso eta ematen badira ere; beste askotan galdu egin da usadio hau. Kasu honetan eta heriotzaren inguruko ohitura batzuen galeran, eragin handia izan du herritarren pentsaeraren aldaketak, bai eta erlijiotasunak izan duen gainbeherak. Oraintso arte, dolualdian izaten zen eginbehar nagusia hau zen: hil-dakoaren etxeko eta senitartekoak elizkizunetara joan beharra, defuntuaren arimaren alde otoitz eta ofrendak egitera.

Dolualdi honetan egiten ziren hileta-elizkizunak; bederatziurrena, hileroko arimen meza eta igandeko sepulturako argi-piztea izaten ziren. Gaur egun hiletaren hurrengo igandean egiten den meza eta urteurreneneko elizkizunak soilik mantentzen dira.

Etxekoek eta senideek heriotzaren ondoren jantzietai eraman ohi zituzten lulu-ezaugarrak ere guztiz gutxitu dira; orain ez dira horren ageriak eta denbora laburra irauten dute. Aldi berean, oraindik gehiago baztertu dira gizarte-harremanetarako eta jolas-kiroletarako lege zaharrak ezartzen zituen debekuak.

Azken aldian beste joera bat ere azaldu da: gorpu edo hilotzak errautsbihurtzearena. Laurogeita hamargarreneko hamarkadan asko zabaldu zen ohitura hau, batez ere hiri handietan. Baino joera honek ez du baztertu gorputza lurperatzeko ohitura zaharra, familiek hileriretan dituzten hilobietan alegia.

4.4. Babeserako sinboloak

Hainbat landare eta zuhaitz etxearen babesle dira, besteak beste, erramua, lizarra, haritza, eguzkilorea... Antzekoa esan daiteke hainbat iturburueta uretaz, harri zehatz batzuez edota udako solstizioko goizean jasotako erramilletaz ere. San Joan bezperan, Anoetako etxekoandreen zeregina omen zen San Joan lore, arrosa, krabelin, arto landare, gari-buru eta etxeko fruta ezberdinenean artean erramilletia edo landare-sorta osatzea. Erramilletia hurrengo egunean bedeinkatzera eramatzen zuten. San Joan sua herriko plazan eta baserri bakoitzaren lekurik ikusgarrienetan pizten zen.

²⁶⁸ G. Le Bras in Gurutzi Arregi eta Ander Manterola (1993: 535)

Sua, aurreko urtean bedeinkatutako erramilletiaren hondarrekin pizten zuten eta belar, garo eta adarrekin elikatzen. Babeserako edo sendatzeko duten indarra sakratutzat diren leku edota denborarengatik datorkie.

Alabaina, herri sinesmenetan babeserako edo sendatzeko sinboloen gaitasuna haiekiko burutzen zen bedeinkazio erritoari zegokion. Bedeinkapen hori, sarritan sinbolo hori irudi sakratuarekin kontaktuan jartzean edota leku sakratuan ezartzean lortzen zen. Ohikoagoa zen halere, apaizak jarraitutako erreza edota ur bedeinkatuaz egindako ihizadura. Honela sinbolo babesleak sortzen ziren soroetan botatako ur eta gatz bedeinkatuak, larunbat santuko ardagaien jasotako suberría, ogia, zekaleak, fruituak, animalien zintzarriak, gurutzeak, animalia edota pertsonen eraikinetan jarritako estanpak, jantziak, eskapularioak, lokarriak...

“Anoetan herriko apaiza auzoz auzo, baserriz baserri, etxeko lurak eta animaliak bedeinkatzen ibiltzen zen. Akolitoak etortzen ziren apaizarekin baserrietara eskuan saski bat zeukatela. Sotanaren gainean apaizak tunika zuri bat zuela, otoitz liburua ateratzen zuen eta soroei begira otoitzaldia egiten zuen, latinez. Guk entzun. Aldi berean, etxeen Pazkotatik gordeta geneukan ur bedeinkatua ur-baso baten ekarri, sartu bertan Erramu egunean ere bedeinkatutako erramu lakatz bat eta gure Jaungoikoak gaitz, haize, hodei eta besteetatik gordetzeko esanez, apaizak bazter guztiak bedeinkatzen zituen. Ordainetan, dozena bat arrautza-edo ematen zitzazkion apaizari, eta akolitoak hartu eta saskian sartzen zituen. Ondo kargatuta joaten ziren kalera!”

Sarritan, bedeinkatze errituala (otoitza, zeinuak egitea eta ihizadura) zuzenean aplikatu ohi ziren: haurrei, ondoezik zeudenei, etxe-ko aberei, lanabesei, autoei, eraikin berriei, uztei, lainoei... Le Brasen hitzetan²⁶⁸ “una doble aspiración ha animado a las poblaciones cristianas de todos los tiempos: hacer descender el cielo sobre la tierra y elevarse ellos mismos de la tierra al cielo”.

4.5. Herri-debozioak

Gurutzeari, Amabirjinari, Sakramentu Santuari, santuei... kultoak egiteak modu erritual ezberdinak hartu izan ditu. Arrosario errezo-



(Agirre baserria)

Lizar adarrak San Joan egunean. Anoeta.

ak, bederatzurren edo hirurren, prozesioak eta erromesaldiak, viacrucisak edo kalbarioak.. Deboziozko praktika hauek talde baten bizitza erlijiosoaren baten elementuak osatzen dituzte.

Herri-erlijioak bere hierarkizazio parametro propioak ditu. Erlijio ofizialarentzat lehen mailako den ospakizuna zenbaitetan ez da haintzat hartzen; aldiz, garrantzia gutxiko santu edo santa batek babesle handi baten konsiderazioa har dezake baita urteko ospakizun handi baten merezimendua ere.

Herri debozioen baitan erlijio elkartea zenbait egituratu izan dira, besteak beste kofradiak edo kongregazioak. Hauek autonomia zeraitekin, erlijio betebeharrok, ospakizun erritoak... erregulatu

izan dituzte. Bestalde, debozio hauek artearen produkzioa, musika eta ahozko literaturaren agerpenak (koplak, eresekiak, dantzak, ikonografia...) gauzatu izan dira.

Herri debozioaren beste agerpen bat tenporena da. Eguraldiak nekazaritza gizartearren jarduera nagusia izan den lekuetan garrantzia handia izan du, beraz eguraldiaren aurrikuspena komunitateko kideek ezinbestekoa zuten. Testuinguru honetan herri-debozioak fede handia izan die tenporei. Berez, abenduaren 13aren, Mendekoste egunaren, irailaren 14aren eta Hausterre egunaren ondorengo asteko asteazken, ostiral eta larunbatak osatzen dute hiruren bakoitzaz. Hiru gau horietan egiten duen eguraldia uztaro osoan nagusituko dela uste da.

4.6. Etxeko erlijioa

Etxeko bizitzan familiako erlijio tradizioa islatzen duten erritualak eta sinboloak topatu daitezke: otorduei edo lanei hasiera edota amaiera ematen dieten otoitzaldiak; janariei egindako gurutze zeinuak, ur bedeinkatua oheburuan botatzea, bedeinkatutako kandek era-biltzea zorte ona opatzeko (bidaiaren bat edo azterketa baten aurrean), ate edo paretetan zintzilikatutako irudiak, familiako otoitzaldiak, defuntuekiko oroimena etab.



(Argindegia Baserna)

5. Ondorioak

*versutan eguiña, eta guzia
bi partetan beregia.*

Lehenean iracasten direla, Guiristiño
Commun batec, iaquiñ behar dituen
Gauça guehienac: berçean, errateco
Lituquen, halaber othoitz guehienac.

*Ponite hæc verba mea in cordibus et in animis vestris,
Et suspendite ea pro signo in manibus, et inter
oculos vestros collocate, scribes ea super postes
Et ianuas domus tuæ.*

Deut. II. 18. 20.

Ene erranae iduquitçac, bihotçean gorderic
Adimenduac eztuen, gogoeta berçeric
Hartaracotz ingura çac señalea erhian
Bethi hautças orhoitçeco, biçi aiçen guztian
Eta pintaçac beguien aitçiñean enea,
Athal gain eta pareta churietan leguea.



BORDELEN,
I. MONGIRON, MILLANGES. Erregueren

5.- KRISIA. ERLIJOAREN GAURKO EGOERA

Erlijoek bi alderdiri erantzunak ematen saiatu izan dira; batetik, elkarbizitza sozialak dakartzan arazoei eta bestetik, komunitateen mundu-ikuskerarekin lotuta dauden balio etiko eta moralei. Izan ere, erlijoaren funtzioa komunitate bateko kideen bizitzaren azken zentzuari buruzko galderari bere implikazio etiko guztiekin erantzuna ematen saiatzea da. Erlijo ezberdinak historian zehar sinesdunei bere gaitasunen eta bere ekintzen kontzientzia har dezaten giltza ulergarri batzuk eskaintzen saiatu izan dira. Pertsonen arteko harremanak sortzen eta gizartean errotzen laguntzea; mezu erljiioso ezberdinak baloratzeko eta interpretatzeko gaitasuna ematea eta beraien ideia, sentimendu eta desirak adierazteria bultzatzea.

Horregatik, aurreko ataletan ikusi ahal izan dugun bezala, erlijoaren edukiak lagungarri onak dira Anoetako gizarte antolaketa tradizionala interpretatzeko. Izan ere, erlijoek, orokorrean, mundu sinboliko bat osatu eta egituratzen dute, bere errito, mito eta sinboloezin, testu kanonikoak finkatu izan dituzte, eta denbora eta espazio sakratuak mugatu: Sakratua, Santua eta Misterio den Ahalguztidunarekin harremana baiezatzeko, ospakizun kulturalak antolatzen dituzte, sinesdunek Jainkoari eskerrak eta aintza emateko, eta haren grazia berraganatzeko. Erlijoak, dimensio historikoa eta komunitarioa duten fenomeno soziologikoak dira, beraz.

XX. mendeak Anoetako gizarte antolaketan aldaketa nabarmenak ekarri zituen. Industria-gizartean lantegia bilakatu zen ekoizpen espazio eta sistema nagusia, ekoizpenaren oinarrizko unitatea. Lantegiak soldatapeko lana orokortzea ekarri zuen. Soldatapeko lana populazioaren gehiengoaren bizi bide bilakatu zen pixkanaka. Lana diru iturri izateaz gain, langileen sozializatorako bide, eta identitate kolektibo eta pertsonala eraikitzeko elementu nagusi bilakatu zen industria-gizartean.

Honela, herriko urbanizazioa eredu hiritarrera aldatzeak, zientzia eta teknikaren aurrerapen etengabeak edota komunikazio azpiegitura berriak sortzeak gizarte egituraketa berria sortzea ekarri zuen

Anoetan. Talde sozial berriak eraikitzeko irizpide nagusia ekonomikoa izatea bultzatu zen. Bestetik bigarren sektorea oso urte gutxitan hedatzean, industria ekoizpenaren hazkuntza, komunikabideen garapenak merkatuaren mugak zabaltzea ahalbidetzean (bai barne merkatuaren mugak merkatu nazionala sortuz, baita atzerritar merkatuenak ere hitzarmen batzuk izenpetzearen ondorioz).

Honek guztiak indibidualismoa bultzatu zuen; askatasun pertsonalaren garapena eta elkartasuna eta segurtasuna eskaintzen zuten harreman komunitarioak ahultzea. Eta baita sekularizazioa ere, hau da, erlijoaren eta balore tradizionalen gainbehera: erlijoan oinarritutako mundu ikuskera oso bat ahultzen hasi zen. Gizartearantz erlijoak egia-iturri eta errealityatearen definizio sozialaren eraikuntzarako instantzia bakar izateari utzi zion. Honela, mundua esplikatzeko eta ulertzeko, definizio sozial berriak eraikitzeko paradigma berria sortu zen: giza arrazoia.

XX. mendeko azken urteetan erlijoak gizartean betetzen zituen funtzioldagokionean, frankismoaren kontrako borrokan euskal Elizak zeresan handia izan zuen, eta ez zen isilik egon²⁶⁹. Besteak beste, Vatikanora zuzendutako salaketa-gutunen bidez agertu zuen bere kexua. Horien artean ezaguna da, 1960an, 339 euskal apaizek bidaliakoa; bertan apezpikuen izendapenak eta bizi zuen egoera politikoa deitoratzeaz gain, zera salatzen zuten: “la persecución de las características étnicas, lingüísticas y sociales que nos dió Dios a los vascos”²⁷⁰. Ordurako gerra osteko erritualismo erlijiosoak behera egin zuen, eta 50eko hamarkadak aurrala egin ahala, jaunkotiaritasuna ulertzeko beste modu bat joan da nagusitzen, ez erritual ikusgarrietan oinarritura, baizik eta besteekiko zerbitzu eta konpromiso etiko gisa ikusia.

Euskal eliztar askoren sentikortasun berri horri ikaragarrizko bulkada eman zion Vatikanoko II. Kontzilioak (1962-65). Joan XXIII eta Paulo VI aita santuen ‘Pacem in terris’ (1963) eta ‘Populorum progressio’ (1967) entzikliketan lehenengo aldiz hitz egin zen argi eta garbi giza eskubideei eta arazo sozialei buruz, baita herrien askatasun eskubideei buruz ere. Ideia horiek guztiekin berebiziko indarra eman zioten Ekintza Katolikoaren baitan biltzen ziren eliz mugimendu ugariei

²⁶⁹ Paulo Iztueta, 1981.

²⁷⁰ Rafael Díaz Salazar (1981, 177)

(HOAC, JOC, JARC, Herri Gaztedi...); horiek guztiak Eliza txiro eta konprometituagoren alde egin zuten, aldi berean Euskal Herriaren berezitasun etniko, kultural eta linguistikoak defendatzutaz.²⁷¹

Justizia sozialaren bilaketa eta aldarrikapen abertzaleak biltzen zituzten apaiz asko ez zegoen ados eliz hierarkiak jartzen zizkien oztopoengatik; eliz erakundearren baitan ezin zituzten erabili, gainera, besteentzat aldarrikatzen ari ziren askatasun eta eskubide horiek. 1965etik aurrera militante katoliko konprometituenak eliz mugimenduetatik ateratzen hasi ziren, elkarteko politiko hutsetan sartzeko. Halaber, apaiz asko sekularizatzen hasi ziren hamarkada horren amaieran, eta ordura arte beti bete-bete egon ziren seminarioak, berriz, husten. 1962an, seminario horietan 805 apaizgai baldin bazeuden, 1974an ez ziren 91 besterik.²⁷² 1960ko hamarkadaren bukaerarako, konpromiso sozial kristaua eta euskal kleroaren ezinegona diktaduraren aurkako oposizio politiko garbi bilakatu ziren, eta haren errepresio gogorra bizkarreratu zuten (apaizoen kontrako zigorrak, eliz ezkontzen debekuak, etab.). Konpromiso erlijioso-tik konpromiso politikora egin zen jauzia.

Momentu horretan, hain zuzen, batera gertatu ziren fenomeno ezberdinok:²⁷³ existencialismo eta marxismoaren eraginpean, XIX. mendeko erlijioaren kritika filosofikoa gure artera iristea; modernitatearen eduki filosofikoena ezagutzea, eztabaerdatzea eta gureganatzea; zientzia eta teknikaren garapenaren aplikazioen eta etengabeko berrikuntzen berrikuspena; autoritateari eta sexualitateari buruzko liberaltasuna; kontsumoko gizartearen lilura eta mundu erlijiosoaren eta sakratuaren deslilurapena. Bat bapatean, sekularizatzeko prozesua azkartu zen: seminarioak hustu eta apaizak eta erlijiosoak sekularizatu ziren. Jende asko (apaiz, intelektual, lider politikoak eta sindikalak), kristau fedetik fedea marxistara igaro zen, edota, besterik gabe, lotura erlijiosoetatik libratzen joan zen, jarrera, mundu-ikuspegia eta jokabide ezberdinetara egokituz.

Erlijioaren mundua Eliza katolikoarekin erlazionatzen zelarik, garai hartako erlijioaren krisia faktore hauek eragin zutela esan daiteke:

- elizaren agintarismoari eta dogmatismoari egindako kritikak
- erlijioaren kritika filosofikoak
- politikaren dimentsioan, Frankoren diktaturarekin bat egin izanak eta gobernu politikoari onespina eta babesera eman izanak: *"orduarte bildurra baitzan, errespetua latza eta nik uste beldur hoi zala-ta apaizak'e geio eusten zuela jendia; fedia baitzan importanteena. Franco hil zanian gauza kasko aldatu zian eta nik uste baita fedia're; fedia eo; sinismenak igual ez baino, gauzak beste tankera bateni ten hasi zan jendia".*
- ekonomiaren arloan, sistema kapitalista legitimatzeak
- sexualitatearen arloan giro liberalago baten esperientziak.

Jende asko, bizitzan zeukan jarrera teoriko eta espiritual-erlijiosoetatik, jarrera eta jokabide sozio-politikoetara igaro zen: *"dena zan konpromisoa"*. Esnatu zen sentimendu abertzaleak eta herri-mugimenduek sustaturik, ikastolen hasierako egitura abian jarri zen, Elizaren babespean. Ordudanik gaur arte, politikak, kulturak eta ekonomiak, erlijio-ordezko funtzoak bete dituzte. Krisi erlijiosor horren barnean, erlijioaren irakaskuntzak XX. mendeko azken laurdenean (1975-2000), gutxi gorabehera aldaketa handiak izan ditu. Adibidez, Anoetako Ikastolaren iturburuak bat Eliza izan bazeen ere, hiru hamarkada beranduago erlijio irakasgaia ez da irakasten.

Edonola ere, transferentzia-mota horrek bere garrantzia izan badu ere gure artean, erlijiotasun katolikoak pisu handia jarraitu du izaten euskal gizartean, 60-70eko hamarkadetan abiatutako sekularizazio prozesuak beti aurrera egin duen arren, Europako beste tokietan bezalaxe. Itzal soziala galdu du Elizak, hori bai, bere eragina eremu publikotik pribatura pasatu da neurri handian, eta gaur egun beren burua katolikotzat jotzen duten gehienek ere modu pertsonalean bizi dute beren fedea, beti ere beren iritzi-autonomia gordez. Orain sinesmen zatikatua –edo are, sinkretismo doktrinala- da nagusi: gutxik hartzen dituzte Elizaren dogma guztiak bete-betean; askok Kristoren mezua sinesten dute, baina ez bekatua edo infernua, adibidez. Era berean, kato-

²⁷¹ Belen Altuna (2003: 36)

²⁷² Paulo iztueta (1996: 193)

²⁷³ Xabier Galardi (2004, 466-7)

liko praktikanteak eta ez praktikanteak bereizten dira, eta are nahasiago, praktikanteen artean ere, erdiak baino ez dira igandero mezetara joaten direnak.

Oso era eskematikoan agerteko, esan daiteke gaur egun “*bekatu*” kontzeptua ardatz duen unibertsual moral hartatik “*eskubide*” kontzeptua ardatz duen beste unibertsual moral baterako ibilbidea egin dugula²⁷⁴. Gizaki oro ‘*berez*’, jaiotzez, bekatari dela esatetik, gizaki oro berez, jaiotzez, eskubidedun dela esatera pasatu gara. 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala jo dezakegu Hamar Aginduen Taularen tokia hartzen duen kode moral edo Taula berritzat.

Hamar Aginduen inguruan landutako kode moralak honako egitura zuela ikusi dugu: Jainkoari zor zaizkion betebeharra, gurasoei eta agintariei zor zaizkienak eta lagun hurkoa ez kaltetzeko

aginduak. Funtsean, beraz, betebeharren eta debekuen zerrenda oinarrizotzat aurkezten da. Eta betebehar eta debeku horien urraketa bekatu moduan kontzeptualizatzen da, hau da, Jainkoari egindako irain moduan. Giza eskubideen Deklarazioko hizkera morala, eta mendebaldean nagusitzen dena, aldiz, zeharo bestelakoa da: gizabanako bakoitzaren askatasun eta eskubide zerrenda baita, gizaki guztioen oinarrizko berdintasun eta duintasunetik abiatuta. Gizabanakoaren autonomia ahalbidetzen duen marko juridiko-politikoa osatzeko eskubide-multzoa da. Bestela esateko, oinarrizko etika laiko eta unibertsalaren proposamen gorena da, jainkozko inolako erreferentziariik ez duena, hain zuen ere, fede-kontuak banakoaren arlo pribatura pasatzen dituelako, eta munduko erlijio ezberdinak sinestunak nahiz fedegabeak oinarrizko printzipio horietan bat egitea duelako helburu.

²⁷⁴ Belen Altuna (2003: 343)


6. Dokumentazio osagarria



Ateaga baserriko "etxeekoak".

6.1.- On Luis Jauregiaren idazkiak

6.1.1.- Biozkadak



Anoetako San Joan parrokoiko agiria. Anoeta, 1869 (Anoetako Udal Artxiboa)

Bertso gaxoak! (Biozkadak, 1929)

Udazkeneko aize zakarrak
zugaitz-ostoak, ori ta igarrak,
lurreratzen ditunean,
naigabe baten arantz zorrotza,
beazunezko tanto mingotza
nabaitzen det biotzean.

Or eta emen, ail!, banatuak
dabiltzan nere bertso gaxuak,
laister eroiko ote dira,
osto ori ta igar oien antzera
eriotzaren zulo-leizera
ail!, ta illobiko illundira?

Bidezkariak lore zimela
artu ta gorde oi dun bezela
origarritzat bidean,
ez ote ditu nere bertsoak,
biotz-bideko lore gaxoak,
iñork gordetzen etxeán?

Bertso gaxoak! egun-sentian
jaio ta laister arrats-aldian
ilko diran loretxoak...!
Bertso gaxoak! ustekabean
kabirik gabe t'elur-gañean
jaio diraden usoak...!

Maitasun-indarra, (Biozkadak, 1929)

Bart arratsean izarretara,
ama, begira nengoan,
ta izar bat atzo bestetan baño
argitsuago zegoan.

Orain jakin det, izarrai beira
bart ni nengoan bezela,
nitzaz oldozten, izar berari
ama, begira zeundela.

Izar berari, ama, begira
naigabez zauden gauetan...
bera izango da gure ezti gaia
bion naigabe neketan.

Aizkorriren oñetan, (Biozkadak, 1929)

Illundu dira Euskalerriko bide guziak...
ez degu goian euzkirik:
auts-bean dago biotz-su-garra, ta itxaropena
ez degu beste argirik.
Alaitu zaitez, ene biotza, t'ekin kantari
guziok lotan daudela,
ollar arroak ernai ta tente gauan erdian
ekin oi duan bezela.



Luis Jauregi: Bertso gaxoak!. Iruñea, 1929.

Gauean gaude, ta agian iñork, iñork ez ditu entzungo nere bertsoak...

Ez ote ditu noizpait egunak zabalduko, ba, guganontz bere besoak?

Aitonaren otoitza, (Biozkadak, 1929)

Ire begitan daraman, neska,
udako gauen argia,
ta ire ezpaiñetan, basoetako
marrubiaren gorria.

Udabarriko egunabarren
garrak, ire betartean...

Begi guziak beti ireganontz
igande-arratsaldean...!

*Ez baditen, ba, oiek ikusten
nik bezela, ire biotza:
ire barrengo beazunezko
itsaso nastu mingotza...!*

Jesusen Biotzari, (Biozkadak, 1929)

*Egan dijoaz usotegirontz
egan dijoaz usoak
Ta Zure Biotz barrura doaz
maite zaituzten gogoak.
Beti idekita zabal-zabalik
usotegiko leioak
Ta Zure usotxo ega motz onek
ezin aruntz jo gaxoak...!
Ai onek ere, Jauna balitu
aiek dituzten egoak...!*

Aingerutxoak, (Biozkadak, 1929)

*Aingerutxoa zer dan diozu?
Enetxu! ori galdera!
aingerutxoa, ene kutuna,
angerutxoa zu zera.*

Bai Erri gaxoa, (Biozkadak, 1929)

*Euskal-Erria Euskerik gabe...
bai Erri gaxoa...!
Masti orritsu ederra baña...
matsik gabekoa,
Loretegian il eta agortu
dan iturritxoa...!*

6.2.- On Ramon Muruaren idazkiak²⁷⁰

6.2.1.- Sorginkeria

- Ekarri itzazu, Malen, gazta, intxaurre, ogi ta sagardua zure lagunak atzaldeku egin dezaten ta ondoren jarraituko degu ipuiak azaltzen.

²⁷⁰ Lazkaoko Benediktarren Artxiboa, Ramon Muruaren funtsa.



(lazkoko Benediktarren Artxiba)

On Ramon Muruak egindako marrazkiak.

Gustora eldu zien gazteak jakiai sagardo ederrari. Etzan aitona ere begira egon bestia, gazta zati bat jan ta sagardua edan zun gustora. Gaztetuta zala zirudian aitonak gazte sail ayen erdian.

- Gauz batak nauka, a itona, erabat arrituta –zion Mariak- Nola sorgin biurtzen ziran kristauak, zerkeraginda?
- Ez nazu batere arritzen, Maria, galdera orrekin. Neonek ere zenbat aldiz egin ote diodan nire buruari galdera berbera, gaztetan batez ere. Urteak eman didate erantzuna: Gaiztakeriz jotzen zuten sorginkerira.
- Gaztakeriak, aitona!- danak arrituta.
- Bai, enetxuak, gaiztakeriak. Urte asko ditut bizkarrean, ta zenbat gauz ikusi bearrean izan naizen urte oietan. Ez uzte danak ederra zirala. Zenbat beltzkeri, zenbat azpikeri! Zenbat kalte besterik; odol ixurtze; zenbat malko bazterretan; zenbat zoritzar zabaldur urkoen artean... ta ori dana... kristau erritan ta kristauak alkarri. Ez naiz ba batere arritzen, garai haietako kristau asko sorginkerira jotzen eureen biotzeko griñak lasai asetzeko.
- Ori orratik zitalkeri gogorra zan, aitona. Agiri al da orrelakorik ipueta?
- Ondo ari zara Josepa, zitalkeri gogorra zan jokabide ori ta garbi ageri zan ipui askotan; orain ordea, ez naizela ondo oroitzen ari garbi azaltzen diran zenbait ipueta?
- Burua pitin batan asteztuz, oroituko da bai, aitona ta esan bear digu –esan zion Antonik.
- Katu, zakur, bei t abeste aberen antza artzen omen zutela sorgiñak,

iñori kalte egin nai ziotenean –zion nire amonak- esan zion Mariak.

- Bai, Maria, alaxe ageri da ipui askotan ta orain datorkit basarri baten gertatua. Zoritzarrez bizi omen ziran basarri batean. Makiñat malko ixuri omen zuten etxe artako senar-emazte gazte ta zarrak! Gutxi, berriz, etxe artakuak bezin zintzo ta elizkoyak!...
- Nundik zetorkien ba orrelako zoritzarra?
- Ara, Josepa, sei aur izan zituzten ta seirak aingerutxo batzuk zirala il... aurrik gabeko etxea... alaitasun gabe izaki...
- Arrazoi du, aitona, naiko zoritzarra bazuten etxe ortan. Bañan, ez al zituzten aurrik bear bezela zaintzen? Zerkin galtzen zitzazkien aurrik?
- Ondo zaintzen al zituzten, galdezen dezu Maria; aiek baño obetongo ezin liteke zurrik zaindu. Begira; gurasoak sasoi onenian zeude-la eskondu zan etxera semea, ta laister ekarri zuten aingerutxo bat, zar ta gazteak pozez bete zituna. Etxuten iñoiiz aurtxo bakarrik uzten; amona etxean gelditzen zan, besteak lanera iritzen ziranean ta arretaz zaintzen zuan illobatxoa. Alaz ere iru bat illabeteko aur zoragarri bat zala, irten zan sukaldetik asmona zeozertara ba barrura ta itzuli zanean itota etzun ba arkitu itota illoba maitea!. Beste hainbeste gertatu zitzaien bigarrenarekin ere bi edo iru bat illabeteko aurtxo zoragarria zala...
- Etzan arritzekua zoritzarrez etxeak betetzea.
- Bai, Josepa, erabat naigabetu ziran danak ta zarrak osasuna galtzen azi ziran. Jaungoikoak bakarrik daki zenbat otoitz egiten zuten etxe artakuak, orrelakorik geyago gertatu etzitzaina; amona batez ere eten gabe jarduten otoitzean. Bialdu zion Jaungoikuak beste aingerutxo bat: matrail gorriko neskatal polit bat. Ura aita amonen poza! Ezin zuten seaska ondotik alde egin; oroitu gabe igarotzen zituzten antxe orduak ta etzitzaina ez oaingo aurtxo a ugalduko, zainduko zuten ondo!. Bañan arratzalde baten, amona aurtxoari begira dago-la ikusten du bat batean itolarrian, artzen du bereala besoetan, astintzen du aurtxoa, bizkarrean jo, estarriko traba bota zezan aozpez jerrita ta bitartean besteai deitu... dana alperrik... ukullutik sukalderra azaldu orduko, itto zitzayen aurtxoa amonaren besoetan.
- Ez al zieten sendagilleari deitu?
- Ez alperrik, Antoni, etorri zuten bai sendagillea; astertu zun aurra ondo, bañan etzion iñungo gaitzaren astarrenik arkitu. Esango nuke –omen zion sendagilleak- ale edo orrelako zeozer iruntzi nayeán ito dala aur au. Begiratu omen zion estarri zuloan; bañan an ere ez omen zitzayen ezertzko sumatzen aurtxoari.

- Amona gaxua horrela ikusi bear iltzen aurtxo maitea!
- Bai, Josepa, etzion onik egin zarrai irugarren aurren eriotzak. Andik laster il zan aitona, ta atzekabea atzekabearen ondoren zetorkien etxe artakoai. Amona bera ere erabat makaldu zan ta neskame on bat ekarri bearrean izandu ziran.

Naigabeak aztu azteko eman beste aur baten itxaropena eman zion Jaungoikuak. Berpiztu zan amonaren biotza itxaropen onekin. Beregain artu zuan sendagiñak espero zuten aurren bizia ta bai jayo aurretik ta bai jao ondoren an zuten noiznai etxearen sendakiña nola jokatu erakusten. Etzitzayon ba eurean erruz aurra galduko. Bosgarren illabetera eldu ta gero, etxe danak sukaldean zeudela, non jabetu zan ama aurruk zeozer bazula... ango negar ta istillua!... laster zan gorputz aingerutxoa... Etsan bakarrik aingerutxua, laister jarraitu zion amonak.



(Lazkaoko Benedikitarren Artiboa)

On Ramon Muruak egindako marrazkiak.

- Errukarriak benetan etxe artakuak –zioten kupituta gazteak.
- Benetan kupigarriak guraso ayek; berdin berdin galdu bai zitzayen bosgarrena ta seigarrena...
- Buruauste ederra izango zuan sendakiña eriotz aiekin.
- Bai, Malen, sayatu zan benetan aur ayekin; bañan dana alperrik. Bosgarrena itotzen ari zala arrapatu zun ta beriala irik izion estarria labanaz; bañan ala zere ito egin zitzayon.
- Ez al zizkien aurrai ebanjelioak ateratzan?

- Ebanjelioak? Ze ez ote zuten egin guraso aiek eureen aurren alde Antoni? Mezak atera, kandela bedeinkatua jarri ebanjelioak esan... nik ze dakit ze etzutzen egin...
- Etzien Jaungoikuak estuasun ederra guraso oyei!
- Gurutz aundia, noski, Maria; bañan egun batean gurutz ori kendu zien bizkarretik.
- Nola aitona? Esan beigu aguro, gure biotzak lasatu ditezen, izan ere kupitu gera guraso oyekin.
- Ara ba, Malen, erretoreangana azaldu omen zan emakume bat, ta arrokeriz esan omen zien, berak il zitula etxe ortako aurra ta espero zuten zazpigarrenere ilko zuala bestea bezela.
- Bañan nola iltzen zituan aurra iñork ikusi gabe?
- Sorgiña omen atzo ori, gazteak, ta ezin ikusi zitulako etxe ortakoak, ariomen iltzen aurra. Ortarako biurtzen omen euli baten ta iñork ikusi gabe sartzen omen zan aurren estarian ta ito aizi aurra.
- Ori orratik ikaragarria da, aitona, -zioten gazteak izututa- ez al zion apaizak asmo txarra utzi aizi?
- Egin omen zuan erretoreak alegiñak asmo txar oyek utzi azteko; bañan gogor omen zegon emakumea bere setan ta jayoko zan aurra ere iltzeo asmotan alde egin omen zun erretore etxetik.
- Il egin al zien zazpigarren aurra?
- Ez, ba, Josepa; goguan artu zion apaizak emakume orri, zenbagarren egunean itoko zien aurra ta egun ortan apaiza bera jarri zan aur zai gela bat, ta iltze zulotik sartu sorgiña euliaren itxuran arrapatu zuan eliz zapi batean, ta kutxa batean giltzapean sartu. Andik egun batuetara erriko agintari ta sendakila lagun iriki zuten kutxa, ta an azaldu zan ilda sorgiña. Gaiztakeriak era-ginda sartzen ziran sorgintzan.

6.3.- Eguberri bezperan Anoetan abesten ziren kantak

- Abenduko hilaren 24ean

Abenduko hilaren 24ean,
Jesus gure jabea
jaio da gabean.
Aberatsa zan baino
jaio zan pobrezan,
ez gaur asko bezala
ponpan ta grandezan.

*Gu ipintzeagatik
izate obean
biotza zuzenduta
zerurua bidean.*

*Artzai buru zuri bi
Antton eta Peru
Belengo estalpera
etorri zaizkigu.
Sartu dira barrena
Manueltxogana
eskeñi dizkiote
arkumetxo bana.*

*Gabon eskerrik asko
gabon etxeakoak
gabon pasa bezate
etxe ontakoak
limosna eman digute
oraindanokoak
aurrera jarraitzeko
asmoetan goaz.*

- Artzai buru zuri bi
*Artzai buru zuri bi
Antton eta Peru,
Belengo estalpera
Etorri zaizkigu.*

*Sartu dira barrena
Manueltxorengana
ta eskaini diote
arkumetxo bana.*

*Batek arkumea ta
besteak ardia
ondo konpontzen dira
Jose ta Maria.*

- Birjina Maite
*Birjiña maite lotan dago
zure seme laztana
sehaskatxo bat ipiniozu
zure bihotzen kuttunai
ongi bai ongi igaro ditzan
gabak eta egunak
poliki poliki eragiozu
egin dezan lo ona*

*Hotzaren hotzez lasto tarteau
gorde du gorputz gorena
amak musuka bero nahi luke
arkume txuri otxana
maitasun eztiz eskeintzen dizut
maitea nik detana
bihotz bero bat txirpil goxoaz
egiteko lo ona.*

- Mesias sarritan
*Mesias sarritan
agindu zana
aingeru artean
dator gugana (berriz)*

*Gloria zeruan
pakea hemen
kantari aingeruak
datoz Belenen.*

- Aintza Zeruan
*Aintza zeruan
aintza zeruan Jaunari
eta pakea
eta pakea
lurrean gizonari*

*Jesus erakuskuizut
bai gorputz hutsean*

*gurutze berde mortal bat
sorbalda-gainean.*

*Haurtxo txikia jaio berria
negarrez estalpetxoan
ama gaixoa aldamenetik
galdez maiteak zer duan.*

- Haur eder baten bila

*Haur eder baten bila
gabiltza zoratzen
ta izarrak esan digu
galdetzeko hemen
jaungoikoaren herri*

*maite Jerusale
esan zaiguzu laster
Jesus non jaio den*

*Izar bat ageri da
dizdiraz zeruan
oihuka ari zaigu
gabon gauerdian*

*Opariekin gatoz
Izarra gidari
eman nahi dizkiogu
gaur bertan berari*



(Agirre baserria)

Kantu eskean atera ohi zen iruratarrez eta anoetarrez osatutako taldea. Anoeta.

*Estalpe zahar batetan
dago hotzez dardaraz
azkar nahi dugu Jesus
berotu arnasaz.*

- Ator ator

*ator ator mutil etxera
gaztaina ximelak jatera
gabon gaba ospatutzeko
aitaren ta amaren ondoan
ikusiko dek aita parrezka
amaren poz atseginez
eragiok mutil
aurreko danbolin horri
gaztainak erre artean
gaztainak erre artean
txipi txapla pum!
gabon gaba pozik igaro
dezagun.*

- Olentzero

*Olentzero buru handia
entendimenduz jantzia
bart arratsean edan omen du
hamar arroko zahagia
ai, urde tripahaundia!
tralaralala, tralaralala!
ai, urde tripahaundia!
tralaralala, tralaralala!*

- Orra Mari Domingi

*Orra Mari Domingi,
begira orri;
gurekin nai badezu
Belena etorri
atera beharko dezu
gona zar ori.
Atoz, atoz, zure billa
Nenbillen ni; (bi aldiz)*



(Anotako Uda Artibea)

Olentzero eta Mari Domingin. Anoeta, 2007.

*Atoz, goazen
adora dezagun
Belenen jaio dan
Aur eder ori. (bi aldiz)*

- Aur eder baten billa

*Aur eder baten billa
gabiltza zoratzen
ta izarrak esan digu
galdetzeko emen.
Jaungoikoaren erri
maite Jerusalen,
esan zaiguzu laster
Jesus non jaio den.*

- Emen eldu gerade

*Emen eldu gerade
berri on batekin
gure enbajadore
Olentzerorekin.
Olentzero begi gorri
nun arrapatu dek
arrai ori.
Zurriolako arroketa*

bart arratseko amaiketan.
 Olentzero begi gorri
 nun arrapatu dek
 sagar ori
 Etxeberriko sagastian
 txakurra lotan zegonean.
 Olentzero ikazkiña
 Garbitu zak mutur zikiña
 bai bai bai bai arratsean
 ongi afaltzen dudanean.

- Belengo Estalpean

Belengo estalpean
 jaio da Jesus
 goazen bai
 danok azkar
 ematera muxu (bi aldiz)
 Ikastolako aurtxoak gera
 eta poz pozikan
 ibiltzen gara (bi aldiz)
 Eguarrik Eguarrik
 bihar Eguarrik
 zorionak ta osasuna
 denok zueri (bi aldiz).

- Ai au gabaren

Ai au gabaren zoragarria
 Jesus jaio da Belenen
 erririk erri billa gabiltza
 billa gabiltza beraren.
 Aingeruak kanta
 Artzai onak dantza
 guztiok alabantza
 zuri zor dizugu.
 Astoak A! idiak mu!
 atsegīnik badegu.
 Artu makillak eta
 jantzi abarkak
 artzai onak joan ziren

Jesusen billa
 Ai zer atsegīña dan
 dantzan jende guztia
 salto brinko egiñik
 denak joan ziran.

- Begira nolakoa

Begira nolakoa
 Belengo haurtxoa
 polita baino ere
 politagoa
 lo dago lo
 ixo bai ixo
 ixil ixilik heldu
 pa! Emateko
 Hara hara
 Mariaren haurtxoa
 hara hara
 Belenen jaio da.

- Gora, gora, gora atsegin

Gora, gora, gora atsegin
 Alaitasun eta txaloekin
 Guztiok poztu eragin.
 Agertu da Jaungoikoa
 Mariagandik sortua.
 Gazteak arren abestu
 jaio berria goraldu
 abots batez aupatu.
 Agertu da...

6.4.- Santa Ageda bezperan herriko kantari taldeak abesten dituen kantak

Zorion etxe ontako denoi
 oles egitera gatoz;
 aterik ate oitura zarrak
 aurten berritzeko asmoz.

*Ez gaudē oso aberats diruz
ezta ere oiñetakoz;
baiña eztarriz sano gabiltza
ta kanta nai degu gogoz.*

*Santa Ageda bezpera degu
Euskalerriko eguna;
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.*

*[Jarraian ondoko koplak kantatu ohi ditu taldeak]
Bedeinkatua izan dedilla
etxe ontako jendea
pobre ta umil dabilzanentzat
badute borondatea
Otsailaren lauean
Santa Ageda bezperan
usariorik galdu ez dedin
etorri gera ustean.*

*Santa martiri maitea
dago errukiz betea
berak alkantzatuko digu
osasuna ta pakea.*

*Nagusi jauna aurrera
erreberentzia lurrera,
lotsa gerala etorri gera
limosnaria zerala*

*Etxekoandre zabala
leku oneko alaba,
biden esanez etorri gera
limosnaria zerala.*

*Etxe azpian garia
oraindik egin berria,
eratzunian kabitu leike
Maritxu zure gerria*



(Anotatko Udal Artxiboa)

Kantu taldea San Joanetako abestiak kantatzeko. Anoeta, 2007.

*Orra or goien iturri
ura txorrotik etorri,
etxe ontako zaldun gazteak
amalauurre txintxarri*

*[Ondoren, bertsolariaren koplak eta taldearen ondoko
kopla tartekatzen dira]
Dios te Salbe ongi etorri
gau on jainkoak diela,
gabon jainkoak diela eta
bihar egun on digula*

*[Kanta saio amaitzean ondoko koplak abesten da]
Eskupeakoa artu degu ta
orain joan gaitean
adiosikan eztegu eta
agur urrengo artean.*

6.5.- San Joan bezperan herriko kantari taldeak abesten dituen kantak

- San Juan zortzikoa
*Agur agur egun egun
agur egun zoragarria*

poztu dezu herri guztia
 Anoetarrei sabeletik
 sortzen zaien kutizia
 Agur agur egun egun
 agur egun zoragarria
 poztu dezu herri guztia
 Anoetarrei sabeletik
 sortzen zaien kutizia
 Agur agur egun egun
 agur egun zoragarria
 poztu dezu herri guztia
 Ilunabarko tanbolinak
 ta elizako ezkilak(bis)
 Sendatu dituzte gaxorik zeuden
 nexka koskor eta mutilak
 Agur agur egun egun
 agur egun zoragarria
 poztu dezu herri guztia
 Albo herritik dator jendea
 Onratzera San Juan gurea
 Eta zail dalako non nai arkitzen
 festa leku bat obea
 Patroi gurearen ikasbidea
 beti dezagun gogoan
 Noizbait kantatzen gertagaitezen
 Danok beraren ondoan
 Agur agur egun egun
 agur egun zoragarria
 poztu dezu herri guztia

- Belarrek Usainak

San Juan ekainean
 denbora ederrean
 edozein belarrek usaina dauka
 Doniane goizean
 Da San Juan da San Juan
 beti oi zauzkat goguan
 Bihar da Doniane edo
 Jendea triste dago

San Juan bera ere
 loak hartuta dago
 Atzo San Juan San Juan zan da
 gaur da San Juan Bautista
 Jesukristoren lengusua da
 San Juan Ebangelista
 Da San Juan da San Juan
 beti oi zauzkat goguan



Herriko gazteak, Kontzejuaren aurrean. Anoeta. (Arozetxea baseria).

(Arozetxea baseria)



- Atso tronpetariak

*San Juan ekainean
denbora ederrean
hamalau atso tronpeta jotzen
harri txabal baten gainean
Udan udan udan San Juanetan
dantzan eingo degu ipar airetan
U ju ju San Juanera goaz gu
u ju ju San Juanera goaz gu
Lirio lore ederra
jaio da ekainean
lore ederrez beterik dago
Bazkoa Maiatzean
Udan udan udan San Juanetan
Dantzan eingo degu ipar airetan
U ju ju San Juanetara goaz gu
U ju ju San Juanetara goaz gu*

- San Juan, San Juan

*San Juan San Juan
nik eztauak besterik gogoan
arrautza bi kolkoan
beste bi altzoan
Artoak eta gariak gorde gorde
lapurrik eta sorginak erre erre*

7. Informazio iturriak

tuz bi...
genek aktu-
eune alde
Lemn...
ber omen

^{dantza}
f) ~~an ar jantxu K^obij arra kontekstuan~~
~~elkies zantxko misterio kontu eta am-~~
~~dien an gogoratzeko a) yue den Ja-~~
~~taunak esan... Jaungoiko bet « Gredos~~
~~in unum deum »» ^{Baselgo erdigun} ~~autonomia »»~~
noj yue Irum eta Jaungoikoa eta y dega
leke inor yue Jaungoikotz eginutako»
Iru persona baneatzeko zite, leku eta
ezpata hantxe. Saritzen eratzen di-
ra iru persona oek liburu sentzen eta
argigo egia jen ean erakutsi yun Jesu
KristoK iru persona dirale jaungoikotz
Jaungoikoaari bekarik ezari hitzegokien estu
bidestik hirerri eratzen gizkiele. « Gunter
in mundum universum praedi: ete »»~~

~~esk argazki~~
Bigarren ondoren gerue igo anietik ean
giri apostoloski « Zootze mundu jabe-
lean aurre eta

Gintasun misterioa bada, jaungoikotzun
beker botan iru persona eyleta da.
Zen), Gintasun gertuz zantxko misterioa, iraun iru persona

7.1.- Lekukotza emaileak

Ikerlan hau burutu ahal izateko ondoko anoetarrei sakoneko galdeketa etnografikoa burutu zaie:

- *Lekuko 01:* BERASATEGI ORMAZABAL, Isabel. 1922an Modestoenean jaio eta bertan bizi da. Lekukotzak 2003ko abenduan, 2005eko maiatzean eta 2007ko abenduan grabatu zitzaizkion.
- *Lekuko 02:* GOENAGA GOENAGA, Maria. 1930ean Alkizan jaioa eta Bideondo baserrian bizi da. Lekukotzak 2003ko abenduan, 2005eko maiatzean, 2007ko abenduan eta 2008ko urtarrilean grabatu zitzaizkion
- *Lekuko 03:* ODRIEZOLA OTAEGI, Manuel. 1924an Katategi baserrian jaio eta Goikoetxean bizi izan da, gaur egun herriko plazan bizi da. Lekukotzak 2003ko abenduan, 2005eko maiatzean, 2007ko abenduan eta 2008ko otsailean grabatu zitzaizkion.

Anoetako gizarte antolaketa tradizionala ikertzeko ondoko herriarrei egin zaizkie galdeketak:

- *Lekuko 04:* ETXABEGUREN ARTOLA, Sabino. 1927an Mendaron jaio eta haur zenetik Katategi baserrian bizi da. 2008ko martxoan grabatu zitzaizkion lekukotzak.
- *Lekuko 05:* GARMENDIA MAIOTZ, Ignacio. Asuribarren jaioa, 2005eko martxoan galdeketa burutua.
- *Lekuko 06:* GARMENDIA VITORIA, José Luis. 1936an Arotzetaea baserrian jaio eta bertan bizi da. 2005eko maiatzean eta 2007ko abenduan burutu zitzaizkion galdetak.
- *Lekuko 07:* SARASOLA IMAZ, Aniceto. 1924an Zumalikardi baserrian jaio eta han bizi da. 2005eko abenduan egin zitzaion galdeketa.

Era berean, 2003tik 2008ra bitartean ondoko herriarrei gai zehatzen inguruan burutu zaizkie galdeketak:

- *Lekuko 08:* AGIRRE OLANO, José Antonio (Anoeta, 1949)
- *Lekuko 09:* AGIRREZABALA ARTOLA, Miren (Amezketa, 1948)
- *Lekuko 10:* MUJICA ARREGI, Loli. (Iriarteburu, Anoeta; 1948)

- *Lekuko 11:* URKOLA ROTETA, Iñaki. (Barrundia, Anoeta; 1956)
- *Lekuko 12:* SARASA AMEZTOI, Javier (Irura, 1945)
- *Lekuko 13:* SARASOLA GOENAGA, Jose Mari (Bideondo, Anoeta 1966)
- *Lekuko 14:* URKIZU BERAZA, Juan José (Etxeberria, Anoeta; 1958)

Anoetako gorputzbide, gurutzbide edo andabideen kokapenak egiteko ondoko herritarren lekukotzak jaso dira:

- BERASATEGI ORMAZABAL, Isabel (Modestoenea)
- ETXABEGUREN ARTOLA, Sabino (Katategi)
- GARMENDIA CHACON, José Miguel (Ateagaetxeberria)
- GARMENDIA MAIOTZ, Ignacio (Asuribar)
- GOENAGA GOENAGA, Maria (Bideondo)
- ODRIEZOLA OTAEGI, Manuel (Katategi-Goikoetxea)
- SARASOLA IMAZ, Anizeto (Zumalikardi)
- URKIZU BERAZA, Jose Mari (Etxeberria)
- URKIZU BERAZA, Juan José (Etxeberria)
- URKOLA ROTETA, Iñaki (Barrundia)
- ZUAZNABAR URKOLA, Gregorio (Sarobe Behekoa)
- ZURIARRAIN IRAZUSTA, Jose Antonio (Sarobe Goikoa)

7.2.- Bibliografía

- AGUIRRE SORONDO, Antxon (2002): *Tierra y gentes, 75 temas vascos*. Donostia, Ttarttalo.
- AGUIRRE SORONDO, Antxon; LIZARRALDE ELBERDIN, Koldo (1993): *Ermitas de Gipuzkoa*. Ataun, Fundación José Miguel de Barandiarán.
- ALTUNA, Belen (2003): *Euskaldun fededun*, Donostia, Alberdania.
- ÁLVAREZ SANTALÓ, C.; BUXÓ, Mª J.; RODRÍGUEZ BECERRA, S. (koord.) (1989): *La religiosidad popular*, vol. I-vol.III, Barcelona, Anthropos.
- ANDRES-GALLEGO, José; PAZOS, Antón M. (2002): *Archivo Comá, Documentos de la Guerra Civil, Tomo 2, Enero 1937*, Madrid, CSIC.
- ARIÑO VILLARROTA, Antonio (1989): *Las relaciones entre las asociaciones festeras y la institución eclesiástica: una aproximación a la lógica de la religión popular* in: ÁLVAREZ SANTALÓ, C.; BUXÓ, Mª J.; RODRÍGUEZ BECERRA, S. (coords.): *La religiosidad popular*, vol. III, Barcelona, Anthropos, 471-484 orr.
- ARREGI, Gurutzi; MANTEROLA, Ander (1993): *Religiosidad Popular In AGUIRRE BAZTAN*, A. (ed.): *Diccionario temático de antropología*. Barcelona, Ed Boixareu.
- AYERBE, Enrique (2000): *Guía de fiestas. Calendario festivo*. Lasarte-Oria, Etor-Ostoia.
- BARANDIARÁN, José Miguel de (1985): *Guía para una encuesta etnográfica In: Cuadernos de Sección Antropológica-Etnografía nº 3*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 231-279 orr.
- BARANDIARÁN, José Miguel de (1997): *Mitología del Pueblo Vasco*, Lasarte-Oria, Etor-Ostoia.
- DIAZ SALAZAR, Rafael (1981). Iglesia, dictadura y democracia, Ediciones HOAC, Madrid.
- ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel (2005): *Anoetako baserritaren ondare inmateriala*, In AGIRRE MAULEON, J. et al.: *Anoetako Baserriak*. Tolosa, Lizardi Kultur Elkartea.
- ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel (2006): *Komunitate baten herrigintza. Anoetaren bilakaera gizarte tradizionaletik industrialera XX. mendearen in FERNANDEZ DE LARRINOA*, Kepa: *Intervención y Vínculo*. Donostia, Pamiela, EHU/UPV.
- ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel (2007): *Udako Solstizio edo San Juan ospakizunak. Tolosaldea eta Leitzaldeko Hitzak*, 2007/06/24.
- ETNIKER EUSKALERRIA (1995): *Atlas Etnográfico de Vasconia. Ritos Funerarios en Vasconia*. Bilbao, Eusko Jaurlaritza, Etniker Euskalerria, Gobierno de Navarra.
- ETNIKER EUSKALERRIA (1998): *Atlas Etnográfico de Vasconia. Ritos del Nacimiento al Matrimonio en Vasconia*. Bilbao, Eusko Jaurlaritza, Etniker Euskalerria, Gobierno de Navarra.
- EUZKO APAIZ TALDE (1981): *Historia general de la guerra civil en Euskadi*. Tomo V. Donostia, Haramburu Altuna-Naroki.
- FERNÁNDEZ DE LARRINOA, Kepa (Zuz.) (2003): *Calendario de fiestas y danzas tradicionales en el País Vasco*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila.
- FERNÁNDEZ DE LARRINOA, Kepa (Zuz.) (2004). *Sabor de antaño: notas sobre identidad local, actualización etnográfica y desarrollo cultural*. UPV-EHU
- FERNÁNDEZ DE MATA, Ignacio (2006): *La memoria y la escucha, la ruptura del mundo y el conflicto de memorias*. Madrid, Hispania Nova, Revista de Historia Contemporánea, nº 6.
- GALARDI, Xabier (2004): *Erlabajoa in GARAGORRI, Xabier (zuz.): Euskal Curriculuma: Kultur ibilbidea. Adituen ekarpenea*. Donostia, Ikastolen Konfederazioa.
- GARCÍA GARCÍA, José Luis (1989): *El contexto de la religiosidad popular* in: ÁLVAREZ SANTALÓ, C.; BUXÓ, Mª J.; RODRÍGUEZ BECERRA, S. (koord.): *La religiosidad popular*, vol. II, Barcelona, Anthropos, 19-29 orr.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan (1984): *Solsticio de verano I. Festividad de San Juan Bautista*. Donostia, Kriselu.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan (1987): *Euskal Lexiko etnográfikoa. Léxico etnográfico vasco*. Donostia, Eusko Herriko Unibertsitatea-Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala.

- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan; MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier (2003): *Hiztegi Etnografikoa*. Donostia, Ikastolen Elkartea.
- GOROSABEL, Pablo de (1862): *Diccionario Histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con un apéndice de las cartas-pueblas y otros documentos importantes*. Tolosa, Imprenta de Pedro Gurruchaga.
- GOROSÁBEL, Pablo de (1899): *Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa. Tomo I*. Tolosa, Imprenta, Librería y Encuadernación de E. López.
- HOMOBONO MARTÍNEZ, José Ignacio (2006): *Las formas festivas de la vida religiosa. Sus vicisitudes en la era de la glocalización*. In: HOMOBONO MARTÍNEZ, José Ignacio; JIMENO ARAGUREN, Roldán: *Formas de religiosidad e identidades*. Zainak, Cuadernos de Antropología-Etnografía nº 28, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 27-54 orr.
- HOMOBONO MARTÍNEZ, José Ignacio; JIMENO ARAGUREN, Roldán (2006): *Presentación: Formas de religiosidad e identidades*. In: HOMOBONO MARTÍNEZ, José Ignacio; JIMENO ARAGUREN, Roldán: *Formas de religiosidad e identidades*. Zainak, Cuadernos de Antropología-Etnografía nº 28, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 11-23 orr.
- IZTUETA, Juan Ignacio de (1968, 1824): *Guipuzcoaco danza gogoangarriac*. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca.
- IZTUETA, Paulo (1981) Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco: 1940-1975, Elkar, Donostia.
- JIMENO ARAGUREN, Roldán (ed. lit.)(1999): *Religión y símbolos*. Zainak, Cuadernos de Antropología-Etnografía nº 18, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- JIMENO ARAGUREN, Roldán; HOMOBONO MARTÍNEZ, José Ignacio (eds. lits.) (2004): *Fiestas, rituales e identidades*. Zainak, Cuadernos de Antropología-Etnografía nº 26, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- KORTAZAR, Jon (et al.) (2004): *Euskal Literatura. Euskal Herri Enblematikoa*. Lasarte-Oria, Etor-Ostoia.
- KOTTAK, Conrad Phillip (2006): *Antropología Cultural*. Madrid, McGraw Hill.
- LE GOFF, Jacques (1989): *El nacimiento del purgatorio*. Madrid, Taurus.
- MALDONADO, Luis (1989): *La religiosidad popular*, in: ÁLVAREZ SANTALÓ, C.; BUXÓ, Mª J.; RODRÍGUEZ BECERRA, S. (coords.): *La religiosidad popular*, vol. II, Barcelona, Anthropos, 30-43 orr.
- MANTEROLA, Ander; ARREGI, Gurutzi (1978): *Apuntes sobre la religiosidad popular vasca en la vida tradicional*. In Euskaldunak V, 223-282 orr.
- PEREZ GAZTELU, Elixabete (2002): *Luis Jauregi, Jautarkol*. Bidegileak, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- REMENTERÍA ARRUDA, Daniel (2006): *Algunos conceptos teóricos para el análisis preformativo de un rito secularizado* In: HOMOBONO MARTÍNEZ, José Ignacio; JIMENO ARAGUREN, Roldán: *Formas de religiosidad e identidades*. Zainak, Cuadernos de Antropología-Etnografía nº 28, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 11-23 orr.
- RODRIGUEZ PEREZ, Ana Isabel (2002): *Las cofradías en Andoain en la Edad Moderna*. 2002an defendatutako tesina, argitaratu gabea.
- ROJO, Fernando; ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel (2003): *Dantza-soka Anoetan*. Anoeta, Anoetako Udal (liburuxka).
- SANTANA, Alberto; LARRAÑAGA, Juan Ángel; LOINAZ, José Luis eta ZULUETA, Alberto (2002): *Euskal Herriko baserriaren arkitektura I. Historia eta tipología*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- SORAZU, Emeterio (1979): *Antropología y religión en el pueblo vasco*. Donostia, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.
- QUIJERA, José Antonio (2001). *Folklore ikerketaren etorkizuna: erronkak eta beharrak*, in, XV Congreso de estudios Vascos: Euskal zientzia eta cultura, eta sare telematikoak, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- VALLE, Teresa del (1996): *Nortasuna, memoria eta botere-jokoak*. Uztaro 17, Eibar, UEU.
- VAN GENNEP, Arnold (1986, 1909), *Ritos de paso*, Madrid, Taurus.

7.3.- Erabilitako galdeketa gidoia²⁷¹

1. Haurrak izateko planifikaziorik egoten zen?
2. Mutila ala neska nahiago?
3. Zein neurri hortzen zuen emakumeak haurra ondo etortzeko? Medikura Joan? Noiz? Zer jaten zen orduan? Eta jantzi?
4. Nondik datoz haurrak, umeen arabera? Zeinek enkargatzen ditu?
5. Nor izaten zen haurra: etxearen/ospitalean? Noiz hasi zen ospitaleko 'moda'?
6. Nori aditzera ematen zaio eta zein bidetik haurraren jaiotza? Badago honen inguruau ohiturarik?
7. Zein pauso eman behar izaten ziren umearen jaiotzan? Zeintzuek hartzen zuten parte?
8. Non jartzen zen jaiberria? (Sehaska, ohea, mahaia,...).
9. Bataio gabe hiltzen bazen umea, zer egiten zitzaina? Asko hitzen al ziren?
10. Atzeratua edo gaixotasunen batekin etorri ezkero, zein izaten zen gurasoen ondorengo jarrera?
11. Zer egiten zen zilbor hestearekin eta haur lagunarekin? Zen neurri hartzen zen umeari ezer ez gertatzeko bataio aurretik?
12. Noiz (eguna eta ordua) eta non ospatzen zen bataioa?
13. Zeintzuek hartzen zuten parte? Zeinek eramatzen zuen haurra elizara?
14. Nola aukeratzen ziren aita eta ama pontekoak? Nola deitzen zitzaien? Nola gonbidatzen ziren?
15. Zeinek aukeratzen zuen izena? Bazegoen bata edo bestea aukeratzeko arrazoia? Zeintzuk ziren izen arruntenak?
16. Zer opari egiten zioten haurrari? Noiz?
17. Zer jantzi eramatzen zuen haurrak? Eta gonbidatuek?
18. Elizkizunaren ondoren zenbait eskaintzen zitzaien herritarrei, haurrei? Zergatik? Nola deitzen zitzaina?
19. Bazkariren bat edo egoten zen? Non? Zeintzuek hartzen zuten parte? Zer jaten zen? Nola deitzen zitzaina?
20. Egiten zitzazkien erregaluak ama eta haurrari? Zer eta zeintzuek? Nola deitzen zitzazkien?
21. Haurra izan eta gero, amak elizatik bedeinkapenen bat behar izaten zuen 'post partum'? Nola deitzen zitzaina? Zer eskaintzen zuen amak? Zer egin behar zuen edo ez zuen egin behar amak ordura arte?

22. Zer dieta jarraitzen zuen amak erditzearen ondoren? Zer egiten zuen?
23. Hurrengo umea ekartzeko denbora bat itxaron behar, ezta?

7.3.1.- Haurtzaroa

1. Urtebetetzea ospatzen zen? Nola? Zer opari hartzen zuen?
2. Umea nola erabiltzen zen kalean paseatzen?
3. Hertzak azkarteko eta ondo etortzeko zer egiten zen?
4. Oinez ikasteko?
5. Eta hitz egiteko arazoarekin baletor?
6. Jausitako hortzkin zer egiten zen? Opariren bat egoten zen?

7.3.2.- Jaunartzea eta nerabezaroa

1. Noiz egiten zen jaunartzea? Katekesia? Nola ospatzen zen?
2. Non elkartzen ziren neska-mutikoak? Elkarteren batean? Kalean?
3. Dantzak non eta nola egiten ziren? Zer dantza mota? Zer musika tresna?
4. Herriko neska-mutilik elizaren kofradietan elkartzen ziren? Neska eta mutilak batera?
5. Zein ekintza eta zein funtzio betetzen ziren kofradietan?
6. Zein adinarekin egiten ziren gazteak kofradia-kide? Noiz arte?

7.3.3.- Ezkontza

1. Gizon eta emakumeak elkarteko, edo batera hasteko, zer estrategia erabiltzen zen? Eta apurtzeko?
2. Elkartzeko tokia zein izaten zen?
3. Herriko neska eta mutil zaharrekin zer gertatzen zen? Jairen bat edo antolatzen zen? Nola?
4. Nola ikusita zegoen neska edo mutil zaharra gelditzea? Zergatik gelditzen ziren? Burlarik egiten zen? Zein izaten zen euren bizitza?
5. Egiten zen ustekabeko 'bisitarik' neska zaharren etxeetara? Noiz? Zerbait esaten zen?
6. Zeinek hasten zituen harremanak? Nola hasten ziren (hitzez, eskutitzez,...)? Nola onartzen zen harremana?
7. Noiz sortzen ziren harremanak errazago (udan, jaietan,...)? Zer nahiago: herritarra ala kanpotarra? Familien artekorik egoten zen?

8. 'Esku eskatzea' esaten zen? Gurasoek erabakitzenten nor-
eikin ezkondu? Oztopoak jartzen zitzuten seme alabak auke-
ratuz gero?
9. Noiz eta non elkartzen ziren ezkongaiak?
10. Bikotea nola ibiltzen zen ondoren lagun koadrilarekin?
Kanpotarrak herrian ondo ikusita zeuden? Zerbait egin behar
izaten zuten?
11. Ezkontza kapitulazioetan gurasoek parte hartzen zuten? Non,
nola eta non egiten ziren? Bertan ere ordezkoaukeratzen
zen? Zein baldintzak jartzen ziren? Eta egin ondoren nola
ospatzen zen?
12. Nola egiten zen eta nola ospatzen zen etxe desberdinako
gurasoena ezagutza?
13. Nola izaten zen dotea? Zer izaten zen? Noiz, nola eta nola
entregatzzen zen?
14. Hitzarmena edo kontrataua egin eta gero ezkontzen ez baziren,
orduan zer?
15. Zer motatako erregalua egiten ziren ezkondu aurretik?
16. Proklamak edo amonestazioak nola, non eta nola jartzen ziren?
17. Nola aukeratzen ziren aitapontekoak eta amapontekoak? Zein
zen haien betebeharra?
18. Non eta nola (menua, opariak, ekintza,...) egiten zen neska eta
mutilen despedida?
19. Zeintzuk gonbidatzen ziren ezteietara? Nork eta nola egiten
zitzutzen gonziteak?
20. Aita eta ama pontekoek egiten zuten erregaluren bat?
21. Ezkontza egunean elizara joatea nola izaten zen? Bazegoen
laguntzeko komitibaren bat?
22. Nola janzen ziren ezkonberriak? Aita eta ama pontekoak? Zein
egitura izaten zuen ezkontzak elizan eta kampaña? Apainduta
egoten zen eliza?
23. Non, noiz ospatzen ziren ezteiak? Zein motatako elizkizuna iza-
ten zen?
24. Ezkontza garaian hildako senideak gogoratzen ziren? Egiten zen
erritorik?
25. Baserri batetik bestera arreoa-edo eramateko noiz, zeinek, nola
egiten zen garraio hori? Elizara zerbait ekartzen zen? Animaliak
oparitzen ziren?
26. Ezkonduta etxe berriaren sarrera nola izaten zen? Nola egiten
zieten ongietorria senideei, animalieei?
27. Zein opari egiten zitzaien ezkonberriei? Eta ezteietara etorritakoei?
28. Eta ezkontza bidaia egiten zen?
29. Jatordua non egiten zen? Zer egiten zen? Zer jaten zen? Nota
kokatzen zen jendea?
30. Dantza eta jokorik egiten zen? Zein dantza eta joko mota?
Musika eta abestirik?
31. Ospatzen ziren eztei urturrenak?
32. Alargunak edo zaharrak ezkonduz gero, zerbait egiten zen?
33. Adulteriorik edo dibortziorik? Seme-alaba naturalik? Zer egiten
zen kasu horretan?

7.3.4.- *Heriotza*

1. Testamenturik egiten zen? Hilzorion zegoenari zein motatako
laguntza eskaintzen zitzaien senide eta auzotarren aldetik?
2. Heriotza zetorrela adierazten zuen ikerrik egon bazegoen? Nola
deitzen zitzaien agoniari? Agoniaren inguruau zer egiten zen?
3. Zeinek abisatzen zion medikuari eta apaizari? Zeinek laguntzen
zion biatikoari? Nola egiten zen azken igurtzia?
4. Hiltzen zenean, zergatik hil zela esaten zen? Nola izaten zen
heriotza (lasaia, baketsua,...)? Hildakoaren aurpegiaaren itxurak
badu zeresana?
5. Gelako leihoa, atea,... zabaltzeko ohiturak bazegoen? Arima
nondik irten zen? Zein forma izaten zuen? Non jartzen zen hil-
dakoa?
6. Heriotza gertatzen zenean, hori adierazteko zen egiten zen: lei-
hoak itxi (nola?), ispiatuak estali, armarriak estali?
7. Zeinek hartzen zuen etxeko lanen ardura hildakoentzako
Auzotarrak, hurbilenak...?
8. Zeintzuei eta nola aditzen ematen zitzaien hildakoentzako berri?
9. Hildakoaren gelan erretzen zen belarren bat edo? Zer?
10. Nola lotzen zen hildakoa? Jantzi, kongregazioetako jantziekin?
Garbitu (nork eta nola)?
11. Lotzen zen horretan zerbait jartzen zen? Hildakoentzako eskutan?
Hilkutxan edo hilobian? Argiren bat jartzen zen?
12. Gaubeila egiten zen? Nortzuek eta zer egiten zen?
13. Hiltzen zenean kanpaiak jotzen ziren? Nola deitzen zitzaien? Nola
izaten ziren? Elizkizunean eta ondoren ere jotzen ziren?

14. Hildakoa hilkutxan sortzen zen? Zein koloretakoa? Apaingarririk?
15. Hildakoentzako gauza batzuk egiteko debekua edo aholkuk zeuzkaten hildakoa etxearen zegoen bitartean?
16. Hildakoentzako aurrean zerbait egiten zen (jan, otoitz, arrosarioa,...)?
17. Elizara joateko etxe aurrera ateratzen zenean hildakoa, zerbait egiten zen? Botatzen zen etxeko sua? Nork?
18. Nola eta nortzuek eramatzen zuten hildakoa elizara? Zein orientazio zeramatzen?
19. Elizbiderik? Lur batetik pasatzeak zekarren elizbide bihurtzea? Bazegoen salbuespenik hori ekiditeko?
20. Elizbidetik joaten zen gurutzea eta biatikoa? Zeinek eramatzen zuen gurutzea? Eta parrokiako gurutzea eta biatikoa pasatzeak ere ekartzen zuen elizbide bihurtzea?
21. Nortzuek osatzen zuten hildakoaren taldea? Zein ordenatzen joaten ziren? Nola janzten ziren? Zer egiten zuten? Geldiuneak egiten ziren?
22. Non jartzeko zen elizkizunean hildakoa?
23. Zer motatako elizkizunak zeuden (primera...)? Ezaugarriak.
24. Negartirik bai? Nola deitzen zitzaien? Zer egiten zuten?
25. Ohitura da elizako antzinako hilobian argia piztea? Zeintzuek eta zer argizari kopuruaz hornitzen zen? Egiten zen eskaintzarik?
26. Zeinek eta zein kopururekin ordaintzen ziren elizkizunak? Erresponsuak eta... ateratzen ziren? Eta elizako hilobian zen egiten zen? Noiz pizten zen? Zeinek? Zenbat denboran?
27. Nola izaten zinen garai hartako hilobiak (elizakoak eta kanpo-santukoak)? Nola hartzen ziren, etxeko zati bat bezala?
28. Zeintzuk lurperatzen ziren etxe bateko hilobian?
29. Zeintzuk etortzen ziren elizkizunetara? Denek parte hartzen zuten? Nola?
30. Nola lurperatzen ziren hildakoa?
31. Hilda gero nola bueltatzen ziren etxera?
32. Etxean sartu aurretik zer egiten zen?
33. Egiten zen baziari edo afariren bat? Nola deitzen zitzaien? Zer jaten zen? Zeintzuk gonbidatzen ziren? Haragirkatzen al zen?
34. Zein dolumen mota hartzen dira etxearen eta senitartean? Zenbat denboran?

7.3.5.- Egutegiko ospakizunak

a- Gabonak

- 1.1. Nola izaten ziren Gabon egun garrantzitsuenak? ilusiorik egoten zen? Apaintzen ziren etxeak? Eta kalea?
- 1.2. Gabon egunetan noiz eta zen diru eskaera egiten zuten umeek? Zer kantatzen zuten? Zer eramatzen zuten? Zen ematen zitzaien? Nondik nora ibiltzen ziren? Zer egiten zuten bildutako gauzakin eta diruekin?
- 1.3. Gabonetarako su edo egur bereziren bat pizten zen?
- 1.4. Gabon eguneko afaria nola izaten zen (ordua, jatordua, oparia, kantua...)? Erregalurik banatzeko al zen? Olentzero edo antzerako pertsonaiarik izaten al zen?
- 1.5. Auzotarrekin eta senideekin hartu eman berezirik izaten al zen?

b- Urte berri

- 2.1. Urte berriari ongi etorría emateko ospakizunik egiten al zen? Nola ospatzen zen Urte berri ona auzotarrekin, etxeekoekin, animaliekin...?

c- Errege eguna

- 3.1. Errege gaua nola izaten zen? Zer kontatzen zuten gurasoek? Zer opari egiten ziren?
- 3.2. Elkarren artean egiten zen erregalarik?
- 3.3. Bazegoen Erregeak ordezkatzenko beste pertsonaiarik? Zer egiten zen egun horretan?

d- Kandelaria eguna

- 4.1. Kandelari edo... zein beste izen?
- 4.2. Non, nola eta zer eginez ospatzen zen?
- 4.3. Kandelak zertarako? Kandelak bedeinkatzen al ziren bakarrik?

e- San Blas

- 5.1. Noiz, non, nola eta zer eginez ospatzen zen? Opilak betidanik egon dira? Nolakoak izaten ziren? Zer egiten zen gero opilekin (jan aurretek)? Animalieei ematen zitzaien?
- 5.2. Zer gehiago eramatzen zen bedeinkatzeko San Blas egunean?

f- Santa Ageda

- 6.1. Santa Ageda bezperan kantatzen irteten al ziren gazteak? Zeintzuk? Etxe aurrean zer egiten zuten? Zer ematen zitzaien? Zertarako erabiltzen zitzutzen irabaziak?

6.2. Nola janzten ziren?

6.3. Noiz, non, nola eta zer eginez ospatzen zen Santa Ageda eguna? Jairen bat egiten al zen? Egiten zen diru eskaera edo bilketarik? Nola?

g- Aingeru Guardakoa

7.1. Noiz, zer eta nola ospatzen zen? Zeintzuek parte hartzen zuten? Zer bedeinkatzen zen? Egiten zen diru bilketarik? Bazkaldu, afaldu? Zer?

h- Iñauteriak

8.1. Karnabala, iñauteriak,... nola esaten zaio egun honi? Eta iñauteri aurreko egunei? Jendea mozorrotzen zen? Nola? Etxez etxe ibiltzen al ziren? zer egiten eta zer biltzen zen?

i- Errauts eguna eta garizuma

9.1. Baserrian eta kalean egun horretan zer egiten zen? Garizuman sartzeak zer suposatzen zuen? Zer debekatzen zen?
9.2. Ospakizun berezirik egiten al zen?

j- San Jose

10.1. Zer ospatzen zen?
10.2. Zeintzuek eta nola ospatzen zuten?

k- Erramu eguna

11.1. Ospakizun honekin zein ohitura zegoen? Erramua bedeinkatu ondoren, zer egiten zen berarekin? Gurutzeak etxetan eta soroetan jartzeko?

l- Aste Santua

12.1. Aste Santuok nolabait 'misoak' egiten ere prestatzen ziren, ezta? Nola egiten ziren? Zein etorri ohi zen?
12.2. Aste Santuek zer adierazi nahi zuten: otoitza, elizkizunak, gari-zumanen bukaera,... berriro zetorrela?
12.3. Noiz hasten ziren elizkizunak eta nolakoak ziren: osteguna, ostirala, larunbata eta igandean?
12.4. Prozesioak nondik nora eta nola egiten ziren? Zein santu ateratzen zen prozesiora? Zeintzuk ziren andazainak? Zer egiten zen?
12.5. Elizkizunaren ondoren zer egiten zen: merienda, musika, paseatu...?
12.6. Aste Santuak bukatzeak zer suposatzen zuen?

m- San Isidro

13.1. Nola zen eta nola ospatzen zen (bazkaria, musika....)?
13.2. Baserritarrek ezer berezirik egiten al zuten egun honetan?

n- Korputz

14.1. Festak Korputz egunera aldatu arte, zer jai mota izaten zen?
14.2. Elizkizunik egiten al zen eta zein motatakoa? Prozesioak izaten al ziren?
14.3. Zeintzuek eta zer eginez parte hartzon zuten? Nola apaintzen ziren bideak, kaleak, balkoiak?
14.4. Ohitura asko aldatu al zen, herriko festak aldatzean?

ñ- San Juan bezpera

15.1. San Juan bezpera nola ospatzen zen baserrian eta kalean? Zer adierazten du egun honek?
15.2. Errautsekin zer egiten zen?
15.3. Zer erretzen zen?
15.4. Dantzarik egiten zen?
15.5. Udaletxeak zeozer eskaintzen zuen?
15.6. San Juan eguneko egunsentian zer egiten zen? Oinutsik irten, loreak hartu, belarrak moztu...? Loreak eta ura bedeinkafu?

o- Andre Mari

16.1. Zer ospatzen zen? Egiten al zen prozesiorik, bedeinkaziorik?

p- Santu guztien eguna, arimen eguna...

17.1. Hildakoen alde zein eratak elizkizunak egiten ziren?
17.2. Egiten zen zerbait berezirik arimen egunean elizan edo kanpo-santuau?
17.3. Zer egiten zen arimen ondretako egunean?

q- Kontzesio amabirginaren eguna, Santa Luzia, Santa Zezilia, Santo Tomas...

18.1. Jai handiak izaten al ziren? Nola ospatzen ziren?


Creencias populares de Anoeta a través de su historia

Juantxo Agirre-Mauleon

Mikel Errazkin Agirrezabala

María José Hernández

Ana Isabel Rodríguez



Creencias populares de Anoeta a través de su historia

LA IGLESIA DE SAN JOAN, PATRIMONIO CULTURAL DE ANOETA

Juantxo Agirre-Mauleon

VIDA RELIGIOSA EN ANOETA EN LA EDAD MODERNA

María José Hernández, Ana Isabel Rodríguez

CREENCIAS POPULARES DE LA SOCIEDAD TRADICIONAL DE ANOETA

Mikel Errazkin Agirrezabala



Anoeta 2008



